


BEOBIDE'KO AITA Fr. KRISPIN

Asis'ke Loria



AUSPOA LIBURUTEGIA

ASIS'KO LORIA

AUSPOA LIBURUTEGIA

57-58

COLECCION AUSPOA

Administración: **Plaza de Santa María, 2 - Tolosa**
(Guipúzcoa-España) Tel. 661612

Dirección literaria: **Rvdo. P. Antonio Zavala, S.J.**
Estudios Universitarios - Mundaiz - San Sebastián

Ordaindu bearrak:

Urte betekoa: 280 pezeta Atzerrian: 380 pezeta
Ongilleak: 500 " Ale bakarra: 35 "

BEOBIDE'KO AITA Fr. KRISPIN

ASIS'KO LORIA

AUSPOA LIBURUTEGIA

1966

D. L. S. S. 518/66

**IZARRA - Peña y Goñi, 13
SAN SEBASTIAN - 1966**

BEOBIDEKO AITA Fr. KRISPIN, O. F. M.

1848-1891

Ain zaharra ezpada ere, guztiz ahaztu degu euskal idazle onen izena. Neroni ere pasatu egin zitzaidan gure literaturaren kondairan. Esker oberrik merezi zuen, ba, gure aldetik aren liburu eder-rak! Biografi-saillean agian ez degu euskeraz onen adiñekorik ezagutzen.

* * *

Aita Krispin Azpeitian jaio zan 1848 urtean, urriaren 25-ean. Aren aitak (azpeitiarra au ere) Franzisko zuen izena. Amak, berriz, Josefa Etxabeguren (Orendaingo alaba). Gaztetxo zala, Frantzia aldera jo zuen, mugaz beste aldeko Euskalerrira, Donapaleura (Saint-Palais). An frantsesa ikasi eta apaiz karrerako beste estudioak egin zituen, ta baita frantziskotar habitua artu eta profesia egin ere. Zergatik an? Garai txarra zan hura erlijiosoentzat. Espaiñian gizonezkoen Ordenak kendurik eta desegiñik zeuden. Frantzian, berriz, lehenago kenduak, baiña orain berpizten asiak ziran. Eta Donapaleun, ain zuzen, gertatu zan frantziskotarren berpizte hori. Aita Areso frantziskotar naparra, eta emendik joandako zenbait

praille euskaldun bildu ziran an, landare berri-
tuaren azia ereiteko. Oien artean zegoen Aita Ma-
nuel Beobide, gure Krispiñen osaba. Ortik kon-
prenitzen da zergatik joan zan ara Krispin gaz-
tea. Osaba praillearen itzalpean erlijioso-bizitza
egitera. Eta ez bera bakarrik. Krispiñek ba zituen
beste bi anai, bera baiño zaharragoak, eta bere
aurretik ara joandakoak: Antonio ta Joan. An
habitua artu ta Akitaniako probintziako seme
izan ziran irurak.

Baiña Krispin Kantabriako probintziara aldatu
zan gero. Emen ere frantziskotarren komentuak
burua jasotzen asiak ziran, ba. Eta 1875 urtean
(Donapaleun amar urte gutxienez egin ondoren)
Tolosara etorri zitzaigun, artean Diakono zalarik,
eta urte ortan bertan Vitorian apaiz ordendu zan.
1875-ko urte aretan Tolosako komentua berriz
idiki baitzan, baiña ez luzaroko. Karliten gerra-
tea zebillen, eta liberalak erriaz jaundu ziranean,
atzera sakabanatu bearra izan zuten prailleak, ahal
zuenak ahal zuen tokira. Gure Aita Krispin Za-
rauzko komentura joan zan.

Bitartean Frantziatik berriro egotziak izan zi-
ran prailleak, eta Antonio, Krispiñen anai zaha-
ria, Tolosara etorri zan. Etxe partikular batean bi-
zi zan bere habitu ta guzti, eta Irugarren Ordena-
ren ardura artu zuen. Il ere Tolosan bertan il
zan, 1884 urtean. Orduan, beren Zuzendaria gal-
du zutenean, Tolosako Irugarrendarrak Aita Kris-
piñekin oroitu ziran, eta Zarauztik Tolosara eka-
rri zuten berau aren utsunea betetzeko, Anaidia-
ren ardura ar zezan, alegia. Anaidi bapoa Tolo-
sako garai artan. Pobre ta gaxoei laguntzen lan

ederra egiten zuena. Anaidiaren elizkizunak San Franziskoren elizan egiten ziran.

Emen Tolosan zegoela argitaratu zuen Aita Krispiñek Asisko Loria, 1885 urtean, Mugerzaren inprentan. Dakigunez, oso ondo predikatzen zuen Aita Krispiñek, bai frantsesez eta bai euskeraz. Mixioak ere ematen zituen euskal errietan, Aitu Jose Esteban Epelderekin batean. (Biak ere gertukoak izan: bata azpeitiarra, ta azkoitiarra bestea). Eta azkenik, Tolosan bertan il zan, oso gazterik, 1891 urtean, maiatzaren 28-an.



Aita San Franziskoren Bizitza bikain bat utzi zigun Aita Krispiñek. Ez da, noski, kritikaren begiekin irakurtzekoa. Ba ditu leyenda eta asma-zioak kondaira balira bezela emanak. Muiñari bagagozkio, Chalipperi segitzen diola franko tokitan esango nuke. Baiña Aita Krispiñen liburua ez da itzulpen bat: aren arrobotik eta beste zenbait iturrietatik gaiak artu eta gero bere erara azaltzen ditu euskeraz. Aita Cornejoren Kronika ere erabilli izan du, batez ere San Franziskok Españian barna egindako itzulia kontatzerakoan.

Beronen izkeraz auxe bakarrik esango dizut. Liburu au eskuetan artu dedan bakoitzean, eta edozein zati edo orri, irten ala, irakurri ondoren, beti burutazio auxe etortzen zitzaidan gogora. Itxasotik irtetzen dana, burutik oiñetaraiño bustia irtetzen da. Aita Krispiñen garaian Gipuzkoa osoa zegoen euskaltasunaren itxasoak estalita. Esan nai det: zearo ta arras euskalduna zala gu-

re erria. Eta itxaso orren erdian murgildurik bi-
zi danari, jakiña, euskaltasun mardul gozoa dario
alde orotatik, nai ta ez. Eta auxe da gure Aita
Krispiñi gertatzen zaiona. Ar zazu eskuetan, eta
zerorrek probatuko dezu. Orduko erri euskeraren
ispillu jatorra utzi digu Aita Krispiñek bere libu-
ruan. Liburu au aztertzean konturatzen gera no-
raiño urritu ta bakandu zaigun euskaltasuna: itze-
tan, esaeretan, ta abar.

Asisko Loriak ba du, gaiñera, beste doai bere-
zurik edo arrazoirik guretzat maitagarri izateko. Ia
segurutzat jo diteke Anjeles Sorazu. anima jain-
kotiar hura, beronen irakurle zintzoa izan zala.
Liburu onek, alegia, gidatu zituela Anjeles Sora-
zuren lehen-urratsak santutasun bidean. Ploren-
txi (orduan ala deitzen zioten), Jainkoagana kon-
bertitu zanean (1889 urtean), Tolosan bizi zan,
eta atera-berria zan Aita Krispiñen liburua. Ba
dakiugu Irugarren Ordenan sartu zala eta Anaidia-
ren elizkizunak egiten ziranean, San Franzisko-
ren elizara joaten zala. Aita Krispin zan orduan
Anaidi orren ardura zeukana. Ortaz gaiñera, ber-
berak, bere bizitzan onako au esaten digu: ordu-
an, bere konbersioko lehen-illabete aietan, San
Franzisko imitatzeke asmo edo burubidea artu
zuela (Ikus Autobiografia, p. 28). Ez al da au
naikoa Aita Krispiñen liburua irakurtzen zuela
uste izateko?

• • •

Beste liburu txiki bat ere utzi digu Aita Kris-
piñek: «Jesus Aurraren Bederatziurrena»; Tolosa,
F. Muguerza, 1887.

Aita Krispiñen anai zaharrak - Antoniok -, Donapaleun bizi izan zan denporan, liburuska bat argitaratu zuen berak ere Irugarrendarrentzat. «San Francisco Asisacoaren hirugarren Ordenaco haurriden escu-liburua», Baionan, Vve Lamaignère, 1874.

* * *

Bazterturik izan degun Aita Krispiñen liburu bikain bikaiña argi zabalera irtetzen da berriz ere. «Auspoa» Liburutegiak eta Gipuzkoako frantziskotarren komentuek alkar arturik erabaki zuten edizio berri au egitea. Eskerrak, bada, Aita Antonio Zavalari S.J., eta Gipuzkoako frantziskotar komentuetako nagusiei: Aita Pedro Aranguren, Jesus Biain, Franzisko Agirre ta Yon Zubieta. Ortografia (ta puntuazioa ere bai zenbait tokitan) aldatu zaio edizio berri oni. Gaiñerakoan 1885-koari jarraitu gatzaizkio orpoz orpo. Izango al da orain ere, beiñola izan zan bezela, animei Jainko-bideetan laguntzeko, eta gure asaben izkera mardul hura alegiñean gordetzeko!

Aita Luis Villasante, O.F.M.
Arantzazun, 1966, Ilbeltzak 20

Iturriak:

Azpeitiko parroikiko bataio-agiriak.

Tolosako Irugarrendarren paperak.

Sor Maria Soledad Damborenea, Tolosako Erruki-Etxean moja dagoenaren esanak (90 urte ditu).

Donapaleuko Frantziskotarren artxibuko berriak
(Aita Arnaud Erdozaincyri eskerrak).

Kantabriako Probintziako Kronika, Aita Maizek
egiña (argitaratu gabea).

C. Chalippe, «Vie de Saint François d'Assise»,
Paris 1728.

Angeles Sorazu, «Autobiografía», Valladolid.
1929.

ASIS-CO LORIA

EDO

FRANCISCO SANTU AUNDIYAREN

ETA

POBRIEN AITA-LENAREN

BICITZA

BERE SEME BEOVIDE-CO AITA Fr. CRISPINEC

(min. obs.)

IZCRIBITUA

VITORIACO OBISPO JAUNAREN

ETA AITA SAN FRANCISCOREN ORDENACO CANTA-

BRIACO PROVINTCIA ONETACO BURU-NAQU-

SIAREN BAIMENACQUIN

TOLOSAN

Francisco Muguerza-ren moldizteguian

1885'an

LIBURU ONEN EGILLEAK
egiten dion eskaintza Andre Maria
doncella obengabeko Ama
Aranzazukoari

Nori obeto ezpada zuri nentzakio eskañi liburutxo au, o Donzella garbi Aranzazuko Ama maitte Maria? Arako zure auntzinako adiskide eta gure Aita-len santu, Franziskoren bizitza labur au, zeñak ere zuri txit asko zor zizula oi zuan aitortu Jaungoikuaren ta zure lana zalako aren santu izatia; ezin ta egokiago dagokizu liburu au, nun ere azaltzen dan zure esku aundi ta laguntza miragarria. Izanik bada zu, o Ama Aranzazuko!, Kantabriako euskal lur onetan Franziskok dituen seme guzien ama, orien arteko semerik txikienak egiten dizu liburutxo onen eskaintza; Franziskoren birtutien lora pillo eder, usai gozo bat bezela, nere arretak, gaizkitxo badere, bildu dutena.

Beobideko Fr. Krispinek

IRAKURLEARI ITZ BI

Irakurle ona:

Liburu bat jartzen dizut gaur eskuetan, txikia baña txit ona. Espirituko aberastasun aundi ta ugariak berekin dauzkana zuretzat, zu onezaz ondo baliatzera.

San Franziskoren bizitza irakurri biar dezu ez nola nai, ez arinki, baizikan geldi ta arretarekin, bera al dezun moduan iduritzeko, imitatzeke asmuarekin. Santuen gertaera birtutezkuak biar gaituzte birtutia maitatzera mugitu. Santuaren bizitza irakurte onek biar du izan animaren janaria, ta gorputzeko sentiduen griña txarrak ezitzeko indargarria. Beragatik asmo onekin egunian orritxo bat badere letu biar dezu. Zerorrek ezpadakizu lezten, beste bati irakur-azi egiozu. Asko dira San Franziskoren seme ta alabak beren Aita-lenaren berri txit asko ez dakitenak. Beraz zuek Iru Ordenetako anai-arrebak, bestiak baño ere Aita-len Santuaren ezagutza aundiagua zilegi da izatia. Bizitza onek berak gonbidatzen du bat ikastera. Aspaldi asi bazinan San Franziskoz miratutzen, zenbat alderagotik diozun begiratzen, ainbat geiago mirestuko zera. Saiatu zaite beraz Franzisko ezagutzen bere bizitza maiz goguan erabiliz; zeren

beraren ezagutza onek mugituko zaitu bera maiztatzeraz.

Franzisko zan gizon bat Ebanjelio santuko *konsejuak*, bat utzi gabe gordetzia asmuaz artu ta bete zuana. Jarraitu zien Jesus bere Jaungoiko ta maisuaren aztarn guztiei eta izandu zan aren antz egokia. Irazeki zuan gizonen biotzian Jaungoikoaren amorioaren sua, eta amorio onen garrak luzeruago iraun zezan, bildu zituan gizon Jaungoikuaren bildurrekuak, eta baliatu zan oetaz Jaungoikuaren gloriarik aundienerako ta animen salbaziorako, zeruko laguntzarekin batera, iru Ordena, Jesukristoren Elizan, zeñ-baño-zeñ miragarriguak jartzeko.

Gure santuaren bizitza onek, ez bakarrik kristau epel ta gaiztuak, baña oraindik geiago dana, santutasunaren ta Elizaren etsaiak berak arritu izan ditu. Geroztik baderitzat arako kristau Jaungoikuaren bildur santuan bizi diranen biotzak beraren amoriuaz are geiago sutzeko, txit gauza egoki ta baliotsua izango dala bizitza au maiz irakurtia.

Denbora berian arkituko dute ere emen beste asko kristau erok, Jaungoikuaren bildur gutxierekin zeruaz azturik, lurreko atsegin debekatu igarokorren billa dabiltzanak, beren animako eritasunen sendagai berezia.

Gure Aita San Franziskoren bizitza da graziazko mirariz ta Jaungoikozko gertaldiz guzia betia; beragatik, nere jakinduri eskasak ezin ondo adierazi dezakeana, ez eta ere inolako moduz biar bezela izkiribitu. Baña urtiak juañ dira ta igaruañ

dijuaz gure euskara maitian iñork izkiribitu gabe bizitza eder au. Au izan da ni geiena mugitu nauana liburutxo au izkiribitzera.

Aitortzen det ez detala izkiribitu gaiari dago-kion bezela; alaz guziaz ere, beste izdun ederra-go batek obetuago izkiribitu dezan arte, nai nuke, irakurle ona, zu onezaz baliatzia. Agur.

ASISKO LORIA

EDO

FRANZISKO SANTU AUNDIYAREN

ETA POBRIEN AITA-LENAREN

BIZITZA

LENENGO BURUA

San Juanen Apokalisiko zazpigarren buruan irakurten degu; Ikusi nuan beste aingeru bat igo-tzen zala eguzkiya jaiotzen dan lekutik eta zeu-kala Jaungoiko biziaren sillua. Itz oek azaltzian dio San Bernardino Senakuak bere irurogeigarren itzaldiyan: «San Buenabenturak itz oek azaldu-tzian aitortu zuan bazekiala ziertoro, Jaungoi-kuak ala agertu dien personengandik, San Fran-zisko zala seigarren silluko aingeru ura, zeña San Juanek adiazi zuan ikusirik aurrez Santu au ta bere Ordena espirituz». Bi Santu dira onela itzegi-ten dutenak.

Beste santu batek, San Antonino Florenziakuak ere, indartutzen du orain esan deguna. Zakarias Igarliaren amaikagarren buruan esaten da: «Lan-du, apaindu nituan bi zigor, bati deitu nion Eder-tasuna eta besteari Soka». Dio bada Santu onek

nola Juakin abade jakintsuak itz orietan aditzen zituan bi Ordena: *Edertasunian* Santo Domingorena; eta *Sokan*, San Franziskorena. Onela beraz, ikusten degun bezela, San Franzisko jaio baño lenago zeruak adierazten munduari santu miragarri onen santutasun paregabia, bada onek berekin eraman zuan Jaungoiko biziaren sillua aingeruzko gorputzian eta Serafin zerutarren espirituan.

Aur zorionekua jaio baño illabete batzuez aurretik ikusten zan Asisen gizontxo bat jendiari oiuka etorkizun on baten adia ematen, itz oekin. Pakia eta ona, pakia eta ona. Gizontxo au etzan geiago ikusi aurra jaio ezkeroz. Baita ere Santa Maria-Aingeruen Eliza inguruan ikusten ziran gabaz guztiz argi ederrak, zerbait berri on adiarazi nai zutenak. Gañera, denbora berian, Eliz ontan aditzen zituzten, inguru artan igarotzen ziranak, miragarrizko kantu gozuak. Duda gabe zeruko Aingeruak alabatzen zuten beren Erregiña, gero aur jaio biar zuan ark Maria alabatzeko bere Egoitza egin biar zuan toki artan bertan.

SANTUAREN JAIOTZA

Eldu ziran aurrarentzat bere amaren sabeletik irtetzeko egunak. Alere aurrak etzuan egunaren argirik ikusi nai oe biguñian. Jaiotzetik iltzeraño Jesusen antz osua izan biar zuan; eta nola Jesus etzan jaio Belenen biguntasunian, Asisko lore ederrak ere, etzuan biar beste jaiotzeko modurik Jesus bere ispilluarena baizik.

Egun batez, etxeak estu ta larri zebiltzan ga-

raian, sartu zitzaien gazte arrotz bat, eta ango iskanbilla ikusita esan zien: Ezta jaioko aurra, ezpada bere ama eramaten beko tresabira. Itz misteriotsu oek, sekulan aditu gabiak, gogoan artu zituzten. Izan ere, alako estutasunian, zer ez da egin oi? Eraman zuten andre Pika tresabira eta aurra beriala jaio zan.

Aur santu au jaio zan Asis deritzon Italiako erri batian; gure erospeneko amabigarren gizardiyan; milla-eun ta larogeita bigarren urtian, igandian, agorraren ogei ta seian. Asko jakintsuk diotenez, San Juan Bautistaren antzera, bere ama Pikaren sabelian izandu zan graziaz betia, jaio baño lenago santutua.

Francesco pieno di gratie e primo sanctificato, che nato.

Adiarazten digu kontairak nola andra Pikak etzuan matrimonioko aurreneko urtietan aurrik izan, eta ala nola beste orduz Anak bere negar ta orazioarekin logratu zuan seme bat, Samuel Jaunaren Igarlia, alaxen Pikak ere logratu zuala zerutik aur eder au.

Beraz oe biguñian ezin zana jaio, lasto gorrian ikusten da. O aur egiaz zorionekua, jaiotzaren lenengo ergaitik Jesus berri bat dirudiana! Abiatu ziraden beriala gazte arrotzaren billa, baño etzuten arkitu izan. Ongi ezagutu zuten guziak zeruko mandataria zala; eta alabatu zuten Jaungoikua.

Jaio zanetik irugarren egunian beste Aingeru batek arturik bere besoetan, markatu zuan aurra, eskuiko sorburuan gurutziaren señaliaz. Seña onek

beti iraun zion. Biurtu zion aurra ifudiari esanaz: Aur au izango da santu aundi bat: guarda biar dezu beraz arrisku guzietatik arreta berezi batekin.

Amabostgarren egunian izandu zan bataiatua. Baño ze bataio ederra! Ez nundik eta ez andik, ifiork uste etzuala, gazte arrotz bat eskaiñi zan aurra jasotzera. Len ikusi zutenaz oroituta, utzi zioten gazte arrotzari aurra jasotzen. Bataiua bukatu zanian, ez nora ta ez ara desagertu zan gazte ura. Onela bada gure santuaren jaio berrian iru Aingeru ikusi ziran: lenbizikua jaio baño len; bigarrena jaio ezgeroz; ta irugarrena bataiuan. (Ex Chronic et annai.)

Gaur dan egunian Santua jaio zan lekua dago Eliza egiña, eta deitzen diote, *San Franzisko aurra*. Eliza onen atar-buruan daude izkiribituri itz oek: *Hoc oratorium fuit bovis et asini stabulum*.

In quo natus est Franciscus mundi speculum.

Elizatxo au izandu zan idiaren ta astuaren ukullua.

Nun ere jaio zan Franzisko munduaren ispi-llua.

FRANZISKOREN LENBIZIKO IZENA

Bataiuan jarri zioten aurrari izena Juan. Izen onekin deitzen zioten bere aurtasuneko urtietan. Txit zetorkion egoki izen au berari. Juanek esan nai du *grazia*, zeñak ere egiten du gizona Jaungoikoaren adiskide. Nori dagoka obeto izen au

gure Santu Jaungoikoaren adiskide aundiari ba-
ño? Izenak diona izango da beti.

NUNDIK DUAN FRANZISKOREN IZENA

Gure Santua jaio zanian, bere aita Pedro Bernardon Moriko etzan etxian. Au zan gizon bat sal-erosiari oso emana, ta munduko ondasun ta aberastasunen adiskide biotzekua. Bere eginkizunak erbesteratzen zuten asko aldiz, eta egun aietan ere arkitzen zan Franzian. Gure Juantxoren gurasuak lureko ondasunak franko zituzten. Pedro Bernardon Morikoren biotza zan diru zalia, eta beragatik ez guziz emana animako gauzetara. Zan biotz gogorrekua, dirutiyak oi diran bezela. Pika berriz zan andre bat Jaungoikuaren bildurrekua ta biotz bera. Matrimonioko aurreneko urtietan ezpazuten ere aurrik izandu, jakin biar da Andre Pikak bere eskariakin logratu zituala bi seme. Lenbiziko izan zuna da gure Santua, eta bigarrena zan Anjel izena zuana.

Juan gure Santu pare-gabiak igaro zituan aurtasuneko urtiak ait-amen itzalian. Alegiaz saiatu ziran gurasuak beren semetxo Juani eskola ona ematen. Juan ongi baliatu zan eskolako orduaz. Ikasi zituan asko gauza. Ikasi zuan latina, ikasi zuan Franziaiko erdera ere. Musikua zan ta itz neurtuak izkribitzen zekiana, bersolaria. Guztiz ere aita leiatu zan bere seme Juani Franziaiko erdera erakusten. Aitaren naiari txit ondo semiak erantzun zion. Añ ondo ezik, francesen erderan egoki itzegiten zualako, aitak berak deitzen zion *Francesko*, eta emendik datorkio Fran-

ziskoren izena gure Juan santuari. Geroztik Franziskoren izenaz nola izan baitan deitua beti, emendik aurrera liburu onetan alaxe deituko diogu guk ere.

FRANZISKO ESKOLA-MUTILL

Gazte alaia zan Franzisko, lagun-zalia, eta lagunaz beti maitatua; jostatzallia ta umore onekua; bizkorra ta biotz onekua guziz; zan Asisko jendiak esaten zuanez *gaztetasunaren loria*. Lagun arteko gastuei, azi zanian zerbait, etziokan begiratzen; eta beti jostatzeko aurrena izanik ere, au izan zan gazte bat, iñoiz ere itz lasai bat bederik bere aurrian esatia ametitu nai etzuen. Ala, munduan jostatu zan denbora guztian, beti gorde zuan gai onetan biotza garbi.

NUNDIK SORTU ZAN SEMIARENGANAKO AITAREN ASERRIA

Diruak begiak okertzen ditu. Asko daukanak berriz, geiago nai izan oi du. Zerbait galtzia, biotzeko atsekabea. Lagun artian semiak egiten zituan gastutxuari begi errebesakin begiratzen zion Pedro Bernardon aita diru zale ark. Emendik izandu zuan asiera aitaren semiaganako aserriak ta ezin ikusiak. Amaren biotz gozuak beste alderditik begiratzen zien bere semiak egiten zituan egintzai. Gorderik zeuzkan bere biotzian bere semiagan ikusi zituan mirariak jaio zanian ta gero; oraiñ berriro Franziskoren pobre eskalien alderako urrikalmenduak asko gogoratze on

erakarten ziozkan burura. Eta egiaz arritu zite-
kian arrazoi aundiarekin gazte aren eskale-biar-
tsuen aldeko amorio ta naitasuna ikusirik. Ikus-
ten bazuan Franzisko gaztiak oetako bat, edo
luzatzen bazioten esku zabala, etzuan biotzik
zerbait eman gabe utzitzeko. Baña guziez gañ
eskatzen bazioten Jaungoikuaren amoriuaren ize-
nian biguntzen zan Santuaren biotza ta mugitu
miragarrizko moduan.

FRANZISKO URRIKALTZEN DA POBRIAKIN

Gertatu zitzaion, dendako eginkizunetan estu-
-estu zebillela, ez begiratzia Jaungoikuaren izeneko
bati; oroitu zan beriala bere utsegitiaz, joan zan
lasterka aren ondoren, eta, atxitu zuanian, eman
zion eskupian galanki. Ordu artatik artu zuan
asmua, Jaungoikuaren amoriuaren izenian eska-
tutzen zionari iñoiz ere ezer ez ukatzekua, ta
gorde zuan zorrotz asmo eder au ill-arteraño.
San Buenabenturaren iritzian au izandu zan bide
Jaunaren amoriuan añ asko aurreratzeko; zeren
ezta bide oberik zeruko laguntzak nork-berega-
natzeko, urrikizko lanak maiz egitia baizik.

FRANZISKORI AGERTZEN DIOTE ZERU-LURRAK BEREN NAITASUNA

Asisko erria Franzisko galai gazte birtutetsuaz
zeguan txit onratutzat, ala jotzen ziran asista-
rrak. Orobat zirudin zeruak. Gizontxo bat ikus-
ten zan Franziskoren ibilleraren zai, noiz erara

arrepatuko zuan aren aurrian zabaltzeko zermanan kapa; al zuan guzian alaxen egiten zuan, esaten zualarik Santuak igaro biar zuan tokian kapa zabaldua: Laster gazte onek egingo ditu gauza aundiak: mereziko ditu onra ugariak, eta izango da kristau guzietaz alabatua.» Etorkizunian ezagutu zan asmagi onen egia. Etziokan orduan Franziskok alako esanari belarri ernaitzen, naiz noiz-ere bait denaz onratua izango zala aditziak zerbait biotza kilikatu. Orduan jostatu biar zan.

Egun aietan Asis ta Perusa gudan sartu ziran, bakoitzak bere bandera guardatziatik. Edo lagun artian arkitzen zalako, edo beste gertakizun bategatik, ez dakigu nola, erori zan, beste askorekin batera, gure Santua, etsaiaren eskuetan. Sartu zituzten itxiyan. Illun arkitzen ziran geienak. Bat guzien artian oso illun ta deskontentu, iñor berari itzegiten trebetu ezin zan moduan. Gure Santua berriz, itxitegian egotiak batere estutu gabe beti zegoan alai, beti prest edozeinekiñ jostatzeko. Alderatu zitzaion gizon tratalkaitz, biurri, zital ari. Asi zan itz gozo ta eztitsuakin jolasian berarekin txurlio farragarrietan, eta, ordu gutxi baño len, kendu ziozkan barrengo illuntasunak. Beste asko itzen artian esan zien egun batez itz au: «Nere biotzeko adiskideak: urrikarri ikusten zaituztet, ez dakit zergatik: niri dagokidanez pozez nago ta espirituko libertaderik aundienian itxitegian egon arren. Desonra baderitzatzue ere, zuena bezela neria, emen gaudelako, laster ta sarri ikusiko nazute mundu guztiyaz onratua».

Duda gabe, zerbait illuntxo bada ere, Jaungoi-

koak azaldu zion etorkizunian gauza aundiren bat egiteko deitua zala. Urte bat bete zuan itxiyan, ta itzuli zan gero etxera.

Gazte eder, alai ta garbia ikusten degu Franzisko ogeiren bat urte zituan garaian. Jaungoikuaren amoriua aitatutziak biotza mugitzen dio; itz garbiya eztanik ezin eraman du; urrikaltzen da pobre bat ikusi utsarekin; diruari eztio ematen baliorik, ta beragatik eztio ere onek askori bezela begia argitzen; eztu zorigaitzak atsekabetzen; mukerkeriak dakizki ongina eztsuarekin sendatzen. Prenda ederrak dire, gaztiaren biotzak askotan ezagutzen ez dituanak, eta txit biotz on, espiritu aundi ta anima ederra zuala gure Santuak adierazten dituenak.

BIGARREN BURUA

ASTEN DA MUNDUAZ ASPERTZEN

Txit mira aundi ta ezkuak zeuzkan Jaungoikoak Franziskogan. Nai zuan biotz gazte ura len-bai-len aspertu zedin munduaz, beste bizitza obe bati ekin zekion. Etxeratu zanian, biali zion zeruak gaitz txar ta luze bat, zeñak oso joazi zion lur. Gaitz ondorian, artian oso sendatu baño len, irten zan kanpora, erriko aize osasun galgarriak utzirik, naba-mendietako aize garbitara. Kanpuaren edertasunari etziokan batere gustorik artu; aitzitik berak lenago ainbeste maita zituan gauzak berak, nola ziran zelai loretsu ta loretegi antolatuak, orañ guztiak gogoan jotzen zuten. Munduko gauzentzat sentitzen zuan mudantza oni, berak mira zeritziolarik, etzan arengatik aiek-gandik orduan osoro berezi. Sendatu zan bezain laster ongi leenagoko jostatzetara biurtu zan: eta eragin zien gurasuai soñ berria.

SOÑ BERRIAREKIN ESTALTZEN DU GUDA-GIZON BATEN GORPUTZ GORRIA

Jostatzeko griñak etzion gutxitu izpi batez pobrien alderako ongina urrikaltsua; aitzitik bai ikusten zan bere egite ta itzetan, oenganako amo-

rio guzizkua. Jaungoikuaren amoriua aditu ez geroz beriak ta beriak etzirenak emango zituan: dirurik ezpazuan, soñia emango zuan. Egun batez topatu zuan gudatar bat, gerra-gizon bat, jatorri onekuaaren antza zuana, baño txit gaizki ta zarpa zikin ta urratuz jantziya. Ura ikustiarekin bat gogatu zan errege guzien Erregiaren pobretasunaz; erantzirik soñian zeraman jantzi berri ura, jantzi zion pobreaki berak urrukiz beterik, eta, arturik beretzat gerra-gizon aren zarpak, jarraitu zion poz aundi batekin zeraman bidia. Nor ezta arrituko egite eder onezaz? Batez ere oroituta Franzisko zala, gazte alai bezela, apaindura zalia. Onelako birtutiak ezin zezakian ondoren txarrik eman; denborak eman zuan argiro ezagutzera.

BERE KONBERSIUA

Gabaz, egite onen ondoren, izandu zuan lotartian ikuskera bat txit miragarria. Ikusi zuan bada jauregi aundi ta eder gurutze santuaren seña markatutako armaz inguratua. Gelditu zan ariturik berari begira Franzisko, bere baitan esaten zuala: Ze ote da au? Alatan aditu zuan itz bat: Ok dira arma batzuek, Jaungoikuak zure ta zure soldaduentzat dauzkanak. Franziskok, espirituko gauzetan artian ez oso aurreratua, etzitan ongi aditu itz aiek; esan nai zutenaren adimenturik nola ez baizuan, gaizki aditu, ta beste adigarririk izan zezakiten itz esanak batere konturatu gabe, nola bere biotza beti aunditasun billa, ta bere burua nundik nora agertuko zuan zebillen, idu-

ritu zitzaion ta uste zuan armen bidez lo-tartian ikusi zuanak esan nai zuana betetzia.

Garai artan Napolesko erreinuan Gotier Brieanako kondiak egiten zion gerra bizia Alemaniako Enperadoriari. Erabaki zuan gure Santuak konde gerrariarengana joatia; egin zituan biar ziran prestagarriak ta agurtu zituan bere lagunak, esanaz: Laster ikusiko nazute Jaun aundi egiña. Agur.

Espoleteko errira eldutzian, nundik ere igaro biar zuan troparen agintaria arkitzen zan to-kira juateko, eztitasun aundiarekin esan ziozkan Jesu-Kristok gabaz itz oek: «Franzisko, zer nai dezu geiena bitatik? nai dezu izan morroi ala nagusi, pobre ala aberats?» Bereala erantzun zion Franziskok: «Jauna, naiago det nagusi ta aberats, morroi ta pobre baño». Orduan esan zion herriz Jesu-Kristok: «Zergatik bada uzten dezu Jaungoikua, izanik bera guzien nagusia ta nagusi aberatsa, gizon batengatik, zeña da morroia ta morroi pobre bat?» «Ai Jauna, Jauna! – diadar egin zuan orduan Franziskok, beste orduz San Paulok Damasco bidian bezela –. Zer nai dezu egin dezadan nik?» Erantzun zion Jesu-Kristok: «Zuaz atzera zure errira; zuk gabaz izan zenduan lotarteko ikuskera ark, ez dizu adierazi nai espirituko gauza baizik. Ez gizonengandik, ezpada Jaungoikuagandik itxoron biar dezu ark esan nai duana».

JAUNGOIKUAGATIK OÑAZPIRATZEN DITU GIZONEN ERRESPETU TA MUNDUAREN ESAMESAK

Lagun eta jendiaren esamesak ta gizonen errespetu ustelak oñperaturik, eta orien gogoraziua urrinatu ta aienaturik, egun-sentian zuzendu zuan oña erriruntz, Jaungoikuaren aginduari obedituz, Berari bere bizitza konsagratzeko asmuarekin.

Begiratu gabe bere biurtze lasterragatik jendiak esan zezakenari, itxirik belarriak gizonen esamesai, eta oñperatu onduan errespetu umanau, ainbeste on eragozten duan eritasun mingarria, Franzisko gogozko gerra-gizona, etsaia ikusi baño ere len biurtu zan bere errira eta aurkeztu zan jaioterrian. Nola zeguan munduari agur egiteko asmuan betiko, ezere gertatu ez balitzaio bezela, gonbidatu zituan bere lagunak, umore onian arratsalde on bat elkarrekin, Franziskoren asmuan azkenekua, igarotzera. Eztai gisako lege au igaro onduan irten ziraden aizetara. Alai guziak; bakarrik gure Santua bere biotzeko aloz arteko orri ezkutuak miratzen, nun Jaungoikuaren gogua arkituko duan gogatzen, jostatzi azturik. Ona nun bid-erdian gelditzen zaie lagunai bat-batetan korda gabe, esan zitekean etzala geiago mundu onetakua. Izutu ziran bere lagunak, zeren etzekiten zer orduan gertatzen zitzaion Franziskori. Baña Santuaren biotza, ergai artan munduaz azturik, arkitzen zan Jaungoikuarekin itzekida gozuetan. Lagunak beti jostatzeko prest, Franzisko kordatu zanian, nai zuten jakin zer izan zuan, eta egin zioten galde au: «Franzisko, zertan egon aiz edo zerk orrenbesteraño eraman-

dik gogoraziua? Duda gabe andragaia nola bi-
llatu egongo intzan somatzen?» «Egia diozute
– erantzun zien Santuak – ; artuko det esposa bat
besterik ez bezelakua, noblia ta ederra». Esposa
noble ta eder au, zan pobretasuna, zeña laztandu
zuan andikan laster. Eta egiaz noblia, zeren erre-
ge guzien Erregek, mundura etorri zanian, be-
sarkatu zuan. Egiaz ederra; zeren Jesus, Maria
ta Joserren alderdietan agertu zan ez-geroz ez de-
zakian ezertxok ere itxusitu. Beraz artu zuan
Franziskok esposatzat pobretasuna, besterik ez
bezelakua, noble ta ederra.

Ona zergatik, pobretasunaz itzegiten zanian,
deitzen zion beti itz txit gozo ta ezteikin, esposo
on batek bere esposari deitu oi dion itzakin: Po-
bretasuna, nere esposa ta dama maitia! Pobreta-
suna, nere biotzeko arreba!

IRUGARREN BURUA

GUZIA EMATEN DA ANIMAKO GAUZETARA

Orain ikusiko degu gazte Santua, len jostatzeko aurrena zan bezela, oso emana Jaungoikozko ta animako gauzetara. Izkiribiturik dago: Jaungoikuaren eskuan dago gizonaren biotza, eltzegillia- ren eskuan buztia bezela, Jaungoikuak egin de- zan biotz onekin nai duana. Franziskoren biotza ezagun zan noren eskuan zeguan. Jaungoikuari eman zan oso, bere gogua egiteko beste asmorik gabe. Bada ordu artatik, Jaungoikuak graziak ugaldurik, Santuaren biotza bakarrik sosegatzen zan Jaungoikuagan.

Denbora artan arkitzen zan gurasuekin etxian. Dendako lanen tartietan juaten zan arzulo bate- ra lagun on batekin, eta, au utzirik inguru artan, bere begi ederrak negar-malko ugariaz gorritu- rik, eskatzen zion Jaunari laguntza ta argiya, arren ezagutu zezan, Bera ongi serbitzeko, zer biar zuan egin ta zer bizimodu eraman. Onela orazio egiten zion maiz Jaungoikuari. Bide au da izan ere, alditekian onena, Jaungoikuaren naia ezagututzeko.

LAZTANDUTZEN DU LEGUEN-ARTSU BAT

Egun batian, Asis inguruko zelai batian zaldiz zijoala, ikusi zuan gizon lepradun, legenartsu bat, berari zetorkiola. Lendabiziko begiratuan barruna jiratu zitzaion. Baña gogoraturik beriala, birtuteko bidian beti aurreratzeko asmua artu zuala, eta Jesukristori jarraitzeko, aurrena nork bere burua biar duela garaitu, saltatu zan zaldi gañetik eta len ainbeste larritzen zuan gizon lepradunari eman zion laztan gozo bat eta gañera eskupeko sendo bat. Igo zan berriro zaldi gañera eta artu zuan zeraman bidia. Len ezin ikusi zuan gizon legen-arrak kutsatua, ta orañ ezin egon da berriz ikusi gabe. Begiratu zuan utzi zuan lekura ta iñor etzan ageri zelai zabal artan. Abiatu zan billa, baña etzuan arkitu. Laster jautsi zan kontuan, edo aingerun bat edo, gizon eriaren antz artan, Jesus izango zala. Pozez beterik ta zoraturik, zaldi gañian abiatu zan kantari Jauna alabatzen, berritzen zuala asmua are gogotiago birtuteko bidia jarraitzeko. Jesusen amorioz egin oi diran ill-araztiak, mortifikaziuak, grazia aundiaguak erakarten diozkate animari. Au ikusten da garbiro gure Santuaren bizitzan; zenbat eta geiago egiten dion kontra bere goguari, ainbat animosuago ikusten da beste garaimen bat irebazteko. Au da Jaungoikuaren graziak ematen duan indarra ta beraren ekarraia.

AGERTZEN ZAIO GURUTZEAN JESUS TA ALAITZEN DU

Bakardadiaren billa zebillen beti Jaunari orazio egiteko. Lenago esan detan bezela erretiratzen zan ar-zulo batera. An, bere biotza Jaungoikua-ren aurrian jarririk, estututzen zuan amoriuaren indarrak negar gogotik eragin azterafio. Gertatu zan bada, ala zeguan batian, zeruak bere eskari ta negarrak ontzat ematia, eta aditzera emateko Franziskori agertu zitzaion Jesus gurutzian josia. Jesus gurutzian ikusi zuan begiakin, ta betiko biotzian gelditu zitzaion. Bada oroitzen zan guzian ikusgarri artaz, negar egiten zuan aldi bakoitzian. Ainbesterafio sendo Jesus gurutzetuaren antza sartu zan Franziskoren biotzian eze, berak gero esan oi zuanez, oroitu bezain laster saltatzen zitziaion negarra ezin gelditurik. Negarrak, gero ikusiko degun bezela, illundu zion begietako argia. Orduan Jesusek adiazi ziozkan Ebanjelio santuko itz aiek: Nere ondoren nai badezu ibilli, uka ezazu zere naia, ar-ezazu zere gurutzia ta jarrai niri. Beste bein esan zion Jaunak: «Franzisko, nai badezu nere naia ezagutu, lurreko onginaiakin len maitatzen zenduan guztia, biar dezu orain gorrotatu ta despreziatu».

FRANZISKOREN POBRIEN TA ERIEN ALDERAKO AMORUIA

Orduan altxatu zan Santuaren biotzian sentimentu berri bat. Au zan, eritegietan serbitzekua gizon lepra edo legen arrak juak, umiltasunian Jaungoikua obeto serbitziagatik. Lenago ikara era-

giten bazioten ere, orañ asko maita zituan, asko ere asko, bere begiko niñia bezela. Lenago alako eritasuna zuanik urrutira ere ezin ikusi izaten zuan, eta, gertatzen bazitzaion aldamenetik igaro berra, igaroko zan beste aldera begiraka, korrika ta sudur-zuluak itxita. Ondoren dabill orañ, len urruti zebillena eta igesi. Juaten zan ospital, eritegira, eta an ikusten zan oe batetik bestera nolako moduz zebillen noizik beiñ eriarri eskuan ta arpegian laztan gozuak emanaz. Izanik guztiz Jaungoikuaren gogokua karidadezko lan aiek, Jesukristok berak artan irauteko adia ematen zion: «Franzisko – esan zion –, bide berri onetan ibiltziak etzaitu ikaratu biar; zeren len maitatzen zinzuzan gauzak biurtu biar badute latz, samin eta mingarri; orañ lenago nai etzituzunak idurituko zaizkitzu txit gozo, ezti ta maitagarri». Ala gero aitortu oi zuan berak gerta zitzaiola, batez ere ill zan aurrian, esanaz bere biziko gozamina izaten zuala bai animan nola gorputzian, eriak sendatzen ibiltzen zan denboran. Jaunen graziak onela dakizki nekiak arintzen.

Pedro Bernardon, Franziskoren aita, erbestertu zan batian, semiak esan zion amari: «Ama, gaur ogi asko biar ditu jarri maian». «Zertako dituzu orrenbeste ogi maian?» galdetu zion ama onak. «Ama, zertako izango ditut?... ara, esango det ba: ditut pobre atondora datozenai emateko len-bai-len; zergatikan atondoko eskari gaxuaren antsiak erdibitzen dit biotza». Ama-semiak bakarrik ziranian maian, auzuan iñor premi aundi batian arkitzen bazan, altxatu, ama bakarrik maian utzita, artu beretzat zeguan jana eta juaten zan

auzora premian zeguanari ematera. Franziskoren amari gustatzen zitzaizkan bere semiak egiten zituan karidadiak ta asko aldiz senerraren ixillik amak semiari laguntzen zion.

Biartasun mueta guzietako zuan Santuak amorio au. Ikusten bazuan Jaunaren Ministro bat edo eliza bat zerbaiten biarran, an zan beriala al zuan piskarekin laguntzera. Baña Franziskoren biotza munduaren erdiyan etzeguan sosegu osuan. Nai zuan bere burua ezkutatu ta bakardadian bizi. Au iristeko, Apostolu santuen obi ederrak ikusteko aitzakitan, jo zuan Erromara. Bere asmo egiazkua zan Apostolu santuen bitartekotasunaz baliatzia, jakin zezan Jaungoikuak zertara zeukan deitua. Eldu zan Erromara, ta Apostolu santuen onduan jarri zan Jaunari errezatzen. Oraziua bukatzian oartu zuan San Pedroren obi artan oso diru gutxi botatzen zutela batzuek, eta bestiak batere ez. Arriturik zeguan Santua esaten bere baitan gizonen añ karidade txikia ikusita: «Orrenbesteraño oztu da Apostolu santuenganako gizonen amoriua? Zer? obi au apaintzeko, nola ez diozkate eskaintzen gizonak dituzten ondasunak? Nola ez dituzte beren buruak ere eskaintzen?» Au esan ta zituan diru guziak utzi Apostolu santuen oñetan eta irten zan elizatik. Topatu zuan pobre talde bat, joan zan arpegi alaiarekin aien ertera eta premiarik aundiena zeukanari trokatu ziozkan bere arropak. Artu zituan zarpa zar pobriarenak, ta egun ura igaro zuan, bere burua zorionezko juaz aien artian. Gisa onetan aizatzen zituan munduko aiziak Franziskok. Gure Aitalen Santuaren egite onetan badaukate zer imi-

tatu, idurikatu, beraren seme-alabak. Apostolu santuen obi ura apaintzeko agertu zuan gogua, bere seme Aita Santu Sixto bostgarrenak bete zuan andik iru giz-aldira. Au da Vatikanoko deritzan munduko eliz-nagusia.

INFERNUA ABIATZEN DA GERRAN SANTUAREKIN

Santutasunari beti izandu dio infernuak gorrotua. Franzisko jaio zanian, nola jaio baizan Jesusen antzera, lenago esan detan bezela, asaldatu zan infernu guzia. Au jakin zan demoniuk arturik zeukan monje baten bitartez. Apaiza elizak artarako jarririk dauzkan oraziuk errezatzen ari zitzaion egun batian, esan zuan, gure Santua jaio zanian, infernuko agintari nagusien artian sartu zala ikara txit aundia, nundik ere ezagutu zuten aur jaio berri ark egunen batian izan biarke zuala Santu sonatua, kenduko zituana ta atzeratu infernuko bidetik asko anima. Erabaki zuala bertatik infernuak aurrari bizia kentzia al zuten lasterrena; baña ezin zutela, Jaungoikuak guardatzen zuelakoz. Monje aren gorputzetik, andikan urte askora, Santu infernuak ezin ikusi zuanak, bota zuan kanpora diabrua.

Franzisko aurrarekin ezin zuana ezer atera, asten da gerra agirikua egiten orañ Santuari ta ondartzeko garbia. Beñ bada agertu zitzaion izugarriko itxura gaiztuan diabrua. Amenazo aundiarekin esan zion Santuari: Baldin eta artu zuan bizi modu arri ezipazion utzitzen, errian berak eza gutzen zuan emakume eri baten antzeko jarriko

zuala. Au zan emakume eri bat gorputzez txit itxura txarrekoa. Aditu zuanian santuak diabruaren amenazua, burla egin zion diabruaren esanari, eta aldegin zuan onek laster oso lotsaturik andik. Infernua garaitzeko santuaren armak ziran oraziua ta penitenzia.

JESUKRISTOK ITZEGITEN DIO GURUTZETIK

Goiz zorioneko batian, Espiritu Santuak gidaturik, sartu zan San Damiano eliza zarrion orazio egitera. Aozpezturik lurrian egin zuan orazio era onetan: «Nere Jaun ta Jaungoiko aundiya eta zu nere Jaun Jesukristo, erregutzen zaitut arren desegin dezazula nere espirituko illuntasun au; indazu, Jauna, fede garbi bat; esperantza irmo bat; ta amorio bat uts-aldirik gabia. Indazu, nere Jaungoiko guzi-altsua, zu ondo ezagutzeko grazia, zure gogo santuak nai duan bezela, nik beti gauza guztiyak egin ditzadan zure biotzak agindutzen dirana egiñaz.» Iru aldiz, beste orduz Jesus-ek Getsemaniko baratza santuan egin zuan gisako orazio au, egin zuan Franziskok San Damiano elizan gurutzia-aren oñean. Bat-batetan ona nun aditzen duan agitz ta garbi itz bat: «Franzisko, zuaz, zuzendu zazu nere etxia, bada erortzera dijua ikusten dezun bezela.» Arritu zan lenbizi itz oek aditu zituanian bera besterik arkitzen etzan lekuan; baña beriala ezagutu zuan Jesukristok gurutzetik itzezin ziola, ta gelditu zan mugimentu gabe ta zentzu-gabe, *extasiatua*. Kordatu zanian, gogatu zitzaizkion itz misteriotsu

aiek eta aditu zuana egiteko, asi zan, denborarik galdu gabe, Jaungoikuaren naia betetzeko bi diak egiten.

Bi modutara aditu zitezkie Jesukristok gurutzetik esan ziozkan itzak. Bata da, ta au da Jesussek adiazi nai izan ziona, zuzendu zitzala, au da, jarri zitzala salbazioko bidian, berak bere odolaz erosi zituan animak (1). Eta ala nola lenago baliatu zan Apostoluaz Eliza sendotuzteko, alaxen nai zuan Franzisko apostolu berriaz baliatu Eliza bere Etxia zuzendu eta antolatzeke, pekatariak konbertituaz ta Ordena berria onetarako jarriaz. Etzuan orduan gure Santuak gauza onela aditu. Bai ordia itz aiek bigarren esan nai zutena, au da: San Damiango eliza ura berrituz antola zezala. Bertatik ekin zion lanari.

(1) Bada kristau fededun leial guztien billera deitzen da Eliza.

LAUGARREN BURUA

SAN DAMIANGO ELIZA BERRITZEKO SALTZEN DITU OIALAK

Aurrena egin zuana zan San Damiano apaiz jaun D. Pedrori uztia zeraman dirua, jarri zezan, itz misteriotsu aiek irten ziran gurutze santuaren aurrian, lanpara bat gau ta egun pizturik egon zedin. Egunetik egunera Jesusen Pasio ta eriotzaren jaiera, irazekiago egiten ari zan Santuaren biotzian. Ordutik gurutze baten ikuste utsak eragiten zion negar ugari, begiak gorritu ta odoldutzeraño. Negar egitia bat zan; gañera zaitzen zuan bere gorputza gogor, ta lotutzen zuan gerriko latz batekin larrua ebakitzeraño. Itz batez illarazte aundiakin lankozten zuan ordukoz bere burua.

Astirik etzion ematen San Damiano elizak, Jesukristok gurutze santutik agindu ziona bete biar zan. Beste askotan egiten zuan bezela, nola aita etxian etzanean dendako ta gañerako juañ-
-etorri ta sal-erosien kontua berak eramaten bazu-
zuan, eta orduan ere aita erbestian zuan, artu zitu-
-an oial batzuek eta bere zalduyan jarririk, joan
zan Foliñoako erriko feriara. Saldu zitu-
-an oialak, baita ere bere zalduya. Itzuli zan oñez bere
errira, ta, denborarik galdu gabe, D. Pedro apaiz

jaunari nai ziozkan eman diru aiek guztiyak, eliza berritzeko izan ditezela esanez. Etzan trebetu orduan apaiza diru ura artutzen, ez Franziskok ezin zualako nai zuana egin diru artaz ta geiagoz ere, baizik Pedro Bernardon nor zan ondo zekialako. Franzisko arkitzen zan ogei ta bostgarren urtian: asko irabazten zuan aitarekin batera: seme zarrena zan gañera: gurasuak txit zituana aberatsak: zaldiya beria zuan. Aitaren paltan geroz ura ta geiago egin zezakian. Eta nork daki bere amarekin elkar artuta egin bazuan ere? Gañera Jesukristok agindu zion berritu zezala bere etxia; legez era artan egin zezakiala, duda gabe uste zuan Santuak, eta, berari tokatzen zitzaion senipartia izango bazan ere, saldu zituana bidez ta legez oialak ta zaldiya.

Laster ikusiko da nola mirari aundi batekin, zeña Jaungoikuak bere aitaren aserretik Franzisko libratutzeko egin ta adiazi zuan, ontzat ematen zituala Santuaren egitiak. Beragatik zorioneko saltzia deitzen dio oni San Buenabenturak.

Jesusen Biotzak gurutzetik agertu zion amoriuak tiratzen du bere aldera Franziskoren biotzeko amoriua. Nai du egin bere egoitza San Damiango gurutze santuaren onduan; ona zergatik D. Pedro apaizari eskatu zion bizitzeko lekua bere etxian. «Bai –erantzun zion D. Pedrok –, nai badezu nerekin egon egun batzuetan, nere etxeko atiak zuretzat idikiak daude beti; baña diru ori ez dizut orañ artuko.» Nola diruari autsari baño geiago etzion begiratzen, tira zuan elizako leio batera; eta gelditu zan apaizarekin.

FRANZISKO BERE AITAREN IGESI

Pedro Bernardon etxeratu zanian, jakin zuan bere seme zarrenak zer egin zuan. Nola baizan, len zerbait adiazi detan bezela, gizon bat oso aberastiari emana, diru-pillak begia zorrozten ziona, ta lurreko ondasunetara guzia itxutua, sartu zan aserre biziyan bere semiarentzat. Juaten da D. Pedro San Damianguaren etxera, galdetzen du bere semiaz ta abiatzen da etxia miratzen. Sartzen da Franzisko zeguan gelan; eta – o mirari aundiya! – ez du ikusten. Zer gertatu zan? Aitararen aserre ura ikusi zuanian, Franzisko jarri zan gelako atiaren atzian, paretiazen ta atiaren tartian; ta, oso atia idiki zutenian, paretiaak, argizari biguñia bazen bezela, leku egin zion Franziskori, bera bete-beteko zulua eginik. Ona zergatik Aitak etzuan ikusi. Semia arkitu etzuanian, Bernardonek aldegin zuan andik ez txit erraz. Onela Jaungoikuak ontzat ematen zituan, miraria eginik bera guardatzeko, gure Santuak egiten zituan lanak. Duda gabe Jaungoikuak berak mugitzen zuan Franziskoren biotza lan aietara. Etxe artan gero jarri ziranian Santa Klara ta bere alabak, etzuten desegin paretoko zulo ura; ta gaur dan egunian ikusten da orañdik, eta dago an Santuaren iduri eder bat. Aldegin zuanian Pedro Bernardonek, irten zan andik Franzisko ta ostartu, erretiratu zan leize-zulo batera, bere lagun batek baizik beste iñork ere etzekian bakardadera. Onak eramaten zion bizitzeko jan biar zuana. Illabete igarro zuan orazio gartsu ta illarazte gogorretan.

SARTZEN DU AITAK ITXIAN ETA AMAK IDIKITZEN DIO ATIA

Luze iritzirik bere bakardadeko egoerari ta gañera bere burua kobarde eginik, irten zan leize-zulotik; alaiturik bere biotza etsai aundi bat garaitu biar duan baten gisan, dijua zuzen bere ait-amen etxerunz. Baña ikusi zutenian itxura txarrian, arpegi eder ura diena itxusituta, jantzi arekin, mutil koskorrak inguratu zuten etxera eldu baño len. Egun artan ederki jostatu nai izan zuten Santuarekin. Batzuek deitzen zioten erua, bestiak tiratzen zioten loaia, guztiak egin biar zioten zerbait desprezio. Santua zeguan guzien artian ixil ta umill, Jesusen amorioz eramaten al zuan ondoena. Jakin zuan Pedro Bernardonek nola zebilkien bere seme Franzisko. Irten zan etxetik beti aserreturik; arkitu zuan noiz-ere-bait. Artzen du besotik, ta amenazua ta errabia agertzen duala itz bakoitzian, an derama, bildots umill bat loturik eraman oi dan bezela, etxera. Saiatutzen da semia atzeratu nairik artu zuan bizi-modu artatik, baña alferrik; amenazatzen du, ta alferrik. Nola utzi zekiokion artu zuan bizitzari, zeruak agindurik artu bazuan? Ezin besterik iritxi zuanian, sartu zuan itxiyan eskallerape illunian. Ogei ta bost urteko semia aita gaiztuak onela dabilki! Alere gure Santuak pozik au guzia eramaten zuan. Sentitzen bazuan ere bere biotzian aita batek au egitia, negarra begira erakarteraño, alaitzen zuan bere biotza arako Ebanjelio santuko itz oekiñ: «Zorionekuak justiziagatik sufritzen dutenak, zeren aena dan zeruetako erreinua». Franzisko egon zan toki ura Españiako errege Fili-

pe irugarrenaren aginduz, an praile-etxia egin zanian guardatu zan ta oraindik ere ikusten da.

Amaren biotz biguñak ezin zuan eraman aitzak bere semiarekin egiten zuan gogortasun ura. Ona zergatik, Pedro Bernardon bere eginkizun batera erbesterratu zan batian, emaztiak beregañ arturik senarraren aserria, idiki zion atia bere seme biotzekuari, ta, emanik laztan gozo bat, libre utzi zion esanaz: «Zuaz, nere biotzeko seme maitia, Jaungoikuak deitzen zaituan lekura; egin dedilla Beraren gogo santua.» Amari esker onak eman ta lasterka ariñian juan zan San Damiango apaizaren etxeruntz. Emen arkitzen zan Santua, Bernardon etxeratu zanian. Gizon aserreti zitalak somatu al guziak bere emazte onari esan ondorian, irteten da etxetik bere semiaren billa.

FRANZISKO BERE AITAREKIN OBISPUAREN AURRIAN

Erio-suarrian jotzen du Pedro Bernardonek San Damiango apaiz-etxia. Franzisko, len baño birtutian indartsuago, ezta gordetzen. Aurkezten zaio umill aitari. Aitaren esan guztiyak aditu zitan. Esaten zion ganbiatu zezala artu zuan bizi-modu berria lenagokuan; baña alferrik izan zan: Franziskoren oña etzan toki-aldatu, etziokan ere Jaungoikua obeto serbitzeko asmuari ukamenik eman. Etsi zuanian ezin ezertxo ere zezala semiarekin, galdetu zion: ea zer egin zuan zaldi ta oialaren diruaz. «Ortxen daude leyuan», erantzun zion. Pedro Bernardon diru zalia, dirua ikusi zuanian, zerbait gozatu zan. Baña nola ar-

kitzen baizan bere semiak diru geiago izan biar zuala errezeloz betia, etzen ase aitaren biotza diru arrekin ta eraman zuan juezaren aurrera. Bazekian onek Franziskoren berri zerbait, edo Franzisko *tonsuratua* zegualakoz edo zekialakoz Obispo jaunaren *penitentia* zala edo beste motiburengatik, esan zion juezak, Obispo jaunak erabaki biar zuala gauza ura. Etzan atzeratu ainbestez Bernardon ta eraman zuan semia Obispo Jaunaren aurrera. Franzisko aurkeztu zanian bere espirituko aitaren aurrian, Pedro Bernardon bere aitari itzegiteko astirik eman gabe, erantzi zan bere soñeko arropaz larru-gorriraño, eta biurtu ziozkan aitari, zeukan diru pixkarekin batera, esanaz: «Orra nik ditudanak. Ez bakarrik oriek, baita ere utzitzen diot tokatzen zaitan senipartia. egin dezan nai duana; nik ez det mundu onetako gauzarik nai. Orañ arte zu izandu zera nere aita lurrekua, baño au ere uzten dizut; zergatik Aita bat daukat zeruan, nere arreta artutzen duana, zeñari iñoiz ere baño gaur deitu nenkioke egiaz ta deitzen diot: Aita guria, zeruetan zaude-na, zu zera nere aberastasun guzia.» Egite miragarri onek negarra atera cien an arkitzen ziran guztiei. Franziskoren gerrian gañera ikusten zuten gerriko latz bat, au da *zilizio* mingarri bat. Obispo Jauna altxatu zan Franzisko erantzi bezain laster, ta, negarra begian zuala, bere kaparekin estali zituan Santuaren alderdi gorriyak. Agindu zuan ekarri zeyotela zerbait Santua jantzitzeko, eta, agindu bezela, ekarri zioten txamarrara luze bat, zeña jantzi zuan poz aundi batekin Santu miragarriak; baña, jantzi baño len, ieltso

puska batekin gurutze aundi bat seña egin onduan. Au gertatu zan milla berreun ta seigarren urtian, ogei ta bost urte Santuak zituan garaian.

JOTZEN DU ERROMA; BIURTZEN DA ASISA ETA EKITEN DIO SAN DA- MIANGO ELIZA BERRITZIARI

Gure aita-lena, Asisko lore ederra, txamarra zar batekin pozik ikusita, bere seme-alabak biar luke lotsatu gogoraturik zeñ gutxi dauden beren aitaren antzera ebakiak, munduko moda animaren kaltegarri diranai arreta ezin ta aundiaguarekin jarraitzen diela, artaraxe biartuak baleude bezela.

Libraturik Franzisko aitaren mendetik, bakar-dadia nai zuan billatu ta jo zuan mendira. Kantari Jaungoikua alabatzen espirituko libertaderik aundienian zebillela, erori zan lapurren eskuetan. Galdetu zioten zeñ zan, eta erantzun zien Franziskok, bere etorkizunaren berri zekian batek bezela: «Ni naiz Jaungoiko Errege aundiaren eraldua». Santuaren esan au artu zuten ero baten esantzat lapurrak, eta bota zuten amilka, elurraz estalirik zeguan erreten batera, esanaz: «Egon ari orañ or etzana, gero noizbait artalderen baten artzai basatiya izango aizana.» Nola-ere-bait irten zan andik ta berriro Jaungoikua alabatzen abiatu zan kantuz.

San Benitoren semiak bizi ziran inguru artan eta gosiak eraman zuan aien atonduan bizitzeko biar zuana eskatzera. Erlijioso aeri gazte arren

umiltasunak irebazi zien bioza. Sartu zuten barruna eta eman zioten biar-gai bat beenekua, zena zan sukalkinari laguntzia. Egun batzuek igarozituan an, ta irten zan gero andik esker onak emanik; bada iruditu zitzaion Jaungoikuak etzuala deitu an egotera. Gubioko errira eldu zanian, topatu zuan bere lenagoko adiskide batek, eta gaizki jantzirik bazeguan ere Franzisko, adiskide onak ezaguera eman zion. Gero esan zion: «Franzisko, txamarra ori motzegi daukazu; nik egingo dizut tunika bat luziagua, eremutarrak izan oi duten gisakua». Franzisko jarri zan bere adiskidiaren esanera. Jantzi zuan tunika; lotu zuan ere gerria larru txabal batekin, eta, makillatxo bat eskuan arturik, abiatu zan Erromarunz bidegiten. Erroman, elizako egitekuak egin ondorian, joaten zan eritegietara eta an igarotzen zuan gañerako denbora karidadezko lanetan. Naikua amorio eri-gaxuai agertu zienian, erabaki zuan Asisa itzultzia. Espoletoko errian topatu zuan gizon bat min-biziak ezpañak eta sudurra jana. Franziskori ofñian nai zion onek muñ egin, ta onela agertu, erien osasuna zanari, bere onginaia. Etzion utzi nai Franziskok ainbesteraño umillatzen gizontxo ari, zergatikan umillatzeko gai onetan berak nai zuan aurrena ibilli. Beragatik arpegi nazkagarri artan eman zion laztan gozo bat. Eta, – o arrigarria! – laztan arekin sendatu zuan oso min-biziak ainbeste penatzen zuana.

Sartu zan Asisen kantari Jaungoikua alabatzen, ta kantoi iskinetan bere kantuzko saiua egin zituanean, joan zan San Damiana. Eliza berritzeko lanari asi biar zitzaion ta abiatu zan eskian.

ESKATZEN DU ATEZ-ATE ASISEN

Egunero etxez-etxe zebillen Santua San Damiano eliza antolatzeko biar zuanaren eske. Iseka ta burla egiten zioten askok, beste batzuek berriz urrikaldurik ematen zioten zerbait. Bere alegiñaz saiaturten zan. Kopetako izerdiari begiratu gabe laguntzen zien argiñari lanian. D. Pedro apaiza gazte aren leialtasunari txoraturik zeguan begira. Arritutzen zuan Franziskoren birtute aundiak. Arkitzen zuan edozeini eskatzen zion Franziskok. Ala esan oi zuan: «Arri bat ematen diranak, izango du sari bat; bi ematen dizkidanak, izango ditu bi sari; iru ematen dizkianak, iru». Santu langillari apaizak ematen zion otordu polit bat, indartu zedin zerbait, baña Santuari iduritu zitzaion biguntasun geiegirekin bere gorputza tratatzen zuala. «Zer? – esaten zion bere buruari –, billatuko ote dek nun nai apaiz bat D. Pedro bezelakua iretzat onginaiz betia? Ez, au ez da nik aukeratu detan bizimodua. Beraz gaurtik aurrera jua nadin eskera, eskatu dezatan etxez-etxe bizitzeko biar detana Jaungoikuaren amoriuagatik. Gisa onetan bizi biar det, nere amorioz pobretasunaren biotzian bizi ta ill zanaren izenian.» Onela erabaki onduan, biaramunetik arturik katilu zokon bat abiatu zan otorduko garaian atez-ate eskian. Ematen zioten dena katilu artara kondentatzen zuan. Ontzi egoki ura biar aina bete zuanian, jendiak ikusteko tokirik agiriñian, edo arri baten gañian eserita edo lurrian, abiatu zan jaten; baña lendabiziko aokada, auan sartu baño len itzuli zuan, ezpañak ukituta, katilura: zeren ango naskunde ark barren guzia

ira-biratu zion. Bañan beriala, pobretasun bere es-
posa maitiaz oroiturik eta lotsaturik bere birtute
txikiaz ta argaltasun aundiaz, menderaturik gor-
putzaren kutizia, gogoz edo gogo gabe asi zan
jaten. Katilua ustutzen zijuan bezela, len nasmen
ark ematen zion larria zijuakion ere gutxituz.
Onela ostatu merke oni gusto artu zion, alako
moduan eze, ez bakarrik azkenerako artzen zion
gusto ona janari arri: baño oraindik, berak esan
oi zuan, bere bizian jatordu oberik etzuala egin
izan, nola orduan.

Joan zitzaion San Damian-go apaizari eta poz
aundi batekin esan zion: «Apaiz Jauna, topatu
det sukalkin bat guztiz modu onian, eta berorrek
baño ere obeto jana maniatzen dakiana. Ez beza
geiago, janaren gañian, emendik aurrera, nere
konturik izan».

AITAREN TA ANAIAREN DESPREZIUAK NOLA ZITUAN ERAMATEN

Franzisko gure Aita-len santua bere aita Pe-
dro Bernardonek ikusten zuanian eskian, mada-
rikatzen zuan, eta aitaren madarikaziuak semia-
ren biotza ezin eta geiagoraño penatutzen zuten.
Aitaren madarikazio ayezaz aztu zedin edo bein-
tzat zerbait arindu sentitzen zuan naigabia, so-
matu zuan modu bat txit egokia. Aitona eskale
bati esan zion bein: «Begira: baldin nik esana egi-
ten badezu, nik zuri jaten billatuko dizut.» Aito-
nak: «Pozik.» «Ona bada zer biar dezun egin:
nere aitak madarikatzen nauanian, zuk bedeinka-
tuko nazu.» Ala esaten zion Aita mingaño gaizto-

kuari madarikatzen zuanian: «Sinistatu biar dit, aita, Jaungoikuak eman ditala beste aita bat, zeñaren bitartez datorzkit bendizio ugariak, zuk madarikatzen nazun aldi bakoitzian.»

Bere anai bakar Anjelek ere azkenik burla ta farra egiten zion. Bein batian Franzisko arkitzen zan elizan otzak-ikara bere oraziuak egiten. Bere antzeko lagun bat biali zion Anjelek esanta: «Joan akio ta galdetu iok, zenbatian salduko ditan izerdi piska bat.» Erantzun zion Santuak Jaungoikuaren argitasun aundiarekin: «Nik ez daukat nere izerdia orren merke gizonari saltzeko; garestiango salduko diot nere Jaungoikuari.»

ERRI GUZIYAK AZKENIK MAITATZEN DU FRANZISKO ETA LAGUNTZEN DIOTE SAN DAMIANGO ELIZA BUKATZEN

Franziskoren birtute aundiak azkenerako bereganatu zituan guzien biotzak. Eta egiaz beti gertatu oi dana birtutia izanik berez maitagarria, birtutiaren maisiatzallerik aundienak biartu izan ditu arrazoa oni ematera. Ikusi degu Franziskoren egiteai nola oztasunarekin Asisko jendiak begiratzen zion asieran, baña gero, ezagutu zutenian Asisko loria bere edertasun guzian, txit maite zutela eman zuten aditzera. Franzisko arkitzen zan birtutian orduko z txit aurreratua.

Lenago isekatzen zutenak orañ barkaziua eskatzen diote. Lenago ezere eman nai etziotenak, orain ematen zioten asko. Alako moduan ugaritu ziran emailiak eze, milla berreun ta seigarren urtian bukatu zituan San Damiano elizako

lan guztiyak. Esan oi zien lanian ari zan denboran an igaruan zijuazen jendiai: «Lagun zadazute eliza au bukatzen, zeren, emendik denbora gutxira, emen bizi biar dute dama pobretxo batzuek, guziz bizi-modu santua eramango dutenak eta santutasunaren usai gozua barriatuko dutenak Eliza guzira gure zeruko Aitaren onran.» Gauzak egiztatu ziran Santuak esan bezela. Andikan bost urtera Santa Klara bere alabakin konsagratu ziran leku artan.

Bukatu zuanian San Damiango eliza antolatzia, Jesukristok itzegin zion gurutziauren aurrian, nai izan zuan egon zitezen bi argi gau ta egun pizturik. Bein batian oliyo eskian zebillela argiarentzat, gertatu zan joku-etxe batian. Ikusi zituan an bere ezagun batzuek, eta lotsaturik bere buruaz, oñak egin zion atzera. Bañan beriala ezaguturik gaizki egin zuala, biotzari indar eginaz, sartu zan jende taldia zeguan tokira, aitortu zuan bere lotsa ta argaltasuna; eta jendiaren paragarri geiago izan zedin, eskatu zien Franziaiko erderan oliyo piska bat argiarentzat. Onela dakizkite Santuak argaltasunak garaitzen.

BOSTGARREN BURUA

ANTOLATZEN DITU SAN PEDROREN ELIZA ETA SANTA MARIA AINGERUENA

Beraz San Damiango elizan jarri zituan bi argi eder olio garbizko, beti egon zitezten pizturik Jesussek gurutzetik itzezin zion gurutze santuaren aurrarian. Bai bere burua illarazteko umiltasunezko lanakin, bai elizakoia izanik Jaungoikuaren gloriari begiramen txit aundiya ziolako, bai San Pedrori zion jaiera irazekiagatik, asi zan Apostolu guzien buru San Pedro gloriatsua ere antolatutzen. Asi ordukoz bukatu zuan. Begien itxi idikian, esan oi dan bezela, bigarren eliza berri zuan, zeren jendiak geruago eta geiago laguntzen zion, ikusirik zein ederki ematen zutena Santuak zuzendutzen zuan, zertarako ematen zuten artara. Lenago Franziskok igaro biar zuan lekuan lurrera bere kapa botatzen zuan gizon ark, orañ esaten zuan: «Esaten nintzen nik; orain ikusten dezutena ere bere santutasunaren asiera baizik ezta. Gauza aundiaguak ikusiko dituzute.»

Beste irugarren elizatxo batek deitzen zion orain bere arretari. Au zan elizatxo bat kristandadiaren laugarren gizaldian egina, eta Santa Maria Jaungoikuaren Amari ta aingeruen Erreginari eskafia. Mariari zion jaiera guzizkuak tira-

tutzen du Santuaren biotza elizatzorunz, eta ikusten du lastimaturik bestiak zeuden bezain biartasunian arkitzen dala. Eliza artan Andre Pika Franziskoren amak aingeruen Amagandik alkanzatu zuan orazio eginik seme paregabe au. Egoki zan beraz eliza oni ere begiratzia. Asi zan Santua bidiak idikitzen irugarren eliza onetarako. Etzuan ez lendabizikuan aina nekatu biarrik; ugari biltzen zuan biar zan guzitik, eta milla berreun ta zortzigarren urtian bukatu zuan, jendiak len da geruago obeto lagunduta, eliza ondo jartia. Eliza au nola arkitzen baizan erritik urrutitxo, auxen aukeratu zuan gure Aitak bere orazio luzetarako, lekurik onena bezela ta egokiena. Ikasi dezagun gure Aita-lenaren antzera Jaungoikuaren etxiari begiratzin arreta guziarekin, garbitasunian bezela berari zor diogun begiramentuan; gogoraturik Jaungoikuak gure aldaretan egiten duala egoitza bere jargoi itzaltsuan aingeru ederrez inguratuta.

EZAGUTZEN DU FRANZISKOK JAUNGOIKUAREN NAIA

Beraren eskari gartsuetan Jaungoikuari eskatzen zion Santuak azaldu zekiola bere gogo edo naia. Alatan ari zan batian Meza santuko denboran, aditu zituan Jesukristok bere ikasliai Ebanjelian esaten dizten itz oek: Ez dezazutela eraman zeokin ez urre-zillarrik, ez dirurik, ez ta ere bi soñ, ez oñetakorik ta ez makillarik. Itz eder oek gure Santuak beretzat esanak baziran

bezela artu zituan. Jeiki zan meza esatian eta Jaunaren Apaizari galdatu zion itz aien azaldia, esplikaziua. Ezaguturik bere pobre bizi naiarekin txit egokitutzen zirala itz aiek ziotena, pozez beterik bere baitan esaten zuan: «Ona emen, ona emen nik billatzen nuana; ona emen nik desiatzen nuana!»

Bertatik kendu zuan gerriko larruzkua, ordaintzen du au soka zakar batekin, kentzen ditu ere oñetakuak, eta oñetako, diru, larruzko-gerriku ta eskumakillak, denak botatzen ditu beragandik urruti. Eztu beste gogoraziorik ezpada len-bai-len Ebanjelio santuaren esana egiztaratzia. Bere adiskidiak eman zion tunika, gozo ta biguña iduritzen zitzaion; beragatik ura ere trokatu zuan auts kolorezko latzago batengatik; zeñari egotzi zion buru-zorro bat, izan zedin estalki biartasunian.

ASTEN DA JESUSEN ANTZERA JENDIARI ZERUKO BIDIA ERAKUSTEN

Kapusai gisako jazkera arekin eman zion Franziskok asiera bere zeruko bidian gizonak sartzeko lan aundiari; zeñak ainbeste gloria eman zion Jaungoikuari eta sartu zituan asko pekatari Jaungoikuaren adiskidetasun zorionekuan.

Itz-aldi guztiak asten zituan esanaz: «Eman deizutela Jaunak bere pake santua.» Predikatzen ari etzanian oraziuari egongo zan. Gauza guztien artian etzan Jesusen Pasio santuak bezela Santuaren biotza mugitzen zuanik. Egun batian Santa Maria Aingeruenen elizan negarrez zeguala, ikusi

zuan bere lagun batek: alderatuta galdetu zion zergatik ainbeste negar egiten zuan. «Ez dezu lotsarik zure adinian orrela negarrez egoten?» Erantzun zion: «Jesusen Pasio santuak negar eginarazten dit, eta zer nai dezu? Ez nuke lotsatu biar mundu guziaren aurrian gogotik negar egitiaz ere.» Deitu ginioke emendik aurrera gure Aita-len Santuaren bizitzaren zati oni bere agiriko bizitza. Orain ikusiko degu egiazkiro bertutaren ispillu garbi au, Apostolu berri bat egirik, Jesusen iduri paregabia munduaren erdian guziyak bereganatzen, bere itz-aldi ederrakin pekatariak konbertitzen, eta alde guzietara Jaungoikuaren pake santua zabaldutzen.

SEIGARREN BURUA

ARTZEN DITU LENBIZIKO IKASLIAK

Animen salbaziuaren amoriuak suturik asi zan Franzisko predikatzen itzez ta ejenpluz. Denbora asko igaro bañon len ikusi ziran predikatze onen frutu ugariak. Quintabalko Bernardo zeritzan gizon prestu ta aberats bere errikuak nai zuan ikusi alderagotik Santuaren bizi-modua. Asmo onekin gonbidatu zuan bere etxera, eta gaua igarotzeko jantzi zion Bernardok oe zuri ederra beraren gelan. Oeratu ziran bata eta bestia, ta biak zeuden ernai. Franzisko zeguan Bernardo noiz luak artuko zuan zai, eta Bernardo berriz Franziskoren zelatan. Alako batian Bernardo gezurrez lotzat ematen da, eta Franzisko, egiaz ta ziñez lo zegalakuan Bernardo Jauna, jaiki zan ixil oetik; belaun-bikatu zan; eta biotza ta besuak Jaungoikuagana jasorik, esaten zuan: «Nere Jaungoikua ta guziya.» *Deus meus et omnia.* Eguna argitu arte etzan aspertu Santua itz amoriozko oek esatez. Oian zeguana ari zan bere buruari esaten: «Egiaz, ona emen Jaungoikozko gizon bat.» Ordutik Bernardo Jaunaren biotza irebazi zuan Franziskok, eta goizian goiz egin zion Santuari galdera au: «Baldin artu balitu morroi batek bere nagusiaren eskutik ondasun aundiak urte batzue-

tarako, eta morroiak urtiak bete baño lenago, naiko balu ondasun aiek gabe bizi, zer deritzaio egin biar lukiala aiezaz?» Erantzun zion Santuak: «Len-bai-len nagusiari biurtu.» «Ni naiz bada ondasun aundiyak artu dituan morroi ori; nai diozkat orain nere nagusi Jaungoikuari bertatik biurtu. Beragatik jartzen ditut zure eskuetan denak, zeren nai diotan nik ere zure bizimoduari jarraitu.» Poztu zan Franzisko gizon onen konbersiuaz txit asko. «Ondo ere ondo da, Bernardo, –esan zion Franziskok –; baño zure asmo eder orrek izan ez dezan inguru txarrik, bigar goizian ateraziko diogu San Nikolasko apaizari meza bat Jaungoikuaren naia ezagutzeko. Esan bezela bigaramunian joan ziran meza entzutera, eta meza bukatu zanian idikiazi zioten apaiz Jaunari iru aldiz meza-liburua. Lenbiziko idiki aldiyan letu zituzten itz oek: «Nai badezu txit prestua izan, zuazi, saldu zazu dezun guziya eta emaezu beartsuai.» Bigarreguan berriz beste itz oek: «Ez dezazula zeregan bidian ezer ere eraman.» Irugarren idiki aldian azkenik letu zuten beste itz au: «Baldin norbaitek nai badu nere ondoren etorri, uka deiola bere naiari, ar-dezala gogo onez bere gurtzia ta darraitela.» Esan zion orduan Bernardori Franziskok: «Ona emen nik eta nerekin bizi nai duten guziak gorde biar dutena. Bernardo, santutasunaren bidiai nai badiozu jarrai, zuaz, egi zu entzun dezuna.» Ezaguturik argiro Bernardok Jaungoikuaren gogua, zituan aberastasun eraman a! zitezkie guziak, Asisko plazaren erdira eraman zituan. Saldu ere bai, eta diru guziya eman zien eskale ta biartsuai. Au izan zan gure Aita-lena-

ren lenbiziko semia, zeñari eman zion jantzi bat, soñian zerabilen gisakua.

Quintabalko Bernardoren konbersiua aditu zuanian Kataneoko Pedro, Eliza-nagusiko, katedraleko, kanonigu batek, egun artan bertan, utzirik guziya jarri zan Franziskoren bandera-pian, zeñari ere eman zion jantzi egitura berekua, eta aldegin zuten Erreka-okerra *Rivo torto* deitzen zan tokira, nun ere arkitzen zan etxola utzi bat. Ala Bernardo nola Pedro Franziskoren lenbiziko ikasliak izandu ziran txit birtute aundiko erlijiosuak, gero kontairan ikusiko dan bezela.

Asisko Gil erri guztian ezagutua, eldu zan jakitera Bernardok eta Pedrok nola jarraitu zioten Franziskori. Espiritu Santuak gidaturik jo zuan Rivo-tortora eta irten zion bide-erdira Franziskok. Ikusi bezain aguro aozpeztu zan Gil, Santuaren oñetan, esanaz: arren ar zezala bere lagundian. «Nere anai maitia – dio 'Santuak – , zuk nai zenduke Jaungoikuak bere soldadutzat artzia. Ori da grazi txit aundi bat. Alere Jaungoikuak nai du eta atoz gurekin.» Eraman zuan beste bi anaietara eta esan zien: «Jaungoikuak biali digu gaur anai on bat.» Bide-lagun Gil arturik onentzako jantzi billa irten zan Santua Asis-runz. Bidian arkitu zuten emakumetxo biartsu bat. Gili esan zion Franziskok: «Emaiozu kapa emakumetxo orri.» Berialaxen eman zion. San Buenabenturaren denboran oraindik bizi zan anaia Gil, eta dio Santu jakintsuak au zala erlijioso txit santua. Asko da esatia bere santutasuna adierazteko, San Franziskoren Ordenan

B. Gilen ofiziua egiten duala Elizak apirillaren ogei ta iruan.

Santua bere iru ikasliekin Rivo-tortoko txaoan egon ziran egun batzuetan orazio luzietan, ta gero irten ziran mundura itzez ta egitez Jesukristoren dotrina azaldutzero. Bernardo eta Pedro Juan ziran Emiliara; eta Gil ta Franzisko Ankonako Markara. Apostolu berri oek nun-nai Jaungoikuaren aunditasunaz eta ontasunaz itzegiten ziran. Beren itzaldietan esaten zien kristauai: guarda zezatela Jaungoikuaren lege santua; maitatu zezatela Jaungoikua; zein biartuak zeuden penitentzia egitera. Baziraden onelako itzak ongi gustaturik on egiten zienak. Baziraden ere txarkeri aundiak egiten zieztenak. Askoren iritzian ero batzuek ziran. Izandu ziran leku batzuetan lokatsaz arrikatuak. Jantzi santu ura ostikatu, isekaz ta txarkeriaz, azkenik makilaz ere juak. Guzia eramaten zuten Jaungoikuarengatik. Atsegin aunditza zeduzkaten gisa onetako eramankizunak. Aitzitik ordukoz inork ondo artutzen bazituzten, illuntzen ziran aien biotzak. Ala esan oi zuan gero, ta bein esan zion anaia Gilek bere Aita-lenari: «Aita, ondo artutzen gaituztenetik gizonak, galtzen degu gure gloriya.»

Erakutsi zien Santuak agurtutzeko modu au: «Bere pake santua eman deizutela Jaunak.» Oso penaturik zeguan anaia Gil munduak gaizki artzen zualako agur modu au. Erantzun zion Franziskok: «Barkatu egiezu, zeren zer egiten duten ez dakiten. Egiaz esaten dizut etorkizuneko denboretan izango dirala aundizki ta jator oneko gi-

zonak, itz oriek adituta zu eta zure anaiak errespetuz inguratuko zaituztenak.» Itzuli ziran bada lenbiziko misio au bukatzian berriz Rivo-tortora. Beste bat etorri zitzaion onara jantzi santua-
ren eske Franziskori, Sabatino zeritzana, eta eman zion. Au da laugarren ikaslia. Bostgarren bat andik laster agertu zan Moricoren izenekua. Au eritegian etsirik zeukatela denak, mirari aundiarekin sendatu zuan Franziskok. Juan Capella izan zan San Franziskoren ikaslien artian seigarrena. Ondo asi zan au, baña gaizki bukatu zuan. Bizitzan eta eriotzan Judas berri bat izandu zan. Abiatu zan, Santuak agindu bezela, guzien biartasunai begiratzeko kontua ongi eramaten. Baña denborarekin, oztu zan animako lanetan, eta asi zan lurreko gauzai begi argiarekin begiratzen. Ondo esanaz saiatu zan Santua onen biotza irebazi nairik; baña etzuan aditu nai izan bere aita maitiaren esanik. Orduan ezin bestian amenezatu zuan gaitz izugarri ta eriotza txar batekin, baldin ezpazuan mudatu nai. Alferrik izan zan. Arrapatu zuan eritasun gogor batek. Au zan legen-arra, lepra nazkagarri bat. Eramankizuna aitu zitzaion, desesperatu zuan, eta azkenik Judasen gisa bere burua urkatu zuan.

Birtutian sendotu zitezen ta oitu ere bai eskian, biali oi zituan Santuak bere semiak eskera askotan bakoitzaren jaioterrira, obeto lotsa kentziagatik. Ala asko aldiz eramankizunak merketxo ta ugari izan arren, Jaungoikuaren amoriuaz oroiturik, pozik eramaten zituzten.

Geituaz zijuan egun batetik bestera Franziskoren seme taldia; ona zergatik gogoratu zitzaion

Obispo Jaunari guziaren berri ematia. Juan zan bada Obispu Jaunarengana eta eman zion beren bizimodu guziaren kontua. Gogortxua iduritu zitzaion Obispuari bizimodu ura. Erantzun zion Santuak: «Jauna, nere iritzian deritzot gogorragua dala lurreko edozer gauzaren jabe izanik bizitzia. Zeren gauza oriek ardura aundiya eskatzen duten, ta zeren lasterrago Jaungoikuaren ta projimuarenganako amoriua itzaltzeko baizik ez diran.» Ontzat artu zuan erantzuki au Obispu Jaunak, eta gañera agindu zion bere laguntza.

ENPERADORE OTON LAUGARRENARI ADIARAZTEN DIO SANTUAK ETOR- KIZUN TXAR BAT

Eztaki birtutiak aundi txikien aparketarik. Aundiai bezela, txikiai begiko argi batekin die begiratzen. Berdin bada Franziskoren ta bere semien itzak nola batzuentzat ala bestientzat izan ziran. Rivo-torton zeudelarik, Enperadore Oton laugarrena zijuan Erromara, Aita Santu Inozenzio irugarrenaz koroatzera. Etxola miragarri aren ondolik igarotzian, bialdu zion Franziskok bere seme bat Enperadoriari esatera: «aren orduko gloria arek etzuala denbora luzian iraungo.» Etzitzaion ondo iritzi Enperadoriari esan ura; baña laster denborak erakustera eman zuan, zein egia aundiya zan esan ziotena. Zergatikan etzuan gorde koroatzian Aita Santuari eman zion itza; eta urte buruan izan zan Aita Santu onezaz beraz elizatik landara botia.

ALAITZEN DITU FRANZISKOK BERE IKASLIAK

Animak salbatu naiak bultzaturik, juañ zan Franzisko beriañ Rietiko ibarrera. Arkitzen zan ibar artan ermitatxo bat arroka baten zimian. Egunaz itzez ta egitez, itzez baño ere egitez geiago, erriari Jaungoikuaren amoriua ta munduko gauzen menospreziua adiazi ondorian, gabaz biltzen ziran ermitara Jaungoikua laudatzera. Gau batez Franzisko oraziuan zeguala, Jaungoikuak agertu zion bere utsegitien zor guzia pagaturik zeukala. Une artan gelditu zan kordegabe Jaungoikuagan sortuta. An erakutsi zion oraindik Jaungoikuak, berak zimentatu biar zuan Ordena ari, gertatuko zitzaion guziya. Joan zan ikaslietara eta egin zien itz-aldi au: «Alaitu ta poztu zaitezte, nere semiak, Jaungoikuagan. Ez dedilla goibeldu zuen biotza, gizon itxura gutxikuak ta jakinduri gutxikuak gerarako. Aditzera eman dit Jaungoiko guztion Aitak nola bere bendiziuakin zabalduko dan mundu guzira pamili txiki au. Ez nuan batere asmorik zueri esateko ikusi detana, baña karidadiak biartzen nau esatera. Ikusi ditut bada emen inguruetako bide guztiyak gizonez betiak gurekin bizitzera datozela. Bai Prantzesak nola Españolak; bai Inglesak nola Alemanak nai dute ta datoz nere agintiaren pian jartzera: iduritzen zitzaidan beren oñ-otsa aditzen nuala.»

Urte asko igaro etziran ta Franziskoren esana bete zan. Aitaren berri on onek poztu ta alaitu zituan ikaslien biotzak ta indar-berritu; eta etorkizunaren berri zekianari bezela, geroko gauza ta gertaldiyak ezagutzen bazituanari bezela, eta

artarako doiaz Jaungoikuak apaindu ere bere espiritua: guziya zekialako uste osuan galdatu zioten, zer izango ote zan orduan jartzen zuan Ordena artaz? Orduan agertu ziezten Santuak Ordena ark izango zituan gora-berak. Nola gizon santu askok Jaungoikua alabatu ta onratuko zuten; eta nola izango ziran beste batzuek epelak Jaungoikuaren serbiziuan. Au esan zien Santuak gorde zitezen Jaungoikuaren bildur santuan, eta arrotu etzitezen oroiturik gizonaren argaltasunaz. Emen artu zuan beste ikasle bat Filipe Lucia deitzen zutena. Au izan zan zazpigarrena; eta denak, denborale puska bat Rieti ta bere inguruetan igaro onduan, berriro jo zuten Rivo-tortoko txalora.

PRESTATUTZEN DITU BERE SEMIEN BIOTZAK ETA DENAK IRTETEN DIRA MUNDUAREN LAU ALDETARA

Txit eder ta gozuak ziraden Rivo-tortoko etxolatik irteten ziran Santutasunaren usaiak. Birtutia beti da maitagarri. Dudatu ez genezake Franziskoren ikasliak gizon prestu ta birtutetsuak zirela. Birtutiak baditu bere mallak, eta besteri maitarazi biar dionak edozein birtute, iduki biar du berak txit malla garaian. Ona zergatik gure Aita-lenak egiten zizten Apostolu berri aieri erakusaldi guziz espirituzkuak. Birtute guztien artian pobre ta umill erakusten zien izaten; zeren bi birtute maitagarri oek nai zituan bere Ordenako zimendutzat jarri. Ezta, izan ere, zimentarri sendoagorik oek baño. Orain nola nai zituan mun-

du zabalera biali, itzegin zien onela: «Ezagutu dezagun, nere anai maitiak, gure deitza zein dan aundiya. Ez gaitu Jaungoikuak bere urrikaltasunaz gure salbazua bakarrik egiteko autatu, baña oraindik beste askorena ere bai. Biar degu zabaldu mundura santutasunaren usai gozua, itzez baño ere egitez obeto. Gizon ezerez batzuen antza idukiagatik, ez degu deskonfiatu biar Jaungoikuaz, Bera itzegingo da gure bitartez. Guzia utzi degun ezgeroz, ez gaitzala lurak engaña. Ez deyola gure biotzak diruari begia argitu. Ez dezagun esan iñorengatik bere aurrian esango ez litzakianik; naiz izan aberatsa, naiz ez. Gaizki nai digutenakin, ongilliakin bezela amorio berdiña agertu dezagun. Guazen ta berritu zagun munduan Jaunaren lege santua. Izan gaitezen orazio-koiak, umillak, modestuak eta eraman aundi-kuak. Ez dedilla gure artian esker txarrekorik izan. Zeruko desneke betikuak, aztu azi dizkigula lurreko neke laburrak.»

Era onetako erakusaldiakin alaitu zituan Santuak bere ikaslien biotzak. Eta atera ziran Rivotortoko estalpetik munduaren lau aldetara zazpi ikasliak, beren maisua zortzigarren zala.

Bina-binaka jarririk, bik artu zuten ipar aldeko bidia, beste bik jo zuten egualdera; bi irugarrenak sortalderunz joan ziran, eta laugarren biak sartalderunz; denak gogotik ekin zioten bidiari, biotzak Jaungoikuaren amorioz suturik, asi ziran onela mundua konbertitzen. Igaruan topatzen bazuten eliza bat, sartutzen ziran eta adoratzten zuten Jaungoikua beren Aitak erakutsitako orazio onekin: «Adoratzten ta bedeinkatzen zaitugu, Kris-

to, zeren zure gurutze santuarekin erosi zenduan mundua». Baziran leku batzuek ongi artutzen zituztenak, beste leku batzuetan berriz txit txarki. Franziskoren semiak Jaungoikuaren goguarekin bat eginik arkitzen ziran ta zetorrena zetorren bezela artzen zuten eramankizun berdinarekin. Asko lekutan galdetzen zioten zein ziran eta nunguak! Frantzuten zioten umill: «Gu gera Asistik eldu geran gizon penitente batzuek».

Bernardo eta Gil eldu ziran Florenziara. Gido deitzen zan gizon batek urrikaldurik eskaiñi zien dirua. Baña seme leialak etzuten artu nai izan. Arritu zan Guido jauna gizon aien birtutiaz, eta ordutik geroz jende asko juaten zitzaien animako egitekuak zuzendutzeko itz onen eske.

ARTZEN DITU IKASLE BERRIYAK

Franzisko itzuli zan aurreneko bere lagunarekin Rivo-tortora. Jakin nai zuan bere semiak zer bide jo ote zuten. Beragatik Jaungoikuari egin zion orazio, eta denak alkarren berri gabe biribillatu ziran Rivo-tortora egun gutxiren gora-berakin. Nork esan gure Santuaren poza zenbateraño igo zan, adituta bere semiakgandik Jaunaren ta projimuaren amorioz eraman zituzten naigabe gogozkuak kontaktzen?

An aurkeztu zitzaizkan beste lau ikasle berri: Konstanzio, Bernardo Viridant edo Bijilanzio, Barbaro ta Silbestro apaiza.

San Damiango elizarako saldu ziozkan Franziskori Silbestrok arri batzuek. Quintabalko Ber-

nardok plazaren erdiyan pobriei eman ziztenian, ondasunak saldurik, zituban diruak, Franziskori eman zion keja, ark saldutako arriak etzituala ondo pagatu. «Ori ala bada -esan zion Santuak - arbeza» esanta, sartu zuan eskua zaku-diruan eta eskuak eman zion guziya jarri zuan Silbestroren eskuetan. Bide txarreko diru onek etzion pakerik ematen Silbestroren animari. Gau batez izandu zuan miragarrizko amets bat. Idu-ritu zitzaion ikusten zuala izugarrizko dragoi bat Asis inguruan guzia irintxi naian. Alatan agertu zan Franzisko, zeñaren aotik irteten zan lurretik zeruraño eta munduaren alde batetik besteraño urrezko gurutze bat, eta gurutziaren dizdiadurak igesi jarri zuan dragoia. Iru aldiz izan zuan amets au Silbestrok, eta arriturik juan zan Santuari adia ematera. Santuaren itzak are geiago mirestu zuten, eta aren santutasunak ainbeste-raño ukitu zion biotza eze, ez bakarrik kezka ematen zioten diruak biurtu zituan, baño oraindik geiago, umill eskatu zion Franziskori, artu zezala bere ikaslien artian, eta ametitu zuan. Au gertatu zan milla berreun ta bederatzigarren ur-tian.

ZAZPIGARREN BURUA

IZKIRIBITZEN DU SANTUAK LENBIZIKO ERREGLA

Gure Aita-len Santuak penitentzi gogorak egiteko agintzen zien bere semiai eztitasun aundiya-rekin. Errezo luzerik etzien agintzen; zeren nai zuan espirituko lan oetara mugi zitezen gogoz agintiaren zirika gabe. Bakarrik agintzen zien egunoro Meza santua entzutia, ta eliz-gizonen ofiziuaren zati bakoitzaren orde, esatia iru aldiz Aita guria. Baña nola bere seme taldia egunetik egunera zijuan azituz, erabaki zuan guztientzat erregla bat izkiribitzia. Bildu zituan onetarako bere amaika ikasliak eta itzegin zien era onetan: «Ikusten det, nere anai maitiak, Jaungoikuak bere ondasunian nai duala gure pamili txikia ugaldtu. Beraz biar degu guziyok, gorputz bat eginik bizi gaitezen, egin erregla edo bizi-molde bat zeña, eramango diogu Aita Santuari, berak baimenatu dezan, baderitzaio ondo aren Santutasunari». Pozik erantzun zioten denak ondo zala.

Jaungoikuari lenik egin onduan eskari sutubak, izkiribitu zuan Franziskok erregla ogei ta iru burutan. Dena zan Ebanjelio santuaren araura jarria. Lan au bukatu onduan, abiatu ziran denak Erromarunz. Ain zan aundia gure Santuaren umil-

tasuna, nun Quintabalko Bernardo egin zuan bide guzirako guztien buru ta gidari, eta, aren agintiaren azpian bera aurrena jarririk, eldu ziran Erromara. Rietin igarotzian topatu zuten gizon arrotz bat beñere ezagutu gabia. Au zan gerra-gizon zaldizkua. Alderatu zitzaion Santua eta esan zion bere izenaz deiturik: «Anjel, aspaldi darabiltzkitzu ezpata gerrian ta orpuan ezproiak; emendik aurrera zure ezpatak gurutzia biar du izan, eta lokatsa ta lurreko autsak zure ezproi. Atoz, nik egingo zaitut Jesukristoren soldadu.» Unerik galdu gabe jarraitu zion Anjelek Franziskori. Au izandu zan amabigarren ikaslia.

FRANZISKO BERE IKASLE GUZTIEKIN ERROMAN

Asisko Obispu Santua arkitzen zan ere orduen Erroman. Jakin zuanian zer asmorekin joan zan Franzisko Erri santura, txit poztu zan. Ez bakarrik agindu zion bere laguntza, bai ta ere ondo aterako zalako uste aundiak, baliatzen zala Juan San Pauloko Kardenal, Sabinako Obispu, bere biotzeko lagunaren bitartez. Elizako prinzipie au aspaldian Franzisko ikusteko desio irazekiakin zeguan. Jakitian Asisko Obispuaren bidez Santuaren etorrera, deitu zion bere jauregira eta artu zituan amabi ikasliak beren maisuarekin ezin ta onginei aundiaguarekin. Oraindik geiago egin zuan, *Kolejio Sagraduko* Kardenal guztiyak jarri zituan Franziskoren alde, batez ere Ugolino Kardenalaren biotza oso irebazi zuan ta bereganatu. Au zan orduko Aita Santu Inozen-

zio irugarrenaren illoba, eta gero bera ere Aita Santu izan zan Gregorio bederatzigarrenaren izenarekin.

ITZEGITEN DU AITA SANTUAREKIN

Nai zituan len-bai-len Santuak lanak azkendu; ona zergatikan juan zan Aita Santuaren Letran-go jauregira. Elizako gauza askotan arkitzen zan Aita Satnua buru guzia nekatzen eta nola gauza ain aundiyak ondoena antola somatzen. Lan onetan ari zala, etziokan Franzisko gizontxoari aditu, esan nai ziona. Irten zan jauregitik Jaunaren serbitzaria sartu bezela. Kontairak dionez, orduan, begiak atera ziozkaten bati, biurtu zion begitako argia.

Ikusi zuan lo artian Aita Santuak palma ederra bere onetan jaiotzen zala, eta orra nun denbora gutxian landare gazte ura egin zan zuaitz eder. Ezin somatu zuan zer aditzera eman nai zion ark. Ala zeguala, Jaungoikuak argiturik, ezagutu zuan palma eder ura zala aurreko egunian aintzekotzat artu etzuan gizontxo ura. Billatu zuan beriala Franzisko, zeina arkitzen zan San Antonioko erietxian, egin ziozkan zenbait galde, eta orduan erakutsi zion Santuak bere erregla, eta nola arentxen baimenaren billa eldu zan Erromara. Orduan bertan nai zuan baimendu Aita Santuak, baña izan ziran Kardenal batzuek, esan zutenak gizonen indarrak gañ egiten zala bizi-modu berri ura. Au aditzian jaiki zan Juan San Pauloko Kardenala eta denen aurrian itzegin zan era onetan: «Begira dezagun ondo nola gizon

santu onen bizitzako erregla au ontzat ez degun ematen, berri ta estu dalakoz; guarda gaitezen esatetik Ebanjelio santuak erakusten diguna ezin genezakegula egin, bada erregla orrek eztu beste gauzarik agintzen. Beraz orri baimena ukatzia, Ebanjelioa bera kondenatzia da. Oraindik geiago, esatia Ebanjelio santua guardatzeko itz ematia dala arrazoiaren gañ ta ezin bete ditekiana, da Jesukristoren kontra blasfematzia, zeren Bera dan onen egillea». Oso gusta zitzaion Aita Santuari arrazoi au, eta esan zion Franziskori: «Nere semia, egizu orazio Jesukristok azaldu deigun bere gogua; zure naiak bete ditzagun». Egin zuan Franziskok orazio Aita Santuak esan bezela.

BAIMENTZEN DU SAN FRANZISKOREN ERREGLA INOZENZIO IRUGARRENAK

Oraziuaren indarra aundia da. Urrena aurkeztu zanian Aita Santuaren aurrian itz-alditxo au egin zuan: «Aita txit santua, bazan alaba bat guziz ederra, baña pobria. Au bizi zan eremu batian. Erriko erregek ikusirik zaletu zan bere edertasunaz eta artu zuan bere emaztetzat. Igaro zituzten elkarrekin urte batzuek eta izan zituzten semiak, aitaren antzarekin amaren edertasuna zutenak. Gero errege itzuli zan bere jauregira. Azi zituan semiak arretaz amak, eta esan zien: «Nere semiak, zuen aita da errege aundiya, zuazte bada berarengana; esa-iozute zein zera ten eta emango dizute zuen jatorriari dagokiona. Juan ziran semiak aita erregeren jauregira. Ezaguturik aitak beraren antza eta amaren edertasuna

bere semietan, atsegin aundiarekin artu zituan esanaz: «Bai, zuek zerate nere seme egiazkuak, eta beragatik, erregeren semiak bezela, nerekin biziko zerate; zeren baldin gizon arrotzak soldataz badauzkat eta nere maitetik jaten badute, zenbat arreta geiago ez diotet biar izan ain ama ederraren eta nere seme maitiei? Ama txit maita detalako egongo zerate etxian eta nerekin mai batian jango dezute».

«Errege au, Aita txit santua, da Jesukristo gure Jauna. Alaba eder au da pobretasuna; zeina leku guzietan eta guzietan utzia zeguan munduan eremu batian bezela. Ikusirik onen edertasuna erregen Erregek, jaitxi zan zerutik ta esposatu zan berarekin estalpe batian. Munduko eremu onetan izan ditu seme asko; eta ama pobretasunak bialitu zerura Aita erregiarengana. Ezaguturik errege aundiyak bere antza eta amaren edertasuna bere semietan, atsegin aundiarekin artu zituan bere etxian. Eta ez bakarrik agintzen die bizitzeko biar dutena, baña oraindik du esaten: «Nik mantendutzen ditut nere seme izan nai ez dutenak ere, nere semiak balira bezela; eta orain nere seme egiazkuai, zenbat arrazoi geiagorekin diet eman biar bizitzeko biar dutena?» «Ez beza beraz, Aita txit santua, errege ilezkorren aurrak geran ezgeroz, gure mantenuaren ardurarik iduki; zeren bera, zeñagatik utzi degun guztia, izango dan gure iges-lekua, Aita, Ama, nagusia, ta biar dan guztiya.»

Itz-aldi eder au aditu zuten, Aita Santuak bezela, aren onduan arkitzen ziran Kardenalak. Aitortu zuan Aita Santuak Espiritu Santua itze-

gin zala Franziskoren aotik. Gañera izandu zuan beste lo arteko ikuskera bat Aita Santuak. Ikusi zuan Letrango eliza iraultzera zijuala, nola gizontxo batek egotzirik bere bizkarra zuzendu zuan. Orain Inozenzio irugarrenak esaten zuan: «Egiaz Franzisko da nik ikusi detan gizona, Eliza bere egite ta itzez zuzenduko duena.» Jaungoikuak autu zuan gure Aita-lena, bera ta bere semiak, izan zitezen Elizaren apio sendu autsikaitzak. Franziskoren Ordena onek eman du eza-gutzeko aina ejenplu. Nork egiaz onek bezela sei gizaldi ta erdian Elizaren alde lan egin du?

Letrango Eliza erorteko zeguala, Franzisko bere argaltasunaz baliatu zan zuzentzeko, etzedin erori. Dotrinaz ikusi degu nola bere Ordenak garaitu izan dituan elizaren etsaiak. Elizaren kontairak agitz kantatzen du egi au.

Begiratzen badiogu ere Letrango Elizari, bere agiriko orma ederrai, au ere izandu zan edertu ta apaindua Franzisko gizontxo santu aundiaren seme aita Santu Nikolas laugarrenaz, Sixto laugarren ta Sixto bostgarrenaz. Gloria Franziskori ta bere Ordenari.

Baimendu zuan bada Inozenzio irugarrenak San Franzisko gure Aita-lenaren lenbiziko erregla itzez. Itz eman zuten uraxe guardatzeko bai San Franziskok nola bere ikasliak Aita Santuaren eskuetan. Gero ordendu zituan lenbiziko ordenaz estadu artara deituak zeudenak, eta gure Aita Ebanjelioz. Agindu zion Franziskok Eliz Ama Santari betiko, bere naia arenarekin arautzia. Baita ere Franziskori bere ikasliak. Onela jarri zi-

ran ikasliak Franziskoren agintiaren azpian, eta Franzisko Aita Santuarenian. Eman zien gañera esku aundiya kristau guzien buruak, mundu guzian Ebanjelio santua erakuts-erazteko itzez.

Onenbesterekin erabaki zuten Erromari agur egitia. Ez ordia lenik Apostolu santuai konsagratu bage Ordena berria. Au guzia egin eta Jaungoikuaren esker onak eman, baita ere San Pauloko Juan Kardinalari ta bide batez Ugolino Kardenalari, agurtu zuten Erroma.

BIURTZEN DIRA RIVO-TORTORA

Erromatik Espoleteko ibar bitartian beste izkuntzarik etzuten eramán, ezpada nola ongiena gordeko zuten erregla, zeña guardatzeko itza Jaungoikuari eman zioten. Ain maitia zuten izkuntza au, nun ariketa gosiak estutu zituan arte, jataz etziran oroitu. Jan nai izan zutenian, etzekaten zer janik. Jaungoikuaren esku emalliak ez-tu bere serbitzari leialik uzten lagundu gabe. Agertu zan, ez nundik eta ez andik, gazte bat ogi batekin; utzi zien ogi ura, eta, ez nora ta ez ara, galdu zitzaien gazte ongillia. Gertaldi au izan zan bide berri bat, areta geiago gizon Jaungoikoti aien biotzak pobretasunaren alderako amoriuan sutzeko.

Orta zeritzan erri inguruan gelditu ziran elizatxo utzitako batian. Andik egunoro juaten ziran errira predikatzero. Denbora gutxiyan apostolu berri aiek irebazi zuten jendiaren onginaia. Nola ez baitzuten bizitzeko biar, zutenaz gañera, ezer-

txo ere, eta au ere eskatuta, jendia juaten zitzaien elizatxo artara, dotrina bide batez adituaz, gauza askorekin. Franziskoren espiritua etzeguan soseguz ainbeste jenderen artian; ona zergatik erabaki zuan aldegitia andik. Jarri ziran bada Rivo-tortorunzko bidian; Franziskoren buruan jarri zen duda bat. Etzekian edo oso predikaziuari jarrai edo bakardadeko bizitza eramane. Duda onetatik irtetzeko jarri ziran denak oraziuan jakitiagatik Jaungoikoaren naia. San Buenabenturaren iritzian orduan Jaungoikuagandik jakin zuan Franziskok, nola animak salbatzeko autatu zuan Jaungoikuak predikaziuaren bitartez. Uste onetan itzuli ziran Rivo-tortora.

ZERUA DIRUDI RIVO-TORTOK

Estu, txit estu arkitzen ziran etxola artan ainbeste gizon. Bata-bestia iñork etzezan atsekabetu, bakoitzaren izena estaliko kapiriuari izkiribitu zien Santuak, guztiyak ta bakoitzak gorde zezan beti toki jakina. Para zuan ere zurezko gurutze aundi bat txalaren erdi-erdin, izan zedin liburu orde gurutze santua, oroitzen zirala Jesus maitiaren Pasio santuko gelditzaz gurutzia ikusita. Alere nai zuten ikasle onak beren maisuagandik ikasi zerbait orazio itzezko ta errezatzeko modu. Beste orduz Apostoluei Jesukristok erakutsi zien esanaz: «Ona emen egin bear dezuten oraziua: Aita guria zeruetan zaudena...» Orazio oni egotzi zion adorazio au: «Jesukristo gure Jauna, adoratzeko zaitugu emen eta lurraren gañian arkitzen diraden eliz guzietan, zeren zure gurutze santuaz

erosi zenduan mundua». Asko gauza on ta birtutezko egite nola egin, erakusten zizten Aita-lenak bere erakus aldietan. Guzien izkuntza zerutarrena zan; aingeruen jauregia zirudin etxola bedeinkatu ark, zeru berri bat.

Erlijosos batzuek lo, bestiak esna zeuden garian, gaberdi inguruan, ikusi zuten esna zeudenak, etxolako atetik sartutzen, suzko gurdi, orga bat, berebiziko argia botatzen zuana alde guztiatik, eta egin zituan etxolan iru jira. Gurdi gañian arkitzen zan suzko bola bat, argi-argi egiten zuana eguzkiyaren antzera. Esna, iratzarri zeudenak arritu ziran, eta lo zeudenak esnatu. Suzko gurdi arren argi biziyak, ez bakarrik argitu zituan gorputzak kanpo, baña geiago dana, argitu zizten biotzak, alako moduz eze, ikusten zuten bestiaren kontzientzia.

Izan biar zuan Franziskok, dio San Buenabenturak, beste orduz Elias bat Israeldarrekin izandu zan bezela, bere ikaslien kontzientziako gidari ta maisu. Beragatik, ok sendotu zitezten, eta Jaungoikuaren espiritua zuela beren Aitak ikusirik, iduki zezaten berarengan konfiantza osua, Jaungoikuak nai izan zien mirari onekin adierazo, Espiritu Santuaren suak irazekirik argi egiten zuala beren Aitaren biotzian.

PREDIKATZEN DU FRANZISKOK ASISKO ELIZA NAGUSIAN TXIT FRUTU ONAREKIN

Igandetan jua oi zan Franzisko Asisko eliz nagusira. Larunbat arratsa igaro oi zuan pekata-

riakgatik errezatzen Jaunari. Txit ugari ta onak izan ziran Franziskoren itzaldi aiek eman zituzten frutuak. Asko ziran munduari agur eginta jarraitu ziotenak Franziskori.

Seme berri oekin itzuli zanian Rivo-tortora, egin zien itzaldi au: «Nere anai txit maitiak, Jaungoikuak bere ontasunaz erakustera eman dit bere pamili au nai duala azi. Nik bada ezin nezaquet toki estu onetan besterik artu. Biar degu lasago bat, bai Meza santua entzuteko, bai errezuak egiteko, baita ere guretako norbait illtzian lurpetzeko. Guazen beraz Obispo Jaunarengana, eskatu deiogun erri inguruko elizatzko bat. Ez balizaiguke eman, juango gera Subasio mendiko erlijiosuai eskatutzera.» Etzeukan Obispu Jaunak Franziskori emateko moduko elizarik, beragatik esan bezela jua zan Subasio mendiko San Benitoren semietara, eta oek eman zioten Santa Maria Aingeruen edo Porziunkulako eliza. Kopetako izerdiarekin lenago Franziskok berak zuzendu zuan eliza Mariaren amoriuagatik, orain Ordenako lenbizikua izan dedin Mariak ematen dio Franziskori. Nork adiarazi gure Santuaren biotzeko poza? Ezin somatu zuan zerekin ta nola pagatu San Benitoren semiak egin zioten mesede aundi ura. Urtero esker onakin batera, oroimengarri biali oi zizten sasko bat arraitxo.

ZORTZIGARREN BURUA

EMATEN DIOTE PORZIUNKULA

«Berri onak, berri onak, nere semiak – esan zien Franziskok –. Mariak nai digu eman bere etxia eta bere anparo-pian bizi biar degu. Porziunkula eliza maitagarria eman digute San Benitoren semiak, duda gabe Mariak ala nairik, eta geranok biar gera arara aldatu. Banua ni aurreneko nere lagunarekin eta itzegingo diot an dagan apaiz errespetagarriari.»

Au esan eta juan zan Santa Maria Aingeruen edo Porziunkulara, eta an eman zion aditzera orduan elizaren kontua zeukan apaiz Jaun Pedro Mazankoli, Jaungoikuaren serbitzari txit onari, nola leku ura utzi zioten San Benitoren semiak, izan zedin bere Ordena berriaren iturburu bezela. Poz aundi batekin idiki zion atia Franziskori Pedrok; laztan gozo bat emanaz, esan zion: «Nere desio guzia izandu da Maria ikustia gizonaz onratua ta alabatua leku santu onetan. nun ere aditzen dira aingeruen kantu zoragarriak.» Au obeto adiazi nairik, deitu zion apaizak an inguruan bizi zan aiton bati, zeñak garbi aitortu zuan egia zala; nola gabaz aditu izandu zituan aingeruen kantu ederrak, an igaruan zizuala, beñ baño geiagotan. Aditu zuanian egi au,

San Franziskoren biotza bete zan eta Mariaren alderako amoriua lenaz gañera sutu zan bere biotz onian.

JESUS TA MARIA AGERTZEN ZAIZKA

Gau batez, oraziuaren berotasunik aundienian, agertu zitzaizkan Jesus eta Maria aingeruz inguraturik. Umill adoratu zituan aozpezturik esanaz: «O Jaun guziz santua, zeruko errege eta munduaren eroslia, nere amorio gozua! Eta Zu, o Aingeruen erregiña! Zer dala jeitxi zerate elizatxo onetara?» Aditu zuan itz bat: «Ni etorri naiz nere Amarekin, zu eta zure semiak emen jar-eraztera; zeren txit maite degun leku au.» Au aditzia-ekin desagertu zan guziya. Santuak zion orduan: «Egiaz, egiaz leku santua da au; ez gizonak, baidarik Aingeruak bizi biar luteke emen. Nik al detanaz, ez det emendik landara oñik mugituko. Au izango da, neretzat bezela, nere semientzat Jaungoikuaren ontasunaren seña.»

RIVO-TORTOTIK ALDATZEN DIRA PORZIUNKULARA

Egun-sentian Santuak bialdu zuan bere laguna, an, Rivo-torton zeuden semien billa. Denak, Aita-lenaren esanaz, juan ziran Santa Maria Aingeruenera. Itzaldi onekin agurtu zituan Franziskok beriak: «Esker aundiyak, nere seme mai tiak, esker aundiyak San Benitoren semiai, zeren eliza au guri ematian, nola dan au gero gure Ordenak izango dituan eliza guztien buru ta zimentarri, guztion esker onak merezi dituzten.»

Emen eskatu zioten jantzi santua aurreneko, Leon, Rufino, Maseo ta Juniperok. Ok denak txit aurreratu ziran santutasunian kontairak adiazten digunaz. Leon izan zan Santuaren Aita Espiritukua eta denbora berian sekretariua. Santu paregabe onen arretarik aundiena izan oi zan beren semien biotzian pobretasun dama maitiaren ganako amoriua irazequitzia. Onetarako egiten zizten erakutsaldi txit egokiak. Esan oi zien: «Nere seme maitiak, ez gaitezen ezerengatik ere eskian ibiltziaz lotsa, zergatikan zeruko Errege azaldu zan lurrian (pobre) biartsu, eta au gure amorioz, bada gu ere beraren amorioz ala ager gaitezen. Zuazte, beraren bendiziuarekin, ta eska zazute Jaungoikuaren amoriuakgatik. Jaungoikuaren amoriua guk eskaintzen diegu! Zer gauza obiagorik eskain gentaieguke? Au da egiaz zeruan ta lurrian dan aberastasunik baliotsuena. Atez-ate bildutzen dezuten ogia, da Aingeruen ogia, zeren kristau fede-dunen biotzak Aingeru onak mugi oi dituzte ematera.» Onelako itz gozuekin alaiturik, pozik juaten ziran eskera eta itzultzen ziran are poz aundiaguarekin.

Bein batian esketik etxeruntz ikusi zuan Franziskok bere seme bat alporjak beterik kantuz Jaungoikua alabatzen. Gustaturik aren etorrera alaiatz, kendu zion bizkarretik eskale kantariari alporja betia, eta, arturik bere gañ, juan zan bere semiak bildurik arkitzen ziran tokira, esanaz alaitasun ta aire aundi batekin: «Onalaxen naidet nik, nere semiak eskera jun ta etortzia, kontentuz beterik Jauna alabatuaz egiten dizkigun ontasunakgatik.»

FRANZISKOREN SEMIAK ZABALTZEN DIRA MUNDURA

Eldu zan Franziskoren seme, Apostolu berri aiek, mundura zabaltzeko denbora. Jaungoikozko lan aundi oni ekin baño len, bildu zituan denak eta ikartu, examinatu zituban dotrinan. Txit egoki ta zuzen egin zituan bakoitzak bere itzaldiyak, maisu santuaren aurrian. Lan au bukatu onduan, Jesus, gazte eder baten antzian, agertu zitzaien guztien erdian, eta Franziskoren seme bakoitzari ontasun miragarriarekin eman zion bere bendiziua, eta, baimen ots-aundiko onekin alaiturik, abiatu ziran erriz-erri Italian kristau epel ta pekatari gogortuai Jaungoikuaren lege santua adiarazten. Utzirik batzuek Porziunkulan, aurkeztu ziran gaztiak artzeko, Silbestro Ordenako lenengo Apaiza bere lagun zuala, irten zan San Franzisko Toscanaruntz; Perusan jarraitu zion gazte batek bere bandera-pian bizi naiaz; izendatu zuan gazte ura Santuak «Anai Umilla». Ala izango zan ere.

Beste gazte bat Gido zeritzana Santuaren itza adituta konbertitu zan Cortonan. Au bizitu zan txit santuki; egin zituan asko mirari, eta orain doatsuen artian Elizak kontatzen du. Cortona inguruan, Cela deitzen dioten tokian, jarri zuan etxe bat gaztiak artzeko.

IGAROTZEN DU GARIZUMA OGI-ERDI BATEKIN

Bi illabete igaro zituan inguru aietan. Alderatu zan garizuma. Gogoratu zitzaion Santuari, Silbes-

troren kontura utzirik etxia, bakardadian igarotzia denbora santu ura guziya. Joan zan bada Perusako umanzi, antziraren erdiyan arkitzen zan ugarte, islara. Bi ogi, beste janaririk etzuan eramán. Auster-eguna zan. Esa zion batelero bere adiskidiari etzeiola esan iñori nun zanik eta biurtu zedilla asteazken santuz. Nork adiazi lezake Franziskok orduan egin zuan penitentzia zenbaterañokua izango zan? Berrogeita bi egunian bi ogi eramán zituan aietatik baten erdiya baizik etzuan jan! Asteazken santuz, Celako praile-etxera zijuala, batetan altxatu zan ekaitz izugarri bat, zeña palakatu zuan gurutziazen señaaliarekin. Laster zabaldu zuan batela zaliak Santuaren miragarritzko baraubaren otsa. Eta andik gerora jendia juaten zan bata bestiaren leian ugarte artara. Txit asko mirari egin zituan Jaungoikuak an, Santuaren merezimentuakgatik kristauen onerako, eta denborarekin Franzisko egondu zan txaolan egin zuten Ordenako eliz-etxe bat.

Pazko onduan Celako praile-eliz-etxian izendaturik bat beste guztien buru, juan zan Arezzoronz. Igarotzen zan toki guzietan Santu birtutesuak pakiak egiten zituan. Arezzon gurutziazen señaaliarekin sendatu zuan aur bat oso makurtua. Emen gaizkitu zan, eta zerbait ongi jarri zanian Florenziara juan zan. Emen Cortonan ta Arezzon bezela zimentatu zituan Ordenako etxiak. Franziskoren semiak jendiak ezagutzen zituan bezela nai zituzten beren aldian ikusi.

JUAN PARENTEREN KONBERSIUA

Florenziako errian konbertitu zuan gizon abe-rats ta jakintsu aundi bat. Au zan Juan Parente arau-jakina, juriskonsulto ospatua eta denbora berian Civita Castellanaka majistradu lena. Juan Parente irten zan erri ingurura arrats-alde batez, aize garbitara. Etxe baten ataritik igarotzian ikusi zuan zerri-zai bat, iñolako moduz bere zerri tal-dia ezin eiaraturik. Bat eira sartzan bazan, bes-tiak iges egiten zioten, eta onen ondoren zebillen artian, lenago sartu ziranak irtenik, okerreko al-dera iges zijuazkion. Zerri-zaia zebillen jo ba-tara ta jo bestera burua galtzeko eran. Alakorik batian aserre gorrian sarturik, ikaragarrizko oju bat egin zion zerri-taldeari: «Zerriak, ia eira; juezak infernura bezela». Itz au aditzian, abere umillak, ixil ta umill sartu ziran eian.

Zerri-talde-zaiaren itza aditu zuan Juan Pa-rentek bere zorionerako. Abiatu zan geroz bu-ruan erabilten Juez ta onen gisako lana dute-nak zer ikuskizun ta kontu estua Jaungoikuaren tribunalian eman biarra izango duten, eta nolako arriskuan arkitzen dan anima, lan-modu orietan bizi dana, betiko galtzeko. Gogorazio gisa one-takuakin juan zan Florenziarunz Franziskoren-gana. Jaungoikuak argiturik ezagutu zuan zerk mugitu zuan Juan Parenteren biotza arengana juateko; ona zergatik aurreratu zitzaion esateko: «Aren Ordenan nai bazuan bizi, zituan ondasu-nak zabaldu zitzala pobrien artian». Seme bat zuan Juan Parentek eta artu zuten Franziskoren Ordenako jantzi santua Aita-semiak.

Au izandu zan Ordenarentzat txit probetxu aundikua, zeren 1230'garren urtian Ordena guziko buru izendatu zuten eta txit guzien gustoz bete zituan praile guztien burutzak jartzen ziozkan egin-bidiak.

Florentzian zeguala, iru mutil txiki, gurasuak lagun, juan ziran San Franzisko albistatzera. Aurrai pozgarri bat ematiagatik, artu zituan Santuak baratzako piko ondotik bost piko. Piko bat eman zion lenbizi zeguanari; beste bat bigarrenari; eta irugarrenari eman ziozkan iru, esanaz: «Tori, maite; zu egunen batian izango zera nere-
seme biotzekua». Adiazi bezela aurrez, denboraz gertatu zan.

QUINTABALKO ANAI BERNARDO

Anai Bernardo lenbiziko aldiz Boloniara juan zanian, nola ango jendiak ez baitzuen iñoiz ere jazkera alakorik ikusi, zer zanik iñork etzion antzik eman. Ona zek mugitu zituan mutikuen mañak jostatzera anai Bernardorekin; zeñak beti prest daude lan ontarako. Batzuek tiratzen zioten buru-zorrotik; bestiak erotzat jorik egiten ziozkatent milla itxuskeri. Dena Jaungoikuagatik eramaten zuan anai Bernardok. Onen ainbesterañoko eramankizunak arritu zuan letradu bat. Aienaturik onek mutil taldia, alderatu zitzaion Bernardori, ta esan zion: «Nor zera zu?» «Ni naiz Asistik etorri naizen gizon penitente bat.» Au esanta erakutsi zion Ordenako erregla. Irakurri zuan letraduak erregla, eta arriturik lenaz gañera, esan zuan ingurukuak aditzeko moduan: «Egiaz

nere bizitzan ez det bizi-modu egokiago ta santuagorik ikusi, gizon onen bizi modua baño».

Letraduaren itzak jendiak aditu zituan bezela, jarri zan anai Bernardoren alde. Lenago kontra zituanak, oraiñ zituan bere alde; len menospreziatu zutenak, oraiñ zituan maitatzalle. Ainbesteraño onratu nai izan zuan erri ark anai Bernardo azkenik eze, bere umiltasunian, buruaz gainezko onra aiek ezin eramanik, bere Aita-lenari eskatu zion, gizonen itz leunak adituko etzitian tokira, leku alda zezala. Onelako bidiak, umillen bidiak; munduaz txit gutxi ezagutuak.

Sartianoko praile-etxian, dio San Buenabenturak, gure Santuak gau batez oraziuan zeguala, aditu zuala ots bat, eta galdeturik zer nai zuan, entzun zituala itz oek: «Ezta munduan Jaungoikuaren errukia iritxi ez dezakian pekataririk; bakarrik dire penitentzi gogorregiekin beren buruak iltzen dituztenak». Ezagutu zuan Franziskok, zeruko argiarekin, diabruarena zala izkuntza ura. Beragatik tentazio ura aienatzeko, erantzi zuan soña, ta soka bat arturik zatitu zuan bere gorputza, esanaz: «Ea, anai astua, onelaxen i biar aiz tratatu ta ezi. Zer? Ezin dek eraman santutasunaren señaile dan jantzi bat?» Au esanta laster, zeguan bezela gorri ta odoldua, bota zuan bere burua elurretara; ta gero, diabruari iseka ta parra geiago egitiagatik, egin zituan elurra-ekin tontor batzuek, bere familia bazen bezela, adiazi nairik diabruari, etzeguala ura aren zirikai begiratzeko. Lotsaturik, lotsa aundirik ezpadu ere, aldegin zuan orduan diabruak.

Milla berreun ta amaikagarren urtiaren ur-illetik milla berreun ta amabigarrenaren asierara asko lekutan predika zuan Santuak, bere itza sendotuzen zutela mirariak. Orobat egiten zuten bere semiak. Gazte taldeak zijuazkion Aita-lenari jantzi santuaren eske, ona zergatik ugaldtu ziran denbora gutxian Ordenako etxe asko. Garizuma aurrian jo zuan Porziunkula Santuak bere espiritua berritzera.

BEDERATZIGARREN BURUA

ASISKO KLARAREN JATORRIA, TA BERE AURRENEKO URTIAK

Urte artan garizumako itz-aldiyak egin zituan Asisko eliza nagusian Franziskok. Asko pekatari mugitu ziran orduan penitenziara. Oen artian baziran dontzella gaztiak, eta aien artian izentatzen zan bat Klara, Jaungoikoaren graziak beste guziak baño geiago ukitu zuala zirudiana. Dontzella garbi arzaz baliatu zan San Franzisko, gizonentzat jarri zuan bezela Ordena bat, emakumientzat jartzeko beste bat.

Biotza atsegin garbiz betetzen da gazte onen bizitza irakurtzian. Beragatik emen esango det zerbait beraren onran; bada ez diteke iñolako moduz ere utzi San Franziskoren bizitza Santa Klararena aitatu gabe zerbait, labur badere.

Klara zan Asisko alaba. Ona nolatan itzegiten dan gure Wadingo jakintsua Santa onen jatorriaz: «Klararen aita-bisaba zeritzan Paulo, Funitarren pamili txit noblekua. Paulok izan zuan seme bat; onen izena Bernardo zan. Bernardok izan zituan iru seme; irutako bat zan Faborino, zeñak artu zuan emaztetzat Ortulana gazte jator oneko ta birtute aundikua. Faborinok Ortulana-gandik, Jaungoikuak emanik, izan zituan iru ala-

ba, Klara, Ines ta Beatrix. Ortulana kristau birtutetsuak, lenbiziko aurra artian sabelian zeukala, errezatzen ari zala beñ batian gurutze baten oñian, aditu zituan itz oek: «Ez izan bildurrik, emakumia; zuk argitara emango dezun aurra izango da zuzi piztu bat, argi egingo duena munduan.» Ona zergatik aur lenen jaiuari ipiñi zioten izena Klara. Klarak esan nai du argia. Izena zuan argiarena, eta egiaz argia izandu zan; pekatari askoren biotzeko pekatuzko illuntasunak desegin zituana. Argia oraindik bere birtute garaien dizdiadurak beste asko birtutetsuen espirituak alaitu zituana, are ta geiago aurreratu zitezen santutasunian.

Seniparterik onenak dira gurasuen birtutiak. Aberatsak ziran Klaratxoren gurasuak lurreko ondasunetan. Baña ama txit aberatsa birtutian. Ezta aberastasun ta apaingarri ederragorik santutasuna baño. Aur paregabiak laster ikasi zuan bere ama maitiagandik Jaungoikua adoratzeko orazio eginez, eta birtutiari biar zaion bezela begiratzen. Urtietan bezela birtutian zijuan aurrera. Kanpozt bestiak bezela bere estaduari ta etxiari zegozkion apaingarriaz apaindurik ibiltzen zan; barrundik berriz, soñeko pitxien azpian, gerrikotxo, zilizio latz bat, adiarazten zuala au geiago maita zuala, jantzi pitxi ta nabarrak baño. Eta ongi egiten zuan; bada onekin itxitzen ziozkan atiak garbitasunaren kontrako biziuari.

ARTZEN DU KLARAK FANZISKO BERE ESPIRITUKO GIDARI

Eldu zan Klararentzat estadia artutzeko denbora. Gurasuak nai zioten billatu senar bat. Klarak maitago du biotz garbiya senar bat baño. Ezkontzari ezer ere kendu gabe, geiago balio du garbitasunak senar batek baño. Biotz garbiya dago elkaturik Jaungoikuarekin, eta ez da pagatzen ezerekin. Onetan arkitzen zan Klara, San Franziskoren ikasle egin zanian. O Klara, gazte zorionekua! Len aundiya bada zure birtutiaren argiya, nola orain, zuzi bedeinkatua, ez dezu argi geiago botako onelako maisuaren eskolan? Maiz ikusten ziran Franzisko ta Klara Porziunkulako elizan, nora ere juaten zan Klara, Bonna Guelfucci bere aide emakume errespetagarria lagun arturik. Santutasunian bertan gaztiak artu biar ditu beti onelako arretak munduagatik eta ejenplu onagatik. Gidatzen zuan Franziskok Klara zuzen ta seguru zeruko bidian. Laster dontzella garbiaren biotza bere itz Jaungoikozkuakin mugitu zuan betiko agur bat munduari egitera. Jesusi ariñ jarraitu nai dionarentzat traba aundiya da mundua. Klararentzat apainduriak ordukoz pisu ziran, eta len-bai-len mundu au utzi-naia ondatsun guztiakin sartu zitzaion goguan.

Egun batez, galdetu zion Klarak bere Aita gidariari: «Noiz nai dezu ostika dezatan mundu au?» Erantzun zion Santuak: «Begira, Klara, egun andi bat biar degu orretarako aukeratu. Ez da beti predika oi itzez, baizik egitez ere bai; mutumu egiten diran predikaziuak izan oi dira onenak animak konbertitzeko. Egoki datorkigu lan

onetarako Erramu-eguna. Egun onetan sartu zan Jesus Jerusalemen munduaren garaitzalle. Eta Erramu-egun zoragarri au ordu gutxiz geroz trokatu zan egun illunian. Nai nuke, Klara, zuk beste ainbeste egitia. Beragatik Erramu-egunian, alik onduena apaindurik, sar zaite elizan, munduari irebazi biar diozun garaimenaren seña bezela, erramu-osto berde bedeinkatua artutzera. Gero arratsian utziko dituzu Porziunkulako elizan apaingarriak; gisa onetan Jesus idurituko dezu trokaturik osto berdiak gurutze astunian.» Franziskok esan, Klarak egin.

AGURTZEN DU BETIKO MUNDUA

Eldu zan Erramu-goiza. Asisko Klara, dontzella garbiya apaiñ-apaiñ eginik eta dama askok lagundurik juan zan eliz nagusira. Asten dira egun artako ofiziuak, bedeinkatzen dira erramuak; gizon ta emakumiak alderatzen dira aldare santura Obispo jaunaren eskutik osto berdiak artzera. Klara ez da mugitzen bere tokitik. Iduiritzen zaio bere modestiari apainegi daguala. Jaungoikuaren espirituak gidaturik, jeitxirik Obispo Jauna aldaretik zeguan tokira eraman zion osto berde ederra Klarari bere eskura. Egina dago; zeruak berak artu du ontzat Klararen asmua. Nola etzuan artuko?

Goiza onela igaro zan. Eguzkia nekatu zan eta gorde zuan bere argiya; illuna zan gañian. Klarari eldu zitzaion ordu desiatua. Baña nola irten-go da etxetik? Atiak daude itxita; giltzarik berriez ez. Bazuan etxe ark noizbait atia izandako

toki bat, baña orain ura ere arriz ta zurez dago itxirik; ura idikitzeke ez deritzo Klarari daukala bear aina indar. Alere, fediaz armaturik, juan zan aterunz; eta - o miragarria! - dontzella garbiaren eskuaren ukitziari arriak eta zurak obeditzen diote, eta nola eztakiala arkitzen da etxiaz kanpotik. Gogo aundiyak biak arintzen ditu ta bidia laburtu. Begien itxi-idiki batian Klara aurkeztu zan Porziunkulan. Prestaturik zeguan ordukoz Franzisko bere semiakin. Kantuz Jauna alabatuz, argi bana eskuan ta biotza zeruan, Klara argi ederra argiz inguratua an deramate erdian triunfuan aldariaren oñetara. An uzten ditu apainduri guziyak, baita ere bere buruko illiak. Zaku gisako soñeko latz bat eta gerria lotutzeke soka bat artzen ditu San Franziskoren eskutik. Orduan eskaini zion Jaungoikuari bere biotzeke garbitasuna, guzia zan aina jartzen zala bere eskuetan. Agur mundua, ez dek geiago nerekin zer eginik. Franzisko ta bere semiak, Klara ta Aingeruak denak elkaturik biotzak alabatzen dute Jaungoikua berriro esker onak biurtuz. Irakurle ona, zer ikusgarri eragilia au zure biotza mugitzeke Jaungoikua serbitzera! Emezortzi urte zituan orduan Klarak, Jaungoikuari zure biotza, bere jabiari bezela, emateko urterik onena. Porziunkulatik biali zuan Franziskok Jesukristoren esposa Klara, berak aruntza eraman zituan lagunakin, San Benitoren alabak bizi ziran moja-etxera, antolatu bitartian Klararentzat bizi-leku bat.

Guazen orain bere jaiotetxera. Eguna zabalztzian galdetzen dute: «Nun da gure Klara?» Etxian etzuten arkitu. Baña laster jakin zuten nun ze-

guan; begian negarra ta biotzian pena, an diju talde aundi bat korrika San Pauloko, Klara dagan, moja-etxera. Klara arkitzen zan elizan. «Zertara etorri zera onera? – esaten diote –. Guazen aguro etxera. Etxeko desonra izango zera.» Aurreneko itzezin zioten eztiki; baña ezin zutenian onian, asi zitzaizkan gogorrian. Orduan esan zien Klarak: «Utzi niri emen pakian.» Eta agerturik bere buru soildua, sendo-sendo itsatsi zan aldare santuarekin. Klararen asmo erabakiaren sendotasunak garaitu zituan aren billa jua ziranak; etsi ta utzi zuten bere lekuan.

Andikan laster Klara aldatu zuan bere gidariak moja-etxe artatik Pansoko Aingeru santuko beste batera; Ordena berekua zan ura ere.

KLARARI JARRAITZEN DIO BERE AIZPA INESEK

Ines Klararen aizpa gaztiagua zan. Izanik au bere biotzaren kidakua, pena txit aundia ematen zion au munduko arriskuen tartian ikustiak. Beragatik egiten zion Jaungoikuari orazio, atera zezala mundutik bere aizpa Ines. Klararen oraziuua aditu zuan zeruak. Munduari Klarak agur eginta amasei-egunera, Inesek ere egiten dio bere aizpa zarrenaren antzera. Bi aizpak laztantzen dira eta dio Klarak: «Eskerrak ematen diozkat Jaungoikuari, atera zaitualako mundutik eta arindu ditalako zure kontuak ematen ziran naigabia.» Baña Inesen etxian prestatzen dira amabi gizonetaraño aserrez armaturik. Lasterka jua ziran moja-etxera: Jo ziztuzten atiak. «Nor da or?» diote barrundik. «Ines

emen dago?» «Bai, emen dago.» «Datorrela.» Bador Ines. «Guazen etxera ta aguro.» «Nik aizparekin bizi nai det.» «Zertara etorri zera onera? Tira-tira ta laster etxera gurekin.» «Ez naiz juango: ni nere aizparekin ondo nago emen.» Azken itz au aditzian zaldun batek jo zuan ukallillaz aur gaixua, eta au asko ez balitz bezela, arturik besotatik eta buruko illietatik, beste batzuek gorputzetik, an daramate indarrian. Orduan ezin geiaguan negarrez deitu zion bere aizpari Inesek: «Klara, Klara, nere aizpa maitia, laguntza niri! Ez dezazula eraman oek ni Jesukristori kendutzia!» Au aditu zuanian Klarak, be-laun-bikatu zan ta egin zion Jaungoikuari orazio bere aizparen alde. Oraziuaren indarra! Maldaz bera zeramaten arrastaka Ines, eta bat batetan, orazio Klarak egin zuanarekin bat, gelditu zitzaion Ines ain pisu eze, ez an ziran amabi gizonek ezik, beste geiago eraman zituztenak ere, ezin mugitu izan zuten zeguan tokitik. Alere gizon aiek etzuten ezagutu nai an Jaungoikuaren eskua ainbestez. Asko aietakok egiten zuten parra gatz: pisuaz esanaz: «Duda gabe plomua jan dik neska onek bart arratsian.» Errabi gorrian Monaldo bere osabak jaso zuan besua azken golpia Inesi emateko, eta egiaz illko zuan, Jaungoikuak ala nairik, baldin ezpazan gertatu, gertatu zana. Besua jaso bezain laster Monaldok Ines jotzeko, ofñaze aundi batek artuta gogortu zitzaion. Alatan agertu zan Klara eta esan zien: «Utziozute nere aizpari nerekin; nik onen arreta izango det.» Orduantxe, goguaz kontra badere etsirik, utzi zioten Ines Klarari. Bi aizpak elkarrekin gelditu zi-

ranian, nork aien bien poza adiaraziko du? Beraz aizpa biak juan ziran etxera. An eman zion San Franziskok, illiak moztu ondorian, jantzi latz asko balio etzuan bat.

KLARA ETA INES JARTZEN DITU SAN DAMIANEN AITA-LENAK

Andik laster erabaki zuan Santuak bere bigarren Ordena berriaren aurreneko bi ikasliak San Damiango elizara eramatia, nun ere zeguan etxe bat eliza jotzen zuala, izan zedin Klara ta beste bere alaben bizi-lekua. Au izan zan bigarren Ordenako lenbiziko etxe santua.

Oroituko da emen irakurlia, San Damiango eliza au dala San Franziskok erreparatu zituan iru elizetatik lenbizikua. Bai eta ere nola emen Jesusek gurutzetik itzegin zion; gañera nola aurrez Santuak aditzera eman zuan egunen batian an ikusiko zirala dontzella garbi batzuek beren garbitasuna Jaungoikuari konsagratuz bizituko ziranak mundukuak ez bezela. Au guzia orain egiztatu zan gazte santutasunaren adiskide ta dontzella garbitasunaren maitatzalliak batzuek San Franziskori, bestiak Santa Klarari eskatzen zioten erlijioko jantzi santua. Oraindik geiago dena, izandu ziran ezkonduak, senarra San Franziskoren Ordenara eta emazia Santa Klaranera, elkar aditurik onian, anima obeto salbatziagatik, munduari agur betiko bat egin ziotenak.

Beatrix Santa Klararen aizpa txikiena ere sartu zan erlijio artan. Andik iru urtera andre Ortulanak, alargun gelditu zanian, beste ainbeste

egin zuan, jartzen zala erlijuan bere alaba Klara-
ren mendian, zeren Franziskok egin zuan Klara,
bere umiltasunian nai ezpazuan ere, etxe santu ar-
tako buru, abadesa. Berrogei ta bi urtian iraun
zuan Klarak eginkizun artan, argi egiten zuala
beti bere santutasun garaiak illuntasunen erdian
zuzi piztuaren gisan.

AMARGARREN BURUA

SAN FRANZISKOREN DUDA BAT

Antolatu zituan erarik onenera gure Aita-len santuak Santa Klara ta bere alabak San Damian-en, eta gero nola txit jaiera aundiya zuan orazio-rako, sartu zan duda batian predikaziua utzirik jarraituko ote zion oso oraziuari; eta egin zien itzaldi au bere semiai: «Nere anai maitiak, iritzi bat eskatzen dizutet: zer dala onena deritzozute, ni oso oraziuai ematia, edo ta bestelaz Jaungoikuaren itza adiaraztiari?... Oraziuaren alde arkitzen ditut arrazoi aundi ta asko... gañera ni izanik gizon senzill bat bestiai itzegiteko... Bakarrik Jaungoikuaren aurrerako uste det gauza batek oraziuari diola bentaja predikaziuak, au da: Jaungoikuaren Semia jetxi zala zerutik lurrera animak salbatziagatik erakutsiaz itzez eta egitez Jaungoikuaren legia predikaziuaren bitartez. Eta nola gu gauden Jesus iduritzera biartuak, deritzat Jaungoikuaren gogua izango dala nik ere animak salbatziagatik, Jesusek egin zuana egitia.»

Bi gauzagatik, dio San Buenabenturak nai izan zuala Jaungoikuak izan zezan San Franziskok duda au. Lenen: zeruak agerturik azaldu zedin are geiago zein merezigarriak diran predikatza-llien on arrastuak. Eta bigarren: izan zedin du-

datze ura Franziskorentzat gai berri bat umiltasunian are geiago sendotuzteko, naiz ez lotsa izan bein ere bere semiai iritzi bat eskatzeko.

Beraz zertara jo jakitiagatik esan zien bi erlijioso Filipe ta Maseori: «Zuazte anaia Silbestro, Jaunaren apaizarengana; (zeña arkitzen zan orduan Asis inguruko mendi batian; au zan arako Franziskoren aotik urrezko gurutzia irteten ikusi zuana), esaiozute galde deiola oraziuan Jaunari nere dudaz, eta biali deitala Jaungoikuaren erantzuerara. Gauza bera esan biar diozute ere arreba Klarari.» Silbestrok eta Klarak egin zuten orazio, eta bien erantzuerakin itzuli ziran Filipe ta Maseo beren Aita-lenarengana. Guztiz ederki artu zituan Santuak bere mandatariak; garbitu zitzen oñak, laztandu zituan eta jaten eman onduan deitu zien bakardadera. An belaunikatu zan eta bularraren gañian besuak gurutzeturik esan zien: «Esan zadazute nere Jaun Jesukristoren gogua zer dan.» «Nere aita maitia –erantzun zion Maseok–, Silbestrok eta Klarak erantzuerara bat izan dute gure Jaun Jesukristorengandik, eta dio: juan zaitiala predikatzerara mundu guziari; zeren etzaituan autu Jaungoikuak zere anima bakarrik salba ezazun, baizik beste askorenak ere bai. Beragatik eta salbatu biar diran animen onerako, zure auan Jaungoikuak berak jarriko ditu itz egokiak.» Au aditu bezain laster jaiki zan Santua amorioz suturik, eta arturik lagun Maseo ta Rietiko Anjel, esan zien berriz: «Guazen, guazen Jaunaren ize-nian.» Ta irten ziran Bevañaruntz.

PREDIKATZEN DIE TXORIEI

Adani pekatu egin baño len kriatura guziyak obeditzen zioten; guztien errege baizen. Moduren batian gure Santuarekin au berau igaro oi zan, gertaldi onetan bezela. Bevaña bidian arkitu zituan txori asko mueta guzietakuak bide inguruan. Poztu zan txit Santuaren biotza Jaunaren kriatura garbi aiek ikustiaz. Badijuakie. Txoriak geldi. Agur gozo bat egiten die Santuak txoriai. Alderatu zitzaizkan txori taldiak, jartzen zitzaizkala arpegiz-arpegi. Orduan esan zien Franziskok: «Aditu, aditu nere arreba txoriak! Askok biar dezute alabatu zuen Egillia, bada lumaz jantzi zaituzte, airia ematen dizute, bai ta ere jaten.» Au esaten zien denboran, txori batzuek mokotxuak idirik, bestiak egotxuak zabaldu, askok lepua luzatu, eta denak Santuari begira aditzen bazuten bezela esaten ziena, batak baño bestiak poz aundiagua agertu nairik egondu ziran txorien predikatzaile Franziskok azken bendizua eman zien arteraño. Orduan denak egatu ziran era bat kantuz Jaungoikua al zuten moduan alabatzen. Franzisko itzuli zan bere lagun arritueta esanaz: «Damu det txori polit garbiai egundaño ez predikatua». Ze biotz aingeruzkua zuan gure Santuak!

KARIDADEZKO LAN MIRAGARRI BAT

Denbora artan gure Aita-lenaren semiak eritegietan egon oi ziran, eriak, batez ere legen-arrak juak, sendatzen. Eginkizun onetan ongiena eza gutzen zan nor zan ona ta nor ez Ordena santu-

rako. Erien urrikirik etzuanik etzuan ezagutzen Franziskok bere semetzat.

Egun batez etorri zitzaizkan Santuari eritegitik bi seme. «Aita –esan zien– : eri batek makillaz jo gaitu, baña au, eraman ditekiana dan bezela, eraman degu ixil ta umill ustez. Baña ezin eraman ditugu botatzen dituan blasfemiak». Itz au aditu bezain laster jua zan korrika eritegira Santua. «Pakia izan dedilla zurekin, *pax tecum*, esaten dio eriari gozotasun aundiarekin. Jaungoikuaren eskutik datorkizun gauza bezela biar dezu eritasun ori eraman, Berak nai duan ezgeroz.» Alferrik izan zan au esatia. Jarririk oraziuan eskatu zion ezin bestian Jaungoikuari itz onekin: «Jauna, bigundu zazu gizon onen biotz gogorra.» Eskari au Jaungoikuari egin onduan berriro jua zan eriaren aldamenara. An amorio aundi batekin esan zion berriz: «Nere anaia, zer nai dezu zure onagatik nik egitia?» Erantzun zion gogorki onek: «Zer nai nukian nik? Nik nai nukiana da, zuk nere gorputza garbitutzia; zeren neronek ezin daramat nere gorputz zauriz ustelduak botatzen duan kiratsa.» Ixil Franzisko prestua; karidadez beterik berotutzen du uda, eta udari usai gozoko belar batzuek botarik, bere eskuaz garbitzen du gizon tratalkaitz aren gorputz zikina. Zein Jaungoikuaren gogokua dan karidadia orduan agertu zan. Franziskoren eskuak ariñ igurtzitzen zuan eran, eritasuna zijuakion gaixuari, agertzen zalarik azal berri ederra. Ez bakarrik ordia gorputza sendatu zion; bai ta ere gorputzeko osasunarekin batera animakua eman zion. Geroztik

gizon aren aotik itz onak ta esker onak beste-rik etziran aditu.

PREDIKATZEN DU BEVAÑAN ETA ALVIANON, EGITEN DITUALA MIRARI AUNDIYAK

Sartu zan Bevañan eta asi zan predikatzen. Zer predika zezakian gizontxo ark? esan dezake norbaitek. Jaungoikuaren amoriuan suturik daukanak biotza, ezin somatuak nekerik ez diseke. Amoriua izango da Franziskoren lenbiziko itza; amoriua bere itz-aldiaren azkena. Bein ukitu zuan Franziskoren biotza Jaunaren amoriuak; geroztik amorio au berau predikatuko du aurrena, beste askoren biotzak ukitu ditzan.

Egiaz Bevañako asko jende sartu ziran Jaunaren grazian amoriozko predikazio onen bitartez. Batez ere ikusi zutenian itzari mirariak laguntzen ziotela, nor etzan mugituko? Nork, diot, ezaguturik Jaungoikuak bere serbitzariaren bitartez egiten zituan alako mirariak? Bevañan erri guztiyaren aurrian biurtu zion Franziskok begietako argiya neskatxa bati. Onetarako igurtzi ziozkan bere txistuaz betazalak iru aldiz Trinitade santuaren izenian.

Beti deitzen dute mirariak jendiaren ikus-naia. Ikus-nai onek asko aldiz dakartzi danik eta biotzik gogorrenak Jaungoikuaren adiskidetasunera. Guziya da au Jaunaren graziazko egin-bide bar.

Iduri zitzaion gure Aita-lenari, zeñak Jaungoikuagatik zerbait sufritzia beti desiatzen zuan,

Jaungoikuaren itza adieraztiarekin baño, bere zañetako odola ixurita anima geiago irebaziko zitu- tuala, eta beria segurtu. Beragatik artu zuan as- mua, Italia utzirik, eguzki alderunz bidegitia, nun ere bere ustietan, Jaungoikuaren itzaren biarta- sun aundiaguan arkitzen zan jendia, Italian ba- ño. Ez ote zitzaion agian gogoratu, oraingua ba- zan Italia orduan, Italian baño obeto aditua izan- go zala eguzki aldirian? Dena dela, erabaki zuan eguzki aldera juatia. Utzirik beraz bere ordeko Cataneoko Pedro, ekin zion lenbizi Erromako bi- diari. Eldu zan Alvianoko errira eta asi zan an ere Jaungoikuaren itza azaltzen. Artan ari zala, enaldi batek beren txirul-txirulekin eragozten zion jendiari Santuaren itza aditzia. Agindu zien, Franziskok enadai ixil zitezela ta aguro. Agin- dua egin zuten enadak, ixildu ziran beriala. Eza- gutzeko ongi zenbateraño zabaldu zan mirari au munduan, asko da gogoratzia arako San Buena- benturak kontatzen duan ura. Au da Parisko eskola-mutil bati gerta zitzaiona. Dio bada San- tuak: «Ikasle bati bere txirul-txirulekin eragozten ziola ikastia enada batek. Esan zion ark bere lagunari: duda gabe enada onek izan biar dik, San Franziskori predikatzia eragotzi nai izan zion aietakua, zeñak ixilduazi zitien ta aguro. Ala- tan esan zion txoriari: Jaungoikuaren serbitzari Franziskoren izenian, enada, atoz nigana, eta ixil- emen: Franziskoren izena aditu bezain laster ixil- durik txoria, etorri zitzaion eskura mutil ikasliari. Arriturik mutilla, utzi zion txoriari juan zedin nai zuan tokira eta aren kontu txirulik etzuten adi-

tu. Au diona da San Buenabentura, Parisko maisu jakinduri aundienetako bat denbora artan.

FRANZISKO ERROMAN

Ongi artu zuan Erroman Franzisko Aita Santu Inozenzio irugarrenak. Bere Ordena berriko kontu guziya eman zion Sentuak, eta poztu zan kristau fededun guztien Aita. Agertu zion ere Maometar ta Tartarrai Ebanjeliua predikatzeko zuan asmua, eta gogoz eman zion Aita Santuak bere bendiziua. Erroman egondu zan denboran Franziskoren itzak konbertitu zituan batzuek. Bertako seme Zakariasi eman zion jantzi santua: baita Gillermo Inglesari ere; onek bete zuen bere birtute andiaz, Juan Capella, Judas bigarrenak, egin zuan uts-unia.

Siete-soliosko Jakoba, Erromako andre alargun, aberats, birtutetsuak, iriki ziozkan bere etxeko atiak Franziskori. Gañera artu zuan bere espiritu guziaz zuzentzeko gidari. Laster lenaz gañera aurreratu zan birtutian ta santutasunian miresteke moduan andre Jakoba. Nor etzan aurreratu alako Aita espiritukuarekin? Bi emakume ikusten ditugu gure Santuarekin zerbait tratatu zutenak, beti animako gauzetan: Klara eta Jakoba. Oekin izandu zan Franzisko gisa berian nola Jesus beste orduz Samaritana eta Madalenarekin.

Franziskoren semiak andre Jakobaren etxian arkitzen zuten legorra eta arkitzen zuten ogia. Andre oni zor diote San Franziskoren semiak Tibet ibai-bazterrian arkitzen dan San Franzisko *á ripa*

deitzen dan praile-eliz-etxe santua. Ikusten da oraindik etxe santu artan San Franzisko bizitu zan gela, baita ere arrizko burko bat zeinaren arri-muan desneke ariñ bat artu izaten zuan. Franzisko itzuli zan Asisa.

ITZULTZEN DA BERRIRO ASISA ETA SARTZEN DA ITSASUAN SIRIARAKO ASMUAN

Irten zan bada Ascoli, Marca Anconako erri-
ra; asi zan Jesukristoren lege santua azaltzen ango
jendiari, zeña aspaldi artan arkitzen zan Santua-
ren itza aditzeko desio aundietan. Jaungoikuaren
itza gogoz aditzen danian, beti frutu onak ema-
ten ditu. An ere ala gertatu zan. Erri artan baka-
rrik, ogei ta amarrek eskatu zion Ordenako jan-
tzi santua.

Baña artutako asmua len-bai-len nai zuan be-
te, eta beragatik alderatu zan itsasora; sartu zan
ontzian Siriarako ustian; aizia zuten ordia aurre-
ratzeko txarra, eta bota zituan onek Esclavonia-
ko legorrera. An zeguan gure Santua, Siriarako
ontziren bat agertuko zalakuan itsas gañian; ba-
ña alper gaiztuan. Azkenik etsirik ekin zion bi-
diaz, Anconara zijuazen itsas-gizonai esan zien,
artu zezatela ontzian Jaungoikuaren izenian be-
re lagunarekin. Baña nola ez baizuen sosik,
etziokaten eman nai izan ontzian tokirik. Alere
Franzisko bere lagunarekin sartu zan ontzian ixi-
lik, eta gorde ziran. Bat-batian agertu zan Jaun-
goikozko gizon bat ontzian; esan zion onek itsas-
-gizon Jaungoikuaren bildurreko bati: «Tori ja-
nari oriek eta, biarrian arkitzen diranian, or gor-

derik dauden erlijioso orieri emango diezu jaten. » Aizia zuten kontra; bidia, laburtu biarran, luzatu egin zan, eta egunak geitu. Zer janik gabe gertatu zan biartasunik estuenian jende ura guztiya. Baña Franziskorentzat bere lagunarekin zeguan piska, asko izandu zan guzien gosia kentzeko, lurra jo arteraño. Orduan ezagutu zuten denak Jaungoikuak bere serbitzari Franziskoren bitartez mantendu zituala eta luzatu ziela bizitza.

BERSOLARIEN ERREGEREKIN GERTATU ZANA

San Seberinoko errian ari zan Franzisko predikatzen. Enperadore Federiko bigarrenak koroatu zuan, itz neurtuetan txit artekua zan gizon bat, ta izendatu *bersolarien Errege*. Bersolarien errege au arkitzen zan bada Franziskoren aditzallien artian itzaldiko denboran. Ikusi zuan bada gizon onek orduan Franzisko, bi lantzaz gurutzetara josirik. Igarotzen zion gorputza lantza batek sarturik burutik beraño; beste lantzak saietsetik saietsera. Seña onekin ezagutu zuan uraxen zala berak billatzen zuan Jaungoikuaren serbitzaria. Itzaldia bukatzian eskatu zion San Franziskori Ordenako jantzi santua eta eman zion; nola munduko arazo ta gauza nastuetatik igaro zan Jesukristoren pake santura, arengatik izena jarri zion Pazifikorena.

Santuaren kopetaren erdian bein ikusi zuan Pazifikok T bat kolore askorekin ederki egiña Nola baitan *te* au gurutziairen antza duena, onekin aditzera ematen zuan Jaungoikuak, Jesus

maisuaeren antzera nola gurutzia laztanduko zuan bere serbitzariak; au izango zala bere bandera, eta gurutzian egingo zuala bere egoitza. Baita ere anaia Pazifiko onek berak ikusi zuan zerua, ta an esertoki bat beste guztiyak baño ederragua. Galdetu zuan norentzat zeguan ura, eta erantzun zioten: «Au da lenago Aingeruak galdu zuana, eta orain Franziskorentzat gorderik daguana.»

Bien batian galdetu zion Santuari Pazifikok: «Aita, zer iduritzen zaio bere buruaz?» Erantzun zion Santuak: «Iduritzen zait pekatari guzien artian ni baño aundiagorik ez dala». «Nola ori? Ezin lezake kontzientzian ori esan». «A, nere anaia! Baldin Jaungoikuak niri egin dizkidan mesediak eta eman dizkidan laguntzak, pekatariarik aundienari egin balitzaizkio, nik Jaungoikuari erantzun diotan baño esker obiaguarekin deritza! erantzungo ziola.» Ainbesterañoko umiltasuna erantzuera miragarri onetan ikusi zuanian anaia Pazifikok, Luziferrek bere arrokeriaz galdu zuan esertoki ura gorderik zeguala Franzisko Aita-len Santuarentzat jakitiak, etziokan mirarik ematen.

Toscanako etxe-santuak ikusi ondoan, anaia Pazifiko bide-lagun zuala, biurtu zan San Franzisko Asisa, 1212 garren urtian.

SAN FRANZISKOREN SEMIAK LAPUR-ETXIAN

Bi erlijioso illunak arrepatu zituan bidian borda baten inguruan. Borda au zan lapur-etxia. Lapur guzien buru egiten zuana zan jatorriz etxe

oneko semia. Erriarekin zerbait ikuskizun izandu zualakoz, eman zan bizi-modu berri artara. Bordako atarira eldu bezain laster, bota zien lapurrak alto ikaragarri bat. Etziran erlijiosuak oso ezeztatu; baizik eskatu zuten Jaungoikuaren ize-nian legorpe bat gau ura igaro arteko. Oroiturik lapur aien buruak bere jatorri onaz, ongi artu zituan, eta jarri zituan gañera bere maian. Apal-orduko denbora guzian etzan beste jolasik aditzen mai artan, ezpada egun artan egin zituzten lapurreta eta gañerako oni dagozkion gaiztake-riak. Erlijioso onak, guztiya aditzen, illun zeu-den ta ixil. Apari ura bukatu zanian, erlijioso aietako batek eskatu zien baimena itzegiteko. Asi zan bada itzegiten, eta ain gauza ederrak esan zituan zeruko atsegin garbi ta ango gloria-ren gañ eze, lapur guziyak zeuzkan arri ta zur eginik berari begira. Itz-aldi arren frutua izan zan lapur aien buruaren konbersiua. Gau artan bertan aitortu zituan bere pekatuak konfesian, ta andik egun gutxira San Franziskok berak eman zion Ordenako jantzi santua.

SAN FRANZISKO GAIZKITUTZEN DA

Urte onen azkenera beñ sukar irukorrak, beñ laukorrak, utzi zuten indargabeturik gure Santua. Gidon Asisko Obispo jaunak artu zuan amorez bere jauregiyan; naiz ez izan Franziskok jau-regiko bizi-asmorako gogo aundirik. Arara juaten zitzaizkan bere semiak, beren animaren egitekuen argi-billa. Onera oraindik eramaten zituzten inguruetako etxe-santu guzietara juaten ziran gaz-

te mundua utzi-naikuak jantzi santuaren eske, askotan ogei ta amar, berrogeitaraño. Ainbesteraño bedeinkatzen zuan Jaungoikuak Franziskoren Ordena, eta bendizio oekin adiarazotzen zuan bere gogua mundu guzira zabaltzekua zala.

Luca-ko gazte jator oneko bat etorri zatzaion beñ negarrez jantzi santuaren eske. «Zergatik negar egiten dek? – esan zion oni –. Nai dek begitik agertu biotzian ez daukiana? Ire asmua utsa dek, laster jiratu biar dek.» Egun gutxiren buruan, Santuak aditzera eman bezela, etorri zitzaizkan zaldun, morroi ta bere aidiak, eta eraman zuten etxera, begiak legor.

FRANZISKOREN GAITZ ONDOKO EGUNAK

Zerbait indartutzen asi zanian, oartu zan jau-regiko janak praile-etxeak baño on geiago bere gorputzari egin ziola; iduritu zitzaion igurtzi geiegi egiten ziola bere gorputzari eta onen mañarentzat begiramen aundigia zeukala; au zan bere iritzian utsegite aundi bat. Beragatik eta erre-medio egoki bat jartzeko, txirundu zuan lepuan soka, ta gañeko jantzia kendurik, deitu zion Cataneko Pedrori: «Atoz, nere anaia Pedro; arzu soka au eskuan eta tira indarrez niri kupida gabe; eraman nazazu urkamendiko arriaren gañera». Onela elizatik urkamendiraño bere burua kalez-kale eraman azi zuan. An erriari itz-egin zion era onetan: «Ni naiz jale aundi bat; beragatik ez nazute animako gauzari zorrotzasunarekin begiratzen dion bat bezela artu biar; aiñ gutxi Santutzat». Gisa onetako egitiakin Franziskok bere

burua beratzen zuan, eta etsaiari ebakitzen zion bidia, bere biotzian sartu etzedin.

GALAI BATEN KONTAIRA

Jatorri on ta aberatseko galai batek, arturik lagun aide adiskide ta morroi asko, Santa Maria Aingeruen atonduan eskatu zuan Franziskoren Ordenako jantzi santua. Ikusirik Santuak ainbeste atarramentuko jendia, galdetu zion anai bati: «Zer da jende ori guzia? Eta zer dire zaldun oriek?» «Aita, emen dator gazte bat, Milango etxaldeko seme odol oneko galai aberatsa ta jakintsua; eta dator munduari azken agurra egin nairik, gure jantzi santuaren eske». Ezpaña parraturik orduan, esan zuan Santuak guzien aurrarian: «Ez deritzot gure arterako txit egokia dala orrenbeste arazorekin datorrena; baña alere gai onetan jakin nai det nere anaien gogo-modua». Esan zuten anaiak: «Ezta ori gure Ordenarako egiten dana». Au aditzian eman zion galaiak negarrari, ta gogotik. Urrikaldu zan Santua eta esan zien beriei: «Nere anaiak, ar dezagun, nai badu izan sukalkin.» Ain zan egiazkua mundua uzteko gaztiaren erabakintza eze, pozik, utzirik aide, adiskide, morroi ta urre-zillarrak, artu zuan Erroman San Blasko *ospizioko* sukalkintza mundu guziaren truke. Laztandu zuan Santuak, eta denbora naikuan ikusirik pozez serbitzen zuala sukaldeko lanetan, egin zuan beste ango guzien buru. Egiztatu zan galai onekin itzez-itzez Ebanjelioko itz ura: «Beeratzen dana, gooratua izango da».

FRANZISKOREN ERAMANKIZUNA; TA ERITASUNAREN ERDIAN BERE NAIA ANIMAK SALBATZEKO

Milla berreun ta amairugarren urtiaren asieran, sukar irukor ta laukorrak aldizka beti; bere gorputza gaitz onek zimel argaldu ta indargabetu zion, ta arkitzen zan neketan. Artan zeguala, gogoratu zitzaion, itzez ezin bazuan ere, beintzat izkiribuz zerbait on egin zezakiala animetan. Miñ-oñaziak ariñ eramaten zituan ta aisa, Jaungoikuaren amoriuak indar emanik arintzen ziozkalakoz. Baña gizonen onagatik bere animari begiratzia asko etzala, bestiak ere salbatu nai zituan, eta ona zerk mogitu zuan lenbiziko, itz-aldi au izkiribuz ipintzera: «Nik, Franzisko, guztien serbitzariak, lurraren gañian bizi diraden apaiz, erlijioso, eta ez-apaiz ta ez-erlijioso diran gizon ta emakume denai, esaten diet: O zer bedeinkatu ta zorionekuak diran Jaungoikoa amatzen dutenak eta Jesukristok ebanjeliuan agindua egiten dutenak!...» Gero jartzen ditu zenbait itz gozo, gu Jaungoikua biotzez amatzera mugitzeko; eta dio azkenik; «Egiten dizutet orain agur Jaunarekin».

Ozta irten zan Santuaren eskutik itz-aldi au, nola ordukoz jendia zeguan beti prest Franziskoren itzaz uzta egiteko, bata bestiaren leia izandu zan txit aundiya, itz on oriek nork beretzat arturik, lumaz izkiribitzeko oroitzapen bat bezela. Aditzera eman zioten Santuari laburregi izkiribitu ziela, eta luziago izkiribitu zeila, zeren guztiz gozamen aundiya artu zuan jendiak itz aiekin. Gauza onak ematen du gogua, ta itz onak berriro aditzekua. Animen gose osangarriak mu-

gitu zuan Santuaren biotza bigarren aldiz, orain jarriko dituan itzak, guziak ezpada ere batzuek. izkiribitzera.

FRANZISKO ERIAREN BIGARREN ITZ-ALDIA

Karidade egoki ta zeruko pakia eskaiñi onduran Santuak mundu guziai, egiten du itz-aldi luze bat, nun ere esaten du, ark luze, nik labur: «Miñaren indarrak eragotzi ditana esatia mingañaz, orain diot paperaz itzez ezin detana: Gu salbatziagatik Jaungoikua egin zan gizon; gugatik Ostian gelditu zan, eta gugatik gurutzian ill zan. Egiak dire oriek artu biar dituzutenak beti goguan. Laudatu Jaungoikua eta gorde bere lege santua. Maiz elizaratu, eta Jaungoikuaren apaizak guziz gañ errespetatu. Orazio ta baraubak; limosna ta obra onak, konfesio ta komuniuak egitzute maiz. Maitatu lagun urkua; egin justizia; izan animen gidari onak; obedi dezatela mendekuak; geiago begiratu animari, gorputzari baño, zeren gorputza ustelkorra dan bezela ustelduko dan, anima ordia ilkaitza dan bezela ezta illkorra». Gisa onetako egi aundiyak ezarri zituan Santuak bere bigarren itz-aldiyan. Itz aiek irakurten zituana, aietatik on ateratzeko asmuarekin, ematen zien gañera zeruko bendizio au: «Aitaren, eta Semiaren, eta Espiritu Santuaren izenian. Izan dedilla».

Onelako gauz txit onetan igaro oi zuan eguna Santuak minez arkitzen zan denbora artan. Uda-berrian obetoxiago jarri zan, baño ez beñere oso ondo; bada bere bizitza guztiyan beti izan zan miñkor ta maxkal.

AMAIKAGARREN BURUA

AITA-LEN SANTUA JARTZEN DA ESPAÑIARUNZKO BIDIAN

Landa zabala jartzen zaigu begien aurrian. Amorioz suturik eta onen indarrak mugiturik, nai du Franziskok ixuri zafietako odola Jesukristoren amoriuagatik. Ona zergatik egiten dion agur Italiai, España-runz juateko, emendik igeruan jotzeko asmuari Mairu-erria. Pamilian buru bat biar da beti; beragatik Cataneoko anaia Pedrori uzten dio onen kontua. Quintabalko anai Bernardo ta onekin batera beste batzubek lagun arturik, «Nuan - dio Franziskok -, nuan aguro, nere urtien sasoiari, Jesukristoren amorioz nere odola ematera». Ta jarri ziran bidian. Zaartzara egiten diran sakrifiziak egiya da balio dutela, bafña askotaz gutxiago gazte batek bere urtien lorian egiten duanaren aldiari.

GURUTZE SANTUAREN INDARRA

Eldu ziran ariñ Foliñiko errira. Emen ostalariaren etxia guarda zuan lau aldiz su ikaragarritik, gurutze santuaren señalari beraren gafi eginik. Ternin predikatu zuan, eta Santuaren ondoren igo zan Obispo Jauna sermoi-tokira, eta

galde au egin zion aditzalle-taldiari: «Aitu dezute gizontxo onen izkuntza? Bada, bai, askotan bialtzen ditu Jaungoikuak gizon aundi ta jakinduri aundikuak zeruko bide zuzena erakustera; baita ere jakinduri motza dutenak, orain ikusten dezuten bezela. Ikusten dezute gizon eze-rez ori? Franzisko, diot, jakinduri gutxi ta itxura ere gutxiago duana, eta zuen animen onagatik gaur Jaungoikuak biali dizutena».

Pozik dakizki artutzen anima umillak umillazten dituztenen itzak. Ozta jetxi zan Obispo Jauna bere itz-aldi au eginta, al zuan lasterrena belaunbikatu zan Obispuaren ofetan esanaz: «Sekulan iñork gaur beorrek bezela ez nau onratu, nere Obispo Jauna; askok naukate santutzat; alaxen balitz ere, Jaungoikuari eman biarrian eskerrak, nik eztakit zergatik nigan dauzkaten begiak. Berorrek ondo ezagutzen du ezurra eta ezagutzen du ere mamiya. Ondo daki ezurra mamiya ez dela, ezta ere ni, gizon txatar bat, santua, eta ain gutxi santu aundiya. Eskerrak, Obispo Jauna, egiya diolako».

Erri artan ardo mindua gozatu zuan, gurutze bat eginta beste gabe. Baita ere, Eliseo baten antzera, toki garai batetik erorita ill zan gazte baten gorputzaren gañian etzanik, piztu zuan. San Urbanoko erri txikian ura bazan eta ardorik ez. Santua arkitzen zan an indar gabe, gaitzak argaldua. Ekarri zioten ura, eta aren gañ gurutze bat egin zuan, ta beste gai gabe ur garbiya ardo onian biurtu zuan. Indar-berritu zuan ardo onek ta biotza alaitu, berriro bideari are gogotiyago

ekiteko. Guztiya Jaungoikuagatik uzten dituanari, onelaxen zeruak lagundutzen diyo.

Narnin elbarri luzaro zeguan gizon bat eta beste emakume itxu bat, senda zituan gurutzia eginaz. Era onetan, Franziskok zebillen bidian, zuzentzen zituan elbarriak, argitzen itxuak eta aienatzen ere bai etsai-demoniuak. Beragatik onek igarotzen zituan erriak, nola ezin zuten bera an iduki, eskatzen zituzten bederik bere semiak.

GALAI BAT

Emen eskatu zion etxe oneko galai batek jantzi santua. Esan zion Santuak: «Gaztia, ondo biar dezu pentsa; zu beti biguñ oitua, zuretzat da gogorra gure bizi-modua.» Erantzun zion gaztiak: «Zer? ta beok ez dira noski aragizkuak? Bada nik uste det, Jaungoikua lagun, beok egiten dutena egingo detala». Arrazoi aundi au aditu zuan Franziskok, eta, ondo arturik gazte aren erabakintza, eman zion jantzi santua. Egia da gogoz gizon batek, Jaungoikuaren laguntza berdinian, batak lezakiana, bestiak ala.

FRANZISKO ETA KONDE ORLANDO

Españarunzko bide onetan gerta zitzaion, Mon-feltroko errian, esatera nuana: Erri artako jaun bat zijuan zaldun izendatzera; onetarako egin zituzten prestamen guzizkuak, pesta bat arazo aundiarekin egin zizaten. Jaun aren adiskide, soñu-

lari ta gañerakuak biribillatu ziran; oen artian arkitzen zan Cataneoko Orlando Kondia, Chiu-siko Jaun eta lur askoren jabe zana. Franzisko jauregi ingurutik bere lagunarekin igarotzeko unian, orra nun tronpetaren soñuak ematen duan pestaren asieraren adia. Ala die Santuak orduan bere lagunai: «Guazen gu ere pestara; bai, guazen gu ere, ezen onelako pesta-egunetan ezta palta oi iñoiz ere demoniorik bekatuak eragiteko. Beti diogu guk izan biar etsai oni, arkitzen geran lekuan, gerra. Beragatik guazen gu ere pestara». «Guazen» erantzun zioten lagunak. Au esan ta juan ziran pestara. Entzun zuten meza jauregiko elizatzuan. Andik irtenik kanpora, zerbait jendiari adiarazi nairik, igo zan toki garai batera; beriala jendiak inguratu zuan Franzisko, eta modu onetan itzegin zien: «Mundu onetako eramankizunak ez dute zer ikusirik zeruko gloriako atseginakin». Itz oen gañ ain gozo ta ego-ki itz egin zien eze, guziak arritu ziran, eta askoren biotzak penitenziara mugitu. Oen arteko bat kontatzen da Konde Orlando; zeña, itz-aldi ura bukatzian, juan zitzaion Santuari, bi besuak zabalik, bere anima salbatzeko zer egin biar zuan eskatzera argitasun bat. Erantzun zion pres-tutasun ta maisu jakinduriarik aundienetakuak bezela: «Konde Jauna, juan zaite orain zu gonbidatu zaituzten adiskidiak onratzera. Lan orretarako au baño denbora egokiagua aukeratuko degu.» Agindu bezela Franziskok, pesta bukatzian luzaro ta lasa elkarrekin egondu ziran biyak. Azkenian, bere esker onak emateko, Kon-diak eskañi zion Santuari Alvernako mendia, an

etxe-santu bat egitekotan. Nola mendi au zan eta dan txit egokia bakardadian Jaungoikuarekin itzeginda gozuetan egon nai dutenentzat, pozik artu zuan eskaintza ain ona.

Españarunzko bidiari agurrik egin gabe, aitzitik ekin ziotenian baño ere gogo geiagorekin zeudela, biali zituan semiak Chiusira. Zeruko Aingeruak izan baziran ere obeto artuak etziran izango. Laster Orlando Jaunak bialdu zituan Alvernako mendira Franziskoren semiak, berrogei ta amar gerrariz sendoturik. Denak ekin zioten lanari; batzuek zuaitzak botatziari, bestiak eliza egin biar zan leku maldatsua berdintziari. Asko eskuk egun gutxian, gogotik ari diranian, gutxik baño lan geiago nola egiten duten, orixen gerta zitzaien emen. Lagun on asko ziran ta begien itxi-idikian elizaren gallurrian ezagutu ziran. Au da arako mendi santu ura, zeñaren gañian Franziskoren gauza miragarri asko ikusiko diran. Mendi onetan Jaungoikuarekin itzegiten zuan; an Jesusek albiste onez biotza alaitzen zion; emen azkenik eskuz-esku, oñez-oñ, biotzez-biotz, Franziskoze Jesusek gurutzetu bigarren eginik, zauri sagraduz apaindu zuan. O mendi sagradu gogoangarria! O Alverna Golgota bigarrena, mundua Jesusen biotzeko amorioz irazekitzeko Jaungoikuak aukeratu zinuzana! Mendi santu au berriz ere kontaira onetan aitatu biarrian nago. Utzi dezagun beraz orain, eta jarrai deiogun gure Aita-len santuari Españarunz. Noiz ikusiko ote degu gure lurrian?

FRANZISKO IMOLAN

Imolako errian eskatu zion predikatzeko baimena Obispo Jaunari. Ukatu zion onek legor-legor. «Ez; nik predikatzen det ta asko da au». Burua makur aldegin zuan Santuak. Baña ordu-betegarrengo berriz jarri zitzaion aurrian Obispo Jaunari. «Zer da gizontxua nai zendukiana?» «Obispo Jauna -dio Franziskok- : Aita batek bere semia etxeko ate batetik botatzen duanian kanpora eta au itxi, etxian sartuko bada beste ate bat billatzen du onek». Ikusirik ainbesterañoko umiltasuna, esan zion azkenik Obispuak: «Emendik aurrera, Franzisko, nik agindu neza-kian erri ta ibarretan zuk eta zuriak predika lezakete.»

NOLA ZERUAK LAGUNDU ZIEN GAU ILLUN BATIAN

Umiltasun aundiya bazuan, etzan txikia gure Santuak Jaungoikuagan zedukan konfiantza. Po Italiako ibai txit zabal baten bazterrian zijuan bein Franzisko, anaia Leon bide-lagun arturik, gau batez illun lodian ibaiaren ertz-ertzian, erorteko zorian, laguna lagun edo ez, ibaira. Anaia Leon izutu zan eta esan zion San Franziskori: «Aita: egin bezaio orazio Jaungoikuari, libra gaitzan galtzeko arkitzen geraden arriskutik.» Eran-tzun zion anaia Leoni Santuak fede bizi batekin: «Jaungoiko onak nai badu, desegin lezake gabeko illuntasun au, argi eginaz guri.» Itz oek Santuak esatiarekin bat, odei gisako argi eder batek inguratu zituan, eta, berak juan biar zuten

tokiraño, argi-argi ibilli ziran bide guztiyan, zeruko argi eder arekin, Franzisko eta bere laguna, kantari Jaungoikuari eskerrak ematen laguntza onengatik. Gelditu ziran lekuan jarri zuten etxe santu bat ta izendatu zuten: *Su santuko etxia*. Ain ziran ugari ta argiyak gure Aita-lenak egiten zituan mirariak igarotzen zan lekuan eze, noranai jua ta ere, beti zan ondo artua. Piamonten orobat artu zuten ederki; eta emendik igaruan sartu zan gure Patria lurrekuan, Espaiñ maite ederrian.

AMABIGARREN BURUA

SAN FRANZISKO SARTZEN DA ESPAÑAN

Albiste ederra datorkigu. Nundik ordia sartzten da Españian? Dakusagun gelditxo. Ez nuke du-dan jarri nai, gure lurrera etortzeko, artu zuala Santiago Galitziakora erbestetik erromeri santuan etortzen ziranen bidia bera. Beragatik ondo dio Aita Cornejok, Nabarratik Franzisko Aita-len santua sartu zala Españan; zeren oñ gorrien gañian bidegiten zuten arrotzak, bide au artzen zuten. Franzisko etorri zan leorrez, ez itsasoz; eta etorri zan oñez. Egiya da badirala Santuaren bizitza izkiribitu duten zenbait, nola ez baitan oso segur gauza jakina nundik Españan sartu zan, diotena-k sartu zala *iBarzel-ay-Ona-tik*. Au diotenak dira Catalantarrak. Ok nai diote geiegi Santuari. Nekez eldu da Franzisko Nabarrara eta jartzen dute Catalaunian. Gai onezaz, eta ala diote berak, Aita Cornejo ondoena itzegin dala; alaz guztiaz ere, ez diote oni jarrai nai; nik ordia bai. Arrazoiak berak agintzen duan bezela, onenari jarrai. Beraz, milla berreun ta amairugarren urtian, jarri zuan oña San Franziskok Nabarrako lurr-rian.

SAN FRANZISKO ROCAFORTEN

Sangesatik milla pausora arkitzen da Nabarran Rocaforteko erri txikitxua, nun ere agertzen zaigu Aita-lena lenbiziko aldiz bere lagun Quintabalko anai Bernardorekin. Lur zorioneko onetan egin zuten aurreneko gelditza. Ikusi zuan Santuak eri bat biartasunik aundienian. Urrikaldurik arzaz, esan zion lagunari: «Nere anai Bernardo; eri auxen biar dezu sendatu arretaz, arrezazu onen kontua, nik nere lan-moduak Españ onetan egin arte». Gusto guziarekin bere Aita-lenaren aginduari makurtu zion burua anai Bernardok. O umiltasun miragarria! San Franziskok artu zuan bide-lagun anai Bernardo erbestera, eta aurrena arkitu zuan eriarekin utzirik semia aita erbestian, aldegiten du; eta alere!, semiak pozik egiten du aitaren esana; ez egun batian ta biyan, baña illabetietan! Ondo illa biar zuan iduki anai Bernardok bere gogua, lenago *magistrada* izan bazan ere.

Rocaforten zimentatu zuan Santuak Españako lenbiziko etxe santua. San Bartolome apostoluren izenian emen egin zan elizatxo bat, gero geitu zana denborarekin, San Franziskoren semiak orain baño maitiago ziran sasoiari Españan.

Aita-lena igaro zan andik beste lagunakin Logroñora, orduan euskal-erria: eta gero Castilla.

SAN FRANZISKO LOGROÑON

Logroñora eldu bezain laster, Medrano zeritzan Jaun baten semia, oso gaizki zeguana, sendatu zuan mirari batez. Logroñotik jo zuan Burgosa.

Castillako errege Alfonso bederatzigarrenak Burgosen zeukan orduan kortia. Ona zergatik Santua juan zan erregerengana. Txit ondo artu zuan Jaungoikuaren serbitzaria errege katolikuak; eta aisa eman zion San Franziskori bere erreinu guzian praile-eliz-etxiak egiteko baimena. Alfonso bederatzigarrena zan Blanka, Prantziako erregina, San Luis erregeren amaren aita. Beriala Burgosen bertan zimentatu zuan etxe santu bat San Migelen izenian. Burgosko praile-eliz-etxiak biar du izan Castillan lenbizikua gure Ordenan. Jakin zuanian Medranok erregek eman ziola baimena Santuari praile-etxe-santuak egiteko, deitu zion Logroñora eta eman zion bere etxia baratzarekin, an ere jarri zezan Ordenako etxe santu bat. Utzirik Santuak toki aietan bere lagunetatik bat baikoitzian, beste asko gazte jantzi santuaren eske etorri zitzaizkionakin, abiatu zan bera Vitorirunz.

SAN FRANZISKO VITORIAN

Igarotzen ziran leku guzietan onra aundiyak egiten zizten gure asabak San Franzisko ta bere semiai. Ona zerengatik etsi zuan gure Aita-lenak ezin bete zezakiala Espanian bere biotzeko desio irazeki ura, au da Jesusen biotzeko amorio sutubagatik bere zañetako odola ixurtzekua, zeñaren biotzeko amoriuak eta gurutze santuko eriotzaren gogoraziuak gañez eragiten zion Santuaren biotz beraari. Eta ona zergatik oraiñ, len bezela, dator-kion gogua, au da berri-berritzen du asmua, Mairuei ebanjelio santua predikatzeko, naiz ezur ta mami ebakirik Miramamolinek bizia kendu.

Itsasuan nai luke Franziskok ontzi bat Aprikara eramango duana, onen billa dabill. Eldu zan Vitoriara, eta emen, beste lekuetan bezela, besuak zabalik pozez egin zioten zeruko Serafin eder oni ongi etorria. Eman zion Santuari erriak Santa Maria Madalenako etxia, nun ere gero Andre Berengelak, D. Juan Castellako infantiaren alabak, Cantabriako amaikagarren Jaun, Lope Diaz Harokuaren billobak, egin zuan bere kontura praile-etxe guziz aundi ta ederra, milla berreun ta amalauban.

Vitoriatik Donostiara jo zuan San Franziskok, an arkituko zualako uste osuan ontzi bat Aprikarunz bide egiten zuana. Baña Jaungoikuak etzuan nai Aprikara juatia, ta bidia ebakitzeko biali zion eritasun bat. Laster ezagutu zuan Santuak Jaungoikuaren gogozko gauza etzala bein bakarrik bizitza ematia. Ona zergatik gisa onetan illaraztez eta au maiz garbitzen zion Jaungoikuak gure Aita txit onari bere biotzeko amorio sendua. Pozik len-bai-len egatuko zan zeruronz Franziskoren espiritua; baña artian zeruak etzuan artu nai beretzat. Oraindik meritu geiago bear zituau irebazi, eta, nola martiri bizi bat izateko autu bai zuan Jesusek, gurutzeko amoriozko martirio artan izan zezan parte, areta geiago amoriuan sendotu biar zuan. Alperrik zabilta, Franzisko, martiriaren ondoren; uste gabeko martirio bat dauka Jaungoikuak gorderik zuretzat guztien artian onragarriena.

DONOSTIATIK JOTZEN DU GALITZIA

Orduan erabaki zuan Españari agur egitia Italiarako asmuhan, zerbait gaitzak utzirik indartu zanian. Ez digu kontairak esaten Donostian nun egon zan Franzisko. Uste danez eri-etxen batian egondu zan. Orrengatik España utzi baño len agur bat nai dio egin Santiago Apostoluari; ona zerik eraman zuan Donostiatik Galitziaara; Santiago apostolu txit aundiaren obi artan nai zuan, crazio egiñaz, Jaungoikuari eskatu, onen bitartez, bere seme-alaba Ordena guzikuentzat fede garbi, dotriña txarren kutsurik gabia.

Ezin diteke santu onen bizitza adiazi ondo bere gertaldi miragarriak utzirik; zeren gertaera bakoitza da guretzat erakutsaldi bat. Zerbait gogoramen egoki esaten asi orduko mirariak datorzkiugu bide erdira, ezin nintzazkianik utzi aitatu gabe lumaz. Noviako gazte bat bi zaldi ogiz kargatukin Orvigoko ibai bazterrian zijuala, Leongo erriberan, ibaiiaz beste aldetik, zeuden Franzisko ta bere lagunak ezin somatuz nundik Orvigo ibaia igaro. Gazte onak urrikaldurik, bere bi zaldiekin aldizka eraman zituan ibaiaren beste bazterrera. Gañera billatu zien legorpia errian. Santuak, beti pobre eta beti esker-on-emaille, esan zion: «Jaungoikuak sariztatzen dituanian urrikizko lanak, sariztatu dezala ere gaur gurekin egin dezuna.»

Dio Jesukristok: «Ezta geldituko sari gabe ur tanto bat bakarra, Jaungoikuaren izenian ematen bada.» Auxen gertatu zan gazte arekin. Artarako egin zuan orazio Santuak gazte aren alde. Be-

re grazi mugitzallearekin Jaungoikuak mugiturik biotza, juan zan gazte ura Erromara, apostoluen obiak ikusiz, barkamenak irebaztera. Onetarako prestatu zuan biotza, damuz ta pekatu eginen penaz penitentziako iturri ederrian garbiturik. Au egin ta gero, bere biotza ikusi zuanian soseguz te alai, egin zion Jaungoikuari orazio au: «Jau-na, ni geiago pekatuan erori baño len, ken idazu bizia, Zugandik sekulan geiago berezi ez nadin.» Aditu zuan Jaungoikuak gazte aren eskaria, bada il zan Españarako bidian jarri zanian.

Bere aitak semiaren il berria jakin zuanian, beriala egin nai izan ziozkan Elizako gauzak, egin bear diran bezela, oituraz egiten diranak. Baña, o arrigarria! Orra nun, ez nundik eta ez andik, sartzen diran elizan ogei ta amar praile, eta daren artian iñor etzan ezagunik. Arritu zan jendia, baña ez orduan ainbeste nola gero. Elizako illetako lanak bukatu onduan, eman zitzaien jaten. Egondur ziran jaten bazuten bezela, eta, denboraz agur eginik, aldegin zuten. Aldegin zutenian prailiak, beriala oartu ziran etzutela ezertxo ere jan; bada jarri zitzaizten janariak, ukitu gabe arkitu zituzten. Arriturik irten ziran aien ondoren, baña Jaungoikuaren Aingeruak desagertu ziran ez nora ta ez ara. Etzuten iñoiz aien aztaranik atera. Onelaxen daki Jaungoikuak, lagun urkuaz urrikaltzen danari, on egina pagatzen. Ongi erakusten zaigu emen bata bestia nola maitatu biar degun, eta premian daganari nola begiratu biar diogun. Gure santua eldu zan Galiziarara bere bide-lagun anai maitiekin, igaro zuten bide guztian birtutien usai gozua utziaz.

KOTOLAI IKAZKIÑA ETA SAN FRANZISKO

Santiago Galitzian Kotolai ikazkiñaren etxia izan zan San Franziskoren ostatua. Jesus maitia-
ren antzera pobriakin ondoena elkar artzen zuan. Eta, egiaz, Jaungoikua zinez serbitzeko, oen bi-
zi-modua da erosoena. Pobriaren libertadia di-
ruz ezta pagatutzen. Bedeinkatu zuan Jaungoi-
kuak Kotolai ikazkiñaren etxia ostatu-zaliagatik.

Irura batian arkitzen ziran bi ibar; zeruko iba-
rra eta infernuko ibarra. Baita ere goña edo
mendizka bat, nora ere juaten zan Santua ora-
ziora. Txit ziran Jesukristoren gogokuak oñati
edo mendizkak oraziorako, leku egokiak dirala-
ko, eta an bakardadian anima aisago, erriko ara-
zuen artian baño, zeruronz goratzen dalako. Be-
re maisuaren antzera, Franziskok ere mendiko
bakardadia geiago maitaturik Jaungoikuarekin itz-
egiteko, juaten zan esan detan bezela goñara. An
orazian zeguala, Jaungoikuak agertu zion bere
naia zala, an bi ibar aien tarteko begoña batian
etxe santu bat egitia. Jakinik gero irura ura guz-
tia zala San Payoko San Benitoren seme erlijio-
suena, txit poztu zan eta itzegin zuan San Beni-
toren semiakin. Galdetu zion Abadiak: «Eta zuk.
zer emango diguzu guri, guk zuri lurra emanta?»
Erantzun zion Santuak: «Nik zer neikiot, jauna,
eman? Ezere ez daukat; ain gutxi dirua. Ematen
badirate lur ori, urteoro bialiko diet zexto bat
arrai.» Abadia zan guztiz espiritukoia, eta, gusta-
turik Franziskoren senzilltasuna, gogoz eman zio-
ten biar aña lur, etxe santua egiteko. Tratua egin
bezela, urtian bein beti, Franziskoren aginduz,

zextotxo bat arrai ematen zitzaizten San Benitoren semiai.

Oroituko da irakurlia nola Subasio mendiko San Benitoren semiak eman zioten lenago gure Santuari Porziunkulako elizatzua. Badirudi Jaungoikuak jarri zituala erlijioso aiek, edo obeto esateko San Benito Aita-lenaren Ordena, izan zedin San Franziskoren Ordenari laguntzeko bere jaiotzan. Beragatik asko zor dio gure Ordenak San Benitorenari; beti San Franziskoren semiak agertu diegu, gure Aitaren antzera, geon esker ona, naiz ez zexto arraira iritxi.

Berri on onekin pozturik Franzisko, jua zan bere ostalariarengana eta esan zion: «Kotolai, lurra badegu, eta orain zuk egin biar diguzu etxia eta zere dirutik.» Kotolai gizajua au aditu utsak jarri zuan ez zeruan eta ez lurrian. «Ni – esaten zuan –, ni ikazkiña naiz; nik, ezin bizirik neketan, nik ez daukat etxe berria zerekin egin ezik, gutxiago ere.» «A Kotolai! – dio berriz Santuak –; ori guziya ondo ezagutzen det nik. Atoz artzu aitzur bat ta jarrai niri.» Eldu ziran iturri baten ondora eta agindu zion San Franziskok: «Jo emen.» Baita aguro Kotolaik esana egin ere; sekulan alako aitzurketarik etzuan egin, beintzat ain aberatsik. Asko nekatu gabe arkitu zuan lurpian dirua, biar zan ainbat etxe-santua egiteko: eta ala, Kotolai ikazkiñak egin zuan, urtia betegarrengo. Eriotzari zorra pagatu zienian berak eta bere emaztiak, bien gorputzak onra aundiyan lurpetu zituzten elizako kapilla-nagusian, ango patrioi ta zimentatzallak bezela. Onelaxen daki gu-

re Jaungoikuak mundu onetan bertan ondo egi-
na saritzen.

AINGERUAK AGINTZEN DIO SAN FRAN- ZISKORI ITZULI DEDILLA ITALIARA

Gure Aita Franzisko maiz juaten zan Santiago-
ren obira, eta an eskatu zion bein batian San-
tuari, Santuak ugaldtu ta sendotu zezala bere Or-
den berria. Alatan agertu zitzaion Aingeru bat
eta agindu zion onek: Ordena berri ura zabaldu
ta barriatuko zala munduko erreinu guztietara;
baña orduan, utzirik guzia Jaungoikuaren eskuan,
Jaungoikuaren gogua zala Italiarunz bidegitia.

Beriala bialti zuan bere seme bat Coruñara.
Coruñako jendiak atsegin artu zuan Franziskoren
semiarekin. Pozik eman zion erriak tokia itsas al-
dian etxe santu bat egiteko. Erlijioso aren izenik
ez dakigu, baña asko ematen zaigu aditzera bere
santutasuna, egiten zituan milagruakin. Langi-
llien gosia zerekin kendu etzeukanian, juan oi
zan gizon santu ura itsas-bazterrera. Deitzen zien
arraiai, eta etortzen zitzaizkan eskura. Artutzen
zituan biar zituanak egun artarako, eta gañera-
kuai ematen zien libertadia. Asko aldiz ikusi zan
mirari au egiten, eta denbora gutxian, jendia la-
gun, egin zan etxe santua. Jaungoikozko erlijio-
so ura andik urte gutxira il zan ta obiratu zuten
elizan. Obi gañian irakurten dira itz oek: «Anai
Santuaren ezurak emen daude gordiak.» (*Ossa
Sancti Fratris hic condita sunt.*)

Bai ta ere denbora berian bialdu zituan San
Franziskok beste bi seme, bata anai Pedro Com-

pare Oviedora, eta beste bat, ceña ez dakigu nola izendatu, Rivadeora. Toki aietan ere jarri ziran Ordenako praile-etxiak.

SAN FRANZISKO ROCAFORTEN

Santuaren kontaira-gillien artian badira diotena Galitziatik gure Franzisko igaro zala Portugala, eta badira diotena ezetz. Dena dela, utzirik kontu oni, Franziskok zuzendu zituan oñak Rocaforterunz. Rocaforten utzi zuan bere seme zarren anai Bernardo Quintabalkua, Españan sartu zanian, eta orain nai du, Italiara itzultzeko, berriro bide-lagun artu ura bera. Bidez asko tokitan jarri zituan Ordenako etxiak, eta nola gazte askok eskatzen zioten jantzi santua, bialtzen zituan batzuek leku batera eta bestiak bestera.

Uste danez, San Franziskok zimentatu zituan Ordenako eliz-etxiak Ciudad Rodrigon, Gastan, Arevalon, Avilan, Matriten, Toledon, Aylonen, Monte-coeli Coriakuan, Sorian eta Tudelan. Sorian egin zituan berak zelai batian bost arri pilla. Galdetu zioten lagunak zertako ziran arri pilla aiek. Erantzun zien: «Emen egunen batian izango da, Jaungoikuak nai duanian, gure Ordenako eliz-etxia.» Aurrez Santuak esan bezela gertatu zan: zeren ikusten degu kontairan, anai Juan Parente, Castellako eta Españako beste erreinuetako lenbiziko Probintzialak eta gero Ordenako buru izan zanak, nola Sorian egin zuan mendiaz onuntztiko pamili guztiko billera.

Franzisko jua zitzaioneko, anai Bernardo

Quintabalkok ederki sendatu zuan eria. Sartu zan San Franzisko Castillatik, Tudelatik, arabeiak utzi-rik, Rocaforten eta elkartu zan bere seme Bernardorekin. Aita-lena emendik, bere bide-lagun anai Bernardorekin, igaro zan Aragoya barruna Ilerdira edo Ilerdara. (*Lerida.*)

SAN FRANZISKO ILERDIAN

Ilerdiko erri onetan, Jaungoikuak mugiturik biotza, zaldun batek eskaiñi zion Santuari biar zan lurra, etxe santu bat an ere egin zezan. «Esker-rak, jauna, dizkiot ematen –esan zion Franziskok –, karidadiak sari ona izango du. Guri asko digu berorrek egiten, egia da, guk biar degun lurra emanarekin. Eta orren gogo onez ematen digunaz geroz, balezake ere, zerekin baduta, gañerakua egin; bada jakin biar du Jaungoikuak batengatik eun emango diozkala, berak dion bezela.»

Azkeneko itz oek Barriako zaldunak artu zitan txit beretzat eta uste osuan, bat bezela Franziskori ematen bazion, eun bezela artuko zuala, alako moduan eze, gastatuagatik galanki, ez poltsa gutxitu eta ez dirua aitu, baña ugaritu dirua ta eun aldiz geituko zala. Tratu eder onekin egin zuan bere kontura eliz-etxe berria. Gauza onetan pasa zan. Andikan urte batzuetara lau misio-emalle, Quintabalko anai Bernardo lagun, eldu ziran Ilerdako errira. Oartu zan zaldun bere alderako tratulari ura an zirala prailiak, juan zan bere aietara eta eraso zien esanaz: «Ez nazute

gaizki engañatu! Nere dirua ez da geitu zuek esan bezela, aitzitik bai gutxitu.»

Ezagutu zuten erlijiosuak zaldun aren adimentu motzak etzuala batere ondo aditu Jesukristoren ebanjelioko itz Franzisko bere Aita-lenak esan ziozkanak. Santuaren onra batere gutxitu etzedin, egin zuten orazio, belaunari lur joazirik, eta ondoren esan zioten Jaun Barriakori: «Anaia, zuaz etxera, eta miratu itzatzu ongi kutxak, jakin dezazun zer egi aundiya esan zizun gure Aitak.» Juan zan etxera eta kutxak diruz betiak arkitu zituan. Lotsatu zan orduan bere buruaz, eta, andikan aurrera, lurreko ondasunai etzien ainbesteraño begiraten nola lenago. Onekin zimendatu zan bere biotzian San Franziskoren Ordenako maitasuna.

Munduko ondasunak baño eun aldiz geiago balio dute zerukuak, eta au erakusten digu Jesukristo gure Jaunak Ebanjelian. Au zan San Franziskok adiarazi nai izan ziona Barriakori, eta kristau guztiok au biar degu ikasi. Ez beñere beraz biotza diruan jarri. Urre-zillarrak begirako onak, biotzerako txarrak. Ez geiegi dirua leundu; zeren aberastasunak arantzak dituzten. Ezta eloririk ain zorrotz zulatutzen duanik, nola ondasun ugariak.

SAN FRANZISKO I-BAR-CEL-AI-ONAN

Gure Aita-lenaren izena asko zabaldu zan ordukoz Españ guzian. Ilerdatik igaro zan Barcelonara. Erri artako jende prestua irten zitzaion

bidera, jakitian beren errira alderatu zala. Aundizkiak elkar aditurik, agurtu zuten Santua, eta eman zioten bere ta bere semientzat San Nikolas-ko eritegia, jarri zezan Ordenako etxe bat. An utzi zituan bi seme birtutetsu: anaia Iluminato eta anaia Pedro Cedekua.

San Celoniko errian, Santuaren lagunetatik batek, bideko nekiak eman zion egarria kentziagatik, maasti batetik mats-mordo bat artu zuan. Maastiaren zaitzalliak ikusi zuan, eta aserreturik, gogor itzegin ondoren, itzak asko etzirala, egotzi ziozkan eskuak eta kendu zion soñian zeraman kepa. Santua arteraño ixilik zeguan, baña gogoraturik lagundu biar ziola bere semiari, juan zan maastiaren jabiarengana, eta itz gozuekin, santuak dakiten bezela, aditzera eman zion zer gertatu zitzaien. Nagusia, San Franziskoren arrazoiak aditu zituanian, jarri zan morroiaren kontra, eta praile biartsuai ark egin zien txarkeria erremediatzeko, esan zio nSantuari: «Emendik aurrera ez bakarrik maats mordo bat ezik, nere etxe-ko atiak idikiak dauzkatzute zuk eta zure lagunak.» Bertatik agindu zion Franziskok, ain ona zalako eta bere semiak etxian nai zitualako artu, Ordenan egiten zituzten obr'on guzietan egiten zuala parte. Ondo pagatu zion Jaungoikuak, jaun ark San Franziskoren semiai egin zien mesedia. Gizon ura il zan txit urtietan aurreratua. Ez iltzekuan eta ez illetakuan nola ez baizen prailerik ikusten, edo ez jakiñaz, edo denbora txarragatik, edo eztakigu nola ta zergatik, marmarretako gaia zan jendiarentzat, jaun ura izandu zalako prailien ongille aundia. Araugabien izen onari Jaun-

goikuak daki ordia begiratzten. Elizako ofiziuak astiarekin batera, orra nun sartzen diran, ez nundik eta ez andik, ogei ta bi praile elizan. Kantatu zuten guztiz ederki. Irten ziran bestiakin batera proguan elizatik, eta ez nora eta ez ara desagertu ziran. Inork etzuan jakin edo ziran San Franziskoren semiak edo zeruko aingeruak. Dakiguna da, Jaungoikuak karidadezko egitiak beti sariztatzen dituala. Ordutikan dator usantza gurre Ordenako ongille bereziaz ematekua *Hermanadako karta* deitzen dan paper izkiribitua, nun ere ematen zaie aditzera, nola duten parte, Ordenako etxe guzietan San Franziskoren semiak egiten dituzten obr'onetan. Zer zirikari eragillia dan au, kristau fededunen biotzak eta beste mundurako merituak irabazi nai dituztenentzat, Franzisko Aita-len santuaren seme biartsuak lagundutzero mugitu ditezen!

EGITEN DIO SANTUAK AGUR ESPAÑARI

San Franziskoren azken oñ-arrastua Españan arkitzen da Perpiñanen. Jo zuan arara Rusillontik ziar. Uste danez, an ere Ordenako etxe bat jarri zuan. Geroztiko, Italian sartu bitarteko gauzarik, eztakigu argiro. Edo, Compostelan aingeru zerukuak Italiara juateko agintiaren bete naz, len-bai-len juateko leia artu zuan, edo-ta bestelaz izandu da kontaira-gillien utsegite miñgarrria. Bakarrik dakiguna da Piamonteko sarreran gerta zitzaion konta-gaia. Ona zer:

Berez argala izanik Santua eta gañera bideko ibilliak neka-nekatu egonik, galdu zuan jateko

gogo guzia. Gaizki daguanaren mañ gutiziak aurrez barkatuak dira, edo obeto esateko ez dute barka biarrik, barkatzeko gairik ez dutelako. Gogua etorri zitzaion Santuari basa-egazti bat jatekua, eta agertu zion desio au bere lagunari. «Barkardade onetan, zer bitarteko ar nezaket nik? — zion onek —. Zerekin eztaukagu, eta iduki arren, nori esanik ez!» Alatan esan zion Santuak: «Ez batere estutu, nere lagun maitia; guk zerbait palta izatia da gure Ordenako gloria ta sari txit egokia. Jaungoikuaren probidenziak dauka gure kontua; ez batere estutu.» Itz oek esatian, Aingeru bat galai eder baten itxuran agertu zan, eskuan egazti txit ondo jarri bat zuala; egazti ura eman zion Franziskori eskuz-esku, esanaz: «Ar zazu, Jaungoikuaren serbitzaria, Jaunak bialtzen dizun gozamen au eta jan ezazu.» Au esan eta Aingerua gorde zan. Gelditu ziran denak arriturik. Nola etziran arrituko? Jan zuan Franziskok zeruko janari artatik eta indarberritu zan, ez ordia gorputzian bakarrik, baita ere animan. Pozaren pozaz biotzak gañez egiten ziola, ekin zion berri-berri bidiari. Utzi zuan España eta sartu zan Italian.

O zenbat zor dion Españak San Franziskori! Bi urtian gure lurrian nork konta egin zituan lanak? Bai gure biotzak fedian sendotutzeko, bai amoriuan irazekitzeko! Aldegin zuan San Franziskok bi urteren buruan Españatik, baña bere espiritua emen utzi zuan. Egin zuan azi-ereilliarren eginkintza bera. Erein zuan azia lurra ongi prestaturik, eta utzi zuan gañerakua Jaungoikuaren eskura: «Aldatzen duana eta landariari

ur ematen diona ez dira ezer; bai ordia azitzen dituana landariak, eta au da Jaungoikuak.» Beragatik onen eskura utzitzen du Santuak lanari bukaera ona ematia. Gizonak bere aldetik alduana egiten duanian, Jaungoikuagan jarri biar du konfiantza osua, eta Beragandik espero biar duana.

Ezta izan naziorik munduan, San Franziskoren Ordena geiago maitatu eta errespetatu danik, Españan baño. Nork konta zenbat gizon jakintsu, zenbat santu, zenbat egite miragarri, zenbat biotzek Jaungoikua alabatu duten San Franziskoren semien artian lur maite onetan? O Franzisko, aundiya egiaz alde guztietara! Santuen artian miragarria zerana! Zuk, artian munduan bizi zifinala, begi urrikaltsuakin begiratu ziguzun guri! A! Ote gaude gaur orduan baño premi gutxiaguan? Gure asabaz oroitu zifana urrikaldurik, arren orobat oroitu zaite guzaz. Zuk ainbeste amorioarekin altxatu zinuzun eliz-etxe santuak, denbora oetako gizon gaiztuak zuk egin baño errazago bota dituzte. Zuk orduan, ainbeste izerdi ta nekerekin, erein zenduan zeruko dotrinaren aziak eman zituan landare ederrak, ebaki dituzte oraiñ kristau gaiztuak. Zuk zere sorbaldarekin zuzendu zenduan Eliza bera, Españan persegitzen da. Baña, Aita, atoz berriro gure artera. Sendotu gaitzatzu fedian, begira iozu Españari urikiz beterik. Zure etxiak asko ez badira gaur, ez ditezela bigar gutxitu.

AMAIRUGARREN BURUA

SAN FRANZISKO ITALIAN ALEJANDRIAKO ERRIAN

Milla berreun eta amabostgarren urtiaren asieran, gure Santua sartu zan bere patrian. Txit nekaturan eldu zan Alejandriako errira. An bere lagun adiskide on batek eraman zuan bere etxera, eta, urrikiturik, eman zion bere pozarekin eztaiz gisako bazkari on bat; bazan kapoia ere.

KAPOIAREN KONTAIRA

Santua begiz ezin ikusi zuan bat, gaiztoz, eskale jantzian, ura dasonratziagatik, bazkaltzeko denboran urbildu zan etxe artako atondora eskian, bere-biziko negar gezurrezkuakin. Orduantxe jarri zioten Franzoskori kapoi-izter sendotxo bat aurrian, eta arako aditu zuan eskale bat zala atian, zeguan bezela biali zion kapoi-izterra. Eskale gaiztua pozik juan zan andik, Santua desonratzeko gaia berekin zualakuan. Beriala zapi zuri batian bill-bill egin zuan eskeko kapoia. Arturik gero bere egunoroko arropak, lagun artera juanik, agirian asi zan Santuaren kontra txit gaizki itzegiten. Esaten zuan: «Jende txorua: etzaituzte orrek gaizki engañatzen! Santua diozute dala ori...

Santu ona da ori! Eztu, ez, belar asko orrek jaten, zuek bezela; mokadu onik jaten du orrek! Bazinekite nik bezela!...» Onela ari zala, jende askok inguratu zuan, jakin nairik zer prueba ematen zuan jendiari sinistarazitzeke. Galdetzen zioten zer gauza txar ikusi zion Santuari ala itzegiteko. «Zer ikusi? Kapoi ederra janez bizi da ori; kapoi ederrak, ederrak jaten ditu orrek». Au esanaz, atera zuan, jendeari erakusteko, bere zapi txuri ura; asi zan askatzen esanaz: «Emen dago, emen». Jende guztiak inguratu zuan, ikusteko denak zeuden buruaz gañ, ikusi nairik begi biyak atera biarrik. Bat batean ematen diote denak algara aundiaz parrari. Zer ote zan? Gizon gaiztuak askatu zuanian zapi txuri bildua, nun agertuko kapoi-iztarra, agertu zan arrai baten puska. Gizon gaiztua lotsaturik, ez zeruan eta ez lurrian guztien erdiyan, zer egin ta zer esan ezin somaturik. An zeukan arrai puska eskuan, eta eragiten zion beñ alde batera, beñ bestera; ezin sinisturik, igurtzitzen zituan begiak, eramaten zuan sudurrera, eta ezin esplika zuan noia al zitekian izan, zapiyan kapoi-iztarra bitu eta ura arrai biurtzia. Azkenik ezagutu zuan bere pekatua. Aitortu zuan gaiztoz ibilli zala; baita ere San Franziskoren santutasuna.

Bitartian jendia jua zan Santua zeguan etxera, jakitera egia zan edo-ez eman ziotela kapoia. Jakin zuten egiya zala. Jendiari mirari onen gañ duda guztiak kentzeko, beste bat egin zuan Jaungoikuak berriz; bada jende askoren aurrian arrai-puska ura bera, atzera kapoi-izter biurtu zan. Ze ederki gure Jaunak bere agizkide biotzekuen

izen onari dakian begiratzten! Asko dira gaurko egunian, eskale gaizto aren antzera, gaizki itzegiten dutenak erlijuaren kontra, praile, jesuita. apaizen kontra; eta au ez gutxi Euskalerrian ikusten da. Onelakuen ao zabalak itxiko ditu Jaungoikuak azken juizioko egunian, bere serbitzari leial izan diranai, gaiztuak kendu zien izen ona, mundu guztiaren aurrian ematen dienian.

ALEJANDRIATIK DIJUA ASISA

Alejandriako erritik igaro zan San Doninora gure Aita-len Santua. Jakinik bere asko semek Aita an zutela urbillian, irten zitzaizkan bidera. Asko ziran eta ogirik ez, jan biar zanian. Jan-tokiko kontua zuanari agindu zion Franziskok: «Zuaz, eta begira zazu ondo saskiya». Saskiya utsa zeguala, aurrez miratu zualako, bazekian ondo, baña alere, esana egitiagatik, juan zan eta arkitu zuan, uste barik, saskiya ogi-zuri-ederrez bete-betia. Jaunari esker onak emanaz jan zuten guztiak.

Andikan jo zuan Cortonara. Erri onetan ain egoki predikatu zuan eze, etziokaten utzi nai izan irtetzen erritik iñorako. Juan etzedin, jarri ziozkaten guardak erriko atetan. Iru egun igaro zituan an. Azkenik bere seme anai Gido an utziko ziela bere izenian, zeñaren merituakgatik asko arriskuetaatik Jaungoikuak libratuko zituala errikuak ta erria, esan zienian, utzi zioten Santuari zeraman bidiaari jarraitzen, eta eldu zan Asisa.

Santa Maria Aingeruarenian ezifñ-eta agur gozuen a egin bazioten ere bere semiak, baita ere

bedeinkatu berak gogoz eta biotzez, sartu bezain aguro bere begi zorrotzak, nola gauza berri asko ikusi baizituan, biotz on ark berak gañez eginik pobretasun gogozkuaren indarraz, anai Pedro bere ordeko utzi zuanari itzegin zion onela ta esan: «Pedro, nere anai maitia, baña Pedro! Zertako da, ni Españan izan naizan denboran, egin dezun etxe berri au? Pedro, ez dakizu pobriak gerala eta etxe onek aundizkien etxiaren antza daukala? Desegin biar da, bota lurrera ta aguro». «Jauna, -esan zion Pedrok, eta anai Pedroekin batera bere lagunak eta jaun ongilliak - : nun emango zaio orduan ostatu onara datorren jendiari eta, Aita, beorrek bialitzen dizkigutzunai? Aterpe egoki bat ez daukagu, eta datoz onara pobriak bezela aberatsak. Nun sartuko ditugu?» Gisa onetako gogoramen arrazoizkuari begiraturik, utzi zuan etxe berria zutik. Nai nioke aditzera eman irakurlari, txit asko baziran ere Santuaren aginduz egiten ziran etxe santuak Españan ta Italian eta beste leku askotan, denak orma batekin zirala, ta aditzera ematen zutela pobrien bizi-lekuak zirala. Bestiak beste, Santa Maria Aingeruen etxe santua, beste Ordeneko guztien ispillua izan biar bazuen ere, arkitzen zan bestiak ez bezelako tokian. Arara biltzen ziran, inguruetakuak bezela, urrutietako prailiak, beren Aitari au edo ura galdetzera, asko aldiz ongi nekatuak; aruntza juaten ziran mueta guzietako jendiak, jaun aberats, obispo ta Kardinalak, eta, beragatik, egoki zan egon zedin etxe ura zerbait bestiak baño moldatuagua, eta gure Aita-len prestua laster konturatu zan.

ANAIA SINPLE

Asisen asko jantzi santua jantzi naikok itxoroten zion San Franziskoren etorrerari. Baziran aberatsak, bai ta ere jakintsuak, jator onekuak asko-asko, eta, oen artian, txit motzak eta pobriak ere; baña denak gogozko eta biotz oneko Jaungoikuaren serbitzariak. Guzien artian arkitzen zan gizon bedeinkatu bat, zeñari eman zion, beste askori bezela, jantzi santua. Onen gertaldia ezin nezaket ixil gorde.

Txit zan San Franziskoren gogozko gauza elizak garbi eta txukun idukitzia. Ikusten bazuan eliza bat zikina, lenbiziko egiten zuan lana zan billatutzia erratz edo isats bat garbitzeko. Bein batez ari zan Franzisko eliza bat garbitzen; alatan ari zala sartu zan gizon bat mendi aldeko edo nekazari gisakua. Santua eliza garbitzen ikustiaz arritu zan, eta eskatu zion eskuen artian zeukan isatsa. «Aspaldi onetan, -esan zion- beorrekintzegiteko nenguan. Denbora askotxo da aditzen dituztala beorregatik gauz on asko, baita ere beorren semiakgatik; nik ere bada nai nuke izan beon arteko, al baledi». Erantzun zion Santuak: «Bai, baño jakin biar dezu gurutze astuna gure artian eraman biar dela, eta gañera, gurutze au eramateko ongi, lurreko ondasunak ere pobrien eskuetara aldatu biar diradela». «Ezagutzen det, Jauna, ori guztiya. Nik, lan askorekin ta ederki nekatuta, zerbait egin det eta irebazi, gurasuak bizi-modu lasa-xamar bat izateko aina bizi diran arte. Nai badu, idi bat salduko det, eta, arekin artzen detan dirua, pobriai emango diet». Ondo

iduritu zitzaion gogoratze au Santuari, eta elkarri agur egin zioten orduan.

Gizon onak agertu zien gurasuai bere asmua eta aiek eman zioten negarrari. «Zer? Zu bakarra zauzkagu, eta, gu onela utzita, aldegingo diguzu?» Gurasuak etzioten utzi nai izandu semiari, eta Santua bera, otordu bat egiñaz, juan zitzaien itzegitera. Bazkaldu zutenian, esan zien: «Semiari juaten uztiarekin erlijio santura, ez diozute Jaungoikuari beria ez dan gauzarik ematen... Jaungoikuak deitzen dio beregana; nik ezin nezaket ez artu... Zuek min dezutena da, ezin etsia elkar ikusi gabe... zeren zerekin bizi uzten dizuten, eta, oraindik geiago nai badezute, idia ere ez dedilla saldu.» Itz oek Santuaren aotik adituta erabaki zuten gogoz: «Egin dedilla bada Jaungoikuak nai duena», eta semiak artu zuan jantzi santua.

Ain zan biotz garbi ta sentzillekua anai ura ze, San Franciskok eman zion anaia Sinpleren izena. Guztiz zan Santuaren gogokua, eta asko aldiz eramaten zuan batera ta bestera bide-lagun arturik.

Ebaki zuan anaia Sinplek bere Aita-lena gauza guzietan iduritzia, imitatzia. Beragatik Aitak egiten zuana uraxen bera semiak ere egiten zuan. Geldi ikusten bazuan Aita-lena, anai Sinple gelditzen zan. Ura ibiltzen bazan, au ere bazebillen. San Franziskok besuak zeruronz jasotzen bazituan, anaia Sinplek ere bai. Aua zabaltzen bazuan ark, onek ere aua zabaldu; itzegiten bazuan, itzezin; istua botatzen bazuan, istua bota; par-egiten bazuan, parra, sudurra zizten bazuan,

ziztu; estul egiten bazuan, estula egin. Ark zer, onek ura.

Bein batian ezagaturik guzia Santuak esan zion: «Anai Simple, ez dezu orrenbesteraño egin biar nik egiten detan guztia. Zer esan biar du jendiak zu orrela ikusita?» «Aita, jendiak egin dezala nizaz parra edo ez, ni eziñ egon niteke berorrek egiten duana egin gabe. Nere jakinduri motzak ez dezake bestela somatu zer egin. Oroitu bedi, jantzi au artu nuanian nola esan nion al'nuan guzia jarraituko niola. Beragatik ar beza asna-sa lasai; egingo det nik bai, beorrek egiten duana. Nik badakit berorri santua dela, eta, nik berorrek egiten duana egitera, santua izango naitzala.» Itzaldi au aditu ezkeroz uzten zion Santuak nai zuana egiten; anai au urte gutxian bi-zi izan bazan ere santutasunian asko aurreratu zan; ainbesteraño eze, Aita-len santuak deitzen zion ez anai Juan Simple, baizik San Juan Simple.

ASISTIK DIJUA AITA LEN SANTUA ALVERNA MENDIRUNZ

Alde guztietatik zetorkion asko seme, ta guz-ien artian etorri zitzaizkan Alverna mendikuak ere. Esan zioten aiek Jaungoikuarekin itzegiteko toki egokia zala txit mendi ura, eta munduko arazuen artian baño zenbat aisago espiritua egatzen zan zeruko gauzen gogoraziora bakardade artan. Esan zioten, gañera, nola beren ongille Orlando Konde jaunak zenbatxe nai zien, eta as-ko desiatzen zuala elkarrekin itzegitia. Aditu zitu-
nanean oen itzak, batez ere oraziorako toki bakar

eta egokia zala, erabaki zuan beste iru lagun ar-
turik aruntza juatia. Santuaren lagun oriek ziran
anai Maseo, anai Leon eta Reatiko anai Anjel.
Bidian zijuazen denbora guziko, izendatu zuan
anai Maseo denen buru; ala egin oi izan zuan
beti. Esan zion oni janaren gañian etzezala bate-
re buru-austerik izan, Jaungoikuaren eskua etze-
la aiekin izango labur.

Citerna zeritzan toki batera eldutzian, aritz-on-
do baten ofietik asi zan predikatzen. Alatan ari
zala, oartu zan zuaitz ura guzia txingurriz betia
zeguala, nunbait ere an zeukaten kabia. Nola gu-
re santuari ez zitzaion gusta oi geroko janaren
kontua artutzen zuanik, ez gizonik eta ez txingu-
rririk, agindu zien txingurriai len-bai-len aldegin
zekiotela andik. Ergai artan bertan aldegin zuten
txingurriak, eta zuaitz artan geiagon geiago etzan
bat bakarra ere ikusi. Denbora berian neska lo-
tsagabe bat ari zan indar guziarekin zalda-baia
jotzen. Esan zion Santuak ixil zedilla arren eta
utzi zeiola predikatzen. Neska gaiztuak orduan
eta gogotiago eragin zion panderuari, eta eragoz-
ten zion jendiari, ateratzen zuan ots-dirdirriakin,
Jaungoikuaren itza aditzia. Bigarren aldian agin-
du zion ixildutzeko, Jaungoikuaren aserria nai
ezpazuan laster senti. Baña alperrik. Orduan egin
zuan Santuak oi u aundi bat: «Demonio-demo-
niuak, atozte, atozte, eta eramazazute zuena da-
na.» Ozta irten ziran San Franziskoren aotik itz
oek, jende guziak ikusten zuala, ekaitz batian
bezela zurrunbillu batek inguratu zuan neska
ura, ta zalda-bai ta guzi desagertu zan; etzan ge-
iago jakin aren berri.

Illunarekin eldu ziran elizatzxo bat zeguan to-
kira, eta an nai izan zuten gau egin. Nekiaren
laguna da lua, eta lagun on indartsu onek laster
menderatu zituan. Frantziskoren espiritua beti
prest oraziorako, bakarrik ura zeguan beillari. Ja-
rri zan Jaungoikuarekin itzegiten. Ura izandu
zan ordua, infernuak guda gogorra eman ziona.
Beste denbora aietan San Antoni eremuan bezela
jartzen zitzaizkan diabruak bere aurrian milla
gauz itxusi ta nazkagarritzko itxura gaizto ta ten-
tazio. Ikaragarritzko otsak atera zituan, ta lagunak
iatzarri esnatu ziran. Ura guzia eramaten zuan
espirituko sosegu aundiarekin: «Beto, Jauna
- esaten zuan -, betoz nere gañ infernuaren ase-
rre guztiak; nai det nere biotza garbi ikusi, eta
garbitu dedin nai det supritu. Prest dago, Jauna,
nere biotza, nere biotza prest dago, zuk nai dezun
guztia supritzeko». Orduan eta ariago eraso cio-
ten diabruak, errabiaz jo eta zati-zati egiteraño.
Baña, egin-al guziak egin bazituzten ere eraman-
kintza galarazteko, etzuten beñere logra izan. Utzi
zioten beraz azkenik diabruak, ta Santua garai-
men ondorian jarri zan berriro oraziuan, ezere
gerta ezpalitz bezela. Pozak Jaungoikuagatik zer-
bait supritu zualako, begiko negar guziakin ba-
tera bota zuan bere biotza Jaungoikuaren ofietan.
Amoriuaren indarrak airatu zuan lurretik; bere
lagun arrituak airian ikusten dute; baña ederra
alde guzietara; odei argi eder batek inguratzen
zuan dena; arpegi bat zeukan biziro argi ta mai-
tagarri. Zer esan ote zion orduan Jaungoikuak
Franziskori? Au iñork ez daki.

Egun sentian indar-gabe ta nekatua arkitzen

zan, eta bere seme lagunak, urrikiaren urrikiz, ekarri zioten astotxo bat bere asta-zaiarekin. Tifo zuan asta-zaiak izena. Tifo, gizon biotz onekua, etzan kale-umia. Bidiari ekin baño len jan zuan Tifok gogotik; Santuak ogiarekin iturriko ur garbia artu zuan. Nola sari gabe zeraman Franzisko Tifok bere astuan, eman ziozkan esker onak egiten zion mesediakgatik, eta gañera bedeinkatu zuan Tiforen familia, agindurik etzala bere odoloko semerik beñere paltako eta, asko nekatu gabe, izango zutela zerekin bizi.

Santuari gogoratu zitzaion Tiforen baserrian egaztiya janaz laster indar berritu zitekiala. Aienatu zuan beriala gogorazio au barrunen toki egin gabe; alere nai izandu zuan gogorazio arengatik ilduratu bere gorputza. Goroztegi baten gañian ikusi zuan ollo bat ill-ustela; artu zuan bere eskuan, eta, sudurrera eramanez, esaten zion bere buruari: «Ase ari jale aundiya; ona naikua egazti!» Beragatik ogi pitin bat baizik etzuan artu, eta ura ere autsterrez zikinduta.

SAN FRANZISKO KIUSIN

Eguardiko garaian eldu ziran Kiusira. An Orlando Konde Jaunak, ongi etorri guzizkua egin ondoren, eman zien jaten eta gero berak lagundu zien mendira igotzen. Jarri ziran berriro bidian, Santua asto gañian eta Tifo asto-aurreko; læster beste guztiyak atzian utzi zituzten. Ala dio Tifok Santuari: «Franzisko, nik aditzen ditut gauza on asko zugatik; Jaungoikuak egin dizkitzu mesede oriek; begira nolako eskerrakin erantzu-

ten diozun. Izan zaitia gizonak uste dutena, engañatu ez ditezen; kontuan jartzen zaitut». Itz oek aditzian saltatu zan Franzisko asto gañetik; muñ egin zion oñian asta-zaiari, eta, eskerrak emanik konseju jakinduriazko onengatik, alabatu ta bedeinkatu zuan Jaungoikua. Egiaz au da konseju bat denik santuanari eman litzayokiana.

Berriro ekin zioten bidiari; astozkua ondo zizuan, baña oñezkua laster nekatu zan. Ainbeste nekatu zan eze, esan zion Franziskori: «Nik ezin neioket onela bidiari jarrai, egarri naiz ta urik ezta emen; ementxen illko naiz egarriaz». Urrikaldu zan Santua gizon onaz eta esan zion: «Juan zaite arako arkaitz artara; antxen daukazu zerekin egarria kendu». Juan zan, eta, bein ere urik izan etzan arkaitz legorrian, arkitu zuan iturri ederra. Mirari onekin Tifo lenaz gañera Franzisko baitan zeukan fedian sendotu zan. Eldu ziran bada Alvernako mendiaren oñera, eta asnasa artzeko gelditu ziran piskatxo bat aritz baten itzalian. O miragarria! Txori-talde aundi batek inguratzen ditu; agur gozua eginaz, kantuz beren poza agertu naiaz, jartzen zaizka txoriak Jaungoikuaren serbitzariari batzuek buruan, bestiak bizkarrian; asko zetortzkiyon eskura. Ezagutu zuan gure Aita-lenak, txori garbien ongi etorri onetan, Jaungoikuaren gogua zala, mendi artara juanik, antxen bere egoitza egitia.

SAN FRANZISKO ALVERNAKO MENDIYAN

Alvernako mendiya da ikusgarria. Iru aldetatik ez dago igotzerik, zeren dira aitz batzuek parete orma gisakuak. Alde batetik bakarrik igo diteke,

eta au ere da txit maldatsua. An, pago itzaltsu baten ondoan, Santuak aukeratu zuan, bera ego- teko, txaola gisan etxetxo bat egiteko tokia. Pago artan zeukan kabia mirotzak. Kantuz ark ema- ten zion adia Santuari, korura juan biar zanian eta errezatu. Santua baldin nekatua bazeguan, etziokan deitzen mirotzak. Igo ziran beraz prai- liak zeuden tokira, eta gusta zitzaion txit asko San Franziskori an egin zuten etxe santua, de- nak adiarazten zualako zala pobrien bizi-lekua. Orlando jauna itzuli zan bere Kiusiko jauregira. mendira lagundu ondoan «bigar arte» Santuari esanta. Ez ordia Franziskoren semiai esan gabe: «Begira: bi urte dira nik mendi au eman nizutela; berriz ere zerbait palta dezutenian, ementxen na- go gusto guziarekin laguntzeko».

Aita-lenak bere aldetik zeukan bere semien es- pirituko kontu aundia. Aztu etzitezen pobretasu- naz, egin zien itz-aldi bat guztiz ederra, nun ere beste asko gauzen artian esan zien: «Nere seme maitiak... Konde Jaunak bere aldetik egin du egin biar zuana, baña ez gaitezen atzendu, aztu, po- briak gerala, eta gure aldetik egin biar degula alegiña, Jaungoikuan jarririk gure biotza oso, Be- ragandik itxorotia biar deguna, gizonengandik ba- ño geiago. Elias, Paulo, eta Antonio bakardadian gorde zituan ta mantendu; gurekin ere, orixen bera, gu leialak izatera, egingo du». Au esana- gatik bere semiak Ordenako espiritua obeto guar- da zezaten beti ta leku guzietan, utzi zion Or- llando Konde Jaunari eliza egiten aingeruen Erre- gina Mariak eman zion ispillubaz araura, zefia

agertu zitzaion San Juan Bautista eta San Juan Ebanjelistarekin batian.

Asi ziran bada eliza egiten. Gure aita bitartean juaten zan mendiaren alde batera edo bestera, tokirik egokianaren billa Jaungoikuarekin itzegiteko. Billatu zuan azkenik eta arkitu zuan leku bat nai zuan bezelakua, baña zan toki bat ikara eragiteko modukua; arkaitz guztiz garay ta, goitik bera ebakiak, leize illunak. Batez ere bi, bata bestiarene pare bide askuan ebakitakuak, miragarritzko moduan. Jarri zan aeri begira Aita-len santua, gogutzen nola gerta ote zekian aiek ala egotia, eta Jaungoikuak alatan azaldu zion eta eman aditzera, nola, Jesu Kristoren eriotzan, mundu guztiak egin zuanian ikara, lur-ikara artan zartatu zirala begian aurrian orduan berak zeuzkan aitz aiek. Au izan zan bide, areta geyago mendi arri ongi-nai aundiya izateko. Ain zan Santuaren gogokua Jesusen pasio santuz oroitzia. Len ta orain batez ere, nola utzi mendi au, nun ere aitzak berak ematen diote oraziorako naikua gaia?

OTSUA ZERITZAN LAPUR BATEN KONBERSIUA

Mendi artan, arkaitz tarte batian, Jesusen pasiaz asko oroitzen etzan lapur bat bere lagunakin bizi zan gorderik. Deitzen zioten lapurren buru oni *Otsua*. Otsua lapur ospatu ari etzitzaion inguruan jenderik gustatzen. Egun batez bere mendeko lapur bati agindu zion Otso nagusiak, juan zedilla mendi artako jende arrotz etorri-berri aietara, eta aren izenian esan zeila aldegin ze-

zatela inguru aietatik. Franziskoren semiak erantzun zioten etzirala juango andik. Aserretu zitzai-
on Otsuari, ta urrengo egunian juan zan bera menditik botako zitualako uste osuan. Baña Santuak gozo-gozo artu zuan Otsuaren izena zuan gizon ura, eta biotzian ukitu zion esanaz: «Gizona, zertan zabilta orrela eta zer bizi-modu da zuria? Uste dezu betikuak gerala munduban? Ez dakizu, usterik gutxienian ta uste gabe, Jaungoikuari geron egite guztien kontua biarko diogula eman? Gizona, atera itzatzu geroko kontuak». Era onetan eztitasun aundiarekin itzegin zion San Franziskok; aditu zituan ixilik itz aiek, eta lapur Otsuak esan zion Santuari etzedilla mugi andik ta egoteko an seseguz. Mirari aundi bat egin zuan Jaungoikuaren graziaz.

Aldegin zuan lapur gaiztuak orduan bere mendi-etxera. Oarturik prailien bizitza santuaz eta lotsaturik berak zeramanaz, bildots umilla baño umillago, juan zitzaion San Franziskori, bere gaiztakerien barkaziuaren billa; bere anima salbatu nairik, eskatu zion negarrez artu zezala bere semien artian. Ikusirik Jaungoikua zebillela arekin eta Berak deitzen ziola erlijio santura, pozik eman zion Ordenako jantzia, ta, kendurik Otsuaren izena, jarri zion Arkumiarena. Izen onekin gerroztik deitzen zioten, eta santuaren bizitza ill arteraño egin zuan.

AMALAUGARREN BURUA

UZTEN DU SAN FRANZISKOK ALVERNAKO MENDIYA ERROMARA JUATEKO

Alverna mendiko lanak eliza ta gañerakuak bukatu ziranian, artu zuan gure Aita-lenak Erromara juateko asmua. Gogoz egongo zan mendi artan beste eginkizunik izan ezpalu iñun; baña egunetik egunera bere ordena ugaritzen zan, eta zenbat seme geiago biltzen ziran bere banderari jarraitu nairik, oek arte-maña aundiak eskatzen zioten, eta, gauzak biar bezela antolatzeko, toki aldatzia nai ta naiezkoa zan. Beraz, gero arteko agur bat eginik mendi artan gelditzen ziran seme-anaiai, eta denboraz izan biar zuan Golgota bigarrena beretzat, utzirik guziya ondo moldatua, abiatu zan Erromarunz. Bidian egin zituan mirari guziyak emen ipintzera, nai baño aundiagua aterako litzaket liburu au. Badira batzuek ezin orregatik ixilik igaro nintzakianak; beragatik emen jarriko ditut.

FABRIANON FRANZISKO

Santuaren izen ona ain zan zabaldu ordukoz, edozein erritara juan zedilla, erri guzia biltzen zan tokirik zabalenera, beraren itza aditu naiaz.

Txiki ziran elizak; erribera ta zelai, landa iriatak onentzat biar ziran. Eldu zan Fabrianoko errira, asi zan predikatzen, jauregi berria egiten ari ziran aurrian. Argin ta gañerakuak ots aundia ateratzen zuten, ezin aditzeraño Santuaren itzak. Denbora piskatxo batian, esan zien langilliai Franziskok, egon zitezela geldi. Esan oni etzioten begiratu langilliak. Ikusirik au, biotz penatuarekin esan zuan: «Alperrik da gizonak egiten duan lana, Jaungoikua lagun ezpada. Laster lur jo biar du jauregi orrek; baña ez gizonak ta ez aberek miñik artuko ezta». Egun artan bertan, etxiak lur jo zuan ta iñork ere miñik artu etzuan.

Fabrianoko erri onetatik legua bat mendi aldera, arkaitz ta arrieta besterik etzan bakardade illun batian, arkitzen zan Ama Birjiñari eskaiñitako San Benitoren alabak iduki zuten etxe santu utzitako bat. Ararat juateko nola zeuden asko bide-xiur, lenbiziko Santua igarotzian, bidia galdu zituan. Nekazari bat ari zan uztarri batekin arian an inguruan. Bide onian jarriko ote zukian, juan zitzaion gure Santua, eta erantzun zion nekazariak: «Ba, uztarri ta aria utzita, lana galdua, juango naitzatzu bidia erakustera». Alere, ain gozo ta umill ikusi zuanian gizontxo ura nekazari ark, urrikaldurik, guzia utzita lagundu zion bide onian jarri arte. Itzuli zan, Franziskori lagun egin onduan bere sorora, ta arkitu zuan soro guztia ederki landua, berak asi zuan lan guzia bukatua. Zer zan? Bedeinkatu zuan Santuak lur ura, aren jabiak lagundu ziolako. Asko aldiz gerta oi dana, urrikizko lan batengatik uzten da-

nian eskuen arteko lana, Jaungoikuaren bendi-
ziuak ugaritzia lan ura.

ARDOZKO ITURRIA

Trabe-Bonatan eman zioten San Franziskori etxe bat, baña antolatu biar zan iñor bizituko bazan. Deitu ziran langilliak. Lan asko ta legor zan jendia. Indar berritzeko ardo piskatxo bat eskatu zioten oek. Ardorik etzan; ura bai iturrian. Biali zituan bi lagun errira ardo eske, eta etziran agiri. Lan egiteko atsegin da indarra, eta an ari ziranak indargabetu ziran bizigarriaren paltan. Urrikaldu zan orduantxe Santua. Juan zan iturrira; egin zuan gurutziazen señaia iturriaren gañ; eta iturriak, beste gabe, uraren orde, ordu luze bation, ardua eman zuan, eta ona.

SAN FRANZISKO OSIMON

Besuak zabalik artu zuten Osimon. An predikatu zuan gogor munduko atsegin ta aberatstasunen gañian. Aditzera eman zien ederki're ederki, zein igarokorrak diraden lurreko gauzak, zein utsak; aditzalle guziak ukitu zituan biotzaren erdiz-erdiko zañian. Bakoitzak orduan bere animako gauzak antolatziari eman zion; ogei ta amar gaztek eskatu zioten Ordenako jantzi santua.

Gelditu zan gau egiteko Jaun aberats baten etxian. Biotz oneko aberats ark eskaini ziozkan Santuari zituan ondasunak, eta azkenik bere bu-

rua. Eskerrak eman ziozkan orduan, eta jarraitu zion zeraman bidiari; baña ez ondotoxo ere goguan artu gabe itz aiek. Uste zuan uraxe zala Jaun bat bere Ordenarako espiritu ona zuana. Andik egun gutxira biurtu zan Franzisko jauregira. Itzegin ziran alkarrekin ederki Jaungoikozko gauzen gañ. Ikus-mirak mugiturik, jakin nai zuan gabaz Santuak zertan igarotzen ote zuan denbora, eta beragatik jarri zan zelatan. Ikusi zuan bada airian zeguala, odei argi eder batek inguratua. Ordutik erabaki zuan munduari betiko agur bat egitia. Esan zion bere asmua Franziskori, eta, Franziskok agindu bezela, zabaldu zituan pobrien artian zituan ondasunak. Artu zuan San Franziskoren ordenako jantzi santua, eta egin zuan geroz santu baten bizitza.

INBIDIA

Bi erlijioso arkitzen ziran inbidiaz igartzen; ala esan zion batian batek bestiari: «Anai Franziskori zergatik egiten ote dio jendiak guri baño agur obia? Gure bizi-modua eta orrena egian ez al dira bat?» Oetako batek zelatatu zuan gau batez. Irten zan Santua gabaz etxe inguruko basora, oi zuan bezela, bakardadian Jaungoikuarekin itzegitera. Jarraitu zion ixilik bestiak, eta ikusi zuan argitasun aundiak inguratua, eta, zerutik jexirik Maria Jaungoikuaren Ama Jesus aurreakin, nola Franziskori bere besuetara eman zion Mariak bere seme Jesus. Au ikusi zuanarekin bildurtu zan, eta kordegabe erori zan lurrera. Etxerunztzian, Santuak topatu zuan erorita zegua-

na; eraman zuten etxera, eta, kordatu zanian, agindu zion Franziskok etzezala esan ikusi zuana, ura ill arteraño. Baña ezin iduki izan zuan ixilik gauza ain miragarria.

Asko aldiz egiten ziozkan gure Aita-lenari zeruak onelako mesede bereziak.

Nobizio batek ikusi zuan beste bein Franzisko itzegiten zeguala Jesus eta Maria, San Juan Bautista eta San Juan Ebanjelistakin. Zein santua eta ederra izango zan gure Aita-lenaren espiritua, naikua ematen zaigu aditzera egite modu orietan!

JUZGO TXAR BAT KASTIGATUA

Pobretxo bat arkitu zuten Franziskok ta bere lagunak guziaren paltan. Arpegia zuri ta gañera erdi larru-gorrian. Ikusi zuanian ala Santuak, urrikaldurik egin zuan negar. Negar ura lagunari iduritu zitzayon geiegizko gauza. Aitaren begiak legortzeko ustian esan zion: «Bai, orrelakuak ez dira beti-beti uste bezain urrikarri izaten. Kanpoz pobre ta urrikarri ta umill agertuagatik, iduki lezake orrek barruna uste baño aberatsago ta arruagua». Ozta esan zuan itz au, oju egin zion Santuak bere lagunari: «Zer esan dezu? Malezi geiegiak onela kendu dizu biotzetik urrikia, zure anai pobretxo onen neke ta ezin-eginaz ez geiago urrikaltzeko. Pekatu aundia egin dezu, eta pekatu ori ezta izango kastigu aundi bat gabe». «Aita – esan zion orduan, umillaturik beriala, juzgo txarra egin zuan lagunak –. Aita, eman bizait nai duan penitentzia». Orduan agindu zion

Santuak: Ken zitzala bere soñeko-arropak, eta, auzpezturik pobriaren oñetan, aitortu zezala bere pekatua, eta, ariketa pobriak barka zekion arte, egon zedilla aren oñetan altxatu gabe. Egin zuan esana eta erremediatu zuan bere pekatua. Gero gai onen gañ eztitasun aundiarekin egin zion bidian itz-aldi bat guztiz ederra.

AMABOSTGARREN BURUA

LETRANGO LAUGARREN BILLERA

San Franzisko erriz-erri Jesusen antzera zebillen Ebanjelioko dotriña zabaltzen, igarotzen zan leketan on egiten zuala nekiari asko begiratu gabe, zeren gogozko nekia ariña izan oi da, gauzak batez ere nai bezela gertatzen diranian. Aინbeste konbersio eder ikusten zituan, aინbeste lekutan len Jaungoikuaz azturik bizi ziradenak, orain ikusten zituan Jaungoikuaren serbiziuan leialak; nola nekia izan zitekian pisu San Franziskorentzat? Anima bat bakarra sartzen danian bide onian, pozgarri da, eta au ezagutzeko asko da Ebanjelio santuari begiratu bat ematia, nuri ere irakurtzen degu Aingeruak poztutzen dirala zeruan pekatari bat konbertitzen danian. Beragatik, Jaungoikuaren itza adiarazten digutenak, dira zerutikan datorzkigun mandatu-emalle batzuek, eta biar ditugu gogoz aditu Jaungoikuak orien bitartez esaten dizkigunak. O zein ederrak diran Ebanjelio santua zabaltzeko ematen diran pausuak! Zein ederrak ona ta pakia erakartzen digutenen oñak!

Franzisko beraz Jaungoikuaren itza predikatzeko egiteko laudagarri onetan zebillen, jakin zuanian Aita Santu Inozenzio irugarrena zijuala

munduko Obispo ta gañerako jakintsuak biltzera billera guzierako batian. Elizak arterañoako guzian izan zituenatik amabigarrena izan biar zuan ark. eta Letrango laugarrena. Arteraño ezagutu ziran aundienetako bat. Bi millatik gora ziran bildu ziran Obispo, Abade, Prinzipe ta jakintsuak. Oen artian lareun ta amabi Obispo. Ogei egunian iiaun zuan billera onek; San Martinetatik San Andresetara, 1215'gn. urtian.

GURE AITA-LENA DIJUA BILLERA ARTARA ERREGLAREN BAIMENA SENDOTU NAIRIK

Iduritu zitzaion Santuari uraxen zala denborarik egokiana eta ordurik onena bere Ordena are geiago sendotutzeko, eta baimen berri batekin asko aurreratuko zuala, iduki zekiote jende mueta guzikuak merezi bezela onra eta errespetua. Bada baimen berri bat ateratzeko asmuari billera artatik, jo zuan bero-bero Erroma; auzpezturik Jesu-Kristoren ordeko Inozenzio irugarren Aita Santuaren ofietan, eskatu zion umillkiro lenago berak baimendu zion Ordena ta erregia, arren orain billera guziaren aurrian indar berri zezala.

Artarako Santuaren biotza arrazoi aundiyak mugitu zuten. Askok lekutan despreziatuak izaten ziran bera ta beriak eta etziokaten siñistatzen nor ziran esanakgatik. Au zetorren batez ere denbora aietan asko seta gaiztoko jende, Elizak debekaturik zeuzkan dotrina txarrekin, ibilli oi ziralako, Jesu-Kristoren pobretasunaren papera egiaz, anima senzill ta onak engañatzen. Ona zer-

gatik asko lekutan San Franziskoren semiai erre-
zeluarekin begiratzen zien.

Arrazoi au txit izan zan aditua Aita-Santuaz,
eta billera guziaren erdiyan itzezin zan esanaz
San Franziskoren Ordena arkitzen zala baimen-
dua, guziak jakin zezaten eta jendiak izan zekion
merezi zuan begiramentua.

AITA SANTO DOMINGO

Gure aita Santo Domingok ere nai zuan zer-
bait atera billera artatik bere familiaren alde.
Emen esan biar da nola lot-erdian Aita Santuak
ikusi zuan, lenago gure Aita-len Santua bezela,
orain berriro Letrango Eliza erortzeko zorian eta
Aita Santo Domingo bere bizkarrak eusten irauli
etzedin. Orain beriala etzan bete biar ura, zeren
Domingo itzuli zan Tolosa Frantziakora bere se-
miakin, elkar adituz, erregla bat lengo Elizak bai-
mentuari zeuzkan aietakua antolatzeko asmuan
bere ordenarako. Aita Santo Domingo lan artan
ari zala, ill zan Aita Santu Inozenzio irugarrena,
ta au izandu zan bide, ez orduan Santo Domin-
goren ordena baimentzeko. Baña ondoren Aita
Santu Honorio irugarrenak 1216'gn. urtian bai-
mendu zuan.

Geruago 1271'gn. urtian, Leongo bigarren bi-
lleran, San Buenabentura, Aita Santu Gregorio
amargarrenak, bere ordeko biali zuan artan, egin
zan erabakitze bat, emen ongi datorrena esatia
zerbait: Erabaki zan bada, arako *Religionum di-
versitatem* asten dan *Canon* artan, nola bi orde-

na oen bidez (au da Franziskoren ta Domingorenak) fedia piztu eta Jaungoikuaren Eliza goortu dan. *Quia propter hos duos ordines fides illuminata est, et Ecclesia Dei exaltata.* Oezaz kanpora arkitzen ziran beste erlijio ta Ordenak, Le-trango billera artatik geroztikakuak, itzali zitezela erabaki zuten, gauza sobratuak baziren bezela. San Buenabentura atera zan kontra, eta ain ziran indar aundiko arrazoiak Aita Santuari eman ziozkanak, beste eskalien Ordenen alde eze, utzi zien Aita Santuak len zeuden bezela.

ORDENAKO LENBIZIKO BILLERA ADIAZTEN DU

Bukatu zituanian Erromako egitekuak, Azillian itzuli zan Asisa Santa Maria Aingeruenera. Orduan artu zuan asmua berak ere Ordena guziko billera bat egitekua. Biribillaturik aletinaz bere semiak, nola egun batetik bestera Ordena ugartuaz zijuan, ta beragatik zan neke aundiya buru batentzat lan guziak egitia, erabakiko zala orduan, nola lanak banakatuz, askoren buruan aisago ta errazago Ordena gidatzeko bitarteko biar ziranak artzia.

Izan ditekian egunik on ta egokiena aukeraturik, aurrez eman zien aditzera seme guztiei, 1216'gn. urteko Maiatzaren ogei ta amarrerako, bildu zitezela al zutenak Asisen. Elizak urte artan Maiatzaren ogei ta amarrian zelebratzen zuan Espiritu Santuaren etorrera. Egunk egokia San Franziskok nai zituan lan moduetarako.

ABIATZEN DA PRESTAMENAK EGITEN BILLERA ARTARAKO

Prestamenik aundiena izandu zan Santuarentzat Jaungoikuarekin itzegitia maiz eta berari eskatzia Ordena santua ondo gidatzeko argia. Denboratsu artan San Benitoren semiak eman zioten Subasioko mendian zuten praile-etxe bat, Asistik ordu bat bide inguruan. Bakardadian arkitzen zan au eta Santua aruntzaxen juan oi zan oraziora; ona zergatik deitzen dan leku ura: *San Franziskoren itxitegia*, kartzela. An diabruak asko aldiz tentatu izan zuan, baña guztietan Franzisko ateratzen zan garaitzalle.

Etxe santu onetan gordetzen ziran asko gauza, Santuak bizitzan usa zituanak. Arri kaskar aundi bat, eta arbola-ondo bat, zeñen arrimuan ematen zion gorputzari desneke pixkabat. Baita ere gordetzen zan seda gorrizko zapi bat, are gorriago Santuaren zaurietako odolak egina, zeñarekin anai Leonek sendatzen ziozkan edo lotutzen zauriak. Gordetzen zan oraindik, kristalezko ontzitxo batian San Franziskoren zaurietako odol gordiña, Santuak bidian erabili izandu zuan makilatxua, eta beste onelako gauza aberats asko.

Denbora artan oraindik eman zioten Villako praile-etxia; au ere arkitzen zan bakardadian, zuaitz itzaltsu askoz inguratua. Emen egin zuan mirari bat polita. Bela beltz ta onen antzeko txori-egaztiak zeuzkaten beren kabiak zuaitz aietan. Orduz landarako kantu garratzakin, atsekabetzen zuten oek Santua, guztiz ere baldin oraziuan bazenguan. Bein batez bada eman zien errietan, eta

agindu zien edo egon zitezela ixilik, edo ta bes-
telaz juan zitezela andik. Askok aldegin zuten
beren kabiak utzirik; batzuek gelditu ziran, baña
geroz egoten ziran ixilik, Gizonak, esan ta esan
arren, nekez egon oi dira ixilik, eta txoriak ixil-
tzen dira eta beliak ere bai, San Franziskoren
esanera!

Iru urte luzian Santa Klara San Franziskorekin
itz asko egin gabe zeguan. Nai zukian Santuaren
ango egoitzaz baliatu, bere biartasunak agertu,
eta beste gauza asko antolatu, ta artarako itze-
gin Gidari Santuari. Klarari asko gazte zitzaiz-
kion etortzen, eta etxia ondotoxo ere bete zuan.
Beste aldez naiago zuan berak obeditzen bizi,
ezen ez agintzen. Etzuen nai ainbeste anima eder
ta birtutetsuen buru izan; zeren bere betasunian
etzan diño ezagutzen arteraño. Baño etzuan lo-
gra izan bere gidari Aita-len Franziskongatik nai
zuana; zeren Jaungoikuak autu zuan Klara gu-
zien buru izateko, eta au, zeruak azaldurik, on-
gi zekian Franziskok.

Guazen orain gure Aita-len maitiaren semie-
tara. Oek ikusi zutenian beren Ordena, ainbeste
Obispo Jaun ta jakintsuren erdian, Aita Santuaz
berriro baimendua, etzekiten beren biotzeko poza
nola agertu; ain zan au aundi. Baña, zer esan
det? Etzekitela nola agertu barruneko poza? Bai,
bai, bazekiten eta ezin ta obeto agertu zuten.
Ezpada begira lenaz gañera zer asmuetan sartu
ziran. «Gu deituak gera, animak, geren danez, sal-
batzeko alegina egitera; biziuaeren beztasuna adi-
araztera; birtutiaren gozotasunak erakustera. Zer-
tan gaude emen? - zioten - Len-bai-len lanari

ekin deiogun. Aita Santuak maitatzen du gure bizi modua; gañera bedeinkatzen gaitu; guztion Aitak bedeinkatzia, zeruak bedeinkatzia da. Animak berriz Jaungoikuaren itzaren gose dira; zertan gaude emen? Onela beraz dena lenaz gañera Aita-lenak eman zitzen berri onakin berotu ziran, eta Jaungoikuaren mastiko langille eskaintzen ziran.

AMASEIGARREN BURUA

ORDENAKO BILLERA

Santuarentzat bere semien espiritu ederra ikustia ezin esan al ditekian moduko poz-gaia zan. Ikustian bere semiak zenbatxe aurreratuak zeuden birtutian eta prest noranaiko, ta au, naiz asko eraman biar agindua egiteko. Eldu zan alatan billerako egun desiatua, Maiatzaren ogei ta amargarrena. Espiritu Santuaren etorrerarekin bitotz ondo prestatuak, esan diteke erazeki ta sutu zirala, eta amoriuaren indarrak gidatuko zituala, Jaungoikuaren gloriari begiraturik, lekurik premiatsu eta jenderik biartsuenak arkitzen ziran tokitara.

Españan arkitzen ziran anaiak etziran billera artara jua. Batetik urruti arkitzen ziran, eta besetik, ta batez ere, lan aundiak zebiltzkiten eskuen artian; zeren zimentatu berria zan Ordena Españan, eta etzuten denbora beste eginkizunetarako geiegi.

Ordenako lenbiziko billera oni ederki leikioke deitu umillen billera; zeren egiaz asnasaraño-kua zan emen umilla. Etzan an gauza zailik agertzen iñorentzat. Denak zeuden prest agindua egiteko. Iñork etzekan keja-miñik. Denak uste zuten ditxa aundiyan arkitzen zirala, beragatik etzeu-

katen bata bestiaren danik eta inbidiren arrazaren izpi txikienik. Denak karidadez animaturik, etzuten uste, izan zitekianik beren artian iñortxore, denik eta gauzarik ariñenian gogoz ta naiaz utsegeteko biotza zuanik. Itz batian Santuen billerazan, eta guziya esana dago. Miragarrizko ikuskerara izango zan orregatik ura ikustia bakarrik. Gizon aiek itxuraz arlote, oñ gorrietan, ezer ere gabe, munduaz despreziatuak; eta berak mundua desprezioz oñazpiratuta, beren gauza balute bezela, mundua zerekin eta nola antola somatzen ta prestakizunak onetarako egiten. Ebakitzen erreinuak, Probintziak eta izendatzen aietan Ordenako legiaz araura buru egin biar zutenak. Jesu-Kristoren eskola zirudian ark, eta ala zan. Nai izan zuan Jaungoikuak gazte baten bidez mundua nastu gero zuzentzeko, eta gazte au zan Fanzisko, munduari lau saietsetatik su emanik, Jesus maitiaren amoriua gizonen errai-biotzetan irazeki biar zuana. Serafinen egin-bidia artu zuan Franziskok bere gañ, eta ona zergatik deitutzen diogun Asis-ko Serafin irazekia.

Billera onetan nola izendatu baiziran Probintzia bakoitzaren buru egin biar zutenak, eman zitzaien eskubidia jantzi santua emateko. Franziskoz ostian arteraño iñork etzuana. Beraz, milla berreun ta amaseian egin zan Ordenako billera onetan, erabaki zan lana gogotik egin biar zutela San Franziskoren semiak mundua konbertitzeko Jaungoikuaren gloriari begiraturik. Probintzien buru izendatuak ziran: Lonbardiako, Strakiako Juan; Anconako Marcarako, Arezzoko Benito; Calabriarako, Toscanako Daniel Santua,

Ceutan martirizatua; Tierra-laborrako, Asis-ko Agustin; Toscanarako, Cortonako Elias; Puillara-co, beste bat izendatzen ez duana kontairak.

Denbora berian biali zituan nazio askotara Ebanjelio santua predika zezaten asko erligioso. Española bialdu zituan Quintabalko Bernardo Aita-lenaren aurreneko semia, beste askorekin. Provenzara, Florenciako Juan Bonella, beste ogei ta amarrekin. Alemania garai ta azpira, Pennako Juan beste irurogei anairekin. San Franziskok berak nai izan zuan Juan Parisa. Dianak arkitzen ziran pozik agindua egiteko, ta urrutietara juan biar zutenak ere berdin, bestiak bezela. O ze kaskarrekoa emango zioten deabruari laster ainbeste soldaduk, berak beste orduz galdu zuan armarekin berarekin, au da, obedientziarekin! Bada etzuten praile aiek beste arma ta muniziorik etsaia gerra egiteko obedientzia baizik; onena, garaitzeko inpernuko etsaia.

ANIMATZEN DITU BERE SEMIAK PREDIKATZERA BIALI AURRIAN

Egin zien Aita-lenak bere semiai, bidian jarri baño len, itz alditxo bat ederra: «Jaunaren ize-nian zuazte binaka, esan zien, modesti ta umiltasunarekin, itzik iñorekin egin gabe. Tertziako denbora arte, au da goizeko bederatziak arte, orazio egiten diozutela biotzez Jaungoikuari. Itz alper ta balio eztuanik ez dedilla zuen artian aditu. Bidian zuaztenian, egizute kontu zeon gelan arkitzen zeratela, bada, edozein lekutara juanik ere, gelan arkitzen gera. Gure gorputza da animaren

gela. Anima bizi da gorputzeko gela onetan barkardadian Jaungoikuarekin itzegiteko. Baldin erlijioso baten anima gorputzeko gelan ezpada arkitzen sosegu onian, gañerako kanpoko gelak eztiote ezer ere balioko. Zabilzate munduan alako moduz eze, zuek ikusten zaituztenak ta zuen itza aditzen dutenak, geldi ditezen biotz-ukituta Aita zerukua alabatzeko, zeñari dagoka gloria guziya. Zabal zazute pakia nunai; baña zeok ere iduki zazute pake au biotzian, mingañian baño geiago. Ez eman iñori eskandal ta pekatuko biderik. Aitzitik bai denak zuen gozotasunaz mugizazute mundu guziya, biotz-bera, paketsu ta elkarkoiak izatera. Deituak gera eriak sendatu, atsekabetuak poztu ta bide okerrian dabilzitanak zuzenian ipintzera. Diabruaren alderdiak diruditen asko, Jesu-Kristoren ikasle egunen batian izango dira». Bedeinkatu zituan gero Santuak, ta, elkar laztandurik, ekin zioten bakoitzak bere bidiari.

Asko sufritu biar izan zuten asko lekutan; guztiez gañ Alemaniara jua ziranak. Nola etzekiten ango izkuntzarik, esan biarrian *ez*, berdin esaten zuten *bai*. Itz laburtxuak izanik ere, oriek jakin biar dira noiz ta nola esan.

JARTZEN DA BERA ERROMARUNZKO BIDIAN

Ondo egitia asko eztala, zeñek baño zeñek obeto egingo duan ta egokiena, da karidade txit egiazko ta goienekuaren seña. Ondo egitia ondo da; eta da karidade egiazkoa; baño ondo egiten dan ori alik ondoena egiten saiatutzia, da ka-

ridade txit erakoia, ta beragatik gutxirena. Poz eta atsekabien erdian arkitzen zan Santua egun aietan; egin zioten agur bere semiak, eta berak baño geiago etzuan iñork desiatzen Jaungoikua-
ren itza predikatzia! Esan dezatan egia, lotsaturik gelditu zan Franzisko orduan, baño lotsa ura etzan biarbada lotsa; inbidi santu bat geyago zan lotsa baño. Zer egin ordia? Aita zan, ta pamili aundiyarena; eta pamiliak begiramen aundiak dituan bezela, ezin juan zitekian orduan guziya utzirik. Etzuan alere beretzat lanik txikien ta ari-
ñaena aukeratu.

Parisa juatia goguak eman zion, eta an gogotik prantzesen erderan lan egitiak, prantzesak konbertitzen. Orainguak baziran, biarra izango zuten. Asmo onekin gelditu zan egun gutxiko Asisen, eta gero jarri zan Erromarunzko bidian. Parisa juateko argitasun berezi ta fede bizia biar zan, eta beragatik, Apostolu santuen obi beneragarria ikusiaz, nai zuan oen bitartez Jaun zerukuagandik, Pranziara juateko gerra-gizon bezela, birtutezko gizon sendotu.

Bide oni jarrai aurrian artu zuan beste lan nekagarri bat; au zan Baselenstarrak, elkarrekin gudan zeuden pamili jauregitar batzuek, adiskidetzua. Ain ederki lan onetan, ez neke gabe, atera zan, nun pamili guziya paketu zuan. Franzisko Aita-len Santuari, esker onaren orde, egin zioten beren lurrian etxe-santu bat, Pantanello-ko San Angel diritzona. Au arkitzen da Tiber ibaia-
ren ertzian.

SAN FRANZISKO TA ANAI MASEO

Erromako bidian anaia Maseo ta Franziskok ogi puska batzuek, gosia engañatzeko, eskian bildu zituzten bidez. Eseri ziran bide-bazterrian iturri baten onduan. Ipiñi zituzten eskeko ogi-puska aiek arri baten gañian, eta abiatu ziran jaten, mairik aberatsenian iñor sekula arkitu dan baño gogo geiagorekin. Ala zion Santuak: «Gure Jaungoikuari biar dizkagu eskerrak eman, onenbeste mesede egin digulako, bada pobreza dama ederraren bitartez onela serbitzen gaitu. O anai Maseo, au bai dala ditxa gurial! Jaungoikua guzaz oroitzia eta guri era onetan jaten ematia bakar-dade onetan eztu Erregek berak ere gaur guk bezelako erregalorik».

Ainbesteraño alabatzen mai ura aditu zuanian anai Maseok, esan zion bere Aitari: «Aita, arrazoi dauka Jaungoikuak gure kontua daukala eta berari esker onak eman biar diozkagula, zeren orain bertan, zerbait indar-berritzeko, ematen 'igu ogia, aurrian daukagun bezelakua. Baña, Aita, nik eztakit nola ditekian esan ugaritasun aundi-yarekin arkitzen gerala gaur, eta batez ere erregaloz betiak, arri bat maitzat, ogi-puska oriek berriz arria bera baño gogorraguak, onak gosia entretenitzeko. Ez dauka orrengatik txarra ao-zapaa beorrek – esaten zion erdi parraz San Franziskori anaia Maseok – . Pazientzia artubaz gai ederra au merituak irebazteko!» «Ai, anai Maseo, oraindik ez dezu ondo aditzen pobre biartsu izatia zer dan! Ez, Ebanjelioko pobretasunaren berri gutxi dakizu. Arri zabal au, mai sendo ta ederra daukagu; ogia naikua ere bai, gogortxua bada

ere, baña gosiak daguanarentzat saltsa guzien gustua berekin dauka; eta gero iturri garbi au, eze-
rekin pagatzen ez dana!» Au esanik jeiki zan
Santua, ta bereziturik zerbait bere lagunagandik,
ciu egiten zuan: «O pobretasun zorionekua! O
aberastasun preziogabia pobretasun santua!» Ta
jarri zan oraziuan Jaungoikuari eskatzen negarrez,
eman zekiola birtute maite onentzako desio ira-
zeki bat; baita ere bere semiai.

Jaiki zan oraziotik guziya amorioz sutuba; esan
zitekian, bere arpegiko argitasunari begiraturik,
biotza sutan zeukala. Indar aundiyarekin deika
anai Maseori, juan zitzayon besuak zabalik, eta,
alderatziarekin bat, espirituko amoriozko asnasa-
rekin, bota zuan airian oñ askuan, aize aundi
batek orbel igarra airatzen duan erraztasunarekin.
Au da gertaldi bat oso miragarria eta beste san-
tuen bizitzan irakurtzen ez dana, eta Santu onen
bizitzan ere emen bakarrik ikusten dana. Ikusi
izan dira santuak amoriuaren indarrez, lurrezko
gorputzik ezpazuten bezela airian egoten geldi;
San Franzisko bera asko aldiz ikusi zuten airian,
bai eta ere zuaitz, arbolaren azken garaieneko
ostuaren puntan. Bai eta beste batian ikusi zuten
airian zijuala txit goi, begiz galtzeraño. Baña as-
nasarekin beste bat airian askotxo ere botatzen,
au da mirari bat iñoiz ere ez aditu ta ez ikusi
dana. Geroz esan oi zuan anai Maseok: bere bi-
zian aren biotzak etzuala alako gozotasunik izan,
nola airian zijuan denboran, ta ain goitik jeistian
lurrera.

SANTO DOMINGO ETA SAN FRANZISKO

Eldu ziran Erromara eta lenbiziko lana egin zuten Apostolu santuen obia ikustia. Sartu ziran Vaticano eliz-nagusienian; jarri ziran oraziuan, eta ze miraria! San Franziskoren arpegia argituzten da; eta agertzen zaizka San Pedro eta San Paulo. Eta nola Santuak eskatzen baizion Jaungoikuari, Apostolu santuen bitartez, pobretasun santuaren espiritua beretzat eta bere semientzat, alkantzatu zuan eskatzen zuana.

Egun aietan il zan Aita Santu Inozenzio irugarrena. Andik bi egunera Cencio Sabelio Kardenaia, Honorio irugarrenaren izenarekin, eseri zan Jesu-Kristoren Bikariuaren alkian. Inozenzio irugarrena bezela Honorio irugarrena Franziskorentzat anparatzalle onak izan ziran.

Aita Santo Domingo ere orduan arkitzen zan Erroman, nora ere jua zan bere Ordenako erregla baimenaztera Aita Santuari. Ala bada Honorio irugarrenak baimendu zuan Orden eder aumilla berreun ta amazapigarren urtian.

Erregla baimentu begira zeguan denboran, maiz juaten zan gure Aita Santo Domingo San Pedroko Elizara, eta an Jaungoikuari San Pedroren bitartez eskatzen zion bere Ordenaren baimena, beraren naia ala izatera. Oraziuan zeguala bein, ikusi zuan Domingok Jesukristo gure Jauna txit aserretua pekatarien kontra; eta nola, jeikirik bere Aitaren eskuitik, nai zituan eskuan zeuzkan iru pletxa, tira zorrotz, bata kristau arruen gañ, bestia diru zalien gañ, ta irugarrena lujuriotsu aragitien gañ. Alatan aozpeztu zan bere oñetan Ma-

ria dontzella umill ta garbiya eta bere seme Jesusi esan zion: ez zezala deskarga pekatarien gain bere aserria; zeren bazekiala nola erremedia zitekian gauza. Orduan egin ziozkan presente Jesusi bi serbitzari leial Domingo ta Franzisko; zenek bear zuten mundu pekatuz kutsatua garbitu. Amaren erreguak gozatu zuten Semiaren aserria.

Bi santuak etzuten artian alkar ezagutzen. Bigaramunian Franzisko ikusi zuan Domingok; ikustia ta ezagutzia dena bat izan zan; elkarri egin zioten agur bakoitzaren izenarekin, besarkatu ziran eta Franziskori esan zion Domingok: «Zu zera nere laguna Franzisko; elkarrekin biar degu lan egin; egon gaitezen elkaturik eta ez gaitu inork ere garaituko». Beste ainbeste Domingori Franziskok esan ziola, San Bizente Ferrerek digu adierazten. Ordu artatik Santo Domingo eta San Franzisko munduan inoiz ezagutu diran adiskiderik aundienen artian jarri ditezke. Da gauza miragarria: Bi gizon, oek bezelakuak, ezere gabiak; munduarentzat despreziagarriak, inoren anparo gabe, bien artian mundu guziya bi puska egiten, alderdi bana bakoitzak bere kontura artuta, inoren bildurrik gabe, elkarri esaten mundu guziya berak garaituko dutela.

ANJEL, DOMINGO ETA FRANZISKO

San Anjel, Karmengo prailia, San Juan Le-trango elizan predikatzen ari zan batian, beraren aditzalle zeuden gure Aita-len biyak Domingo eta Franzisko. Ez bata eta ez bestia etzituan ezagutzen artian San Anjelek. Jaungoikuak zeruko

argiaz adimentua argiturik, ezagutu zituan eta esan zuan bere itz-aldi artan: «Bere aditzallien artian Elizak zeuzkala bi pillarri berri». Elizako lanak bukatzian, agurtu ziran ta laztandu iru Santuak. «O Domingo! – esan zion Anjelek Domingori –, zu zera erejien kontra-esale zorrotza!» «Eta zu, Anjel, erejiak zanpatzeko Jaungoikuak autua, eta Eliza ta kristauaren izenaren defenditzalle miragarria». Franziskori berriz Anjelek: «Zorionekua zu, Franzisko, egunen batian Jesu-Kristoren zauriak zere gorputzian izango dituzuna». Anjeli dio Franziskok: «Zu zera zorionekua, Anjel, zu, zeren laster Cilian ixuriko dezu zere odola Jesukristorengatik; eta irebaziko dituzu martiriaren palma ta korua». Iru Santuak irten ziran Santa Sabina alderunz. Bidian topo egin zuten gizon legen-artsu bat; irurak eginik orazio, sendatu zuten osotoro. Egun bat eta gau bat elkarrekin igaro zuten oraziuan ta zeruko itzekida gozuetan.

Oraindik ere ikusten da Santa Sabinako prai-le-etxian Aventinoko mendian gela bat, Elizatxo biurtua, iru Santuak egondu zirana. Ainbesteraño iruren biotzak alkartu ziran eze, maitatzen ziran anai biotzekuak maite oi diran eran. Fr. Anjel, Franziskok aurrez esan bezela, izandu zan Cilian martirizatua. Domingo eta Franzisko gelditu ziran lurrian. Elkarrengandik berezi baño len, eskatu zion Domingok Franziskori gerriko kordela, eta oroitzamen aundiya bezela gorde izan zuan bere denboran.

SAN FRANZISKO TA IRU DONTZELLAK

Jaungoikuaren itza Prantzesai predikatzeko desio biziarekin irten zan gure Aita-lena Erromatik. Senako errira eldu baño len, ara batian, San Quirino ta Campilio bitartian, iru dontzella eder, guztiz pobre jantzita eta irurak berdinak, agur egin zioten bidian esanaz: «Ongi etorria izan dedilla pobretasun santua». Au esan ta desagertu ziran. Iru dontzella garbiak aditzera eman nai zuten «zirala San Franziskoren ordena santuan gorde biar ziran iru itz-eskañiak: biartasuna, mendetasuna, ta garbitasuna». Lenbizikua nola guziez gañ azaltzen baizen kanpora Franzisko baitan, beragatik agur egiten diote oni irtenik bid-erdira. Franziskoren lagunak ikusi zuten guziya.

Gure Aita-lenak arkitzen bazuan iñor bera baño gaizkiago jantzita edo biartasun aundiyan zegualako antzian, edo lotsatzen zan bere buruaz edo ematen zion, eta au asko aldiz. soñian zerman jantziya; ta au ezin egin zan moduan baze-guan, txit penaturik gelditu oi zan. Ai! – esaten zuan –, zer lotsatutzeko gaia dan pobretxo ura guretzat! Aukeratu degu guk pobrien izatia ta munduaren despreziua, eta ura gu baño despreziatuagua dago; eta guk gozatu biar gendukian aberastasuna, ark gozatzen du, pobriagua dalako».

Gogozko pobre biartsuak poztu bitez, au adituta, ar beze atsegin ta asnasa lasa; zorionekuak, dio Jesu-Kristok, aukeran nayago dutenak pobre izan, zeren zeruetako ondasunetan izango duten sail aundi bat, ezeren paltarik gabe gozatuko dutena betikoera guzian.

SAN FRANZISKO SENAKO BIDIAN

Sena biderunz topatu zuan eiztari gazte bat uso-tortolakin zijuala. «Adiskide ona – esan zion Santuak –, uso tortola orietxek biar dizkidatzu eman» «Tori – esan zion gazte onak –, ar bitza, jauna, eta egin beza oezaz nai duana». Artu zituuan Santuak, ta, bere biziko kontutxuak eginik. izugarrizko onginaya agertu zien. Itzegiten zien aur bati itzegin oi zaion bezela. Esaten zuan anima garbien iduri batzuek zirala, beragatik ondo biar zirala gorde ta mantendu. Gazte eiztariari agindu zion berriz, egunen batian aren Ordenako jantzia artuko zuala. Santuak esan bezela, au ere denboraz bete zan; gazte ark artu zuan jantzi santua; bizitu zan ta ill zan santuaren eriotzarekin.

Senako erriaren inguruan arkitzen zan Rabaquianoko etxe-santua; aruntza eldutzian, bideko makillatxua sartu zuan lurrian, zeña bigaramun goizerako egin zan aritz osto berdekiko zuaitz aundi ta itzaltsu. Goizian eman zien Santuak libertadia antxen bizitzeko uso-tortolai, eta urte askuan an bizi izandu ziran, aritz artan egiten zutela beren kabiya. Gauza miragarriya! Noiz nai prailiai eskura zitzaizkan etortzen.

AMAZAZPIGARREN BURUA

KARDINAL JAUN UGOLINO ETA GURE AITA-LEN FRANZISKO

Senatik Alvernako mendia eta andik Florentzia jo zuan, nun ere sasoi artan arkitzen zan Ugolino Kardenal Jauna.

Kardinal Jaun au, milla berreun ta amarrian, Franzisko Aita Santu Inozenzio irugarrenaren aurrian izandu zan txit asko anparatu zuana, arako erregelaren baimen billa juan zan artan Erromara, ta geroztik adiskide aundi agertu zana gure Santuarekin. Gizon jakinduri aundiko ta birtute-tsu au aspaldian arkitzen zan Franziskorekin egon nayaz, eta ikusi utsarekin beste gabez poztu zan. Galdetu zion Ordena nola zijuan. Galde oni eman zion oso eranzuera beraren naikua. Esan zion gañera nola urrutietara biali zituan bere seme asko, eta nola berak ere nai zuan Parisa juan, bere kontura artu zualako ango misia.

Gutziz pen aundia artu zuan Ugolino Kardinalak aditu zuanian urrutietara biali zituala bere semiak. «Zertako orren urruti biali dituzu zure semiak? Eta zuk, zergatik aldegin biar dezu emendik? Ez dakizu, Franzisko, oraindik zure Ordena aurtasunian arkitzen dala? Zuk aldeginta,

zer egin biar dute emen gelditzen diranak? Etzera oroitzen zenbatxe traba arki zinuzan Erroman bertan? Ez dakizu etsai asko dauzkatzuna? Ezta bada ongi zuk aldegitia emendik orain, gauzak onela utzirik» »Jauna, utzi bizat esaten zerki biartzen nauan misiura juatera. Batetik ikusten ditut asko anima, Jesukristo gure Jaunak bere zañetako odolaz erosiak, galtzen dirala; bestetik herriznik bialdu ditut nere ikasliak txit aparte, ta aietako askok sufritu biarko dute ez gutxi, dudatu gabe. Orain bada, zer esango dute aiek ni emen ezere sufritu gabe geldi naguala jakitera? Onelanik aeri emango diet marmarizako gaia» Adituzituan Kardinalak Franziskoren arrazoiak, ta alere arrazoi pisuagotzat zedukan Parisa ez juateko agintzen zuana. Ona zergatik gure Aita, Kardinal prestuaren esanera jarri zan, eta bere ordezbiali zuan Parisa anaia Pazifiko, arako lenagoko itz-neurtzalle ospatu ura.

UGOLINO KARDINALA ORDENAKO ANPARATZALLE IZENDATZEN DA

Gure Santua itzuli zan Santa Maria Aingeruena. Laster jakin zuan pena aundiarekin txit gaizki tratatuak zirala asko tokitan bere semiak. Apaiz Nagusi ta apaizak ere etzizetela egiten ongi-etorrririk, aitzitik etorrera txarra batzuek. Baita ere Erromako gortian bertan bere Ordenak asko zeuzkala beste alderakuak. Bere Ordenari ondo nai etzionetatik libra zedin, Jaungoikuak agertu zion anparatzalle bat biar zuala billatu. Juan zan Santua Ugolino Kardinal Jaunarengana. Ordukoz

izan zuan ikusgarri au: Olo beltz usuaren antzeko atzeparrak zituan batek zeuzkan txito asko. Ezin gorde zituan denak bere eguen azpian, eta inguruan zebiltzen miruak aiek arreatzeko. Estuasun artan jetxi zan arrano aundi bat, eta onek, arturik olo-txituak bere ego-tzarren azpian, miruaren arriskutik libro zituan. Olo au ta txitu aiek ziran Franzisko ta bere semiak: miruak oen etsaiak, eta arrano gordetzallia zan Ordenak izan biar zuan anparatzallia.

Pozez eskañi zitzaion San Franziskori Ugolino Kardinala, bere Ordenaren anparatzalle izateko. Gogoratu zan Santua, askoren ao zabalak itxitzeko, onena izango zala Aita Santuari lenik adia ematia. Agertu zion Ugolino Jaunari bere gogoramen au, eta ark artu zuan ontzat. Esan zion bakarrik: «Franzisko, ni juango naiz zurekin Aita Santuarengana, eta zuk egin biar dezu, beraren ta Kolejio sagradu guziaren aurrian, itz-alditxo bat labur badere» «Jauna, nola nai du nik predikatzia Elizako buruaren eta bere printzipen aurrian? Nere jakinduri motza zer da orien artian itzegiteko? «Bai, Franzisko, itzezin biar dezu». Ikusirik bada Ugolino Kardinalaren gogua, agindu zion baietz.

Sekulan arteraño etzuan Franziskok izkiribitu itz-aldirik, zeren Espiritu Santuak jartzen ziozkan mingañian itz egokiak; nai izan zuan orduan izkiribitu bere itz-aldia. Izkiribitu zuan eta gafiñera ikasi zuan buruz alik ondoena. Eldu zan egun aukeratua, sartu zan billeran, eta oraintxen predika biar zuan; geldi zan Santua asi nai ta ezin asi. Aztu zitzaion ikasi zuana ta itz batez

ere etzan oroitzen. Umiltasun guzizkuarekin aitor-
tu zuan zer pasa zitzaion guzia. Deiturik beriala
Espiritu Santuaren laguntzari, bero-bero asi zan
predikatzen ain egoki eta batez ere alako biotz
amorioz sutubarekin ze, aditzalle jakintsu ta be-
neragarri aiek guztiak gelditu ziran biotz-mugi-
tuak, esaten zutela: «Espiritu Santuaren itza aditu
degu, Franziskoren aotik».

Une artan baliatu zan San Franzisko Aita San-
tuari eskatzeko bere Ordenaren anparatzalle izan
zedin Kardinal Jaun bat. Poz aundiarekin Ugo-
lino Kardinala izendatu zuan Onorio irugarre-
nak lan-bide artarako. Ain zintzo ta ain leial be-
te zuan Ugolino Jaunak artu zuan kargua eze.
Ordenak beti agertu izan dio bere esker ona.
Ordutik geroztikako guztian gure Ordenak beti
izan du Kardinal anparatzalle bat.

Ezin nenzaket ixil pasa, Ugolino Kardinal
Ordenaren anparatzalle onengatik, antzina gure
Aita-len Santuaren bizitza izkiribitu zuan Cela-
noko anai Tomasek diona, beste asko gauzen
artian: «Ugolino, gizon prestu ta leiala... zan
Jaungoikuaren Elizan zuzi irazeki ta argi bat...
O, ta zenbat aldiz erantzirik bere sofieko gorria
eta jantzirik prailiena, oñ gorrietan ibiltzen zan
guztien tartian pakiaren usai gozua zabaltzen!...
Gizon aundi ark au egiten zuan, onetan salatut-
zen zan, ez bakarrik Kardinal ta Ordenako an-
paratzalle zan denboran, bai eta ere gero, Jaun
txit goikuak ala nai izanik Aita Santuaren ma-
llara goratua izan zanian».

Nork itz gutxiagoan lezake obeto adiarazo Ugo-

lino Kardinal Jaunak San Franziskoren Ordenari zion amorio egiazkoa? Bere difidade erakoiatz azturik esan zitekian bizi zala, arkitzen zanian San Franziskoren semien artian. Elizako besta aundietan bezela, etxe santuko billeratan meza nagusia berak ematen zuan, eta laguntzen zion aldarian diakono bezela. Guztiz ere onginai au agertzen zion Santuari begiratzen ziolako zerutik jeitxitako gizon bat balitz bezela. Franziskoren umiltasunak ainbeste onra ezin eraman izan oi zuan, eta egun batian, ikusi zuanian zertorkiola bestetako gisa itzegitera, ezkutatu zan Santua lotsaturik. Jakin zuan aguro Kardinalak nola gorde zan, ura ikusita; billa zezatela agindu zien prailiai. Irten zan Santua gordeta zeguan tokitik, eta era ontan itz egin zion Kardinal Jaunari: «Jauna, ni lotsatzen naiz, egia esango diot, berorri dan bezelako gizon bat, nik lurrian arrastaka dabillen ar batek aina balio ezta, ni ikustera datorrela aditzen detanian». «Franzisko, begiramen oriek gorde itzatzu bestientzat, ez neretzat. Lotsatzen bazera, ilduratu zaitia zerbait nere biotzaren pozerako». Geituaz zijuakion errespetu ta begiramen aundi au Santuari, batez ere, Jaungoikuak agerturik, jakin zuanetik Ugolino Kardinal bere Ordenaren anparatzalle gizon prestuak igo biar zuala San Pedroren jargoira. Zerbait izkiribitu biar zionian, geroztik jartzen zion: «Aita txit errespetagarri, Jaun Ugolino, mundu guziko obispo, guztion Aita izan biar duanari». Au izan zan Aita Santu Gregorio bederatzigarrena, Franzisko Santua zala erabaki eta aldarietan jartziaeren diño zala agindu zuana.

SAN FRANZISKO ETA OTSUAK

Franzisko Cotanelotik zijuala arrats-alde batian, arkitu zuan gizon nekazari bat, besuan aurrarekin; esan zion lagunduko ote zion bidian. Escusa eman zuan nekazariak, esanaz otso-lekua zala ura, eta etzala ausartzen, zeren etxarunztzerako gaua gañian izango zuan. «Itz ematen dizut otsuak ez dizutela ezere egingo» – esan zion Santuak –. Nekazari onak lagundu zion bere semetxuarekin, eta etxarunz abiatu zan, eta illunak arrepatu zuan. Inguratu zuten otsuak, baña, o miragarria! San Franziskok esan bezela, onginaia besterik etziokaten otsuak agertu gizon nekazariari, bestak eginaz altzuanak alzuan moduan, Santuari lagundu ziolako bidian.

Bigaramun goizian etzan ixilik egon gizon ura, eta an inguruetako nekazariak bildu ziran Santuarengana juateko.

REATIKO IBARRAREN LAU ALDETAKO MENDIZKATAN EGITEN DITU LAU ETXE-SANTU

Jakin zutenian bada gau artako miraria, juan zitzaizkon Santuari nekazari asko; arren baño arren esaten zioten libra zitzala izurri aietatik. Reatiko iraeta artan zituzten bi izurri: otsuak eta arria. «Otsuak jaten dizkigute aldebatetik – zioten – artalde ta ganaduak, eta beste aldetik berriez txingor ta kaskabarrak, abazuz ta arriak, galitzen dizkigute landak eta landariak». Urrikaldu zen Santua nekazari gizajo aien negarraz, eta

erantzun zien: «Bai libratuko zaituztet bi izurri orietatik, baña gogatu zaitezte Jaungoikuak bizitza txar ta pekatuagatik bialtzen dituala orrelako kastiguak; geroztikan biar dezue aurrena zuen pekatuen penitentzi egiaskua egin». Egin zuten penitentzia, eta etzan geiago an otsorik ikusi; eta, beste inguru guzietan arria egiten bazuan ere, an etzan erorten ale bat ere. Onela gauzak irauu zuten Jaungoikuarekin leialak izan ziran bitartian.

Reatiko ibar au arkitzen da Italiaren biotzian; beragatik deitzen diote Italiako txilborra. Ibar au guzia da goñati bat; lau mendizka dauzka gurutzetara, eta, lau goñ orietan, bakoitzian egin zuen etxe santu bat. Santua zeguan orduan Grequioko erritik aldian. An agirre batian, bi pago itzaltsuz baliaturik, egin zuan txaola bat.

Otsuaren mirariak asko zituan biotzian ukitu, eta orduan konbertitu zaneti bat zeritzan Velitako Juan. Adiñ aundiko gizona ta gorputzaz lodi. Bein bada onek esan zion Santuari: ezin urruti juan zitekiala ura, ta batez ere bide gaiztuan, are gutxiago toki maldatsuan. Erriaz alde-ratxiago nai bazukian egin etxe-santu bat, berak lurra ta gañerako biar zana emango ziola. «Ondo da -erantzun zion San Franziskok-; aur bati emango diogu illati bat, eta aurrak indarrian norreño botatzen duan, antxe, nai badezu, egingo degu». Velitako Juanek pozik esan zion baietz; uste zuan mutil txikiak etzuala illatia txik urruti botako. Deitu zioten bada mutiko bati, eta eman zioten eskura illatia, esanaz bota zezala alzuau urrutiena indar guziarekin. O Velitaren arritasu-

na! Legua laurden bat bidian mutikuak bota zuan illatia, sasia ta larra besterik etzan arritegi batera. Illatiak eman zien su larrai. Lur ura zan Velitako Juanena. Itza eman bezela, itza bete zan. Au izan zan lenbizikua ibar artan.

Asko milagro egin zituan an ere. Bat guzien artian, kontairak dionez, Velitako Juanen aurrian; onek ikusi zuan Orenzaro gabian San Franzisko Tresabitik Jesus aurra bizi-bizirik artutzen bere eskuetan. An oraindik arrazoi gabiakin egin zuan mirari guzizkua ere. Erbi bat, egazti bat eta arrai bat ziran oek, zeñak atxitu zituztenari eskatu ziozkan, libro gero uzteko asmuan eta bere aldemenetik etzuten mugitu nai izandu.

Baña leku artan guzia etzan poza izandu Santuarentzat. Etsaiak gerra gogorra egin zion, Santua azkenik garaitzalle atera bazan ere.

Alde guztietatik Santuarengana jendia juaten zan; bide-bazterrian arkitzen zan masti batetik, batak mats-mordo bat; bestiak ale batzuek, mastia kimatu zuten. Masti-jabia juan zitzaion Santuari zer kaltia zuan ezatera, ura an egonarekin. Aditu zuan Santuak gizon aren keja, eta urrikiturik bedeinkatu zion mastia, eta ugaritu zion ardua, eta au ere txit ona izan zuan urte artan. Mastia zala bide, erabaki zuan Santuak beste toki batera aldatzia, eta aldegin zuan andik legua erdira sartalderunz; an egin zuan bigarren etxe santua, zeña eskañi zion Maria Oianakuari. Au konsagratu ta bedeinkatu zuan Aita Santu Gregorio bederatzigarrenak.

Irugarrena egin zuan Grekioko erritik eskui.

Lekua zan arkaitztegi bat. An ikusten dira arkaitz batzuek goitik bera ebakiak, eta aien tartean leize illunak, Jesukristoren eriotzan lurrak ikara egin zuan artan idikiak. Aitz-arte aietako batian izkiribitu zuan San Franziskok orain bere lenbiziko Ordenako semiak gordetzen duten eregla, asko mirarien artian, gero ikusiko degun bezela.

Bakardade latz ura mendi eder artan, nun ere ainbeste gertaera miragarri ikusi dira, izandu da asko jendez agurtua bertatik bertara. Aita Santu Sixto laugarrena, arturik lagun Kardinal batzuek igo izandu zan arara oñ utsik. Lagunak esaten zioten begira zekiola bere osasunari; urte asko zeuzkala eta nekagarri zala arentzat ala ibiltzia ta geiegizko gauza. Moisesi Jaungoikuak esan ziozkan itzakin sasi-lar artatik erantzun zien onek: «Lur au lur santua da; ta errespetuaren aundiz oñ gorriak eskatzen ditu». Eldu zanian Aita Santu San Franziskoren seme egiazko au, Aita-lenak erregla izkiribitu zuan aitz tartera, «au zorioneko lekua – esaten zuan negarrez – nun ere berritu zan Ebanjelio santuko bizitza! Au da arako leku santu ura Jesukristok apostolu bere ikasleai beste orduz eman ziena, Franzisko ta onen ikasliai berritu ziena».

Etxe santu artan Santuaren oroimengarri asko gordetzen ziran. Txori-kabi bati jaten ematen zion Franziskok. Txoritxo jale aundi batek bestiai etzion jaten uzten. Meazatu zuan Santuak bat bateko eriotzarekin, eta ill zan beriala txorikumia.

Laugarrena zan Grekioetik ezkeruntzka. Au zeguan leku garai ta aldakaitzian, Santiago Apos-

toluari eskaiña. Ura zan San Franziskoren guda-
-lekua. Zenbat aldiz etsai infernukuak egin zion
gerra gogorra, anbat aldiz garaitu zuan etsaia.
An gogotik egin izandu zuan negar bere bizi-
tzako utsegitiakgatik, ariñak izan arren. Ikusirik
bere serbitzariaren negar ugariak, Jaungoikuak
nai izan zuan poztu San Franziskoren biotza,
editzera emanaz nola egin zituan penientziagatik
barkatzen ziozkan osotoro bere utsegitiak.

Leku artan bi gauza arrigarri ikusten dira. Aitz
bat Santuaren oñ, belaun ta ukalonduaren seña
dauzkana, nun ere Franziskok egin izan zuan
orazio, ta bigundu zan aitz gogorra, arindu nai-
rik bezela Santuaren penitentzia latza. Beste ar-
kaitz batian erakusten dira demoniuaren arras-
tuak, zeña agertu zitzaion, izutu nairik, Etiopiako
beltz baten antza arturik. Ikusten degunez zen-
bat tokitan gure Aita-lenak egiten zuan bere egoi-
tza, beste ainbestean agertzen dala aundi ta mi-
ragarri Jaungoikua Santu onengan. Lauda deza-
gun gure Aita Betikua, onen ispillu ederra utzi di-
gulako. Segur jarrai ginioke onen aztarnai, logra-
tuko degulakotan gloriako korua.

SAN FRANZISKO SANTA MARIA AINGERUENIAN

Rietiko ibarra edertu zuan Santuak eginik men-
dizka aietan lau etxe-santu, zeñak izan biar zu-
ten lau gaztelutxo, infernuko etsaiari guda ond-
-artze gabia egiteko an bizi biar zutenak. Guzia
ondo antolatua utzirik an, juan zan Santa Ma-

ria Aingeruenera, Jesus mundura zan 1218'gn. urtiaren lenbiziko egunetan.

Ilbeltzak eta Otsailak naikua adierazten dute urte sasoi ontako denbora. Egunak ziran illunak eta otzak; Santuak berriz azal asko ta mampirik ez, ezurak agertu nairik. Bere gorputza barur ta illaraztez indargabetua zeukan. Semien biotzak, Aita-lena ala ikusita, urrikiz bete ziran. Beragatik, San Franziskoren jantzi me-urratuari josi ziozkaten barrengo aldetik arabaki lodi batzuek, izan zitezen berogarri. Jantzi zuan Franziskok soñ nolabait moldatua; laster sentitu zan obeto eta otzari arpegi emateko eran. Baña denbora asko baño len aspertu zuan jantzi ark; iduriturik aberatsegia, agindu zien seme jostun guzizkuari, ken-ziozkatela arabakiak. «Nik biar diet beste guzia!, guzien buru nagan ezkeroz, ikas-bidia eman. Ni bezela bestiak ere otzak eta beruak arrapatzen ditu; beragatik ezta zilegi, ta añ gutxi egoki, bestiak ez bezela ni nere buruakin arretatsuagua izatia.» Onela Santua mintza oi zan gorputzaren mañaz.

EMEZORTZIGARREN BURUA

ORDENAKO BIGARREN BILLERARAKO EGITEN DITU PRESTAMENAK

Ikusten zuan gure Aita-len Santuak urte gutxitan zenbatxe aurreratu zan ta ugaritu bere Ordena, eta gogorazio onek berak ematen zion gogo berria are ta geiago saiatutzeko eta alaitasun aundiaguarekin lan egiteko. Beragatik artu zuan Ordenako bigarren billera bat egiteko asmua, artarako deiturik bere seme urrutietan zeudenak ere.

Oraziua beti bere konbersioko egunetik izandu zan aren biotzarentzat gauzarik estimagarriena. Egun aietan ere billatu zuan onetan adiskide bat, berarekin ordu luziak igarotzeko. Anima Jaungoikuarekin elkaturik daguanian, guzia berotutzen da Jaun maitiarekin itzegiten jartzian. Bana ez beti Jaungoikuak atsegin gozuak bialtzen dizka. Ez beti oraziuari artzen zaio gusto berdina. Ez baita oraziua beti ezti. Arako Jaungoikua gordetzen zaionian anima oraziokoiari, eta deiturik indar guziaz entzuten ezpalu bezela daguanian, Atsegin ezti lenagokuak aztutzen dira, edo, obeto esateko atsegin ura atsekabian biurturik, gelditzen da biotza illuntasun aundian. Orduan galdatzen du bere biotzeko esposo maitiaz; iñork

eztio erantzuten. Estututzen da biotza; au mingarri da; egiten da negar. Era onetan arkitu zan Franziskoren biotza une artan. Au zan tentazio garratza ta garaitzen gaitza. Alatan gabaz aditu zuan itz bat: «Franzisko, mostaza ale bat aña fede bazendu, aginduko zenioke mendi orri alda dedilla beste aldera, ta aldatuko litzake». Erantzun zion Franziskok: «Jauna, ez dakit zer esan nai dezun». «Mendi ori tentazioa da». Orduan esan zuan: «Jauna, zuk esan bezela gerta dedilla». Une artan bertan argitu zan bere espiritua. Desegin ziran illuntasunak, eta biotza Jaungoikuaganako amorioz berriro erazeki zitzaion.

SAN FRANZISKO MAISU ONA

Eman zien bada Aita-lenak adia bere ikasliai urrengo urteko maiatzaren ogei ta seirako urbiltzekua Porziunkulara. Artu zuan denbora ura guzia, zergatik asko praile arkitzen ziran txit aparte eta eskuen artian lan askorekin. Bitarteko denbora igaro zuan Santuak bere semien animako onari begiratzuz, asko espirituko gauza eta utsegitiak nola erremedia erakusten. O! Alako maisu batekin gogo ona izatera, zenbat ote zitekian aurreratul

Seme ikasle bati, esana egiten zerbait nagi agertu zalako, agindu zion kendurik kaputxa soñetik, bota zezala surtara. Bota zuan aguro ta etzuan nai izan suak kaputxa erre. Emen ikusten da kaputxa jantziari josia etzeukala.

Porziunkulatik Alvernako mendira, eta Alver-

natik Porziunkulara, txit igoera ederra egiten zitzaien Aita-lenari. Alvernara zijuana batian, Capresoko erriberaren gañeko aldeko mendi zorrotzian, *monte-acuto*, ari ziran argin batzuek San Pauloren eliza moldatzen. Igaruan ikusi zituan atarburu bat neketan ezin jasorik; urrikaldurik aien ezin eginaz, berak eldu zion arriari ta para zuan bere tokian neke ta izerdi gabe; arri astuna, arri ariñ, ederki jostatu zan Franzisko arekin.

Bidian topatu zuan San Justinoko Abadia. Santua ikustian jeitxi zan zaldi gañetik eta itzegin zioten elkarri. Agur egitian esan zion Abadiak erregutu zezala artaz, ta erantzun ziokan baietz. Ekin zioten bakoitzak zeraman bidiari, eta gelditu zan Santua oraziuan, esanaz lenik: «Itz emana biar det bete.» Franzisko oraziuan jartziarekin bat, sentitu zuan, bidian zijuala, Abadiak ezin eta geiagoko barrungo atsegina; geratu zan eta ariñ zan aundiya Jaungoikuak, Franziskoren oraziuaren bitartez, eman zion biotzeko amoriuaren indarra, nun Jaungoikuagan oso sartuta gelditu zan. Kordaratu zanian, lenaz gañera ezagutu zuan Franziskoren santutasun miragarria; geroztik beti bere Ordenaren adiskide biotzekua izan zan.

Alvernatik Asisa itzuli zan batian, San Franziskoren kartzela deritzaion praile-etxian, zeña arkitzen da Asistik legua bat bide, aren onduan ikusi zuan etxe berri aundi bat. Arturik anai batzuek lagun, igo zan bere gallurrera botatzeko asmuan, eta botako ere zuan, baldin ezpazioten esan erriak egin zuala, aruntza juaten zan jendiak aterpia izan zezan, eta erriana zala etxe ura. «Gauza orrela bada -erantzun zien Santuak-,

ez nere anaiak eta ez nik eztegu orrekin zer eginik. Or konpon dedilla erria bere etxiarekin - esan eta jetxi zan.

SAN FRANZISKO TA UGOLINO KARDINALA PERUSAN

Egunetik egunera alderatzen ari zan billera nagusiko eguna. Gauzak ondo antolatzeko, arturik lagun anai Leon, juan zan Perusara, nun ere arkitzen zan Ordenako anparatzalle Ugolino Kardinal Jauna. Poz aundiarekin artu zuan bere jauregian, eta egun batzuetan astiz itzegin zuten. Gure Aita Santo Domingo ere egun aietan zuzendu zan Perusara. Bi Aita-len adiskideak an izan zuten era naikua itzegiteko luzaro. Egun batian bieri galdetu zien Kardinal Jaunak: nai zuten edo ez beren seme-ikasliak Elizako difidatietara goitutzia. Franziskok bezela Domingok umill erantzun zioten ezetz; bestelaz ere sobra onraturik arkitzen ziralako Elizaz. Kardinal Jauna lenaz gañera sendoturik gelditu zan bere gogatze moduan. Izan ere ainbeste birtute azaltzen zuten Jaungoikuaren serbitzariak, eta aien semiak Jaungoikuaren Elizaren onrari begiratzeko zeloz sutubak arkitzen ziralakoz, uste osuan zeguan, etzirela txarrenak izango leku garaiak betetzeko; aitzitik ezin ta egokienak. Denbora izan oi da maisu erakasle segur bat. Ala adiazi digu ondo ere ondo zenbaterafio probetxugarri izan diran Domingoren ta Franziskoren semiak toki garaietan gizaldi askotan. Nork konta zenbatxe gizon prestu, jakintsu ta birtutetsu eman izan dituzten

Elizan bi Orden-anaiak? Dizdiatu dute, eguzkia-
ren antzera, lur-bola guzia. Ainbeste eginkizun
ta gauza erabilli zuten bi Aita-lenak orduan al-
karren artian Elizaren onrari nola onduena be-
giratuko zioten eze, dio anai Leon Franziskoren
bide-lagunak, bien biotzak aïñ zeuden elkaturik,
nola beste orduz David eta Jonatasenak.

Perusan artu zuan Asisako bidia. Ala esaten
dio Santuak anai Leoni: «Orain laster egin biar
dan billera orretan, esango balirateke gizon eze-
rez bat naizala, ezertxo ere ez dakitala, ez nola
Ordena antola ta ez beste gauzarik; itz gogor ta
indar aundiakin, zatarturik nere izena, botako
banindukie billeraren erditik, esaten dizut, egiaz,
baldin au guzia, onrak eta alabantzak artzen di-
ran arpegi arekin berarekin, ezpanituz artuko, ez
naizala umilla, ez eta ere praile egiazkua». Ongi
ezagutzen da emen zenbaterafio gure Santua bir-
tutian sendoturik zeguan. Zein be jotzen zuan
bere burua! Lotsa da ez txikia guria gure Aitak
bere umiltasunarekin ematen diguna.

ORDENAKO BIGARREN BILLERA NAGUSIA

Maiatzak ekarri zituan Pazko egunak, urtiak
dituan alai ta zoragarrienak. Espiritu Santuaren
etorrerarekin guziak artzen du zero-antz bat. Egun
onek kristau onaren biotza pozez ta atseginaz be-
tetzen du. Jo zuan orduak eta Porziunkula ingu-
rua zero biurtu zan. Ibar-zelaiak Franziskoren
semez estali ziran, bost milla ta geiago praile an
kontatu ziran. Asko, txit asko neke eginak; gu-
ziak biartsuak ta alere guziak pozez betiak. Denen

artian gure Aita-lena, bere biotzeko seme maitiai erotasun santuan ongi etorri bere-bizikuak egiten.

Zume, lasto ta esterakin eginik txaolak tokian bat; inguraturik ikusten ziran prailiak emen eun, an berrogei ta amar, aruntzago eun, beste aldian bestetxo bat. Batzuek errezatzen, bestiak Eliza, nola sendotu sumatzen, garaitzeko etsaiak. Batzuek birtutetsuak izateko biderik lasterrenak billatzen, bestiak berriz gogoz pobrezaren alde ona miraturik erakusten. Baña nola ondo aditzera eman guztien pakezko egoera ura? Bost milla ta geiago gizon, birtutia izmendirik garaienetara baño ere izarretaraño goitutzen! Bost milla praile lurraz azturik, zerura begira! Praile bat ikusita parra egiten dutenak, an nituzkian nik ikusi nai.

Orduan ezagutu zan ondo San Franziskok Jaungoikuaren eskuan jarririk zeukan itxoromena zein aundia zan. Bost milla ta geiago prailei esan zien: «Ez iduki jan-edanaren konturik». Eta eze-re etzeukan! Inguru guzietako erriak jakinaren gañian zeuden, ikusiz beste gabe zenbat jende zan eta zer iduki biar zuten; beragatik etxaldetako Jaun eta mueta guzietako jendiak artu zuten Asisko bidia al zuanak al zuanakin. Begien itxi-idikian jan-edanez ornitu ziran. Orduan berritu zan moduren batian Jesu-Kristo gure Jaunak bost milla gizon, bost garagarrezko ogi ta bi arraitxorekin, mendian egin zuan mirari arrigarria. O, eta nola dakian gure Jaungoikuak bere serbitzari leialen arreta artzen!

Ugolino Kardinala zan izendatu, billeraren buru egiteko. Egun aundi aren goizian bost milla

prailek artu zuten erdian erdiz-erdi, bi aldetan jarririk, Kardinal Jauna, Meza nagusia kantatzen zion zijuakiela. Orpoz-orpo bata bestiaren ondoren jarri ziran ongi etorri zoramengarrian, ta lagundu zioten aldarera egoki. Kardinal Jaunari ikuste utsak txaoa gisako aterpe gaizki antolatua, eragin zion negar baña negar gozua, zeren, barren-go pozak gañez egiten zion bezela, oiuz adiazizuan bere sentimentu jatorra Jakoberen itzakin: «Oetxek bai dirala egiaz Jaungoikuaren kanpamentuak». *Castra Dei sunt haec. (Genes 32).*

Urte artan maiatzaren ogei ta seian zan Espiritu Santuaren etorrera egiaztutzen zana. Au zan milla berreun ta emeretzigarren urtian. Kardinal Jaunak esan zuan meza, egunak agintzen zuan arazo guziarekin, eta azaldu zien Jaungoikuaren itza. San Franziskok kantatu zuan Ebanjelua Meza artan. Eztago pensatu besterik zenbaterañoko poza artuko zuan Santuak, bere nekiak Jaungoikuak ainbeste bedeinkatu zituala ikusita. Beragatik esker onak Jaungoikuari emateko, ain ederki Ordenak indar artu zualakoz, jarri zan oraziuan. Orduan agertu ziozkan zeruak gauza ezkutu asko, baita ere Ordenak denboretan izango zituan gora-bera guztiak. Oraziuan jakin zuan ere, nola an arkitzen ziran asko prailek galdu zuten osasuna geiegizko illarazte ta penitentziakin.

SANTUAREN ITZ-ALDIAK

Juan zan bada bere seme ikaslietara, ta artu zuten bizitzari are gogotiago jarrai zekioten, biotzak alaitu ta animatzeko esan zien: «Gauza aun-

diak egindu ditugu guk; aundiaguak egintzen zaizkigu; guarda ditzagun oriek; desiatu aiek; atseka-biak dira labur; atsegiñak betikuak; nekiak dira ariñ; gloria azkengabia; asko dira deituak; gutxi ordia autuak; bakoitzarena saria. Ala biz. Ez, nere semiak, ez beñere atzera begiratu Jaunaren serbitze santuan. Edozein birtutetan beti biar da ibilli aurreraka, ta ez beñere gelditu; gelditza emen egitia ta atzeratzia gauza bat da. Batez ere izan zaitezte Elizari obeditzeko gaian itxubak. Elizarren dotrina maita zazute biotzez, eta onen defensan, ala biar balitz, zañetako odola ere ixurtzeko zaute beti prest. Erreglaren aginduak betetzeko zintzo ta leialak biar zerate izan, zeren gero espero degun sariak au ta geiago eskatzen du. Arbuiatu mundua; gorde garbi biotza, bai ta ere gorputza. Pobre, biartsu ta umill izatia on ta prestu, maitatu, gizonen ta aingeruen aurrian. Amatu zeon antzekuak, ta karidadezko neurri batekin neurtu denak berdin. Baña guziez gañ esaten dizutet, bota zazutela zuen gorputzaren arre-ta Jaungoikuagan, utzi bere eskuan ta berak mantenduko zaituzte. Mendi ta zelaietako txorien arre-ta daukanak, ez-tu agian izango gizonarena? Gisa onetan indar guztiaz San Franziskok bere semeai itz-alditxuak eginaz unetik-unera, birtutiarri gogoz jarraitu zioten, leiatzen zan espirituko gidari ona bezela, eta zuzendutzen zituan segur zeruko bidian ongi kalkatuz.

Etzitzai on-iritzi, jakin zuanian bere asko seme-ek osasuna galtzeraño zatitzen zutela gorputza. Ona zergatik, bandua jorik, agindu zien bere semiai, gorputza ilduratzeko ta zatitzeko zer bait

erramienta zeukaten guziyak, utzi zitzetela aren eskuan. Gauza arritzekua! Denak umill ta ixil juan zitzaizkan bere eskuan uztera zuenak zuana. An agertu ziran burnizko gerriku zi-zorroztzak; kate zi-izartuak eta beste milla muetako birtutiaren maitatzalliak somatutako ziz-miak. Bost eun ta geiago bildu ziran guzitatik. Kardinal ta arekin lagun juan ziran beste aundizkiak, gelditu ziran aeri begira arriturik. Ikusirik erlijotsu aiek azala ta ezurra besterik ez; zer janik ez; sosik ain gutxi; estera txatar batzuek etziteko ta arri gorria batzuek, bestiak zur gordiña belarri aldiak berotzeko, elkarri esaten zioten ikusmiratzalliak: «Zein egia dan aberatsak nekez sartuko dirala zeruan! Ok onela penitentziako bidian dabilz ertsi ta estu, eta gu gabiltz penitentziarik gabe lasa ta zabal! Alaz guztiz ere nai degu oen eriotza, ta oen bizitzak izutzen gaitu!»

Gogoratze ederrak, egiztatuko balira; baña asko gelditzen dira, santuen bizitzak irakurtzian, aien egite miragarriaz ta birtute aundiyaz arriturik, baita ere inbidiarekin. Baña, zenbat dira aeri jarraitzeko asmua arturik ere saiatutzen diranak aleginaz? Iñor gutxi.

Gure Aita Santo Domingo ere arkitu zan billera artan, eta pitxi eder batek begiak ziozkan argitu. Ikusten zuan bere birtutezko jakinduriarekin pobretasunaren pitxi ederrak nola dizdiztzen zuan an. Gogo aundi bat egin zitzaion, Santuari lenaz gañera estu ta sendo onekin besarkatzeko. Ala egin zuan berak eta ala erakutsi zien bere semiai.

DIABRUEN BATZARRA

Inpernua etzeguan lo. Zenbat santu aundiago, diabruak dio ari gorrotu geiago. Asko anima kentzen ziozkaten atzaparretatik diabruari Franziskok eta bere semiak. Demonio itsusiari onek ematen zion miñ. Ikusi zuan Satanasek nola bere erreinua galtziagatik Franzisko alegiña egiten zebillen. Orduan bertan ikusten zuan bost milla ta geiagoko billera ura. Oeri indarra galtzeko, berak ere infernuko su-leize ikaragarrian egiten du diabruen batzar aundi bat. Erabaki zan batzar illun artan egin biar zitziola gerra biziya Franziskoren Ordenari. Artarako aukeratu zituzten bi arma; Satanasek esan zien bere menpeko demonio taldeai: «Egizute Ordena orretan sartutzeko modua gizon jakintsu ta aberats ergel-aziak. Erraz jakintsuak buiatuko ditugu, ta umiltasunian beñere zimentatuko ez dira. Aberats ergel-aziak berriez, pobretasun latza ezin eramango dute, eta alderdi onetatik aisa eskutako ditugu».

Jakinik au guziya, gure Santuak agindu zien bere seme maitiai irmotasun aundiyarekin iraun zezatela pobre ta umill bizitzen. «Egizute zeon aldetik al dezutena Ordena onetan sartu nai dutenak gazterik sartzeko. Zenbat eta gaztiago sartzuko diran, munduko malezi gutxiago izango dute, eta askozaz errazago jarriko dira gure bizi-modura, eta ok etsaiari gogotiago eusten diote».

UGOLINO KARDINALA, ANAI ELIAS ETA SAN FRANZISKO

Gizona bizi dan arte ezta goragarri. Billera eder onetan egun batez Ugolino Jaunak egin zien itz-aldi bat prailiai. Eta bukaeran goratu zituan itz guztiz onragarriakin. An zeguan Franzisko. Elizako prinzipiak bukatu zuanian bere itz-aldia, juan zitzaion ari Santua eta eskatu zion itzegiteko baimena. Asi zan itzegiten gure Santua, eta sartu zien goikuaz bera Kardinal Jaunak esan ziena. Ark lauda bezela, onek ziran baño txikiago egin zituan, esanaz beste asko itzen artian: «Ez dezute uste izan orañ arte zerbait egin dezutenik. Guk egiten deguna da gauza gutxi, eta egiten degu, egin biar deguna. Alere! Zenbat aldiz Jaungoikuaren graziari erantzuten diogu gaizki? Zenbat utsegin egiten ditugu morrontza santu onetan? Ez, beraz, nere seme maitiak, ez geiegi poztu; erori diteke zutik daguana». Onela itze gin zan Franzisko. Ugolinoren biotza apur bat illundu zan, eta esan zion mintzoki: «Nere anaia, zertako nik esana atzekuaz aurrera sartu diezu? Nik alde ona agertu dietelako, zuk alde erantzia erakutsi diezu; nik beren birtute aundia onratu detalako, zuk utsegite ariñakin nabarmendu ta beratu dituzu». «Nere Jaun eta Aita –erantzun zion Santuak –; berorrek eman dien onrak obeto iraun dezan orrela itze gin naiz. Bildur nintzan berorren klaseko batek orrela emanik alabantza gozuak, aize arruak, umiltasunian oraindik ongi itsatsirik ez dauden biotzak, atera ez zitzan beren lurretik, erro gaztetxuak etenik». O zeruko dotrina! Egia da, irakurle ona, denik eta biotzik bir-

tutetsuenak dituala bere arriskuak. Onrak eta itz leunak kilikatzen dute birtutia, eta uste gabetanik umiltasunian egiten dira erorte mingarriak. San Franziskoren dotrinaren araura, onrak bezela desonrak arpegi berdiñarekin biar dira artu. Jakin ezazu birtutia arrisku aundiaguan daguala onratua eta alabatua danian, ezen ez onragabetua ta arbuia ta zanpatua. Laster ikusi zan zenbaterafio gure Santua Jaungoikuaren espirituak gidatzen zuan. Oraindik etziran igaro ogei ta lau ordu eta anaia Elias, Toscana-ko Probinziala, ta Straquia-ko anaia Juan, Boloniako Probinziala, beste batzuekin, aurkeztu ziran Ugolino Kardinalaren aurrian milla aitzakirekin. Oek esan zioten Kardinal Ordenako anparatzalliarri erreguz, esan zeiola anai Franziskori berak, bere izenian, aiek aotan artu gabetanik: «Bere semien kontselluak aditu biar zituala, zeren aien artian arkitzen ziran asko jakintsu, Ordena ondo gidatzeko aina ziran gizon prestuak. Batez ere izanik beren Aita-lena gizon senzill ta ez txit jakinduri aundikua, zefari gañera bere osasun eroriak etzion astirik ematen, Ordenak jartzen ziozkan egin-bidiak betetzeko. Onezaz gañera, erregla berri bat egin gabe, beti zirala errespetagarri antzinako San Basilio, San Agustin eta San Benitoren erreglak, eta aietako bat antola zitekiala guztien erara, berririk egin gabe; «erregla aiek egin zituztenak baño obiak bagaña bezela».

Aditu zituan aien aitzaki arrazoi-moduak Kardinalak, artu zuan ere denbora aek goguan erabiltzeko. Gero Franziskori agertu zion zer igarotzen zan, eta aitzaki-emalliak, Ordena ongi gi-

datzeko artarakuak baziran bezela, itzegin zitzaien. Aditu bezain aguro altxatu zan Santua Kardinal Jaunaren aldamenetik, eta, arturik eskutik bera, juan zan alatan billeraren erdira. Onerako Jaungoikuak agertu zion anai Elias ta aren lagunak etzeudela an. Orduan bere semien erdian askatu zuan Aita-len santuak bere mingaña eta esan zuan: «Nere anaiak, nere anaiak: Jaungoikuak deitu nau umiltasun ta senziltasunaren bidez gurutzeko erotasunari jarrai deiotan. Bere gloria da au eta nere lotsa. Zuen biotzak pake-tutzeko nai dizutet agertu berak esan ditana: «Franzisko, esan dit, nik nai det izatia zu munduan ero txiki bat; zere itz eta zere egitiakin adiarazteko gurutze batian ill zanaren erotasuna. Ez zuk eta ez zurekin daudenak deiotela begiratu eta jarraitu niri, nik zuri eman dizutan bizi-eran baizik». Ez beraz niri itzegin beste erre-glaz; nik ez diot jarraituko, ez eta ere besteri aginduko Jaungoikuak bere erruki aundian niri eman diran oni baizik. Berak bereixtia asko ez dala, beste anaiak bide onetatik bereixten dituztenak, bildur naiz Jaungoikuaren aserriak arropa ez ditzan, eta, bide onian dabilzala uste izanik, arkitu ez ditezen gero lotsaturik».

Arpegiz-arpegi jarririk gero Kardinalari esan zion: «Nere Jauna, orrako jakintsu berorren Jauntasunak laudatzen dituan oriek, beren iritziko prestutasunarekin, Jaungoikua ta berorri nai lituzkie engaña; bañan berak dira engañatzen, desegin nairik gure Jaungoikuak, ni beraren serbitzari eze-rez-utsaren bitartez, agintzen duana, beren animen onerako. Nik diotana eta egiten detana gai

onetan ez da neria; Ordena gidatzeko berriz ni nere indarretan ez naiz fiyo. Zuzentzen ditunik Ordenako gauzak, eskari luziak aurrez nere Aita zerukuari eginta... Jaungoikuaren gogua munduko jakinduri motzari atzendutzen dienak, arkitzen dira betiko galeraren arriskuan». Au esan eta utzi zituan Franziskok. Orduan Kardinalak esan zion anai Eliasi eta bere lagunai: «Aditu dezute nola Espiritu Santua itzezin dan gizon onen aoz? Obedi zaiozute umillaturik Jaungoikuaren naia nai badezute egin». Beratu ziran eta obeditu zuten orduan beintzat.

Anai Elias au zan gizon bat birtute baño jakinduri geiago zuana. Zekiana zerbait bazekiala, eta au da nork bere burua dan baño jakintsuago egitia. Gero ta gero ere lanak eman ziozkan Ordenari onek, eta naigabia pranko gure Aita-lenari, beti onen itzala errespetatzen zuala bazan ere. Etzezakian gutxiago. Iaiua zala agertu zan gidari bezela ta aditua. Baña munduari arpegi alaiegia jartzen zion; ez bere Aitak bezela arbuoz. Munduko aizia izanik galkorra, munduak aizatu ta buiatu zuan, bere biotzian esateraño: «Nik geiago dakit, nere Aita-lenak baño». Bañan Jaungoikuak autu zuan Ordena berria zimentatzeko Franzisko, eta artarako eman zion bere espiritua. Ez dedilla iñor izan jakintsu, diot nik, bere begian.

ARTZEN DITU SANTUAK BITARTEKO TXIT ONAK BERE SEMIEN ALDE

Asko erlijiosok esan zioten beren Aita-len mai-tiari, nola leku askotan, zein ziranen argi-biderik

etzutelako, gaizki artuak izaten ziran; ainbeste-raño ze, ez Obispok eta ez apaizek utzitzen etzioten predikatzen. Au ikusirik, nai zuten izkiribituko paper bat, nor ziran adiarazteko. Gañera eskatzen zuten, Obispu Jaunaren konturik gabe. Aita Santuaren baimen utsarekin, arkitzen ziran lekuan, predikatzekua. Azken eskari au etzan izan Santuaren gogokua. Ona zergatik esan zien: «Ubiltasunarekin ta Jaungoikuaren amorioz errebesak eramanaz irebazi zitzetela gizonen goguak.»

Laster logratu zuan Kardinal Jaunak Aita Santu Honorio irugarrenagandik eskatutzen zituzten paperak; ta gañera onek berak eman zizten asko izkiribitu batarentzat eta bestiarentzat, zeñekin juan zitezkiean segur munduaren edozein bazterretara, ongi artuak izango ziran esperantza osuarekin.

Bere aldetik eman zizten Aita-lenak ere iru kartatxo. Lenbizikua Apaizen buru ta apaizen-tzat; bigarrena erriko buruentzat; eta irugarrena praile-etxietako buru egiten zutenentzat. Arma oekin, prest jarri ziran elkarri agur egiteko, eta bakoitzak obedientziak agintzen zion tokian lan egiteko, ta anima askoren salbamentua, nor beriaz aztu gabe, aseguratzeko.

BILLERA NAGUSIAN EGIN ZIRAN IRU ERABAKITZE EDER

Iru gauza goguagarri erabaki ziran billera artan. Lenbizikua zan, larunbat guzietan Ordenako Elizetan kanta zedilla meza bat Maria dontzella txit garbiaren sortze oben gabiaren onran. Emen-

dik konturatu bedi irakurlia zeñ zarra dan gure Ordenan San Franziskoren semien jaiera Mariaren sortze jatorrizko pekatuaren kutsu gabiaren alderako. Egiaz San Franzisko zan Mariaren deboto aundia, eta zinez ta benaz Maria maitatzen zuan, eta Jaungoikuak argitu zion adimentua berak maitatzen zuan Amaren doai bereziak agertzeko.

Aita-lenak utzi zigun seniparte au, beti izandu da miragarria gure Ordenan. Elizak erabaki baño len fedeko egia bezela Mariaren sortze garbiya, seireun eta ogei ta amabost urtez aurretik, larunbat oro gure Ordenan kantatzen zan meza bat, eta geroztik beti kantatu da. Gure Aitak erakutsi bezela semiak leiatu dira egi onen defentsan. Guztien artian zitatu biar det arako Mariaren adiskide ta amiratzalle aundi Juan Dunsio Escoto Beneragarria, askok maisiatua eta gutxik ondo aditua. Jakintsuen artian nabar bada ere, azaldu oi da inbidia, jakintasuna umiltasunian zimentatzen ez danian. Ez dira biak etsaiak, baña gutxik elkartzen ditu biak. Escoto ez da ezagutzen, eta askok itzegiten dute arintasun aundia-rekin gizon onezaz. Itz bat ez dakite onen liburuetatik, airian desairez aditua baizik, eta onetan buru ariñen seña ematen dituzte, jakintsu aundi diralako ustietan. Ur garbia nai duanak, iturburura biar du txarrua eramán.

Bigarren legia zan egin zeiotela ofiziuán orazio berezi bat San Pedro ta San Paulo Apostoluai, Eliz Ama Santaren biartasunakgatik. Emen aghi agiri da, len bizitza onetan irakurri danez gañera, zenbaterañ gure Aita-lenaren biotzeko

amoriua Elizarentzat zan aundia ta benazkua. Au ere Aitagandik igaro da semietara.

Lan aundia litzake adiaraztia emen zenbat egin duten San Franziskoren semiak Elizaren defentsan eta fede Santua barriatzen. Batzuek birtutezko jantzi ederraz apaindurik biotza, eginaz orazio sutu-irazekiyak Zeruko Aitari. Bestiak Jaungoikuaren itza adiaraziz. Beste askok beren zañetako odola fede santuagatik ixuriaz oñaze izugarrien erdian. Txit askok ere lumaz izkiribituz arrazoi senduak ereje ta dotrina txarren kontra. Nork konta zazpi gizalditan Ordena miragarri onek Eliz Ama Santari pagatu diozkan zorrak? Beñere palta izan ez ditu etsaiak Elizak; ez ta ere San Franziskoren Ordenan garaitzalliak.

Esteren billeran egin zan irugarren lege bat: praile-etxe ta Elizak egin zitezela txiki ta pobriak. Lege au denboren ta biartasunen araura gorde izan da Ordenan, leku batzuetan bestietan baño zorrotzago. Ezagutzen da gure Santuaren gogua zala pobretasunaren birtute maitagarria bere semiai maitaraztia. Ain da gozua birtute au, ain indartsua denbora berian espiritua noiznai zeruronz libro ta ariñ jasotzeko, egunoro ezagutzen dan bezela. Lurrera lurrak deitzen duan bezela gizon lurtiaren biotzak, orobat lurrarekin konturik ez duenarena zeruak deitzen du. Maita dezagun biotzetik pobre izatia. Iñori onek ez daki mifirik ematen, zeren pobrezta da usai gozoko lore arantza gabia.

EMERETZIGARREN BURUA

BILLERA BUKATZIAN JARTZEN DA BAKOITZA AGINDU ZAION BIDIAN

Bukatu zan billera ederra, eta eldu zan bakoi-tzarentzat guzien buru ta Aita-lenari agur egi-teko ordua. Indar aundia orduzkoz artu zuan Ordenak. Asko gaztek artzen zuten abitua, ta egunetik egunera San Franziskoren semiak ugari-tzen ari ziran; beragatik banatu biar ziran asko aldetara. Kardinal Ordenako anparatzalliaren kon-selluz anai Elias izendaturik bere ordeko, era-baki zuan Franziskok amabi lagun arturik Sor-talderunz juatia, Jesukristoren lege santua pre-dikatzeko asman Sultanari ta bere menpekuai. Izendatu zituan ere munduaren alde askotarako Probintzial ta beste erlijioitsu asko. Aretzioko anai Benito biali zuan Greziara. Onek zimentatu zuan Romaniako Probintzia. Aprikara berriz biali zi-tuan anai Gil eta anai Electo. Gure Cornejok dionez, anai Electo izandu da Ordenako martiri-lena. Ixuri zuan bere odola Jesu-Kristoren fe-diagatik Aprikan, Tunezko errian. Anai Juan Parente, gizon santua, beste eun lagunekin biali zuan Españara. Ark asko lekutara zabaldu zi-tuan Españan bere lagunak. Zaragozan bere-bi-ziko itz-aldi ederrarekin guztien biotzak irebazi

zituan, eta eman zioten etxe bat, nun ere jarri zan beste batzuekin. Jendiak lenago baño obeto artzen zituan, zeramazkitelako Aita Santu Honorio irugarren, asko Kardinalen eta Aita-lenaren paperak. Inglatiarrara bialdu zuan anai Anjelo Pisakua Probintzial bezela, beste lagunekin. Etzuan orduan Alemanira iñor biali; ura utzi zuan gerorako, ariketa izan arte ango izkuntza zekitenak. Onela beraz San Franziskoren semiak artu zuten beren kontura mundua konbertitzia. Aita-lenaren bendiziuarekin indarturik, ekin zioten lanari bakoitzak bere saillian, guziak espiritu batekin eta Jaungoikuaren gloriarik aundiena begien aurrian zutela.

SAN FRANZISKO ETA MOJAK

Beste eginkizun bat sortu zitzaion Santuari beste biarra, Ejito ta Siriarunzko bidiari ekin baño len. San Damiango etxe santu, Klara bere alabakin zeguana, noren kontura utzitzen zuan galdetu zion Kardinalak; eta gañera beste asko etxe santu dontzellenak San Damianguaren araura egiñak. Asko ugaldu ziran oen etxiak, eta ez Italian bakarrik, Burgosen ere (Españan) zimentatu zuten etxe bat. Orrengatik ziran arreta aundiaren diño. «Nere Jaun eta Aita –erantzun zion Kardinalari Franziskok – : nik ez det beste emakumien etxerik jarri Klararena baizik; beragatik bestien konturik ez det; onena bakarrik. Ezta nere gogoko gauza ikustia, ikusten dituztan bezela, dontzella gaztientzat etxiak ugaritzeko nere semiak daukaten zelo geiegi ori. Ezta ere nere naia

oeri ematia, nik nere semiai, eta badakit zergatik, eman nien *txikienen* izena. Biotzez diot esaten, al duan guziaz berezi ditzala nere semiak orien zuzen-bidien kontuetatik, gorde dezaten obeto beti bere izen ona, eta libriago artu duten bizierari jarrai deioten. Nai nuke orain oeri ematia andre pobrien izena edo pobre erretiratuena, beste egokiago bat somatu arte.»

San Franziskoren semiak zuzen zebiltzen biargai aietan. Beren oñetara juaten ziran gaztiak munduari agur egin naiaz, nai zituzten nun-ere-bait alogeratu. Ona zergatik, zelo santuz beterik eta karidade egiazkuarekin, somatu zuten bitarteko on ura. Santuak berriz, Ordenari begiraturik, ikusten zituan traba aundiak zitezkiela etorri artatik. Etzuan beraz bere semerik lan-bide aietan sarturik ikusi nai. *Dicebat enim: «Timeo ne dum Deus nobis, abstulit uxores, diabolus nobis procuraverit sorores.»* Itz gutxian asko dio Santuaren esan onek. Arrazoi modu oriek aditurik, Kardinalak artu zuan, Aita Santuarekin batera, bere gañ gauza au antolatzia. Bakarrik esan zion Santuari ar-zezala Klara eta bere alaben kontua. Ala artu zuan ere. Bertatik izkiribitu zion Klarari papertxo bat nun ere esaten zion: «Bere buruaren eta bere anaien kontua bezela berdin aren ta aren alabena artzen zuala.»

Gelditurik beraz onela San Franziskoren kontura San Damiango moja-etxia, beste gañerako guztien kontua Kardinal aitatuak utzi zuan Ambrosio zeritzan Cister-ren Ordenako erlijioso baten eskuan. Ambrosio Jauna ill zanian, kargu au berau eman zion anai Felipe Luciani. Zerbait ere

aurreraxiago sartua izan bear zuan anai Felipek egin-bide onetan, au da, iñolaz ere agertu zuan gogua kargu onetarako, eta Santuari esan gabe bi-tartekoren bat artu zuan logratzeko nai zuana. Asmo zuzena izan bazuan ere anai Felipek gai onetan, etzan Santuak nai zuana; beragatik esan zion: «Gaizki egin dezu. Orain arteraño zauriya mamian zeguan eta erraza sendatzen, baño orain ezurrian dago eta ezin diteke senda.»

SAN FRANZISKO ETA ANAIA ESTEBAN

Etzan Santua ain biguñia azaldu anai Estebanekin. Negu gogorreko egun batez anai au zijuan Santuarekin bide-lagun. Esan zion Aita-lenari zerbait imurtxi gauza batek kontzientziari egiten zio-la, eta azaldu zion era onetan zer zuan: «Nere Aita! Anai Filiperi baimena eskatuta, itzegin naiz nere aide moja batekin, egon biarra neukalako berarekin. Eta orain barrenak alakoxe imurtxi bat egiten dit; ona zergatik aitortzen diotan.» «O Esteban! – esan zion Santuak –. O Esteban! Txit gaizki egin dezu. Desobeditu dezu, eta orrelako pekatuari kastigu gogorra dagokio. – Ibaia-
ren ertzian zijuazen –. Sartu zaite beriala ibai onetan; agian piztu zitekian griña txatarren baten su txarra eta itzali or.» Anai Esteban sartu zan, jantzi ta guzi, ibai izoztuan eta Santuak gogor esaten zion: «Garbi, Esteban, garbi ondo, ariketa orbanik txikienak kendu arte.» Utzirik ibaian ala kupida gabe bezela, Santuak ekin zion zeraman bidiari berriro.

Irten zan anai Esteban ibaitik; urrutitik bada

ere jarraitu zion Santuari, zeguan bezela, metxa legorrik gabe, bustia oso eta otzak ikaraz. Legua erdi bat bide egin zuten ala, elkarri itzik egin gabe, Santua aurretik ta Esteban atzetik. Iduritu zitzaionian Santuari asko zala, arindu zion penitentzia. Urrikalmen aundiarekin, lenengo arkitu zuten etxian, su aundi bat eginazo zuan, eta bonbonadan erdian itz gozuekin lagundu zion berotutzen eta arropak legortzen.

San Benitoren Ordenako erregla gorde zuten anai Felipe Luziaren kontura zeuden mojak, ariketa, milla berreun ta ogei ta laugarren urtian, erregla berezi bat Franziskok eman zien arte. Au da Santa Klararen edo San Franziskoren bigarren Ordenako erregla. Urte askuan San Franziskoren semiak izandu ziran Santa Klararen alaben gidari karidade garbiz.

SAN FRANZISKOREN SEMIAK APRIKAN

Sortalderunz abiatu aurrian Jaungoikuaren gozoz biali zituan bere semiak Aprikara. Beti prest Jaunaren naia egiteko, ezagutu bezain aguro deitu zituan beregana sei seme banan banakuak. Anaia Vital, gizon jakintsu eta prestua, ark izan biar zuan beste bosten buru ta gidari; Corbiako Berardo, arabien izkuntza ederki zekiana; San Geminianoko Pedro eta Oton, biek mezakuak, aurreneko biak bezela; Ayuto eta Acursio anai leguak. Aita-lenak itzegin zien onela: «Nere seme maitiak: Jaungoikuak agertu dit bere naia, eta zuek aukeratu zaituzte Sarrazenuai Ebanjeliua azaldutzeko Mahomaren legiaren kontra. Presta

zaitezte beraz Jaungoikuaren gogua egiteko... Ar zazute Jesus zuen ispillutzat, eta Bera iduri zazute egin bide guzietan... Pobre jaio, pobre bizi eta pobre izaten erakutsi zuan, eta pobre azkenik ill zan... Izan beraz Jesusen antzekuak... Bere biotzian jarri zazute zuena... Ar zazute zeokin Ordenako erregla eta errezo-liburua... Obediozute anaia Vitali... Eta zuen biotzak alaitzeko, edozeñ nekeren erdian, oroi zaitezte maiz Jesusen Pasio ta gurutzeko eriotzaz.» Guztiak erantzun zioten: «Aita, agindu guri nai duana; prest gaudede edozein tokitara juateko.» «Zuek bialtzen zaituanak berak artuko du zuen arreta; Jaungoikuaren eskuan zaute eta beraren anparuan; berak deitzen zaituenez geroz bere mastiko lanera, nere biotzetik igarotzen zerate bere biotzera.»

Onelako itz gozuak adituta, belaunikatu ziran Jaungoikuaren zeloz suturik; gozozko negarraz begiak bustita, eskuan muñ egin zioten beren Aita-lenari, eta azkenik eskatu zioten bere bendiziua. Orduan altxatu zituan San Franziskok begiak eta biotza zeruetaraño, eta eskua jaso zuan bere semiak bedeinkatzeko esanaz: «Aita Jaungoikuaren bendiziua datorrela zuen gañ, Apostoluen gañera etorri zan bezela; Berak indartu ditzala zuen animak; Berak zuzendu ditzala zuen pausoak; Berak poztu ditzala zuen biotzak atsekabien artian. Ez ikaratu beraz, iñork garaituko ez duan gudari Jesus dago zuekin. Zuazte, zuazte; zuek bialtzen zaituzten Jaungoikuaren izenian.» Apostolu berri ta martiri oen kontaira leku egokiaguan jarri da.

SAN FRANZISKO ETA GALAI BAT

Aitatu det beñ baño geiago aldiz kontaira onetan gure Aita-lenak zenbaterano desiatzen zuan Jesus maitiaren amorioz bere odola isurtzia. Milla berreun ta amabigarrenian lenbiziko aldiz utzi zuan Italia eguzki alderunz juateko asmo onekin. Bigarren aldiz Españara jua zanian, agertu zuan asmo au berau Donostiako baia jo zuanian ontzi billa Aprikarako, andik bi urtera. Irugarren aldian bada, orain amabi lagun arturik, beti asmo batekin, joko ditu eguzki aldeko bazterrak. Lagun artuen tartian kontatzen dira: Cataneoko Pedro; Asisko Leonardo; Sabatino, eta Rietiko Iluminato.

Bidian jarrita laster etorri zitzaion Santuari etxe oneko galai gazte bat jantzi santuaren eske. «Zuaz –esan zion Santuak –; Jesu-Kristoren pobrien bizitza nai badezu eraman, daukazun guztia emaezu pobriei.» Juan zan heriala gaztia etxera, eta non pobriei emango zituanak, eman zitzen bere aidiei. Aurkeztu zitzaion gero Santuari esatera nola ondasun guziak eman zituan. Etzitzaion gusta Santuari egite ura ta esan zion: «Zuaz, zuaz, anai euliya. (Itz onekin izendatzen zituan ezertarako etziranak.) Zure biotza aidiekin sendotxo josia dago. Engañatu dituzu pobriak; beragatik ez dezu merezi Jesu-Kristoren pobrien laguntzan kontatzia.» Aldegin zuan eta berriro beñ utzitako ondasunen jabe egin zan.

Aditzera ematen digu emen San Buenabenturak, nola San Franziskok etzuan bere Ordenan ifior artutzen, munduko gauzentzat zerbait amo-

rio zuanik. Egiaz da tentazio izugarria San Franziskoren seme egiazkuentzat; ta diabruak, engañatu nai dituan askori, jartzen diena, oso-oso ez agur egitia ondasunai, eta gerokuari geiegi begiratza, aitzakiak asmaturik, ezagutu ta aitortutzen dutelarik egi au: aireko txorien kontu daukan Aita zerukuak, izango duala Franziskoren semiena. Ez egitia alere betiko agur oso bat urre-zillarrai! Zenbat erori ote dira lazo onetan! Bere almen guziarekin gorde ditzala Jaungoikuak Franziskoren semien biotzak, amildu ez ditezen arrisku betiko galerako onetan.

OGEIGARREN BURUA

AITA-LENA ETA BERE IKASLIAK SORTALDERUNZKO BIDIAN

Gure Aita-len santuak izendatu zuan bere ordeko anai Elias; ta jarri ziran bidian. Anconabide onetan, nola askok eskatu baizioten jantzi santua, talde aundia bildu ziran itsasora orduko. Anconan bertan erriko agintari ta aundizkiak egin zien guzizko ongi etorri ona. Eskaiñi zioten gañera etxe baten lekua, eta beren dirutik egin zuten etxe berri ederra, zeña, ederregia zala gero Santuak esan zienian, moldatu zuten onek nai bezela.

Ontziyan sartu baño len, aitarik onenak bezela, egin zien bere semiai itz-aldi bat onela. «Nere seme maitiak: badakit zuetako bakoitzak pozik lagunduko lirakiala, baño ez deritzat arrazoi dala, ontzi-gidariari onenbesterentzat lekua eskatzia. Ez det ere nik iñor aukeratu nai zuetatik, zeren guziak zeraten nere gogokuak. Zeñek nerekin jua biar duan, Jaungoikuak berak aditzera emango digu.» Au esan ta deitu zion mutil txikitxo bati. «Aur inozentien bitartez askotan Jaunak agertu izandu du bere naia; beraz aur onek izendatzen dituanak, oriexek juango dira.» Lenbizi galdatu zion aurrari: «Aurra: Jaungoi-

kuaren gogua al da emen arkitzen diran erlijioso guztiak nerekin etortzia?» «Ez, Jauna»; erantzun zion aurrak. «Zeñek biar dute bada nerekin etorri?» Orduan juan zan aurre bataren ta bestiaren aurrera, eta, bere eskutxuarekin adiaraziaz, esaten juan zai: «Onek juan biar du; onek ere bai; beste onek ere juan biar du; baita ere beste onek.» Eta señatu zituan amaika. Au onela ikusirik, itsasuan sartu ziranak eta legorrian gelditu ziranak, denak pozik gelditu ziran. Beraz sartu ziran ontziyan San Franzisko bere amaika semerekin, beste gañerakuak bedeinkatu onduan. Mesede txit aundia nola egin baizion ontzi-gidariak, ongille guziekin oi zuan bezela, eman ziozkan esker onak ari.

Aingura altxata denbora gutxian eldu ziran Chipre ugartera. An igaro zituzten bi egun. An egon ziran denboran anaia Sabatinok itz bat gogortxiagua esan zion beste bere anai bati. Arkitzen ziran jaun aietako batek aditu zuan itz ura eta etzitzaion oso gusta. Ezagutu zuan anai Sabatinok bere utsegitia, eta, guzien aurrian egin zuan penitentzi gogorrarekin, lenaz gañera, bere anaiaren biotza irebazi zuan, eta baita ere jaun arena.

Chipre ugartetik, itsasua bide, jo zuten Aconedo Tolemaida, orain San Juan de Acre deitzen dan Siriako baiona. Inguru aietan zerbait Jaungoikuaren itza adiazi onduan askoren onian, bialdu zituan bere ikasliak biñaka inguru aietara, eta bera, arturik lagun anai Iluminato, berriz sartu zan itxasuan Damietara juateko. Damietan arkitzen ziran orduan gurutzetien gizataldiak.

SAN FRANZISKO DAMIETAN

Oar bedi irakurlia berreun urte aietan guda bizian zeudela kristauak Mahometarrekin. Milla berreun ta amabostgarrenian, Letrango billera ospatuan, Aita Santu Inozenzio irugarrenak mundu guziko kristauai aditzera eman zien, Obispuen bitartez, nolako estadu negargarrian ziran arkitzen Jerusalem inguruetako kristauak, eta zenbateraño Eliza persegitua. Beragatik gurutzedi bat len-bai-len biar zala antola. Aita Santuaren itza izan zan ondo aditua, eta nola ipar-aldeko jendiak iñorekin gudarik etzuten egutera-aldekuak bezela, aiek batez ere prestatu ziran guda artarako. Aita Santua bera, Erroman guda Santua predikatu onduan, igaro zan Toscanara, beste aინbeste egitera. Andik laster il zan, milla berreun ta amaseian. Honorio irugarrena ondoren eseri zan San Pedroren aulkian. Au ere saiatu zan, Europa guztiko prinzipe ta aundizkiai mandatarriak bialdurik, Mahometarrai gogor egiteko jendia biltzen. Denbora gutxian bildu zan gurutzedi bat, iñoiz ere ikusi ez bezelakua. Garagar-illaren aurreneko egunetarako, milla berreun ta amazpian, denak zeuden prest itsasoz ta leorrez Jerusalem alderako. Jerusalemgo Erregetza egiten zuan orduan Brienako Juan kristau on ta Elizaren aldeko garaitzalle ospatuak. Gogoratu zitzaien gurutzetiai, lenago Jerusalem ingurura bezela, orainguan guda eramatia Ejitora bertara, obeto aterako ziralako ustian.

Neke aundi gabe itsasuak bere gañian eraman zituan Domietara, Ejitoko erririk indartsuenaren ingurura. Al zuten lasterrena gogortu ziran be-

ren leku artuetan, eta asi ziran gudariak gudan. Emezortzi illabetian iraun zuten biar-gai artan, bein batzuek bein bestiak garaitzalle irtenik. Uztarillaren ogei ta amaikan, milla berreun ta emeretziari, bildurik Sarrazenuak ugari, indar-berritu ziran, eta eraso zien gurutzetiai goizetik gogor. Egun guzian iraun zuan gudak. orañtxen gurutzetien alde, orañtxen Sarrazenuen; azkenik irebazi zuten gurutzetia. Baña garaimen arekin geiegi arrotu ziran, eta beren buruak galdu zituzten. Zaldizkuak esaten zien oñezkuai, aiek baño obeto borrukatu zirala etsaiarekin; eta oñezkuak aitzitik beste ainbeste zaldizkuai, eta ona nun aserretu ziran elkarrekin. Azkenik biartu zuten guzien buru egiten zuan Brienako Juan Jerusalemgo Errege, eraman arazteko etsaiaren aurrera, an ikusiko zirala zein geiago ziran eta nor ondoena peliatzen zan. Alatan zeuden, San Franzisko anai Iluminatorekin aietara juan zanian.

Biotz penatuarekin esan zion Santuak anai Iluminatori: «Ezagutzera eman dit Jaunak, baldin eta etsaiarekin eskuetarutzen badire, guda galduko dutela kristauak. Au esaten badiet nik, errotzat joko naute; eta esaten ezpadiet, nere barruna gelditzen da pisu. Zer deritzotzu? Erantzun zion lagunak: «Aita, ezta izango lenbiziko aldia gizonak zu errotzat jotzia; beragatik esan biar diezu.» Juan zan bada Santua kristauetara, eta esan zien etzitezela gudan sartu, zergatik bazekiala ondo galduko zuela, eta gaizki irtengo zirala. Santuaren esanari belarriak itxi zitzen, eta erobaten esanari aiña kaso egin zioten. Bi gudari-taldia eman ziotela bada arpegi elkarri abustua-

ren ogei ta bederatzian; bero aundia zan; etsaia maleziz atzeratu zan, baita guriak gaitz pentsa gabe aurreratu ondotxo. Eta ona nun eldu ziranian etsaiak eramatia nai zuan tokira, urik etzan zelai aundi batera, berri-berri arpegi eman zien etsaiak, eta eraso zien gogor kristauai. Bero zan ta urik etzan; lanak ziran an. Ondo aztu ziran aurreko eguneko arrokeriak. Artu zituzten gure zaldundiak Sarrazenuak saietsetik ta ebaki zuten dena. Ura ikustian, oñezkuak asi ziran igesi; galduko ziran, guziak ezpada geienak, baldin erregek berak gidaturik egoki gudari taldiak, atzeratu ezpazituan beti peliatuz. Alere galdu zituzten kristauak sei milla gizon.

Onela egiztatu zan San Franziskoren esana. Askotan gizon baten esana ez aditziak nolako okerrak ekarri oi dituan; santuaren esanaz baliatu eziziran eta gero negar egin biar izan zuten. Zein ederki emen San Buenabenturak esaten digun: askotan geiago balio duala gizon santu baten esana aditziak, zazpi guarda atian jartziak baño.

SAN FRANZISKO ETA MELEDIN SULTANA

Etsaia gañ jartzia, beti da miñgarri. Au ala ikusi zan gurutzetietan orduan. Naiz miñ eman biotzak, San Franziskoren biotza etzeguan atzeratzeko orduan. Txispaz ezin zana, itzez nai zuar menderatu. Bi etsaiak arpegi emanak bazeuden ere, etzuten aren oña gelditu. Etzuan Santuaren biotzak arriskurik ezagutzen. Berari dio biotzak aurrera dedilla. Gurutziaaren amoriuak onara eka-

rrri nau, gurutzia datorkit bidera, nuan berari agur egitera. Gogorazio eder onekin artzen du lagun anai Iluminato; utzirik kristauen gudari-tal-diak, abiatzen dira Sarrazenuen alderuntz esku utsik, Jaungoikuagan fiaturik.

Bidian arkitu zituzten bildots batzuek: «Alai ta aurrera, nere anaia, – dio Santuak –; bildotsak eraman oi diran antzera eriotzara, guaz gu ere. Laster gera zeruko bidian, ematen degula gure odola Jesus gozuaren izenian.» Laster topo ta bide jo zuten zaldizko etsaiakin. Ebaki zituen oek azotez ta makilaz; baño pazientzia miragarriarekin esan zien Santuak: «Eraman gaitzatzute sultanaren aurrera.» Au aditzian eraman zituzten, denborarik galdu gabe, beren nagusiaren jauregira.

Bi gizon penitentziak deseginak ta itxuraz aurdikarriak deitu zuten sultan biotz gogorrekuaren begiramena. Franziskoren mingañian jarri zituan Espiritu Santuak itz ederrak: «Gu kristauak gera – esan zion Franziskok sultanari –; eta Jaungoikuak gidatu gaitu onara, zuri eta zure mendian daudenai Ebanjelioko egiak adiaraztera.» Itz oekin uste zuan Santuak zerbait sultanaren aserria bereganduko zuala eta andik izango zuala ditxa, berak ainbesteraño desiatzen zuana, arako Jesu-Kristoren amorioz bere odola emate ura. Baña engañatu zan. Bi gizontxo aien baloriaz sultana bera arrituta gelditu zan; eta esan zien: «Baña nola oneraño bizirik etorri zerate, kristauak izanirik? Nola nere tropak igaro dituzute bizirik? Nik zaku bat urre eskaiñita idukirik nere soldaduai, lenbiziko arrapatzen duten kristauaren buruaga-

tiki!» Arriturik zeguan Meledin sultana, eta arri-
tasun arzaz baliatu zan Santua, bere indar gu-
ziaz berari adiarazteko Jesusen lege Santua ta fe-
deko egiak.

Ain ziran egokiak Franziskoren itzak, ain be-
nazkuak, indartsuak eta guziez gañ ain zan aun-
dia Franziskoren itzaren eztitasuna, izanik gai
ura sultanarentzat somiña ta arrotza; irebazi zu-
an sultanaren biotza. Ordutik Santuak galdu zuan
ainbeste desiatzen zuan martiriuaren esperantza.
Bazekian aditua zan arte etzutela gaizki artuko.
Bere aunditasun guzian sultanak iduki nai izan
zuan Santu umill biartsua bere aldamenian. Esan
zion orduan Franziskok: «Nai badezu sinistatu
nere dotrina eta Jesukristoren legera itzuli, geldi-
tuko naiz zurekin; ez bestela. Oraindik geiago;
dudatzen badezu nere dotrinaz, irazeki zazu su
aundi bat, eta zure apaizak eta ni sartuko gera
suaren erdiyan, eta suak erretzen ez duenaren
dotrina, izan dedilla egiazkua.» «Eztet uste nere
apaizen artian izango danik grano bat, su orre-
tan sartu naiko duanik» erantzun zion sultanak.
Au esan zuan, zeren an arkitzen ziran Mahoma-
ren apaiz zarrenetako bat ikusi zuan irten zala
kanpora au aditzian. Berriz dio Franziskok: «Au
nai ezpadu egin, ona beste modu bat nere do-
trina egiazkua dala adiaziko duana: Piztu dedi-
lla sua eta ni bakarrik sartuko naiz; baldin eta
andik irtetzen banaiz, zu eta zuriak nere federa
konbertituko zerate; ni erretzen banaiz, bota
nere pekatuari errua, baña, diot, irtetzen banaiz
erre gabe surtatik, ezagutuko dezute Jesukristo

dala Jaungoiko guzi-alduanaren seme egiazkua, eta bakarrik onen izenian salba ginezkiala.»

Arrazoi oek guziak etziran aski izan Meledin sultanaren biotza mugitzeko Jesukristoren legia besarkatzera. Ainbeste egin-alekin etzuan Santuak iritsi aren konbersiua, naiz bai bere onginaia. Ikusten zuan, pena biotzian, lur gaiztuan azia ereitia zala jende aeri Jaungoikuaren itza adiaraztia. Beste aldez berriz bere desiuak ere etziran betetzen, eta ain esperantz gutxi zedukan ordukoz martiri izango zalakuaren, zeren, ikusten zuanaz, etsaiak berak onratzen zuten, ze erabaki zuan agur egitia lur txarrari eta Italiarunz bidegitia. Ez ordia lenik Jerusalem albiste bat egin gabe.

SAN FRANZISKOREN EGITIAK EJITON

Azken agurra egitian, Meledinek eskaiñi ziozkan diru asko, agertu nairik bere onginaia. Baña etzan Franzisko Ejitora urre billa juan, baizik animen billa: ona zergatik begi txarra urriari jarri zion. Esan zion sultanak, beretzat nai ez pazuan ere, ar zezala bederik kristau biartsuen artian zabaltzeko. Asko leiatu zitzaion, baña izan zan alperrik. Mirestu zan Meledin munduko aberastasunai Jaungoikuagatik Franziskok egiten zien despreziuaz, eta guzia arriturik esan zion: «Egizu nizaz orazio, Jaungoikuak argiturik niri adimentua, ezagutu dezaten erlijio egiazkua.» Au esanta esleitu ziran bata bestiagandik. Egin zuan bide segurutik eramateko modua sultanak, Da-

mietako gudu zelaira, nun ere arkitzen ziran kristau gudariak.

Uste da Meledin sultana San Franziskoren oraziuaren bitartez konbertitu zala bere azkeneko egunetan, milla berreun ta ogei ta emeretzigarrenian. San Franzisko, ordukoz aspalditxo illa, agertu zitzauela bere bi erlijiosori, eta aiek batiaitu zutela. Sinistatu diteke guzia. Lenago biotz gogorrekua izan bazan ere, Santu baten oraziuak izanik Jaungoikuaren aurrian txit usai gozua, gure Santuarenak izango zuan bezela, ezta gerta ez ditekiana aditzia iñoiz gisa onetako oraziua ta Jaungoikuaren graziak bigundu dutela biotz gogor bat. Lenago arrizkua zana ta sentikaitza, orain aragizko biurtzia eta sentikor.

Alde guztietara gure Aita-lenaren bizitza da miragarria. Jaungoikuaren espirituak gauza guztietan gidatzen zuan, eta Jaungoikuagan gauza guztiak dira miragarriak. Ala kantatu oi zuan errege Igarliak: «Miragarria da Jaungoikua bere santuetan.

Beñ baño geiagotan esan det, nola gure Santuaren biotza sutzen zan anima pekatariak, Jesukristok bere odolaz erosiak, eta beste asko, Jaungoiko-gizonaren ezagutzarik etzutenak ikusten zituanean. Aiek konbertitziagatik pozik emango zituanean milla bizitza ere, eta onek mugiturik juan zan Ejitora. Baña gure Jaungoikuak beste martirio modu bat zeukan bere serbitzari Franziskorentzat. Etzuan Franziskok ill biar ezpataz eta odol-usturik. Jesus iduritu nai zuan bizitzan, eta onen paguan Jesusek aututzeñ du bere idu-

ri bizi bat izan dedin ill baño lenago. Bere zau-
ri sagraduak dauzka Jesusek Franziskori emate-
ko: au izango da martirio bat artian ez ezagu-
tua munduan. Amoriuaren indarrak zauriztatuko
du Franzisko!

Santu onek Ejiton egondu zan denboran, beste
arkitzen zan lekuetan bezela, egin zituan mira-
riak. Dio San Buenabenturak nola sarrazeno bat,
ikusirik San Franziskoren semiak arriari aina ka-
so etziotela egiten diruari, berak eman nai izan
zien batian, ta jakinik gero Jaungoikuaren amo-
riuagatik ala urre-zillarrak oñperatzen zituztela,
eta gogoz egin zirala pobre, guzia arriturik agindu
zien bere laguntza bizi zan arteko, edozein biar-
tasunetan arkitu. O zein eder ta aundi agertzen
dan Ebanjelioko pobre izate gogozkua! Zenbatera-
ño biar gendukian maitatu pitxi miragarri au, dio
gure Santu Dotore Serafikuak. Egiaz lotsatu biar
ginakiala, guk kristauak, Jesus, Maria eta Josek
laztandu zuten pobre izate au, artutzen ez degu-
lako aintzakotzat, eta ez diogulako oni merezi
duan begiramentua. Sarrazeno fede gabiak mi-
restu dira, eta kristau fededunak ez dirade one-
zaz miresten!

Ejiton emakume guztiz eder, baño gaizto ba-
tek pekatura biartu nai izandu zuan Franzisko.
Zeruko argiarekin ezagutu zuan, diabrua zebille-
la an, bere arte gaiztuakin. Santuaren biotza etze-
guan alako gauzetarako, baño, konsentituko ba-
zukian bezela, aukeratu zuan toki bat «sua oe-
tzat»; kendurik bere gañeko tunika, etzan zan
suaren gañian. Andre eder gaiztua aguro atzera-
tu zan. Ikusi zuanian Franzisko suak erretzen

etzuala, arrituta konbertitu zan; eta geroztikakuan kristau garbi ta ona izandu zan.

Baita ere lan asko egina zan kristau gurutzetien artian. Konbertitu zituan bizitza ohera aietatik ez gutxi. Onela beraz fededunak eta fedegabiak Ejiton maitatzen zuten gure Santua. Etzuan ustez orduan Santuaren itzak frutu ugaririk eman. Orregatik, Aita Santu Gregorio IX-garren eta Inozenzio IV-garrenaren denboretan, oek San Franziskoren semiak Ejitora bialdu zituztenian, ezagutu zan, gure Santuak etzuala oso lur txarrian azia erein, ta iñork uste baño geiago jende fede egiazkora aldatu zan.

SAN FRANZISKO JERUSALENEN

Guazen orain Santuaren ondoren, Jesukristo gure Jaunak bere oñ arrastuekin santutu zuan lurrera. Jafa edo Joppe deritzon errira jo zuten itsasoz lenbizi. Andik alderatu ziran Jerusalem. Nork emen gure Santuaren biotzeko sentimenduak adierazo? Oroitu zan Jesus maitiak an igaro zituan misterio guziezaz. Aozpezturik, begian negarra ugari zuala, muñ egiten zion lur santuari. Biotzak laguntzen zionian, bere lagun anai Illuminatorekin batera, eta askotan aldizka, kantatzen zuten «te Deum laudamus», ainbeste mesedegatik esker onak ematen Jaunari.

Jerusalengo errian egin zien albistia tenplo santu guztiei ta Jesusen oroitzapenako toki denai. Kalbarioko mendian, Jesus gurutzian josi zuten artan, besuak gurutzian eta aozpez biotza lurra-

rekin josi-itsatsirik, egondu zan negarrez. O Franzisko amoriozko Santua! Esan zadazu: zure biotzian, zer igarotzen zan une artan? Zer sentimendu zeguan orduan? Duda gabe desiatuko zenuan, an Jesus ill zan lekuan zure amorioz, zu ere bere amorioz iltzia!

Golgotatik Josafateko zelaira, eta andik, Olive-tako mendia ziar, juan zan Belena. Belenen, autore batek dionez, agertu zitzaion Jesus aurra bere amarekin, jaio zan tresabian edo toki artan bertan, nun ere artzaiak zuten adoratu. Mariari eskatu zion Franziskok Jesus aurra, eta iduki zuan bere besuetan. Onela Jaungoikuak Franziskori Kalbarioko mendian negarrez busti zituan begiak legortu zizkan, ta gozatu biotzeko pena somiñak.

Beñ baño geyagotan mesede au egin izan zion zeruak gure Aita-lenari, zeñaren biotza zan beti gurutze-zale; ala izanik ere, Jesus aurrarenganako onginaia guzizkua etziokan batere gogotik kentzen, zergatikan Santuaren biotzian ederki eta egoki alkartutzen ziran aurraren jaiotza pobria gurutzeko eriotza pobriarekin. Andik eun ta zenbait urtera, Jaungoikuak eman zien lur santu ura guziya San Franziskoren semiai seni-parte bezela: geroztik beti gaurdaño, ez neke ta eginkizun gutxirekin guardatzen dituzte leku santu aiek fedegabien erdian. Gure Jaungoikuak mugi ditzala kristau fededunen biotzak, al duanak al duanarekin San Franziskoren semiai lagundu deioten lan negargarri ta arriskatu artan!

SAN FRANZISKO MENDI-BELTZEN

Siriako buru zan Antiokiako errirunz juan zan andik. Erri inguruan arkitzen zan mendi bat, Mendi-beltza esaten ziotena. Mendi artan arkitzen zan San Benitoren semien etxe santu bat. Irakurlia oroituko da San Benitoren semiak zenbaterano zituan adiskide Santuak, asko lekutan laguntzalle oberenetakuak izandu zitualakoz bere Ordenak. Ezin egon zitekian geroztik San Franzisko San Benitoren semiak albistatu gabe. Egun gutxiz aurretik ill zan etxe santu artako Abadia, zefiak eriotzan esan zien nola andik laster elduko zan mendi artara Franzisko Jaungoikuaren serbitzari santu aundiya, itxuraz pobre ta despreziagarri. Beragatik jakitian alderatu zala, irten zeiotela erlijiosu denak bidera, eta ar zezatela onra aundian zeruko aingeru bat bezela. Etziran egun asko igaro gauza egiztatzera.

Irten zitzaizkion San Franziskori bi errenkeran bidera denak, eta poz aundiarekin egin zioten ongi-etorria. Denbora puska batian an egondū zan, ta ainbesteraño Franziskoren santutasunak irebazi zituan San Benitoren semien biotzak eze, denak eskatu zioten Franziskori izendatzia bere Ordena berrian. Ala egin zan, eta ez bakarrik etxe-santu artako San Benitoren semiak aldatu ziran San Franziskoren Ordenara, baita ere beste asko etxetakuak, an inguruan bizi ziranak. Alako moduan ze, denbora gutxian jarri zan lur aietan San Franziskoren Ordenako Probintzia bat.

OGEI TA BATGARREN BURUA

ANAI ELIASEN DŌTRINA ETA BERE ESPIRITUA

Ezta atseginik lurrian, gaur edo bigar atseka-
biak laguntzen ez dionik. Ain ederki ugaritzen
ari ziran sortaldian San Franziskoren semiak eta
animak Jaungoikuarentzat irebazten; eta beste al-
detik sartaldian etsaia zebillen nastutzen guziya.
Esan nuan lenago nola Franziskoren ordeko
gelditu zan anai Elias Ordenako buru, Ejitora
juateko Italia utzi zuanian, ariketa ango jira egin
arte. Birtutia baño munduko jakintasun geiago
zuana zan anai Elias. Bere Aita-lenaren senzill-
tasunak ilduratzen zuan, denbora berian arritu-
tzen zalarik aren santutasunaz. Santutasuna atzen-
dutzen zion anai Eliasek jakintasunari; eta nola
munduko jakintasun au baitan espiritua arrotu
eta erotutzen duena, bere jakintasun arekin gudu
gaiztua egiten zion Ordenari. Oroitu gaitezen
San Pauloren esan artaz: «Munduko jakintasuna
Jaungoikuaren espirituaren etsaia dala. *Sapientia
hujus mundi inimica est Dei*. Etzan trebe alere
bere Aita-lenaren kontra altxatutzeko; ez baita
aisa buruari oñak agintzia. Baña izanik gizona-
ren amorio beretia somatzalle iaiua, bere burua
edertzeko gaian, artamañak billatzeko, ona zer
egin zuan.

Asi zan anai Elias, erlijioitsu onaren idurian, zerbait bere buruari jartzen, erreglak agintzen zuanaren kontra. Beraren gogoko erlijiosuakin asi zan esaten: «Guztiak etzutela izan oi, berez, Aitalenak zituan santutasun ta garbitasun berezi ura, errazago zala miresten santutasun ta birtute aundi ura, ezen ez iduritzen; asko gauza jarri zituala gizonaren indarrak ezin eraman litzazkian gisakuak; beragatik, beren arteko erlijiosorik jakintsuenak bildurik, biar zirala gauza asko ukitu, ta beste modu batera jarri. Onela egiten zuan alegiña, bide zuzenian erreglaren araura zebiltzananak, bide okerrera zitezen aldatu. Batez ere anai Eliasek ezin eraman zuana zan Santuaren eta Ordena guziko pobre izate ain estu, ertsia, ta jantzi santuaren latztasuna. Ona zergatik asi zan jantzi oial ederragokuak usatzen. Asko Probintzial jarri zituan bere gogoratze modu artara. Beste asko berriz negarrez zeuden, ikusten zutelako erregla santua atzendua ta oñperatua. Aien negarrak nai zituan anai Eliasek ixildu, eta esan etzezaten guzia lasatzia zala, egin zuan lege berri bat, beste askoren artian, aragia jatia osasuna onian iñoiz ere debekatzen zuana. Au zan lege bat erreglaren kontrakua, nun ere, nola ez dan Elizak debekatzen duan egunen bat, gañerakuan erreglaren egilliak utzitzen ditu libre bere semiak, apostolu ta pobrien eran, ematen zaienetik jan edo ez, zilegi zaion bezela bakoitzari.

ANAI ESTEBAN BIALTZEN DIOTE AITA-LENARI ETA ERABAKITZEN DU SANTUAK ITALIA JOTZIA

Gauza gaizki zijuala ikusirik, San Franzisko-ren aurreneko semiak, zelo santuz beterik erreglaren alde, erabaki zuten beretako bat Aita-lenari bialtzia, gauzak nola zijuazen guzia esatera. Lan artarako aukeratu zuten anai Esteban; auzan, Santuak lenbiziko aldiz, Siriarako asmuhan Italiatik irten zanian, bide-lagun artu zuana. Irten zan anai Esteban Aita-lenaren billa; bitartian bere lagunak eman ziran gogotik oraziora. Arkitu zuan bere Aita anai Estebanek, eta anai Eliasek eta aren kidako beste Probintzialak egiten zijuazen guziaren kontua eman zion. Santuaren biotza etzan batere arritu, eta ain gutxi galdu zuan bere espirituko pakia. Baizik egin zuana izan zan, orazio eginaz, Jaungoikuari beraren eskuan pamili guzia jartzia.

Denbora artan an arkitzen zan ere Cataneoko anai Pedro. Beñere aragirik ez jateko lege arren gañian galdatu zion Aita-lenak anai Pedrori, zer iduritzen zitzaion. Umill erantzun zion Pedrok: «Aita, ezta nere egitekua ori erabakitzia. Ori legiaren egilleak biar du erabaki». Ura zan esatia: zuk egin zenduan erregla Jaungoikuak argiturik; geroztik zuk, eta zuk bakarrik biar dezu erabaki eta guk agindua bete». Onen erabakintza, anai Pedrok esan bezela, utzi zuan Italiara jauten zaneke; baña bertatik Italiarunzko bidiari ekin zion.

SANTUA BERE SEMIEKIN TA TXORIAK VENECLAN

Jaungoikuaren laguntzarekin laster eldu ziran Candi-ugartera, eta andik itsasuak neke gabe eramán zítuan Veneciara. Venecia da ugartedi bat. Bada kontatzen dira irurogei ta geiago ugarte berezkuak, eta beste asko gizonak egiñak. Ugartetxo aietako batian txori talde bat zeguan kantari. «Gure anai txoritsuak – esan zuan Franziskok – Jaungoikua alabatzen ari dira; guazen gu ere beretara, txoriak kantuz eta guk errezatuz antxen alabatuko degu guztion Jauna». Franzisko eta bere lagunak juan ziran txorietara, eta txoriak ez mugitu ziran ta ez ixildu kantatzetik. Jarri ziran bestiak errezatzen, baña ain gogotik kantatzen zuten txoriak eze, oartu zan Santua, txori-kantu ark bere lagunak distraitzen zituala. Orduan agindu zien txoriei, aiek ofiziuá bukatu arte, ixildutzeko, ta ixildu ziran denak. Ofiziuá bukatzian agindu zien berriz kantatzeko ta kantari asi ziran gogotik; mirari onengatik egin zuten an etxola bat elizatxo batekin, beretako batek edo bik egin zezaten an egoitza. Baña gero. Veneciako Jaun Santiago Migel zeritzan batek, egin zuan an bertan etxe-santu aundi ta zabala. Veneciatik izikiribitu zien Probintzialai Santuak, adierazten ziela nola nai zuan egin billera bat Porziunkulan, San Migel egunian. Billera au nai zuan egin anai Eliasen okerrak zuzentzeko.

SAN FRANZISKO BOLONIAN ETA AITA SANTO DOMINGO

Venetziatik Paduara, Paduatik Bergamora, Bergamotik Brisiara, Brisiatik igaro zan Santua Cremonara, eta Cremonatik jo zuan Bolonia. Toki orietan jarri zituan Ordenako etxiak. Cremonan elkartu ziran Domingo eta Franzisko. Emen lagundu zion Domingori Franziskok meza kantatu batian Ebanjeliuma kantatuz. Bi Aita-lenak Jaungoikozko gauzak esaten ari zirala, etorri zitzaizkien erlijioso batzuek esatera, nola etzeukaten ur garbirik erateko, eta arren ura zeguan putzu ura garbitzeko modua egin biar zutela. Franziskori esan zion Domingok: «Zuk garbitu biar dezu ur zikin-arria». Erantzun zion Domingori Franziskok: «Ez, ez dagokit niri; zu zera garbitu biar dezuna». Bi Aita-lenen bitartez Jaungoikuak nai du egin mirari bat, eta ez batak eta ez bestiak, artarako diño ez diralako, nai dute eskua jarri! Azkenik atera zuan ontzitxo bat ur arre Domingok, bedeinkatu ta ustuz zuan putzura: geroztik putzu artatik ur garbia beti atera izandu zan. Egin zioten agur elkarri bi Santuak, eta andik denbora gutxira elkar ikusi zuten berriro Bolonian.

Emakume batek ekarri zion San Franziskori biotzeko miña egiten zitzaion semetxo bat. Urrikaldurik, eman zion orazio bat paperian izkiribitua, esanaz eraman zezala orazio ura aren semiak berekin. Artu bezain laster semiak paper ura, gelditu zan sendatuta betiko.

Ain zan aundia gure Santuaren izena ze, Bo-

loniako errian sartu bezin aguro jendiak artu zuan inguru guzietatik; nekez bada ere eldu zan jendia indarrarian ebakirik erri-zelai zabalera. Ain egokitasun ta izkuntz ederrian itzegin zan Santua nun, denak uste zuten ez gizon baten itza aditzen zutela, baizik Aingeru batena. Bere aditzalle geienak itzuli ziran Jaungoikuaren besuetara. Sartu ziranen artian kontatzen dira Peplisko Nikolas, Bonizio, Pelegrino Falleron, eta Modenako Ricerio. Nikolas au da arako gizon jakintsu, Quintabalko Benardo lenbiziko aldiari Boloniarara jua zanian, milla berreun ta amai-kan, jendiak despreziazten zuala ikusita anparatu zuana.

Ricerio ta Peregrino eskolari on ta gazte legietan txit adituak, txit probetxu andikuak izan ziran Ordenan. Jakindurian umillak azaldu ziran. Zekian guztiarekin etzuan nai izan Pelegrinok, bere Aita-lenaren antzera, apaizen mallara igo. Ain zan betia, naiago izan zuan anai lego izan, apaiz baño. Birtute eder onek duda gabe merezitu zion betiko gloria; bada Marca Anconako San Seberinon ill zan, eta eun urtez geroztik aren gorputza arkitu zuten osorik, eder eta preskua.

Bonizio Aita-lenaren txit gogokua izan zan, eta askotan bide-lagun artzen zuan. Ill zan Santua bezela ura ere. Franziskoren itz-aldiak leku guzietan ziran ondo adituak. Egun batez Boloniako erri artan aren itz-aldia aditu zuan batek dio: Ni, Spalatrako erriko semia, Tomas, eliznagusiko Arzedianua, Ama Birjina Asuntzioko eguna zan, milla berreun ta ogeian, Boloniako erri-ze-

larian, aditu nuan Franziskoren itz-aldi au: «Aingeruak, gizonak, demoniuak». Ain egoki itzegin zan oen gañian ze, izanik ere bere aditzallien artian jakinduri aundiko gizonak, gelditu ziran denak arri ta zur eginik. Asko zaldun gazte gorrotuan zeudenak adiskidetu ziran; guzi-guziak zori on aunditzat zeukaten Santuaren jantzia idukitzia.

An gazte bati San Franziskok begi bateko ganduba, gurutze bat eginta, kendu zion. Esan oi zuan gazte ark, begi sendatutik bestetik baño obeto ikusten zula. Ainbesterañoko ongi-naia agertu zioten Boloniatarrak Santuari eze, bigarren etxe-santua egin zioten erriz kanpora, zuaitzen erdian.

SAN FRANZISKO ETA UGOLINO KARDINALA

Itz-aldiak bukatuta juan zan Santua Ugolino Kardinal Jaun bere Ordenako anparatzalliar albiste bat ematera, zeña etzuan aspaldian ikusi. Bere adiskide maite ura arkitzen zan orduan an, Lonbardiako Legadu bezela. Franzisko ikusita beste gabe poztu zan Kardinala, eta gero juan ziran etxe santura. Ozta urrutitik ikusi zuan: «Zer? Au da anai txikienen etxia? ez anai txiki-nena, baizik aundizkien jauregiya dirudi onek. Eztago au guk besarkatu degun Ebanjelioko pobre izatiaren araukua. Beragatik eztet ezagutzen nere Ordenakotzat; ta nere anai izan nai duten guziak, utzi biar dute etxe ori». Au jakitian, etxe santuko anai guziak, sanuak ta eriak, oek

bestien bizkarrian, utzirik etxia, irten ziran kanpora, beren Aita-lenaren naia betetziagatik. Erien artian arkitzen zan anai Leon ere, Santuaren aurreneko ikaslietakua, eta geruago beraren lagun ta Aita espiritukoa. Etxe artan Santuak etzuan nai izan sartu. San Buenabenturaren esaieran beste ainbeste egin oi zuan, arkitzen zanian pobretasunari etzegokion etxe aberats antzeko guzietan.

Kardinal Jaunak palakatu zuan, esanaz zilegi zala zerbait etxe aundixiaguak egitia ta zabala-guak; gañera etxe ark bazuela bere jabia, ta egin zuana bera gelditzen zala aren jabe. «Aunai ezpadezu, ni neroni egiten naiz onen jabe ama Eliza Santuaren izenian». Itz onekin gozatu zan Franzisko, eta utzi zien seme gixaixo aieri atzera sartutzen etxian. Baña bera alogeratu zan Aita Santo Domingoren semien etxe Santuan.

Bein batez Santo Domingoren seme batek esan zion: «Franzisko, zere semetara biar dezu juan, eta biar diezu barkatu» Erantzun zion Santuak: «Aisago pekatuan eroriazten duan barkamena, ezta ona. Nik ez det baimendu nai, nere itzalarekin, pobretasun santuaren kontrako obenik». Erlijiosu urrikaltsuak berriro esan zion: «Bai, Franzisko, juan biar dezu; Aita on batek ez ditu utzi biar seme atsekabetuak; biok juango gera, eta gero ezpadezu nai an egon, ostera etorriko gera». Itz gozo oek mugitu zuten Franziskoren biotza juatera. Juan ziran eta bere seme onak arkitu zituan umill ta egiaz damutuaz; batez ere beren Aita-lena ainbeste penatu zutelako. Prest agertu zitzaizkan denak, nai zien pe-

nitentzia eman, betetzeko. Seme umillen biotzak irebazi zuan Aita-len umillarena eta barkatu zien.

SAN FRANZISKO ETA STRAQUIAKO ANAI JUAN

Etzion ala barkatu Straquiako anai Juan Probintzialari. Santuari baimenik eskatu gabe, egin zuan onek eskola bat anai ikaslientzat, eta gañera lege batzuek eskola ongi gidatzeko. Baña ziran lege batzuek, jakintasunaren aizez gaztien biotzak erotzeko obiak, santuak egiteko baño. Ona zergatik itxiaz zuan eskola ura. Laster andik aldegin zuan Santuak, eta bere seta txarrian muker, Probintzial onek osteraidiki zuan. Jaungoikuaren argitasunarekin jakin zuan Santuak zer egin zuan Probintzialak, eta onen biotzeko gogortasuna zenbat aundi zan ere. Beragatik anai guzien aurrian, zeñak billeran zeuden, madarikatu zuan Santuak, eta kendu zuan Probintzialtzatik. Esan zioten Santuari gañerakuak, arren etzezala madarikatu, baizik bedeinka zezala anaia Juan. Orduan San Franziskok bota zuan sententzia ikaragarri au: «Ezin nezaket nik bedeinkatu Jaungoikuak madarikatzen duana.» Zori gaiztoko Juan au ill zan ikaragarritzko eriotzarekin, oiu beldurgarri au egiñaz: «Kondenatu naiz eta betiko madarikatu.» Eriotza ari inguru izugarriak lagundu zioten, zeñak sobra eman zuten aditzera kondenatu zala betiko. Desobeditu zuan Juanek, eta etzuan nai izan obeditu; orra zergatik galdu zan betiko. Badago emen pentsatzeko gaia naikua!

OGEI TA BIGARREN BURUA

SAN FRANZISKO TA KARDINAL JAUNA CAMALDULAN

Astiz nai zuan Kardinalak San Franziskorekin itzezin. Santuaren gogua bere antzekuakin egote-kua izanik, etzuan besterik desiatzen, zeruko gau-za gozo eta Jaungoikozko itzekida eztieta animari bere janari zerukua emanaz indarberritze-ko, are obeto ta aisago santutasunian aurreratze-ko, bidia zabaltzia. Estua baita zeruko bidia. Juan ziran Camaldulara, San Romualdoren semietara, egun batzuetako, an arkitzen zalako bakardade aundi aukerakua. Autu zuan beretzat Kardinal Jaunak gela bat eremuronz, eta San Franziskori eman zioten San Romualdo bera bizitu zana, nun ere, Santua ill ezkeroz, etxe santu artako buru egiten zuana bizi oi zan, zeñari denak zioten le-ku santuari bezela begiramentu guzizkua. Geroz-tikakuan ainbesteraño goguan dute San Romualdoren semiak gure Aitaren albiste ura eze, gure Santuaren oroimenako egin zuten lege bat, urtian zenbait egun aunditan kantatuko zutela arako San Franziskori agur egiten zaion kanta ura: *Salve, Sancte Pater, etc.*

Alvernako mendia arkitzen zan Camaldulatik iru ordu bide. Ango bakardadetik igaro ziran

mendira, eta denbora puska bat igaro onduan an, Kardinal jaunak aldegin zuan bere eginkizunetara; gure Aita-lena berriz jarri zan Asisako bidian, zeren billerako eguna urbil zan.

Artu zuan bide-lagun Asisko anai Leonardo. Bidian nekatu ziran, batez ere gure Santua, ezin juanik jartzeraño. Billatu zioten Santuari astotxo bat. Jarri zan asto-aurreko anai Leonardo, zerbait ondotxo nekatua. Diabrua beti prest zirikatzeke, kendu zion Leonardori iduki oi zuan umore ona. Bidian zijuazelarik, Leonardok esan zuan bere baitan: «Franziskoren etxia ta guria berdintsuak ituan ba! Eta oraiñ ori asto gañian eta ni asto-mutil!» Mingaña mugitu gabe, au bere barrunian igaro zan. Agertu zion Franziskori Jaungoikuak bere asto-aurrekuaren gogoraziua. Salta-tu zan asto gañetik eta aren gogatzte arri onela erantzun zion: «Ez, nere anaia; ezta ongi ni asto gañian eta zu oñez ibiltzia; badakit ni baño pamili obekua zerala, eta ospatuagua ere bai errian.» Leonardo ona, gelditu zan, ez zeruan eta ez lurrian, lotsaturik, aozpez ta negarrez barkazio eske.

Eldu ziran Espletoko ibarrera. Inguruetako bere semiak irten zitzaizkon biderdira pozik bere Aita-lena ikusteko, eta artu zuten tartian agur gozuarekin. Nola etziran poztuko? Seme on bati, aita ikusi gabe denbora luzian daguanian, gero ikusi utsak barruna poztutzen dio. Ori bera orduan gertatu zitzaien San Franziskoren Semiai. An bada berriro jakin zituan anai Eliasen kontrako keja somiñak. Aitak seme bakoitzarentzat itz gozo bat beti bazuan.

ANAI ELIAS TA SAN FRANZISKO

Anai Elias ere, beste askorekin zeguala, jua zitzaion agur egitera, baña beste guziak baño apaiñago. Zeukan soñian jantzi bat oial onarekin egiña, eta ez bestien eran ebakia; kaputxa beste gañerakuak baño luziago eta besuak zabalaguak; gerria ederki moldatua eta bere ibillera ez txit onestua praile pobre batentzat. Ikusi zuan nian Santuak añ dotore anai Elias, esan zion berari: «Anai Elias, jantzi orretzek ondo emango likit ba niri ere.» «Aita, gusto guziarekin!» esan eta, eman zion bere Aitari soñian zeraman jantzia. Bere jantzi pobriaren gañetik sartu zuan Aita-lenak semiaren soñ ederra. Moldatu zuan gerrian al zuan modurik onenera; arrotu zuan kopeta eta gorputza zuzendurik biar baño geiago, begiak argituta larriturik, desprezio ero batekin gallendurik burua, sorburuaz gañ begiratu alde batera eta bestera, pauso neurtuan, guztien erdian egin zituan iru jira, esanaz noizik beñ: «Ongi zautela, adiskidiak, ongitxo.»

Beren Aita-lena ala ikusita denak zeuden arriturik berari begira; farra zetorkien alde batetik, eta etziran trebe farra egitiaz, denak barrunian zioten: «Zertan geldituko ote da au!» Alako bation kendu zuan jantzi ederregi ura, eta indarrian bota zuan zokora arrika bezela, despreziuarekin asanaz anai Eliasi: «Orrelaxen botako dira nere Ordenako seme baztarrak.» Au esan ta, sarturik onestoki bi eskuak beso zorruetan, begiak lurre-runz ta umill, esan zien: «Onelaxen biar dute ibilli nere seme egiazkuak ta benazko anai txikiak.» Eseri zan orduan guztien artian, ta egin

zien itz-aldi bat umilltasunaz ta pobretasunaren gañ. Onekin lenaz gañera sendotu zituan bere erreglaren aitzaki billa etzebiltzanak. Eta anai Eliasen aldetik zeudenak ere, jarri zituan bere alde. Desegin zituan era onetan ordutik prestutasun aundiarekin anai Eliasek egin zituanak, era kutsiaz denbora berian denai, nolako espirituarekin serbitu biar zuten Jaungoikua bere Ordenakuak. Etzuan orduan anai Eliasek egin zuan arako aragirik beñere ez jateko lege ura desegin. Duda gabe, etzezan eman bide, iñork artzeko oña gero esateko gorputzari geiegi ziola begiratzen. Begira ordia Jaungoikuak au nola bere oñian jarri zuan.

ANAI ELIAS TA AINGERUA GALAI BATEN ITXURAN

Galai gazte bat aurkeztu zan, korri eta presa, Santa Maria Aingerueneren etxe santuko atonduan. Deitu zuanian, galdetu zion anai Maseo ate-zaiak zer biar zuan. Erantzun zion ark: «Nai nuke Franziskorekin itzegin, baña badakit basuan oraziuan daguala. Beragatik deitu iozu anai Eliasi, bada, diotenez, jakintsu eta prestua da, eta duda batetik atera biar nau.» Anai ate-zaiari murruscara aundi bat egin zion anai Eliasek. Zer mandatu galaiari eraman etzekiala gelditu zan ura. Alde batetik murruskararekin bota zuala etzion esan nai, eta beste aldetik berriz etzuan ere gezurra esan nai. Estutasun artatik atera zuan laster galaiak berak esanaz: «Anai Eliasek ez du etorri nai; zuaz anai Franziskorengana, eta esaio-

zu agindu deiola Eliasi datorrela oneraño.» Juan zan Maseo Franziskorengana. Santua arkitzen zan Jaungoikuarekin itzegiten, begiak zeruronz jasota. Zeguan tokitik mugitu gabe, eta begirik zerutik kendu gabe, anai Maseori esan zion: «Esaiozu anai Eliasi, nik agintzen diotala, eta itzezin dezala atonduan daguanarekin.» Txit aserre ta kopeta illun jetxi zan atera, eta, giza txarren erraiakin, egin zion ezagutzen etzuan gaztiari galde modu au: ea zer nai zuan. Erantzun zion ark: «Ez dedilla aserretu: nai nuke jakin zugandik. Ebanjeliua guardatzeko itz ematen dutenak, ote lezakian jan aurrian jartzen zaienetik, Jesukristok erakutsi duan bezela, eta iñork ote lezakian egin legerik onen kontra.» Aguro Eliasek egotzi zion eskua atiarri, indar guziarekin itxitzeko asman, eta airaturik erantzun zion: «Nik badakit ori, baña ez zuri esateko; juan ortik.» Esan zion gaztiak egoki: «Nik ez dakit zer erantzungo zendukian; baña badakit ondo, zer biar zendukian erantzun.»

Igo zan anai Elias gelara eta asi zan gogoratzen nola egokiena erantzun al zeiozian galde aieri, eta bere jakinduri guziarekin ezin somatu zuan erantzuera egokirik. Jarri zan ere gogoratzen zein izan ote zitekian galai ura, eta biotzak esaten zion berriz gaizki itzezin ziola gaztiari. Kontzientziako arrak biurtu zuan irtetera gelatik, eta jeitxi zan atera, artian an zualakoz galaia, baña etzuan arkitu.

Aita-lena etxeratu zanian, zeñak bazekian ondo gazte ura aingeru bat zala, juan zitzaion anai Eliasi eta esan zion zorrotz: «Gaizki egin dezu,

anaia Elias; Jaungoikuak bialtzen dizkigu Aingeruak guri erakustera bere gogua, eta botatzen dituzu zuk aserreturik. Bildurtzen naiz zure arrokeri ori izango ez ote dan Ordena umill onen diño egingo etzaituana, ta ez ote zeran illko Ordenatik kanpuan.» Orduantxe aragirik beñere ez jateko, anai Eliasek egin zuan lege ura, kendu zuan ta desegin zuan Santuak.

Denbora artan galai gazte ura bera agertu zitzaion Españan Quintabalko anai Bernardori. Au zijuan Santiago Galitziakotik Italirunz. Ibai bazter batian nundik igaro somatzen zeguala, itzegin zion gazte batek Italiako erderan. Galdatu zion arriturik, bere lurreko izkuntza aditutzian, nungua zan. Galde oni etziokan erantzun; baña esan zion zer gerta zitzaion ordu artan bertan anai Eliasekin, eta, arturik eskutik, airian eraman zuan ibaiaren beste aldera, ta etzuan anai Bernardok geiago ikusi gazte ura. Sentitu zuan ordia bere barrunian poz ta añ atsegin aundiya ze, geiagogo bide guztian etzuan nekerik senti. Eldu zanian Porziunkulara, jakin zuan zein egunetan eta zein ordutan gertatu zan anai Eliasen Aingeruakiko

an egun eta ordu uraxen bera.

IKUSTEN DU ORAZIUAN GIZON ANTZ MISTERIOTSU BAT

Ikusten zuan gure Aita-lenak bere seme asko zebiltzala alegin guziaz Ordenako legiak lasatu ta arindu nairik. Oek izanik aurreneko, beste denai beren egitiakin erakutsi biar zienak ondoren-

guai bide segur ta zuzena, oen arte erreglaz landarakuak zerbait penaz ta atsekabez biotza betetzen zion. Nola bere espirituko naigabiak eramateko Jaungoikuagatik oraziora oi zuan Jaungoikuari eskatzeko indarra bere biotza arteztu, gauza bera orain egiten du. Bada eskari kartsuak zeruari egiten ari zala, ikusi zuan Jaungoikuaren argitasunarekin gizon aundi baten iduria, beste orduz Nabuko erregiak ikusi zuanaren antzekua. Aundiya zan eta burua zuan urre gorritzua; bularra ta besuak zillarrezkuak; sabel-iztarrak bronzezkuak, anak burnizkuak; eta buztinezkuak oñak. Zaku-gisako soñ-auts-kolorezko batek gozputza estaltzen zion. Au guztia zan Santuarentzat arrigarria gizon antz artan. Adiazi zion Jaungoikuak gizon-antz gai desberdinezko ark, urre, zillar, bronze, burni eta buztinakin, aditzera ematen ziola Ordenak izango zituan gora-berak, eta, denbora berian, Ordenako estadu bata baño ederraguak bestiak txarreneraño, urretik buztinera; au da birtuterik garaienetik been-beenekuak. Zaku auts-kolorezko estalki ura da jantzirik onena, nola dan zure Ordenan Ebanjelioko pobre-gogozkua izatia.

Nabukodonosorrek ikusi zuanaren gizon-antza, desegin zuan menditik amildu zan arri batek, anak autsirik. Franziskoren begiak ikusi zutenarena ezta ala autsiko. Munduak dirauben arte, berak esanik dago, iraungo duela San Franziskoren Ordenak, zeren dan Jesukristoren Elizaren araura jeikia. Izango da zirikatua, izandu dan bezela, edozein beste Ordena bezain gogor, eta beti txutik, etsai gaiztuak gudari indartsuak dirade-

la uste badute ere. Arrikara batekin ezta desegiten San Franziskoren Ordena, arrikarak artzen gogorturik dagualako, eta are gogorruguak artzeko berriro prest, gizon libretiak naiz izanik arrikari onak.

ORDENAKO BILLERA

San Migel eguna eldu zan bere garaian, milla berreun ta ogeian. Gauzak zeuden ederki prestatuak. Bildu ziran billeran San Franzisko ta bere seme deitu zituanak, ordu señatuan. Eztitsu baña indartsu, egokitasun guzizkuan, itz egin zan aurrena Santua billeran. Kendurik anai Juan Straquico, Boloniako Probintziala, bere lekutik, aren tokian jarri zuan anai Grazian, erlijioitsu birtute aundikua. Kendu zuan ere anai Elias bere ordeko edo Bikariotzatik, eta aren ondoren izendatu zuan Cataneoko anai Pedro, erlijioitsu santu ta artarakua, zeñaren eskuetan gure Aita-lenak utzi zuan guzien buru izatia, uzten ziola ari Ordena guztiko kargua, berak osasunik etzekalako eta batez ere umill ta betia zalako txit; itz batian naiago zualako bestek agindua egin, berak besteri agintzia baño. Onela nai zuan bere burua, agindutakua eginaz, are geiago sendotu ta gogortu umilltasunian; ustez txiki dana aundi da gisa ontan. Zeren txikia ezta txiki Jaungoikuaren aurrian, egiaz bada txiki; zergatikan orduan txikia da andi, egiaz txiki izatera.

SAN FRANZISKOREN UMILLTASUNA

«Ni jo nazazute illtzat emendik aurrera – esan zien Santuak –. Ona emen Cataneoko anai Pedro, guztion burua, zeñari zuek eta nik aurrera-kuan biar diogun obeditu.» Belaunikatu zan Pedoren oñetan, muñ egin zion eskuan, eta, arturik aren bendizua, eman zion obeditzeko itza, Ordenako *Ministro guzitakuai* bezela. Azkeneko itz au etzitzaien ondo iritzi Santuaren ikasliai, zergatik, bera bizi zan artian, bera baño buru geiagorik Ordenan izendatzia, izanik bera Ordena zimentatu zuana, arrazoia kilikatzia zirudin. Beragatik Aita-lena bizi zan arte, naiz bestek Ordenaren gidaritzia iduki, iñoiz ere iñor etzan izendatu guztien Ministruaren izenaz. Ala beti seme leialak, guzian ezagutu arren beren buru bezela Cataneoko anai Pedro, asko gauzetan zuzentzen ziran beren Aita-lenarengana. Belaunikatuta egondu zan denboran Santua bere seme anai Pedoren oñetan, begi negarraz bustiak jasorik zeruronz, egin zuan orazio era ontan: «Nere Jaun Jesukristo, niri orain arte nere kontura eman diazun pamili au, zuria dan bezela, zure eskuan uzten det. Ongi dakizu, Jauna, nere eritasunak ez diratela largatzen onen kontua eramatia; beragatik nere ordeko *Ministruen* kontura gelditzen da; gertatzen bada beraz, edo lasatasun geiegiaz anaien bat galtzia edo estutasun zorrotzgiatz, Jauna, oriek emango dute azken juiziuari galdu denaren kontua.» Onela beraz, San Franzisko len eta beti beeti izan zan, eta orain are beetiago ta umillago agertzen zaigu, bada jartzen da bere semien agintiaren azpian, eta ill arterañokuan alaxen

izandu zan. Beste onenbeste egin izan nai zuan gure Aita Santo Domingok. Esango du agian batetik: «Aiek Santuak ziran.» Bai, guk ere ala biar genduke izan, beetiak beti ta leku guztietan. Elorri arantz zorrotza da agintzia, ondo agindu nai duanarentzat. Aisago da ondo obeditzia, ondo agintzia baño.

CATANEOKO ANAI PEDRO TA ORDENAKO AITA-LEN SAN FRANZISKO

Denbora artan, billera ura baño zortzi egun aurretik, Aita Santu Honorio irugarrenak eman zuan bulda bat, zeñian agintzen zuan, etzedilla iñor Franziskoren Ordenan *profesatu* urte bat igaro arte bein sartu zanetik; eta gañera debekatzan zuan, bein erregla ura guardatzeko itz eman ezgeroz, geiago irtetzia ordena artatik. Esana egin zen.

Ordukotz asko zabaldu ziran munduan prailiak. Egoki zan bezela, guztien buru egiten zuanarekin askori egon biarra gerta oi zitzaion. Beragatik alde guztietatik juaten ziran Santa Maria Aingeruenera, edo anaia Pedroekin edo beren Aita-lenarekin itzegitera Ordenako gauzaz. Asko gizonek asko biar eta asko aldiz egon oi zan anai Pedro bestiak baño estuago, etzeukalako zerekin ornitu erlijioitsu nekatuen biartasuna. Gogoratu zitzaion alatan, ondo egingo ote zukian, jantzi santua artu nai zutenai, zerbait eskatzia, zituzten ondasunetatik. Gogorazio au azaldu zion bere Aitari, eta Santuak erantzun zion era onetan: «Ez dezala Jaungoikuak baimendu orrelako

gauzarik, anaia Pedro; eztigu Ebanjelioko pobretasuna, zeña erreglak agintzen digu guardatzeko, biartasunian arkitzen diranen erruki geiegiyak ausiarazo biar.» «Orduan, Aita, zer bitarteko esaten dit artu dezaketala?» «Ama Birjiñaren aldaria ikusten dezu zein apaña dagan? Bada erantzi. Ez dezu pentsatu biar Ama Birjiñari aserratuko zaionik orrengatik. Naiago du Ama maitiak bere aldaria ikusi apaingarri gabe, gu erregla ausitzen ikusi baño, zeña dan bere semiaren Ebanjeliua. Gañera sortuko du Jaungoikuak, nundik edo andik, bere Ama ta guriaren aldaria ondo jazteko aña.» Artatik artu zuan gaia itzegiteko bere dama pobretasunaren gañ. Ikusten danaz. baliatzen zan Santua edozein gertaldiz, birtute eder au maitatzen erakusteko bere semiai.

Asko gauza eder esan zituan bere itz-alditxuetan Santuak, bai nola biar zuten Jaungoikuaren itza adiazi, baita nola ikasi jakintsu baño birtutetsu ta santu izaten. Artan ari zan batian, anai Zesario Espirakua, praile baño len Teologiako maisu izandua, gizon santu ta jakintsu au sarturik bere barrunian, asi zan esaten bere baitan: «Orixe neretzat dek.» Nunbait arkitzen zuan, maisu izandu zan denboran ta lenago, etzuala egin izan bere Aita-lenak esan zuana, eta ona zergatik seme onak agertu ziozkan bere Aitari biotzeko alozik ezkutuenak. Azkenik bada eskatu zion mesede au: «Nere Aita, artu det asmo txit sendua, Jesukristoren goguan dagan bezela, bere Ebanjelio santua ta erregla al detan ondoena guardatzekua; orain nai dizut eskatu zuri mesede bat, eta da: baldin, ni bizi naizan artian, gertatzen

bada, batek edo bestek, agindu degun bezela, ez duala guardatuko nai erregla zuzen, eta nik ikustia orrelako gauzen bat, bertatik niri eta nerekin elkartutzen direnai, ongi guardatzeko agindu deguna, eman deigula baimena orrelako lege ausitzaletatik bereixteko.»

Itz oriek aditzian, San Franziskoren poza etzan txikia; laztandu zuan ta bedeinkatu esanaz: «Bai, nere semia, mesede eskatua zerorrekin daukazu: Jesukristo gure Jaunak eta nik ematen dizugu ori.» Au esan, eta bi eskuak jarririk anai Zesarioren buruan esan zion: «Zu zera apaiza Melkiseden Ordenaren araukoa, eta betikotasun guztian ala izango zera.» Itz onekin nai zuan eman aditzera, erreglaren gordetzallietan egiztatuko zala Jesukristok egin ziozkan agintiak; au da: lurrian Jaungoikuaren laguntza ta zeruan gero betiko zoriona.

ETSAIAREN ENGAÑUAK

Billera bukatzian, bakoitzak bere bidia artu baño len, bildu zituan guzien Bikariuak; eta beste asko gauzen artian, lenago errebes xamar ibilli ziranai eman zien zerbait penitentzi, desegin zezaten egin zituzten arrasto beltzak beren gogozko utsegitiakin, ekin zeioten berriro gogotik, besarkatu zuten bizitza santuari, biotzak ondo garbiturik. Anai aietako batek etzuan nai izan ezagutu ta aitortu bere obena. Etsai gaiztuak zenbatxe lan egiten duan! Ikusi zuan San Franziskok anai arren lepuan txankolaka zeguala demonio itsusi bat, eta zintzurretik arturik etziola uz-

ten bere utsegitia aitortutzen. Urrikaldu zan Santua arren egoeraz, eta deitu zion beste anai bati eta esan: «Zuaz anai orrengana, eta esaiozu nere aldeaz, aitor dezala egia umill; bada era onten dago diabruen atzaparretan.» Egin zuan ondo Santuaren mandatua, eta aitortu ere bai bestiak bere kulpa, eta orduan utzi zion diabruak. Zein egia dan umilltasuna dala arma bat, diabru arrua garaitzeko izan ditekian eragilliena!

Baita ere kontairak esaten digu, nola zan praille bat denak santutzat zeukatena, egiten zitualako birtute egiazkuak ziruditen gauzak. Txit zan crazyokoia, etzuan itzegiten beñere, askok geiegi bezela; eta, zerbait biar zuanian, eskuaz edo keñuz nolerebait adiatzen zuan. Denak santutzat zeukaten. Gure Aita-lenak, zeñak beste guziak baño begi argiagua zuan gai onetan, esan zien penarekin bere semiai: «Etzat batere gustatzen anai orixen; diabruak dauka engañatua. Ez alabatzia, baizik kastigatzia merezi du orrek. Jakizute, nere anaiak, diabru guziak ez dirala itz-jariuak; badire aien artian ere mutubak; eta agian geiago ditu bere banderapetzen ixilltasun onekin, berritsukeriakin baño.» Erlijioitsu aeri Santuaren itz oriek iduritu zitzaizten gogortxuak; baño denbora asko igaro baño len, mutuari itza etorri zitzaion; utzi zion erlijio santua. Ezagutu zuten Franziskoren esana zein egia zan. Eman zien aditzera Santuak zerk galdu zuan anai ura itz oetan: «Umilltasunik etzuan, eta borondate geiegia bere naia egiteko beti.» Artu dezagun guretzat itz au. Zutik daguana erori diteke; beetia izan, ez erorteko.

Beste praile bati jarri zion buruan etsaiak Ordena artatik irteteko. Burutazio onekin gizajua zebillen burruka bezela bere buruarekin, ezin botarik tentazio ura. Azkenik agertu zion Aita-lenari gogoratze ura, eta eskatu ere bai baimena Ordenatik irtetzeko. Urrikaldu zan Santua, eta saiatu zitzaion burutik kentzen tentazio ura, ukaturik Ordenatik irtetzeko baimena. Beriarekin irteten nairik, eskatu zion Ordenako Kardinal anparatzallari, Santuak ukatu zion baimen ura, eta ark berdin etziokan eman. Zer egiten du orduan? Jantzi santua utzita iges egiten du etxetik. Bazijuan bere bidian, eta nun topatzen duan gizon errespetagarri bat, eta geldiazirik galdetu zion: «Errukarria! Nora zuaz?» «Ze jakin biazu zuk, ni nora nuan?» erantzun zion onek. «Nik zer jakin biar detan, diozu? Ikusten dituzu oek? – Eta erakutsi ziozkan esku, oñ ta biotzeko zauriak –. Uste dezu nik zugatik alperrik iturri orietatik ixuri nuala gurutzian nere zañetako odola?» Au esan eta desagertu zan Jesus. Orduan beriala ezagutu zuan pekatua, eta damaturik eginaz eman zion negarrari. Biurtu zan etxe santura. Azaldu zion Aita-lenari zer gerta zitzaion; aozpezturik bere oñetan damuz ta negarrez, eskatu zion barkaziua. Poztu zan Aita bere seme galduaren etorrerarekin. Barkatu ta esan zion animen sendatzalle onak bezela: edozein tentazioetan iduki zitzala Jesusen zauriak begien aurrian, eta garaituko zuala etsai gaiztua.

Denbora aietan gure Aita-lenak izkiribitu zien bere Ordena guztiko anaiei paper bat, zefñian esa-

ten zien, izan zeiotela, edozein lekutan, aldare-ko Sakramentu santuari, merezi duan onra eta adoraziua. Ez det emen jarri, luzegia dalako liburuxo onetarako.

OGEI TA IRUGARREN BURUA

SAN FRANZISKOREN SEMIAK DIRA MARTIRIZATUAK MARRUEKUETAN

Urte onen asieran, au da milla berreun ta ogeian, illbeltzaren amaseian, izandu ziran San Franziskoren bost seme martirizatuak Marrueketan. Oroitu bedi irakurlia, nola gure Aita-lenak, sortaldera juateko aurrian, bialdu zituan Mairueta-ra sei erlijioso, Ebanjeliua Mahomaren ikasliai adiaraztera. Oek ziran anai Berardo, Pedro, Oton, Ayuto, Akursio eta Bidal. Bidal izendatu zuan Santuak beste gañerako bosten huru. Aitaren bendizioarekin irten ziran fediaz biziturik Españarunz. Aragoira ziranian, eragotzi zion gaitzak anai Bidali aurrera bidegitia. Beste bostak zuzendu ziran Coimbrara; an txit ederki artu zituan andre Urraka, Portugalko erregiña, Alfonso bigarrenaren emaztiak. Gizon santu aien birtutian, ain zan aundi erregiñak jarri zuan itxoromena eze, esan zien: Jaungoikuari eska zeiotela noiz biarko zuan ill ark. Erantzun zioten: «Gu izango gera martirizatuak; eta ekarriko dituzte gure gorputzak Coimbrara. (Au dago Portugalen.) Emen berorrek onartuko ditu, eta gero ondorian illko da.» Aiek esan bezela, guztia egiztatu zan.

Coimbratik igaro ziran prailiak Alanquerko Or-

denako etxe santura. An andre Santxa, Portugalko erregeren arrebak, Mairuetara igarotzeko, jantzi arazi zien beste jazkera bat, beren jantziaz gañetik. Ala jantzirik sartu ziran Sevillan, zeña orduan Mairuen mendian zeguan. Sevillan kristau baten etxian egon ziran gordeta zortzi egunian. Baña estu zeuden etxian, estu; beragatik kendurik gañeko soña, irten ziran kanpora, lotsa botarik, fedez armaturik, ta gerrari onak bezela nai izan zuten mezkitan sartu, Ebanjelioko egiak azaldutzera Mahomaren kontra. Baña etzio-ten utzi fede-gabiak aien tenpluan sartutzen, ta golpe ederrak emanaz bota zituzten andik. Gero juan ziran Erregeren jauregiko atondora, ta adirazi Jesukristo erregiaren Erregek biali zituala. Sartu zituzten jauregian, eta an egin zuten alegina pranko, mairuen errege kristau izatera biurtzeko eta bataio santua arrerazteko, esanik txit gauz eder asko gure erlijioaren alde. Arteraño guzia zijuan pake antzian; baña arako asi ziran Mahomaren kontra itzegiten; airatu zan errege ta agindu zuan bost prailiai lepua ebaki zeiotelá. Bost praile aietaz urrikaldu zan erregeren semia, eta aitak, semiaren amorioz, aen gañetik altxatu zuan eriotzaren sententzia, eta itxi zituan dorre garai batian. Dorre artaz, itz-toki bat eginaz, berdin azaltzen zuten Jesukristoren erlijua, kondenatzen zutelarik Mahoma ta bere legia. Ona zergatik jeitxi zituzten dorreko sotorá. Geruago eraman zituan Erregek bere aurrera, eta onez agindu zien libratuko zituala, baldin-eta prest ba-zeuden beren erlijioaz trokatzeko. Erantzun zioten: «Guk eztegu gure erlijio santua trokatu nai

beste edozeingatik. Berorrek, bai, ongi egingo lukiala guriagatik beria uztia. Egin beza guzaz nai duana. Berorren eskuan dago gure bizia; baña segur gera, illtzen bagaitu, eriotza onek zeruko gloriara eramango gaituala.» Arriturik errege aien irmotasunaz, biali zituan mairuetara, don Pedro Fernandez Castroko jaun eta gazteluko zaldun, beste asko kristaurekin batian.

Marrueketan arkitu zuten D. Pedro Portugaleko Alfonso erregeren anaia, mairuen erregeren gudari-taldien agintari. Txit ondo artu zituan ark, ta karidade aundiarekin eman zien biar zuten mantenua. Jakin zuan Sevillan zer igaro zitzaien, eta konsellu eman zien Sevillan bezela ez egiteko an. Alperrik esatia zan au, zergatik ezin egon ziran, mairubak ikusi orduko, Mahomaren erlijio palsuaren kontra zerbait esan gabe.

Egun batez asi zan anai Berardo gurdi baten gañetik predikatzen erriari eta, itz-aldi bat egin zuan Mahomaren legiaren kontra. Artan gogotik ari zala, aren ingurutik igaro zan errege. Erotzat artu zituan onek denak, eta agindu zuan bialitzeko aiek erritik kanpora, kristauen lurrera. Beriala D. Pedrok eraman zizten gidariak Ceutara eramateko, andik itsasoz Españarunz bialitzeko asman. Baña bidian gidariari iges egin zioten gizon santu aiek, eta berriro aurkeztu ziran Marrueketan, orpua oñ-mutur bideginik. Len eta gero baño beruago asi ziran kopeta agertzen, ta, mingaňak askaturik, Jesus predikatzen. Jakin zuan erregek eta benaz orduantxe aserretu zitzaion, ta, kristauen kontra beti airakor, sartu zituan itxian. Ogei egunian iduki zituan janik ta edanik

gabe illko ziralakuan, an etzuten gosia ta egarria beste saltsarik; alere alai ta eder Jaungoikuak gorde zituan. Egun aietan berebiziko egun beruak ekarri zituan oi ez bezelako gaitzak; bildurtu zan errege bera ere Jaungoikuaren kastigua zalakuan, ta Aboturin Sarrazen kristauen adiskide baten esana egitiagatik, idiki zitzaien itxitegiko atia. Erri guzia arritu zan ikustian bost santu aien arpegiak alai ta ederrak; egiaz, nork esango zuan ogei egunian egondu zirala janik eta edanik gabe?

Libro beren buruak ikusita, ekin zioten berri-berri predikatziari. Ango kristauak bildur ziran Errege Miramolinen aserriaren, eta bere buruak aserre ark arrepatu etzizan azpian, libratziagatik, nai zituzten baia batera prailiak eraman.

Bigarren aldian bid-erditik iges eginik, aurkeztu ziran Marrueketan. Orduan zan noiz eta esan ziotena D. Pedrori, guardak jarrita bederik, iduki zitzala etxian. D. Pedro ordia ezin egon zitekian beti etxian, eta, etsaiakin peliatu izan biar zuan batian, berarekin eraman zituan inora aldegin etzezaten. Garaitu zuten etsaia, eta gerrariak arkitzen ziran egarriak itotzeko zorian, zeren iru egun ziran urik gabe zeudela. Urrikaldu zan anai Berardo eta jarri zan oraziuan; gero altxa zan eta zerbait aitzurtu zuan lurra. O miraria! Iturri ederra sortu zan toki artan. Eran zuten ase arte ur artatik, eta gañera biderako bete zituzten ere zagiak. Biar aina artu zutenian, agortu zan iturria. Denak, miresturik, muñ egin zioten errespetuaren aundiz oñian anai Santu Berardori.

Itzuli ziranian berriro Marrueketara, D. Pedroren egin-al guziak etziran asko etxian idukitzeko anai Santu aiek. Laster iges egin zioten etxetik, eta, erregek igaro biar zuan tokian, lenbiziko aldian bezela, igo zan anai Berardo gurdy gañera, eta, predikatzen ari zala gogotik, erregek, guztia aserretuba errabi bizian, agindu zion bere gorteko bati kentzeko len-bai-len biziya aeri. Au zan iturri mirarizkuaren testiguen arteko bat; ona zergatik, gizon santu aieri bizitza kentzeko naiz erregek agindu, etzuan izan biotzik eta sartu zituan itxitegian. Txit gaizki arkitzen baziran ere toki artan ta gogor tratatuak, etziran elere aspertzen Jaungoikuaren itza adiaraztiz, kristauai bezela sarrazenuai. Kontu au gerta zan milla berreun ta emeretzigarrenaren azkenera.

Milla berreun ta ogeiaren asieran, deitu zituan bere aurrera, prailiak iltzeko ordena artu zuan lenago esan degun ark, eta arkitu zituan beren fedian sendo, Maomaren kontra itzegiten.

Orduantxe azturik ikusi zuan mirariaz, sartu zan aserre bizian, eta agindu zuan bata bestia-gandik berezi zitzetela, ta bakoitzari eman zeio-tela tormentu berezia. Lenbiziko bada lotu zitzen esku-oñak. Eta erantsi ere bai lepotik soka bat. Arrastatu zituzten lurrian; azkenik azoteaz ebaki ere bai erraiak agertzeraño. Ogei ta amar gizonek aldizka egin zuten biargai ura; nekatu ta aspertu ziranian azotatziaz, bota ziezten zaurietara olio irakina eta ozpiña; gero desneke miñgarri bat eman zieten, ontzi puskatuen gañian etzan arazirik. Miragarrizko eraman ta alaitasun Jaungoikozkua ikusten zan Santuen arpegian. Guardian

zeudenak ikusi zuten zerutik itxitegirañoako argi eder bat, eta beste askorekin martiriak zeruronz bazijuazen bezela. Uste zuten irten zirala itxitegitik, eta an ote zeuden begiratzera bildurraz alderatu ziran. Ikusirik an zeudela ta gañera oraziuan, eman zioten parte erregeri gertatu zan guztiyarena. Deitu zituan berriro bere aurrera erregek. Eskuak lotuta gaizkillerik aundienari bezela, eraman zituzten Jaungoikuaren serbitzariak erregeren aurrera, larru-utsian, joka modu txarrian. Esan zien aundizki batek, Maomaren legia besarkatu zezatela. Anai Otonek, txistua lurrera botiaz maomaren desprezioz, erantzun zion mutuki. Desprezio ura ezin eramanik, jo zuan masallan aundizki dollorak anai Oton, eta onek txarkeri au pazientziarekin eraman zuan, eta, Ebanjelio Santuko itza betetzeko, beste masalla eskaiñi zion esanaz: «Jaungoikuak barka deizula, zeren zer egiten dezun asko ez dakizu».

Jauregira eldutzian, Miramolin Erregek galde-tu zien: «Zuek al zerate arako egiazko fedieren despreziatzalle gizon gaizto aiek, blasfamatzen dezutenak Jaungoikuak bialduaren kontra?» «O Errege! – erantzun zioten –; guk eztegu despreziuaren zipitzik egiazko fedientzat; aitzitik bai gaude prest beragatik illtzera. Baña aurdikitzen degu indar guziarekin Maoma gizon gaiztuarena, eta zuk aregan daukazuna».

Iduritu zitzaion Eregeri gizon aien biotzak itzuilko zituala Maomaren legera, onra, atsegin ta aberastasinakin. Beragatik eraman zituan zenbait andre eder eta esan zien: «Nai badezute Maomaren legia guardatu, emango dizkitzutet ema-

kume oriek diru askorekin, eta nere erreinuan txit onratuak izango zerate; bestelaz neronek nere zimiterrakin (ezpata motz bat zan au) ilko zaituztet». Erantzun zioten: «Guk eztegu zure emakumerik eta zure dirurik nai; oriek izan ditezela zuretzat, ta Jesukristo guretzat. Sufri arazkigutzu nai dituzun tormentuak; kendu bizitza ere; pen-oñaziak ariñ dira guretzat, zeruko gloriaz oroitzen geranian.»

Orduan errege gaiztuak, erio-suarrian, zimiterra arturik, kopetaren erditik bere eskuz bostai idiki zien burua. Onela bada bost praile txikienen Ordenakuak, illbeltzaren amaseigarren egunian, bukatu zuten martirio gloriotsua.

Martiri santuen gorputzak puskatu zituzten fede gabe aiek, eramanik arrastaka erritik kanpora. rik bi kutxetan, biali zizkion D. Pedrok España kristauak bildu zituzten osterara, eta, sartuñara, ta gero Portugala, ango errege bere anai Alfonso bigarrenari, neke aundiarekin badere. Lendabizi kosta zitzaion gorputz santuak bildutzia bere legusu baten illtzia, eta beste Castroko D. Pedro Fernandezena, zeña lenago aitatu degu. Asko mirari egin zituzten bere etxian, iduki zituan denboran: mutu bati eman ziokatzen itza; neskatz mairu baten gorputzetik bota zuten demoniua, beste gazte bat, etsita zeukatena, sendatu zuten. Mirari aiek guztiak ikusita, jarri zituan bi kutxa santuak D. Pedrok bere jauregiko elizatxuan. An egiten zien orazio, eta eskatzen zien. batez ere, Europara itzultzeko bere ta beste kristauen libertadia.

Miramolinen jauregiko asko aundizkik eskatzen zioten erregeri D. Pedroren eriotza; baña erregek eman zion baimena, bere lagunakin Europara juateko. Milla lazo jarri ziozkaten bidian Maomatarrak; baña, santuen gorputzen bitartez, libratu zituan beti Jaungoikuak bide guziyan. Baso izugarri batian aditu zituzten beñ legoyen irrintziak; alde-arunz jarri zituzten kutxa santuak eta salbatu ziran. Beste beñ bidia galdu zuten; orduan bi kutxak zeramazkien aberiari, utzi zioten aurrera; ari jarraituta arkitu ziran bide onian. Azkenik, santuen bitartez ainbeste arriskutik libratuta, sartu ziran itsasuan. Itsas erdiyan, berriz, berebiziko ekaitzak jarri zituan galtzeko zorrian, batez ere illuntasun ain lodiaren erdiyan, ezer ere ikusten etzutelako. Egin zuten orazio erliki santuen aurrian; alatan inguratu zituan argi eder batek, eta argitasun arekin libratu zituan arrisku aundietatik.

Noizbait jo zuten lenbiziko Algeciras, gero Tarifa, andik bazijuazen Sevillara, baña nola jakin bai zuten, Marrueketako erregek eman ziola ordena Sevillakuari, ar-zezala D. Pedro preso ta aren lagunai biziya kentzeko, eman zielako onra ark biziya kendu zien gizon gaizto batzuen gorputzai, au jakin zutenian, etziran Sevillara juan, eta atzera itsasoz jo zuten Galicia.

D. Pedro, nola artian oso adiskidetu gabia baidan bere anai Alfonso Portugalko erregerekin, Galiciatik juan zan bere lengusu Alfonso Leon-go erregerengana.

Santuen erlikiak asko mirari egiten zituzten;

asko zan alderatzia kutxa santuari, eta errespetuz ta fedez ukitzia, edozein eritasun sendatutzeko. Astorgan alaxen perlesiak baldatutako bat sendatu zan. Andik santu martirien erlikiak bializiozkan bere anaia Alfonso Portugalko erregeri. Errege, erregina Urraca, erreinuko aundizki guztiekin, ango apaiz guziak lagun, irten ziran bidera, Coinbratik iru legua bidian; arazo aundiarekin izan zuten gure santu martirien erlikiak guzizko ongi etorria. Uste zuten eliza nagusian jartzia bi kutxa santu aiek. Baña, oroiturik nola Aprikan aiek zeramazkian manduak bidia erakutsi zien, goguak eman zien, Jaungoikuaren naia obeto ezagutzeko, uztia bakarrik manduari nai zuan aldera jo. Ona nun gelditzen dan mandua Santa Cruzko elizako ate nagusiaren pare. Itxita zeuden atiak; beriala idiki zituzten, eta mandua bere erlikiakin sartu zan Elizan. eta, zuzen-zuzen aldare nagusiaren aurreraño juanik, belaunbikatu zan. Bizkar-ezurra arifidu zioten arte, egoera artan egondu zan. Ezagutu zuten Jaungoikuaren gogua artatik, Santa Cruzko errespetuz aietxek onratzekua zala.

An egin zituzten mirari asko. Illtzera zijuazen unian, bost santu martiriak Alanquer-en agertu zitzaizkion andre Santxa erregeren arrebari, bakoitzak ezpata motz bat eskuan zuala, eta eman zioten martirio arengatik zerura zijuazen berri ona; nundik ere agindu zioten egingo ziotela Jaungoikuari orazio aren alde. Milla lareun ta lerogei ta batian, Aita Santu Sixto IV-garrenak San Franziskoren Ordenakuak izendatu zituan beste santuen artian.

Andre Urraka erregiña bere eriotzako ordua noiz izango zan jakin nai zuanarekin ere, egiztatu zan santuen esana. Erregiña onen ill berria Jaungoikuak era onetan eman zion Santa Cruzko Kanonigu erregular bati. Santuen erlikiak eliza artan jarri zituztenetik denbora gutxira, ikusi zuan kanonigu ark gabaz koru guziya erlijiosoz betia, zeñak kantatzen zuten txit gozoki. Etzekian ez nundik sartu ziran, eta ez zergatik arkitzen ziran an. Aietako bati galdetu zion jakin nairik, eta erantzun zion: «Gu gera praile txikienen Ordenakuak: argi-argi egiten duan, guzien buruan dagan ori, da Franzisko, zuk ikustia ainbeste desiatu izan dezuna; eta beste bost gañerakuak baño argitasun aundiyagua botatzen dutenak, dira gure anai Marrueketan martiritatuak, zeñen gorputzak arkitzen dira eliza onetan. Eta biali gaitu Jesukristo gure Jaunak Eliza ontara, erregiña Urrakagatik errezatzera, zeña ill da oraiñ; ta biali gaitu gure Ordena asko maitatu zualako. Nai izandu du Jaungoikuak zuk au ikustia, aren Aita espiritukua ziñalako». Ozta itz oek aditu zituan, jo zituzten etxe santuko atiak, eta utzi zioten ate-zaiari Erregiñaren ill berria.

Jaungoikuaren justiziak atxitu zituan Errege morua ta bere mendekuak. Eskuiko besua, zeñarekin artu zuan zimiterra, eta alderdi ura guziya burutik oñara, igartu zitzaion erregeri. Iru urtian etzuan zeruak urik eman, eta bost urtian izurriak ta gosiak asko jende ill zuten; dirudi egokitasunaz, Jaungoikuak bost martirien eriotza bengatzeko, bost urtian agertu ziela bere aserria.

Etzan txikia izandu gure Aita-lenaren poza.

jakin zuanian bere semien eriotza. «Oraintxen bai, nezaketela esan, oiur egin zuan, gutxieneko badi-tuztala bost anai txikienak». Milla bendizio bota ziozkan Alaquerko etxe santuari, nun ere prestatu ziran martiriorako. Bendizio ura beti eza-gutu izandu da ugaria praile etxe artan, aditzera eman dutenez an bizitu izandu ziran askok.

Anaia Bidal, inbidi santuarekin gelditu zana bidian, bere lagun-anaien azkena jakinta, ezinta geiago poztu zan eta ill zan andikan laster justuen eriotzarekin Zaragozan.

SAN ANTONIO PADUAKUA

Zein miragarritzko moduan gure Jaugoikuak gauzak zuzentzen dituan beren azkenera! Nori biar zitzaion gogoratu, Marrueketako bost santu martiriak jua zirala Coimbrako Santa Cruz-ko Kanoniguen etxe artara, ill ondorian, an zeukaten adiskide aundi baten billa? Adiskide aundiya diot, zeñak egunen batian biar zuan mundu guzian argi egin bere jakinduri ta santutasun Jaungoikozko zelow betetakuarekin. Fernando zeritzan gazte ura. Jaio zan Portugalen Lisboako errian, milla eun ta larogei ta amabostgarren urtian. Bere gaztetasuneko garbitasuna ez zikintziagatik, amabost urtetan sartu zan Kanonigu erregularren Ordenan, San Bizenteko etxe santuan, Lisboa onduan. Beñ munduari agur egin zion ezkeroz, Fernandok etzuan traturik nai munduarekin, ta ikustera juaten zitzaizkion aidiak ere miñ ematen zioten, zeren naiago zuan artaz ifior ez oroitzia. Azkenik, aien jua-ettorri sarrigiari bidia eba-

kitzeko, eskatu zuan baimena andik Coinbrako Santa Cruz-ko etxe-santura igarotzeko. Emen arkitzen zan Fernando, arara santu martirien gorputzak eraman zituztenian. Martirien zorionak piztu zuan gogo bizi bat, fede santuaren defentsan berak ere bere odola ematekoa. Gogorazio oetan arkitzen zan inbidi santu batekin. Coinbratik urbil arkitzen zan San Franziskoren Ordenako, Olivaresko San Antonio deitzen zioten, etxe santu bat. Bi erlijioso etxe artakuak jua oi ziran eskian Coinbrara. Egun batez Fernandok agertu zien aien Ordenara igarotzeko asmua. Pozez erantzun zien San Franziskoren semiak: «Onelako egunerako egitzu egin biar diran prestamenak, eta etorriko gizaizkio». Beriala jua zan Fernando bere buru egiten zuanarengana; eskatu zion baimena San Franziskoren Ordenara aldatzeko. Nekez bada ere, iritsi zuan. Diot nekez; zergatikan asko nai zioten kanoniguak santua ta jakintsua zalako; pitxi ederra zan Fernando eta berentzat nai zuten.

Egun markatuan San Franziskoren semiak jua ziran Coinbrara, eta Santa Cruz-ko Eliz artan eman zioten San Franziskoren Ordenako jantzi santua, kendurik Kanoniguena. Agur egiteko garaian esan zion kanonigu batek itz au Fernandori: «Zuaz, zuaz, Fernando; agian Santu aundi egingo zera». Umill erantzun zion Fernandok: «Ori jakiten dezunian, zuk Jaungoikua alabaturko dezu». Orduan utzi zuan Fernandoren izena eta artu zuan Antonioren. Au izan zan San Antonio Paduakua; ez Paduan, Italian, jaiua zalako deitua onela, baizik Paduan ill zalako. San

Antonio Paduakua jaio zan Portugalen, Lisboa-ko erri aundiyan. Ogei ta seigarren urtian zizuan Antonio, San Franziskoren Ordenan sartu zanian. Jesukristoren fede santuagatik bere odola emateko desio bizi ura geituaz zijuakion egun batetik bestera. Laster eskatu zuan baimena, bere asmo ederra betetziagatik, Aprikara juateko. Baimena artu bezain aguro, jarri zan bidian. Eldu zan Aprikara, ta eritasun aundi batek jarri zuan ezertarako gauza etzala. Osasun obian jartzeko, España biar zuan jo. Sartu ziran itsasuan España-runz, eta ekaitz aundi batek, nola Españara eramango, bota zituan Siciliara. Ezagutu zuan Antoniok Jaungoikuak etzuala martiriorako artian diño arkitzen. Sicilian zeguala, jakin zuan denboraz izango zala Ordenako billera nagusia Santa Maria Aingeruenian; erabaki zuan aruntza juatia, bere Aita-lena ezagutuz.

OGEI TA LAUGARREN BURUA

SAN FRANZISKOREN SEMIAK INGLATIERRAN

Milla berreun ta emeretzigarren urteko billera nagusian, Santuak agindu zien anai Angelo ta anai Albertori, biak ziran Pisako semiak, Parisa juateko. Andik urrengo urtian igaro ziran Inglatierrara. Enrike erregek, izen onetako irugarrenak, artu zituan ondo, eta, Chienen prailien santutasunari begiratuta, lagundu zien izugarri. Inglatierran San Franziskoren Ordenak irureun urtian iraun zuan, frutu on asko emanaz eta gizon santu ta jakintsuak eginaz. Batez ere Oxfordko ikasleku nagusia izan zan mundu guzian txit ospatua. Enrike zortzigarren errege gaiztuak gero, protestantien aginduz ta amorez, beste erreinu artako, len santuen ugartia deitua, ezin konta-al eliza ta etxe-santuak bezela galdu zuan ura ere.

Pranzian, berriz, San Franziskoren semiak asko Obispo Jaunek etzituzten ezagutu nai egiazko erlijiosotzat, eta gaizki ziran artuak asko lekutan. Ona zergatik urte artan bertan Aita Santu Honorio irugarrenak izkiribitu zien erreinu artako Obispo guztiei, aditzera emanaz nola ziran egiazko erlijioitsuak eta nola nai zuan ondo artuak izatia.

AKAS AURRA

Flandesen bost urteko aur batek, ikusi zitua-
neko Sen Franziskoren semiak, bere gurasoi es-
katu zien aiek zuten bezelako jantzia. Aurrari
egin zioten eskatzen zuan bezelako soña. Gorde-
tzen zuan aurrak San Franziskoren Ordenako
erregla leialtasun aundiarekin. Sal-erosietan ze-
biltzan batzuk, aurraren gurasuen etxian ostatur
arkitzen ziran batian, nai izan zuten ikusi zer
egiten zuan aurrak, eta jaten edo edaten ari zan
ontzian ixilik sartu zioten diru bat. Aur gaixuak,
arkitutzian dirua bere ontzian, dena ikaran sar-
tu zan arpegiko koloriak galtzeraño. Uste zuan
pekatu aundiya egin zuala. Eta aurraren biotza
etzan gozatu, bere aitak apaiz bat ekarri zion
arte. Akas zuan izena aurrak. Bere kidako muti-
kuai predikatzen zien Akas aurrak, eta ematen
zizten kontsellu txit onak. Zazpi urtietan miñak
arrepatu zuan, eta, ill baño lenago, lenbiziko ta
azkeneko aldiz nai zuan Jesus maitia komunio
santuan artu. Gaztegia zala eta etzioten eman;
orduan ikusi zan aurra, bere besuak zeruronz
jasota esaten: «Zuk dakizu, nere Jaun Jesukris-
to, nere biotzak Zu bakarrik nai zaituala». Au
esanta beriala, bere anima garbiya Jaungoikuari
eman zion. Jantzi santu, bere oiaren gañian zeu-
kana, etzan geiago ikusi. Aur santuaren obian
erlijioitsu batzuek nai izan zuten errezatu *De pro-
fundis*, eta gelditu ziran ezin esanik. Onekin adi-
tzera eman zuan Jaungoikuak, aur zorionekua
etzala oraziuen premian arkitzen.

Urte artan oraindik jua ziran Aragoira anai
Juan, mezakua, ta anai Pedro, legua. Ok Valen-

tzian Azoto mairuen erregek, bere jauregian, andikan amar urtera, il zituan. Bi santu martiri oen pesta Ordenak egiten du, Aita Santu Benito amairugarrenaren aginduz, agorraren iruan.

CATANEOKO ANAI PEDRO

Nagusi, buru ta agintari ona izatia baño gauza gaitzagarik ezta lurrian. *Ars artium regimen animarum*, esan zuan lenagokuak: mañaren maña animak gidatzia. Gutxi dira uste dutenak gaitza, zailla dala au, beragatik ta oraindik gutxiago nai ez dutenak agindu. Agintiaren zale dana, ez da bildur ezeren; diñidadiari begiratzen dio onek; eta aundinaiak eztu ezagutzen beretzat arriskurik. Goguaz kontra artu zuan Cataneoko anai Pedrok Bikario nagusiaren agintia; alere ariñ izan biar zuan karga, pisu ta astun egin zitzaion. Zer izango ote zan arzaz, gogoz jarri balitz agintzen? Gogozko agintari izatera, galduko zan agian askoren antzera, eta agintiaren billa ibilli etzalako, santutzeko gaia izan zan arentzat agindutzia.

Askoren artian zenbat buru, ainbeste pentsatzeko modu. Orregatik gertatu zan gertatu zana anai Pedrorekin. Berak aleginak eginagatik guztiei gusto emateko, azkarrentzat gidari ona zan, nagientzat gidari txarra. Nagitasuna izanik zuaitz baten antzera, frutu ugariak ematen ditu. Onek eman oi ditu asko nekagarri. Zuzen ta leial bere egitekuak betetzen saiatu arren, atsekabia-atsekabien gañ ebia bezela zetorren Pedroren buru gañera.

Negarrezko itz-orri bat izkiribitu zion anai Pedrok bere Aita-lenari; nun ere garbi jartzen ziozkan bere naigabiak. Eztitasun aundiarekin erantzun zion Santuak, bere seme maite Pedrori: «Eraman itzatzu gauza guziak eramankizun aundiarekin, zeren atsekabe bakoitzari dagoka sari berezi bat. Zu zera erien sendatzallia, Pedro; beragatik anima eriak sendatu biar dituzu gozo ta ezti. Zuk esanta erremediorik artzen ezpadute, ezta zure obenik, geroztik bota estuasuna sotorā. Minez dagonaz urrikaldu biar gera, eta animako miñak arturik badauzka asko seme, orien erruki geiago izan biar dezu».

Era onetan San Franziskok bere Ordena guziko Bikario nagusiaren anima eroria jasotzen zuan. Urte bete zerbait geixiogo iraun zuan anai Pedrok kargu artan. Ill zan; bizi bezela santuaren eriotza egin zuan; au ondo ere ondo aditzera eman zuan bere eriotzaren ondorenak. Anai Pedroren obian egiten ziran mirariak kaburik etzuten. Ona zergatik beti bazan jendia etxe santuan.

Mirariak mirari, etzizaion uraxe ongi iduritzen Franziskori: «Pakerik eztigute emango etxian arrotzak; guk geon orduak guardatu biar ditugu – esaten zuan –, ta mirari oriek onetarako eragozpen dira». Onela pentsaturik juan zan Franzisko anai Pedroren obira, eta itzegin zion agintez era onetan obian zeguanari: «Pedro, nere seme biotzekua: bizi ziñan artian, beti nere esana leialki egin izan zenduan; orain obi onetan badago ere zure gorputza, nai nuke zuk oraindik nere esana egitia; gure orduak nastutzen dira jendiaren juan-etorriakin; eta au zuk egi-

ten dituzun mirariakgatik. Gure Ordenari begiraturik, Pedro, ez dezazula geiago miraririk egin». Santu biziak Santu illari agindu zion, eta santu illak biziak bezain ondo Franziskoren agindua egin zuan; bada lenago ainbeste mirari egiten zituanak, geiago etzuan egin. Geiago ez egitia, izandu zan aundiena. Baña oraindik mirestekua-gua dana, anai Pedro santuaren gorputza obi batetik beste egokiago batera aldatutzeko eguna eldu zanian. O miragarria! Anai Pedroren gorputza arkitu zuten obian, belaunbika, makurturik kopeta lurrian, egoera onekin aditzera ematen zuala agitz bere Aita-lenari obeditzen zeguala. Egiaz egoera artan jarri oi dira San Franziskoren Ordenan erlijiosuak zerbait agindutzen zaienian, belaunak lurrian eta kopeta makur. Anima, mundu au utzi ezgeroztik, dago Jaungoikuaren eskupian, onek nai duana artaz egin dezan. Au guziok dakiguna da, eta alere, San Franziskori anai Pedrok beste munduan daguala, obeditzen dio. Zeiñ ote da bitan miragarriena: Franziskoren agintian ikusten dan santutasuna, ala Pedroren obeditze aditu ez bezelakuan!

Anai Pedro Ordenako Bikario nagusi au, illzan milla berreun ta ogei ta lauan, baña bere Bikariotza utzi zuan ogei ta batian, orduan egin zan billera nagusirako, gogoz ta naiaz.

ORDENAKO BILLERA NAGUSIA

Milla berreun ta ogei ta batian, billera nagusi-an, anai Pedroren lekuan eseri zan berriro anai Elias, lenago kendu zutena. Artarako, Jaungoiki-

kuak agerturik, jakin zuan Aita-len Santuak, Jaungoikuaren naia zala, anai Elias izendatzia toki ura betetzeko. Jakinik bakarrik Eliasen izena kaltegarria izango zala Ordenarentzat, alere Jaungoikuaren naia zan, ta Aita-lena bezela gañerakuak, beren buru, ixil ta umill, anai Elias ezagutu zuten.

Maiatzaren ogei ta amarrian, urte ontako billeran, Santua nola ez baizan gauza, miñez egonik, billerari itzegiteko, eseri zan anai Eliasen aldamenian, eta esan zion galde zezala iñork jua nai zuan Alemaniara. Beriala anai Eliasek esan zien: «Anaiak dio, ote dan iñor Alemaniara jua nai duanik». Galdetu orduko, larogei ta amar praile eskafi ziran Alemaniara juateko. Espirako anai Cesario izendatu zuten Alemaniako Probintzial, ta eman zioten eskua aukeratzeko larogei ta amar aietatik nai zituanak. Aukeratu zituan onek guztietatik ogei ta zazpi; amabi mezakuak eta gañerakuak leguak.

Billera bukatzian, biali zituan anai Eliasek alde guztietara erlijiosuak, binaka-binaka, Jesukristoren maastira. San Antonio anaia Filipinorekin arkitzen zan orduzkoz an. Beste guztien kontua artu zuten eta Antonioz iñor etzan oroitu. Bere umiltasunian, etzuten ezagutu iñork, zenbat babilic zuan Antoniok guzirako, ta ezertakotzat etzuten artu. Orduan Antoniok itzezin zion Bolonia-ko Probintzial anaia Graziani, artuko ote zuan bere probintzian, ikasi zezan erlijioso ona izaten, ta Jesus ona biotzez maitatutzen. Gustatu zitzaion Probintzialari anai Antonioren izkuntza eder au, bai ta ere bere asmua, eta, batere etze-

kiala aren jakinduriaren berri, eraman zuan bera-
rekin. Boloniatik aldian zeukaten San Pauloko
mendian, Jaungoikua obeto serbitu nai zuten er-
lijiosuentzat, bakardadian, leku berezi bat. Anai
Antoniori araxen juateko gogua eldu zitzaion,
eta, eskaturik baimena, eman zioten.

Juan zan mendi santu artara, ta ikusi zuan
arkaitz zulo bat, gela gisan, erlijiosu batek egina,
eta utzi zioten leku ura, bere egoitza antxen egin
zezan. Zulo artan bere jakinduri ta birtute ede-
rarkin gorde zan San Antonio Paduakua. Komu-
nidadeko bildumenetara ezpada, etzan irteten. Ga-
ñerako egun guzia eta gauaren ordu asko ar-zulo
artan igarotzen zituan oraziuan eta penitentzian.
Ainbesteraño bere burua biziera onekin auldu
zuan eze, doi-doi zutik egon oi zan. O santu umi-
lla! Zein ederki ikasi zenduan, Jesukristoren ikas-
-leku ontan, zere biotza, birtute guztien artian
gaitzena danarekin, apaindutzen! Miragarrizko
umiltasuna Jesusek agertu bazigun, miragarrizko
eran iduritu zenduan Jesus!

ZENBATERAÑOKUA ZAN SAN FRANZISKOREN OBEDIENTZIA

Gure Aita-lena beti zijuan aurrera santutasu-
netik santutasunera; beñere lan onetan etzeguan
geldi; bazekian ondo aurreratu biar danian gel-
ditutzia, atzeratzia dala; beragatik, beti bere ani-
ma ernai zeguan ta beñere lo ez, birtute guzie-
tan mallarik garaiera igotzeko, nun, noiz ta no-
lako eran birtutezko egitiak ondoena egingo zi-
tuan. Utzi zuan Ordenako buru izatia anai Eli-

asen eskuetan, egite au aundiya izanik, ezere ez balitz bezela. Franzisko Ordenako zimentarria, Pedro Elizarenaren antzera, Franzisko ain aundiya izanik, aozpeztu zan anai Eliasen oñetan, onen aginduak egiteko. Geiago oraindik, eskatu zion guztien Bikariuari izendatu zeiotela guardian bat, zeñari nai zion gauza guztietan obeditu. Reatiko anai Anjel izendatu zuten Porziunkulako guardian. Aiñ zan leiala obeditzen San Franzisko, añ kontuzkua, ta ainbesteraño obeditzeko gai onetan begiratzen zion aginduari ze, denik eta gauzarik ariñenian utsegiterik txikienik gabe obeditzen zuan.

Onekin beste guztieri ematen zien ejenplu argia ikasteko, ikasi nai zuanak, nola biar dan agindua egin. Arritzen ziran San Franziskoren semiak nolako moduan beren Aita-lenak obeditzen zuan ikustian, zeñak, agindu nai izatera, egin zezakian Ordena guzian. Naiago zuan ordia obeditu, zergatikan bere santutasun erakoian ezagutzen zuan aisago dala ondo obeditzia, ondo agintzia baño. Ala esan oi zuan berak: «Nik, Jaungoikuaren eskutik artu izan dituan mesede guztien artian, aundienetako bat da, edozeini obeditzeko jaiera au. Izan bedi azkeneko nobiziua, izan bedi gizonik santu ta jakintsuena, nik beti batari, nola bestiari, obedituko diot; zergatikan nik ez diot agintzen diran gizonari begiratzen, baizik gizonaren bitartez agintzen diran Jaungoikuari».

Beñ batez galdetu zion nola ezagutu al zitezkie obeditze oso egokia, edo zertatik zitezkie au ezagutu. Erantzun zien Santuak: «Obeditze

egokia ezagutzeko, aski da begiratzia gizon ill-dako baten gorputzari. Gorputz au berez ezta mugitzen; ikusten bada mugitu dala, bestek mugitu dualako da. Arzu gorputz ill au; jarzu nai dezun bezela ta nai dezun tokitan, eta ez dizu kontrarik egingo. Mugitzen badezu, ez dizu esango: Zergatik mugitzen nazu? Eta baztertutzen badezu, ez dizu ere esango: Zertako naukazu emen? Edozein lekutan jarri zazu, edo jargoi biguñ ederrian edo arri gorriaren gañian; eztu bere arpegiak ezagungo. Apaintzen badezu pitxiz ta zintaz, arpegi bat agertuko dizu orduan, nola zarpaz ta zikinez jazten dezunian. Gorputz onen gisan biar du izan egiazko obeditzalliak. Gorputz illaz egiten da nai dana; orobat illak biar gera izan bestek nai duana guzaz egin dezan». Zer dotrina ederra au! Zenbat erakusten duan emen bakarrik gure Aita-lenak! Nola genezake irakuri bizitz au, geon buruaz lotsatu gabe? Ikasi dezagun agindua egiten umill ta ixill, eta denbora gutxian birtutian bide asko egingo degu.

OGEI TA BOSTGARREN BURUA

SAN FRANZISKOREN IRUGARREN ORDENA

Santu loriaz betetako onek jarri zuan lenbiziko Ordena gizonentzat bakarrik. Au da lenbiziko Ordena, eta deitzen zaio lenbizikua, onen ondoren beste bi jarri zitualako. Bigarren Ordena jarri zuan, beren garbitasuna obeto gordetzeko igesleku billa zebiltzan dontzella garbiñentzat, utzirik betiko agur batekin mundua, bizitzen dirala lau ormen erdiyan, munduan egonik mundukuak ezpalira bezela, zeruko beren betiko patriari begira. Bigarren Ordena jartzeko, lenago esan degun bezela, San Franzisko baliatu zan Asisko Klara dontzella garbiaz. Bigarren Ordena oni deitu izan zaio «andre edo dama pobrien Ordena», eta orain deitzen diogu Ama andre Santa Klararen Ordena.

San Franziskoren lenbiziko Ordenak denbora gutxian frutu ugariak eman zituan, Italian, Alemanian, Sirian, Inglatierran, Prantzian eta Españan; guztietan prailien eliz-etxiak ugaldtu ziran, eta San Franziskoren semien izerdiak askori antimako osasun ta pakia ematen zien lur orietan guztietan. Ejiton ta Marrueketan, berriz, San Franziskoren semien odolak bustirik lur aiek, asko sarrazeno, Zankarron Maomako igarle pal-

suaren ikasliak, fede egiazkora erakartzen zituzten. Bigarren Ordena orobat beti zijuan geituaz, eta Ordenako moja eliz-etxiak, Europaren egutera aldian, asko kontatzen ziran. Bi Ordena santuetan Jaungoikuaren laguntasuna zan aifñ miragarria, pentsatze utsak aifñ denbora gutxian ainbesteraño ugaritu zuala, bada artian amabi urte igaro ziran lenbiziko Ordena jarri zanetik, irugarrena asi bitarte, edozein gelditzen da arrituta. Ordena oezaz esan diteke Jaungoiko guzi-aldunaren egite aundia dala.

Milla berreun ta ogei ta batian, eman zion San Franziskok asiera irugarren Ordenari era onetan. Animak salbatzeko zeukan desiuak egiten zion gañez Franziskoren biotzari. Ordenako burutza utzi zuanian Anai Eliasen kontura, irten zan Asis inguruko erri txikietara animai Jaungoikuaren itza azaldutzero. Lenbizi predikatu zuan Canariako errian. Franziskoren itz baikoitza zan ezpata zorrotz baten antzera, sartutzen zana aditzen zeguanaren biotzaren erdiraño. Txit asko konbertitzen ziran, eta aien artian baziran asko ezkonduak, matrimonioko atsegin bidezkuak utzirik, Jaungoikua are obeto serbitziagatik ta beren animak salbatu, eskatu ziotenak Ordenako jantzi santua. Asko ziran onelakuak, baño San Franzisko prestuak etzituan erriak ta etxiak ustu nai, ta ona zergatik agindu zien emango ziela bizi modu bat izkiribuz, zeñaren araura bizita, salbatu zitezkie munduko arazuen artian egonik ere. Gauza bera gerta zitzaion Toscana inguruan.

Florentziarunz juatian, ango jendiak ain beruak

arkitu zituan eze, San Franzisko aruntza juaterako, emakume batzuek asi zuten etxe berri bat, bakardadian bezela elkarrekin bizitzeko asmuari. Gizonak berriz beste aldetik bero-berorik eskatzen zioten jantzi santua. Bildu zituan Santuak asmo artan zeuden gizon ta andriak, ta esan zien: laster emango ziela erregla bat, eta, an agintzen zitzaiena eginaz, biziko zirala munduaren erdiyan erlijioitsu batzuek bezela. Bitartian jarri zituan bi billera, kongregazio, gizasemientzat bat, emakumientzat bestia. Zuanak zuana botatzen zuan pilla batera. Onela guzien ondasunak bateratuta, bizi ziran Elizaren lenbiziko kristauen gisan. Egin zuten erritik kanpora eritegi bat; an egiten ziztuzten asko karidadezko obra on. Gero San Antonio, erri artako Arzobispuak, aldatu zituan errira bi kongregazio aiek, San Martingo Elizaren ondora. Ok gorde zuten gero irugarren Ordenako erregla.

ANAIA LUKESIO

Andik Toscana bidian, Poggi-Bonzi inguruan, arkitu zuan Lukesio, gizon bere ezagun bat, lenago sal-erosietan leporaño sartua ta diru-zale itxuba, ta gero San Franziskoren itz-aldiyak osoro konbertitu zutena. Txit jaiera aundia zuan orain Jaungoikozko gauzetarako. Lukesio zan ezkondua, eta bizi zan Bona-Dona bere emaztiarekin. Ordukoz itzegina zeguan Lukesio San Franziskorekin Jaungoikua are obeto serbitzeko bizi modu baten gañ; eta orain, elkar topo egitian, berri zion gogorazio au. Erantzun zion Santuak: «Persona ezkonduak txit egoki Jaungoikua ser-

bitu dezaten, oraindik denbora gutxi dala, goguan artu nuan irugarren Ordena bat astia; eta uste det antxen sartzia egingo dezula ondoena». Ondo pisaturik gauzak, Lukesio ta Bona-Donak erabaki zuten irugarren Ordena artan sartutzia, ametitzen bazituan Franziskok. Orduan aginduzien San Franziskok, zeramaten jantziaren egituran jantzi zezatela auts-koloreko soñ bat, ta gerrian sokatxo bat. Gañera eman zizkien, orduan itzez bakarrik, bizitzeko erregla batzuek. Emendik izan zuan asiera irugarren Ordenak.

Lukesio eta bere emazte Bona-Dona bizi ziran San Franziskoren esanak eginaz aingeruak bezela. Lukesio batez ere denbora laburrian txit asko birtutian aurreratu zan. Guziez gañ biartsuekin karidade txit aundia zuan. Egun batian etxian ziran ogi guztiak eman zituan, eta, ikusirik oraindik beste pobre asko premian, berriro eskatuzion emazteari ogia pobrientzat. Purrustara eginzion emaztiak esanaz: «Gizona, nola nai dezu eztaguan lekutik ematia?» «Zuaz ogia egoten dan tokira, eta ekarri dizkidatzu or daudenak» esanzion senarrak. Juan zan emaztia agindua egitegatik, eta, len ogi bat bakarra utzi etzuan lekuan, arkitu zituan ogi erre-berri ederrak. Mirari ark idiki ziozkan geiago Bona-Donari begiak; geroztik senar-emaztiak zeñek baño zeñek pobre geiagori obeto lagundu ibilli oi ziran. Bizitu ziran Santuak bezela, eta eriotza ere izan zuten santuena. Biak ill ziran egun batian, milla berreun ta berrogei ta batian. Bto. Lukesioren pesta gure Ordenan egiten da Apirillaren ogei ta zortzian, Aita Santu Pio seigarrenaren aginduz.

Urtia bete baño len izkiribitu zuan San Franziskok irugarren Ordenako erregla; eta Aita Santu Honorio irugarrenak urte artan bertan baimendu zuan. Gero Nikolas laugarrenak sendotu zuan, milla berreun ta larogei ta bederatzian.

Irugarren Ordena oni deitzen zaio «Penitentiako Ordena». Au da beraz gure Aita-len Santuak jarri zituan Ordenetan irugarrena, irugarren jarria dalako. Beste asko Ordenetan, gero, onen idurria, izendatu dituzte irugarren Ordenak, baña guzien aurrenekua ta ispillua izan da San Franziskorena; itz batian esateko, beste guzien ama.

Begien itxi-idikian, irugarren Ordena au, jarri bezain laster, zabaldu zan Italian, Pranzian eta beste toki askotan, batez ere Españan. Au da munduan bizi diranak beren animak salbatzeko bitarteko ezin ta obia. Aita San Franziskok emandako irugarren Ordenako erregla, oraingo kristau fede-epeleko askorentzat latz eta pisugia dalako, fede bizigua dutenak eta lengo zarrari jarraitu naiago diotenak alaitzen ditularik lenari jarraitzera, ariñdu ta biguñdu du orañ berriro gure Aita Santu Leon amairugarrenak, igaro dan urtian. (*Leo XIII. Bula «Misericors Dei Filius» 30 maji 1883*).

FRANZISKO BERRIRO SAIATZEN DA ANIMAK SALBATZEKO LANIAN

Irugarren Ordenako lanak bukatzian, berriro ekin zion predikatziari Toscana inguruan, eta eskañi zioten etxe bat baso baten biotzian. Nola toki ura zan txit egokia oraziorako, pozik artu

zuan eskañi ura. Toki arri deitzen zioten Columbario, eta an egin zuten praile-eliz-etxia. Au izandu zan txit oroimengarrikua Ordenan. Ez bakarrik Santuak jarria zalako, baita ere asko erlijioso santu an bizitu ziralako. An bizi izandu zan San Antonio Paduakua; eta, Santu aundi onezaz gañera, San Bernardino Senakua, B. Felipe Castillakua, San Juan Capristano, B. Guido Salvenakua, zeñari, nobizio zeguala, Jesukristok gurutzetik itzezin zion, beraren gurutzeari jarraitzera alaitzeko, itz gozuakin. Bizitzan bezela, ill onduren mirari aundiyak egin zituan. Oar bedi ere irakurlia, etxe santu au Ama Birjina Anunziaziokuari eskañia zala; eta orain izendatu dituztan an bizitu ziran Santu aiek guztiak, Mariarenganako jaiera txit aundia zutela. Egiaz santutzeko, Maria bezelako bitartekorik ezta.

Andik gure Santua igaro zan Santa Maria Aingeruenera; baña oña aldatu baño len, Florentzian nola ari ziran Santa Klararen Ordenako etxe berri bat egiten, eskatu zioten Santuari San Damiano moja bat, ango mojen buru izan zedin. Itz egin zuan Kardinal Jaun Ordenako anparatzailliarekin, eta izendatu zuten Santa Ines, Santa Klararen aizpa munduan eta erlijuan alaba, Florentziako Moncelko mojen etxe santuko buru. Duda gabe senti zezakian, biotza sentikor dan bezela berez, zerbait bere aizparengandik bereizte artan. Baña birtute senduarentzat, nola zan Santa Inesena, ez dira atsekabe onelako etxe-aldatzia. Zerbait are geiago sendotutziagatik bere aizpari izkiribitu bazion, au bere umiltasunaren frutua izan zan.

OGEI TA SEIGARREN BURUA

PORZIUNKULAKO BARKAMENAREN ASIERA

Eztu ezagutzen gogo erabakiak eragozpenik. Denbora berian gogo erabakiak sendo ditu gauzak artutzen, bein erabakia daki betetzen, eta ariketa bete arte lanari eztiio barkatzen. Au ikusi zen San Franziskoren egite guztietan. Onek animak eskatzen zituan zerura eramateko. Izanik gizontxo bat ezer gabia, nola eramateko zerura eskatzen dituzu animak? galde zitzaikion Franziskori. Baña ez: Aita-lenari etzaio artu biar kon-turik. Begira ezpada ongi, irugarren Ordena jartzian, zer zan bere asmua. Mundu guzia nai zuan salbatu. Prestatu ziran artarako bakardadiak; baña da ezin ditekian gauza eta eragozpen berezkua guziyak bakardadian bizitzia; eta beste aldetik bakardadian ezin bizi zitezkiegak ere, nai zuten salbatu. Bazekian zerurako eginak ginala denak, eta aiñ zan benazkua aren karidadia ze, gizon guziak nai zituan zorionekuak zeruan ikusi. Au izandu zan bide, irugarren Ordena jartze-ko; da esatia, egin nai izan zuala, bidia zerbaít zelaitzia, munduko arazuen artian bizi biarra zutenai. Egin zuan au. Baña bidia zelaituagatik, biar zan bidia oraindik bigundu ta gozatu. Elorri,

arantzak bide zelaietan ere zulatzen dute, kentzen ezpadira, eta ez gutxi. Onek ematen zion aditzera, gezona egonik beti lurrerunz makurtua, aisa erortzen dala pekatuan, eta nola pekatuak berekin daraman, bere frutu bezela, zor aundi bat, gogoratu zitzaion Santuari, zor ura pagatzeko modua egitia gizonari, izango zala iñoiz gizonak goguan erabili duan karidaderik aundiena au egitia. Egin zuan au ere. Baña nola? Orain azalduko dan bezela.

Milla berreun ta ogei ta batian, Urrilleko gau batez, oi bezela jarri zan gure Aita-lena oraziuau. Aingeru bat jarri zitzaion aldamenian, eta nola Santua ari zan Jaungoikuari pekatariakgatik errezatzen, orazio au izanik beti Jesus maitiaren gogokua, Aingeru Jesusen mandatarari leialak esan zion: «Zuaz Franzisko, elizara; an itxoten dizute Jesukristok eta Maria bere amak, zeruko mandatariz, aingeruz, inguratuak». Nork esan Franziskoren biotzeko sentimentuak albiste eder onen guzizkua artzian? Gozotasun ta bildur santuaren erdian, sartu zan Porziunkulako elizan. Zeru bat zirudin orduan eliza ark; ta egiaz ala zan, zeren an arkitzen ziran zeruko Errege-Erreginak. Jesukristo eta Mariaren aurrian ikusi zanian Franzisko, errespetuaren aundiz aozpeztu zan lurrian. Orduan Jesukristo gure Jaunak esan zion: «Franzisko, animen salbaziorako agertzen didazun naitasunak esan arazten dit, eska idazula oen alde, mesede bat, baldin nere izenaren loriarako bada».

Ainbeste miragarrizko argitasunen erdian ona zer eskatu zion Franziskok Jesusi: «Gure Aita txit santua, pekatari errukarri bat banaiz ere, in-

dazu arren, eliz au bisitatzen duten gizonak, beren pekatuak konfesore baten oñian ongi aitortu onduan, izan dezaten beren pekatu guztien barkamen osua. Au iristeko jartzen zaitut bitarteko Birjiña Maria pekatarien Ama bezela». Itz au aditzian etzan Maria geldi egon; baizikan bere semiari egin zion presente Franziskoren eskaria, are geiago Berak sendoturik. Erantzun zion Jesukristok: «Franzisko, aundiya da eskatzen didazun mesedia; baña oraindik aundiaguak artzeko zaudete. Au ematen dizut; alaz guztiz ere nai nuke nere Bikariuarengana juatia, zeñari eman nion eskua lotu ta askatzekua; berari beraz eskatu biar diozu barkamen ori». San Franziskoren lagunak ere aditu zituzten itz oek; ikusi zuten ere Eliza betetzen zuala argitasun ikusi ez bezelako batek eta Aingeru taldiak gañera; baña arkitzen ziran bildur santu batian, eta etziran trebetu alderatzia. Deitu zien Santuak goizian bere semiai, eta esan zien, gabaz berak ikusi zutenaz gañera, zer igaro zan; baña eragotzi zien iñori esatia zerbait.

SAN FRANZISKO AITA SANTU HONORIO IRUGARRENAREN AURRIAN

Egun aietan Aita Santu Honorio irugarrena Perusan arkitzen zan, eta, anai Maseo bide-lagun arturik Franziskok, jo zuten Perusa. Beñ Aita Santuaren aurrian, itzezin zion onela gure Santuak: «Aita txit santua, badire urte batzuek nik eliza txiki bat antolatu nuala berorren lurrian: arren bada oraiñ eman biar dit barkamen bat elizatxo artarako; baña ezeren kargarik eztuana ta

eskaintzarik egin gabe irebazten dana.» Erantzun zion Aita Santuak: «Orixen da gauza bat ezin ditekiana, zeren da arrazoi, barkamen bat irebazi nai duanak, egin dezala zerbait obra on, batez ere karidadezkuak. Eta zenbat urteko nai zenduke barkamen ori?» galdetu zion Aita Santuak. «Aita txit santua, nik ez ditut urtiak eskatzen, baizik animak.» «Nola ori?» dio Aita Santuak. «Nik nai nukiana da – dio gure Aita-lenak –, berorren santutasunak ala nai izatera, Santa Maria Aingeruenen edo Porziunkulako elizan sartutzen diran guziak, beren pekatuak konfesiuan aitorturik biar bezela ta lenik Apaizak asolbitu, izan dezatela barkazio osua, bai mundu onetarako, nola besterako, bataiatuak izan ziran ordutik eliza artan sartzen diran ordurañokuena.» Erantzun zion Aita Santuak: «Franzisko, gauza aundiya eskatzen didazu. Eztu orrelako barkamenik eman oi Erromak.» «Aita txit Santua – dio Franziskok berri –, nik nerez eztiot au eskatzen; Jesukristok biali nau; bere aginduz natorkio.» Au aditzian iru aldiz esan zuan Aita Santuak: «Nai det izan dezazun, nai det izan dezazun, nai det izan dezazun.»

LOGRATUTZEN DU BARKAMEN OSUA ERROMAN

An arkitzen ziran Kardinalak, esan zioten Aita Santuari, barkamen ain aundiya emanarekin ondutzen zirala Jerusalemgo eta Apostolu santuen obiko barkamenak. Erantzun zien Aita Santuak: «Nik eman diot barkamena, eta deritzot egoki da-

la beñ emana, oster a ez kentzia. Bakarrik zerbait egin dezakeguna da mugatzia.»

Deiturik Franziskori esan zion: «Begira, barkamena ematen dizugu, ta urte guzietarako, baña izan biar du urtian beñ egun oso batian, au da: arratsalde batetik beste arratsaldera bitarteko gaua kontatzen dala.» Au aditu zuan bezain laster burua beraturik bazijuan Franzisko irtetera. Orduan Aita Santuak egin zion oiur: «Nora zuaz gizontxua? Zer argi-bide daramatzu barkamen orren?» Erantzun zion umill Franziskok: «Aita txit Santua, aski da berorren itza. Jaungoikuaren egite bat bada au, berak adiaziko du. Jesukristo, bere Ama Santa, eta aingeruak izan ditezela Izkiribau, paper ta testigu; ez tet beste argi-biderik nai.» Aundiya zalako San Franziskoren umiltasuna, artatik sortzen zan bere biotzian konfiantza guzizkua Jaungoikuaren alderako, ta guziez gañ, itxoromen ezin ta aundiagua beraren probidentzian.

Irten zan jauregitik, eta, bere bide-lagunarekin elkaturik, ekin zioten poz aundiarekin Asisko bidari. Colladoko ibarra dago bid-erdian bezela Perusa ta Asis bitarte. Desneke ariñ bat artzeko, ibar artan gelditu ziran eritegi batian. Zuaizti batian sartu zan Santua bakardadian bere biotzeko esker onezko betetasuna ustutzer a Jaungoikuaren aurrian. Indar guziarekin bada eman ziozkan esker onak ainbeste mesedegatik Jaungoikuari. An agertu zion Jaungoikuak, Aita Santuak baimendu zuan barkamena, zeruak ontzat eman zuala. Itzuli zan bere lagun anai Maseorengana esanaz: «Egiaz, anai Maseo, Aita Santuak eman ditan barkamena, zeruak ontzat dauka.»

JESUKRISTOK ADIARAZTEN DIO NOIZ IRE- BAZI BIAR DAN BARKAMEN AU

Zein egunetan zitekian irebazi barkazio osua, etziokaten erabaki Santuari ez Jesukristok eta ez Aita Santuak; Jaungoikuaren eskura utzirik guzia, bi urtian itxoron zuan San Franziskok. Kontaira au bi puska ez egitiagatik, nai det emen jarri guzia, bada deritzot egokiago dala. Milla bereun ta ogei ta iruan, gau batez, oi bezela, San Franzisko arkitzen zan oraziuan bere gelan. Ager-tu zitzaion aingeru beltz-illuna Aingeru garbi-argia bazen itxuran, Santua zirikatzero bere gezuriezko losintxakin. Esaten zion Franziskori: «Zu izanik Elizarentzat ainbeste balio dezuna, deritzat ez dezula ondo egiten desneke geiago zere gorputz eroriari ez ematiarekin. Egin zuan Jaungoikuak eguna lan egiteko, eta gaua desnekatzeko, eta ez orrela orrenbesteraño ordu luzietan igarotzeko, desegiten zelarik guzia, gero lanerako kemenik gabe geldituz. Illarazte, orazio, barur ta gañerakuak onak dira, baño beren neurrian. Zure osasunari ere biar diozu begiratu. Lua berriz da gauza biarra edozein gizonentzat, batez ere zu bezela gaztiak diranentzat. Zere buruari biartua zaude karidade ta begiramen aundia idukitzera. Gogorkiro badakizu nork beren gorputza zatitu biar duten? Griñak ezi gabe dauzkatena. Zuk ondo eziak dauzkatzu, beragatik eztira zuretzat egiten diranak oriek.» Aguro ezagutu zuan Santuak aingeru illuna zebilela an. Jeiki zan eta dio bere baitan: «Zer? Nik nere griñak ezita dauzkatela ondo? Orain ikusiko diagu» esanta, irten zan gelatik eta lasterka jua zan basora. Ilbeltza zan,

eta, negu gogorraren biotzian bazeguan ere, eran-tzi zuan gañeko jantzia, eta azpiko oial utsian, larru gorrian egin kontu, eman zion batalla etsa-isari, botarik bere burua etsaia garaitzeko, gorpu-tza are obeto ezirik, elorri, arantz ta sasi arte-ra. An amilka, guzia odoletan esaten zuan: «Mi-lla bider obe da neretzat Jesukristorekin batera zerbait miñ eraman, ezen ez etsai losintxariaren esana egin.» Tximista bezela aldegin zuan etsaiak, eta, beriala, argitasun eder batek inguratu zuan, Santua zeguan sasia. Argi artara ikusi zuan sasi odolduak eman zituala arrosa zuri ta gorriak. Une berian, nola etzekiala, bere burua arkitu zuan zuri ederrez jantzia; soñeko eder ura jantzi zio-ten Aingeruak. Bat batetan ikusten ditu aingeru taldiak, eta esaten diote Franziskori: «Franzisko, mugi aguro; Jesukristok eta bere Ama Santak itxo-ten dizute elizan.»

Artu zituan Santuak eskuan amabi arrosa zu-riak eta beste amabi gorriak, eta Aingeru-jantzi artan juan zan elizara. Bidia iduritu zitzaion txit biguñ ta gozua. Eliza berriz zeru bat zan. Auspez-tu zan Jesus ta Mariaren aurrian; eta gero, Ma-ria bitarteko arturik, eskari au egin zion Jesukris-tori: «Nere Aita guztiz Santua, zeru-lurren Jaun eta Jabia, gizonen salbatzallia: indazu mesede izendatziaz zein egunetan nai dezun irebaztia guk barkamena eliza onetan, zeña agindu ziazun zure ontasun ta urriki aundian.» Erantzun zion orduan Jesukristok: «Nai det barkazioko eguna izan dedin nere Apostolua, Herodesen aginduz lotua, bere lotura aietatik askatu zan egunaren arratsaldetik, urrengo arrats arterañoeko eguna

edo denbora.» «Jauna, eta, nola au adiaziko diet gizonai?» «Ori nere kontura utzi ezazu. Zuaz orain nere Bikariuarengana aurrena; nik aren biotza mugituko det. Ar itzatzu lagun batzuek zerrorekin, eta nik agindu dizutala sinistarazteko, artu itzatzu ere arrosa zuri eta gorri orietatik, barkamenaren sendogarri.» Orduan asi ziran Aingeruak kantuz, zoragarritzko moduan, Jaungoikua alabatzen *Te Deum laudamus*'ekin. Guzia desagertu zan, eta artu zuan San Franziskok egunoroko jantzia.

Eguna argitzian, arturik bide-lagun Quintalbakoko anai Bernardo, Reatiko anai Angelo ta Carenoko anai Pedro, zeña artian bizi zan, Aita Chalippekek dionez. (Anai Pedroren lekuan anai Leon jartzen du Aita Cornejok, ura ordukoz itzatzat jorik.)

Artu zituan ere iru arrosa zuri eta beste iru gorri, Jaungoiko iru Personen izenian; ala prestatuta, pozak jarri ziran Erromako bidian. Zuzen juan ziran Aita Santuaren aurrera, eta gure Aita-lenak beriala kontatu zion Porziunkulako elizan gertatu zan guzia, eta, bere esanaren indargarri bezela, eskañi ziozkan arrosa zuri ta gorriak. Urte sa-soi artan arriturik Aita Santua nola izan zitezkeian ain arrosa eder ta usai gozokuak, sinistatu zuan mirariz zituala aiek Franziskok, ta esan zion: «Sinisten dizut diozuna; baña au da egin-kizun bat, Kardinalai esan biar dietena.» Bitartian agindu zien bere serbitzariei Aita Santuak, Franzisko ta bere laguneren kontua iduki zezatela.

Bigaramunian bildu ziran Kardinal jaunak Aita

Santuarekin. Guztien aurrian kristau fededun guztien Aitak agindu zion Franziskori, lenago bakarrarian agindu ziona, esan zezala billera beneragarri ark aditzeko moduan, zer zan Jaungoikuaren gogua. Umiltasun aundi batekin esan zien Franziskok: «Jaungoikuaren borondatia da Santa Maria Aingeruen Elizan sartzen diranak, ta konfesoriarri damutasunarekin biar bezela aitortutzen diozkatena beren pekatuak, Abuztuaren lenbiziko eguneko bezperetatik, urrengo eguneko bezperetara, irebazi dezatela beren pekatuen barkamen osua, bataiatu ziranetik arterañoeko guziena.» Itzegin zan Aita Santua Kardinalakin gai onen gañian. Denak Santuaren umiltasunak eta arrosa aien edertasunak zeuzkan arriturik. Erabaki zuten azkenik baimentzia lenago agindurik zeukaten barkamena.

ZAZPI OBISPOK AZALTZEN DIOTE MUNDUARI PORZIUNKULAKO BARKAMEN OSUA

Eman zien adia Aita Santuak Asisko Obispu jaunari eta inguru aietako beste seiri, arki zitezela Asisen Abuztuaren lenbiziko egunian, mundu guziari adiarazteko egun zorioneko ura.

Eldu zan egun ura, eta, eliza txikiegia izanik ainbeste jende bildu ziranentzat, zelaian toki egoiki bat jarri zan Obispo jaun ta gañerako aundizkientzat. Jo zuan orduak eta, Asisko Obispo jaunaren aginduz, igo zan San Franzisko artarako antolatu zuten leku garai batera. Itz egin zan txit ederki; bukatu zuan bere itz-aldia onela:

«Jaun Jaungoiko Aita guzi-alduanak eta gure Aita Santu Honoriok, Beraren izenian Elizako buru, nagusi dan bezela, eman dirate barkamen osus, Santa Maria Aingeruen Porziunkulako elizan sartzen diranentzat, damuz artarako daguan apaizari konfesatuz bere pekatuak, Abuztuaren lenbiziko egunaren arratsaldetik urrengo egunaren arratseraño gaua egun, urtoro, betiko.» Azken itz au etzitzaien ondo iduritu Obispu aeri. Ona zergatik esan zioten Franziskori: «Franzisko, gu gauden emen Aita Santuaren naia egiteko; *betiko* ori eztegu uste Aita Santuaren gogokua dala. Izango da, beraz, guk egin biar deguna, esatia jendiari barkamen au amar urteko dala. Gure Aita Cornejok dionez erantzun zien San Franziskok Obispo jaun aeri: Aita Santu ta Jesukristoren naia zala barkamen ura *betiko* izatia. Obispo jaun aiek etziokaten guzia sinistatu San Franziskori. Igo zan Asisko Obispua itz-tokira, gauza bere aurretik igo zanak baño obeto azaltzeko asmuan. Asi ere zan barkamena azaltzen, eta, nai izan zuanian esan *amar* urteko zala, berak nai etzuala, esan zuan *betiko* zala. Arren ondoren beste ainbeste gertatu zan gañerako sei obispuekin; guztiyak beren naiaren kontra *betiko* zala esan zuten, amar urteko esan nairik. Andik argiro ezagutu zuten Jaungoikuaren gogua zala barkamen ura *betikua* izatia. Barkamen au adiarazteko Asisen izandu ziran zazpi Obispuak, beste asko aundizki ta erlijiosok utzi zuten Asisko prailien eliz-etxian gertaera onen oroimena.

Predikatzen ari zan denboran, ikusi zuten San Franziskoren eskuan txartel bat izkiribitua: «Nik

nai zaituztet denak zerura biali. Onetarako nai dizutet aditzera eman barkamen oso au, zuen pekatu ta oriek merezi duten penarena. Au da Aita Zerukuak eta lurrian bere Bikariuak emana. Beraz, zuek, gaur onara etorri zeratenak, eta zuen pekatuak umill aitortu dituzutenak konfesiuan, barkamen au guzia irebazten dezute; eta aurrerakuan onelaxen urtero izango da. Nai nuan nik au izan zedin zortzi egunian, baña bakarrik egun baterako iritxi det.»

Au da, bada, Porziunkulako barkaziuaren kontaira txit labur jarria. Modu miragarrian zabaldu zan mundu guztian. Gero Aita Santuak, lenago Porziunkulako elizan bakarrik irebazten zana, zabaldu zuten San Franziskoren Ordenako eliza guztietara. Munduari barkazio au adiarazteko, gerta izan dira asko mirari; baña au ezta lekua gai ontako mirariak jartzeko, zeren luzatuko nuke geiegi. Bakarrik itz bi nai diozkat esan irakurliari, etsaiaren tentaziuak garaitzeko Santuak bere gorputza bota zuan sasi artaz.

Ikusi degunaz, elorri, arantza ark, eman zituan arrosa zuri ta gorriak. Oraindik ere ikusten da elorri ura, arrosa biurtua. Orriak ditu txikiak arrosa ark, eta gañera orri bakoitzian dauzka odol tantuak, batzuetan tanto baten arrastua, bestietan bi edo irurena. Arrosa au beti dago berde ta eder ainbeste urteren mukan. Onen menturik aldatzen bada beste leku batera, itsasten da, baña ostuak ditu garbiak odol-arrasto gabiak; au galitzen du aldatu ezgeroz. Gañera Franziskoren gorputza zulatu zutenaz geroz, arrosa onek ez du arantzarik; galdu zituan arantzak eta gorde, da-

muz bezela, San Franziskoren gorputza zulatu zutelakoz. Dena da miragarria gure Santua baitan, eta guziez gañ Jaungoikua bere Santuetan.

Esan biar det, kontaira au bukatzeko osoki, zazpi obispuak Porziunkulako, au da, Santa Maria Aingeruen eliza konsagratu zutela, eta San Damiangua ere bai. Au eginta, aldegin zuan bakoi-tzak bere etxera.

OGEI TA ZAZPIGARREN BURUA

EMATEN DU ITZA BERE BIZI GUZTIKO GOGORATZE, ITZ TA EGITIAK EGITEKO BETI JAUNGOIKUA SERBITZEKO ETA BERE GLORIARIK AUNDIENERAKO

Milla berreun ta ogei ta batian, Porziunkulako barkamena alkantzatu zuanian Aita Santuagandik Perusan, itzuli zan Santa Maria Aingeruenera. Bakardadian nola naiago zuan bizi beste edozein tokitan baño, aukeratu zuan, mendian zeukaten etxian, gelatxo bat, lekurik bakarrenian zeguana. An egunak, an gauak dituan orduak igarotzen zituan oraziuan. Bere biotzeko amorio sutuba beti zeguan antsiatz, Jesus maitiarenganako amoriuare geiago gartu nairik. Jesusen pasio ta eriotza zeuzkan galdu gabe begien aurrian, eta Maisu Dibinuaren atsekabe ta min guzizkuak; aren neke ta izerdiaz gogoraturik, Franziskoren begiak galtzen zuten beren edertasun berezkua, negarrak errerik. Ainbesteraño eragiten zion negar Jesusen biotzeko amorio aundiak! Kejatzen zan bere buruaz, ain gutxi Jesus maitatzen zuelako, eta asko aldiz, irtenik mendiko bakardade artan gelatik kanpora, ematen zion agitz negarrari, eta aren biotzeko zotin eta antsiak mendiko arkaitzak erantzuten zien batak bestiari.

Gau batez bazebillen amorioz eroturik bezela, ta bere buruaz lotsaturik, Jesus gutxi maitatzen zualako. Buruan zebilkian, Jesusek, bere odolaz gizona erostiarekin, zein mesede aundia egin zion. Onenbesterañoko amoriua Jaungoikuak dio gizonari agertu! Alere, gizonak ain gaizki Jaungoikuaren amoriuari erantzutiak, penaren aundiz biotza lertutzen zion, eta egiten zuan negar ta negar gogotik. «O Jesus! – esaten zuan –; Zer nezaket egin, zure gogokua dan gauzarik? Baña nik, lurreko ar bat izanik, zer nezaket egin? Eskaiñi nintzaitzun naizan guztia, baña onetan ere zuria eztanik ez dizut eman. O Jesus! Zer nezaket egin, zure gogokua dan gauzarik? Zor aundia dizut Zuri, eta ez dakit zor au nola pagatu! Esan zadazu, Jauna, nola agertu nintzaiokian esker onekua.» Jaungoiko urrikaltsua oroitu zan bere serbitzariaren nekiaz. Agertu zitzaion Jesus eta esan zion: «Franzisko, nere gogua egiteko ara zer egin biar dezun: bizi zeran denbora guztian zure gogoraziuak, zure itzak eta zure egite guziak nere serbizioarako eta nere onra ta gloriarako izan ditezela.» Franziskoren biotz penatua poztu zan guziz mesede onekin. Egun-sentian jua zan anai Angelo Guardianarengana eta esan zion umill: «Anai Anjel, bart agertu zait Jauna, eta mesede txit aundi bat egin dit. Bizi naizan arte guztian, nere gogoratze, itz eta obrak egin ditzatala Bera serbitu, onratu eta gloriiaz betetzeko. Orain, bada, Jaungoikuak egin ditan mesede aundiari obeto erantzuteko, eta bere gogo santua obeto betetzeko, nai nuke zure eskuetan itz-emate, boto bat egin. Au da: nai diot nere Jesus maitiari agin-

du, itz-emanik, nere gogoratze, itz eta egitiak izango dirala, bizi naizan artian, Bera serbitu eta onratzeko.» Izanik txit aditua anai Anjel animako gauzetan, etzan atrebitu esaten baietz, eta deitu zituan beste sei erlijioso birtute aundikuak, eta, guztien iritzia ikusi-eta, seiren aurrian eta bere Guardianaren eskuetan, egin zuan itz-emate au: «Nik ematen diot itza Jaungoiko guzi-al-duanari, bere graziaren laguntzarekin, bizi naizan artian, nere gogoratze, nere itz eta nere egite guztiak izan ditezela Jaungoikuaren serbizioarako, eta egingo dituztala bere gloriarik aundienerako.» Guztientzat izan zan miresteke gaia San Franziskoren eskaintza au. Ordu ura ezgeroz, lenaz gafiñera, ikusten zan Santua beti Jaungoikuagan sortua. Etzirudian mundu ontakua, baizik Aingeru bat gizonaren antzarekin. Bere begiak negarriz hustirik, biotza amorioz beterik, eta negar eginagatik, bere arpegian, begian ezpada, etzan ezagutzen negar egiten zuanik. Bere seme-anaiei egiten zizten guziz itz-aldi biotz-mugigarriak Jesukristoren pasio ta eriotzaren gafiñ.

GARAITZEN DU ETSAIA

Inpernuko etsaiak egiten zion gerra ikaragarria. San Franzisko zeguan mendiko bakardade artan, oiuzugarri eta diadar ta irrintzi illunak egiten zituan gabaz diabruak. Ala, ezin bestian, etsai gaiztuak irrintzika adiarazten zuan Santuari zion gorrotua. Santuaren biotz amorosua geiena somintzen zuana zan, ikusi biarrak diabruak artzen zituan itxura txar asko. Bein batian anai

Gilek arkitu zuan santua txit antsiatuba, eta esan zion anai Gili: «A anai Gil, nere semia! Zein zitala dan diabrua! Uzten dio Jaungoikuak ni atsekabetzen, agerturik itxura gaiztuan. Egiaz esaten dizut, aiñ itxura bildurgarriak artzen dituala, eta aiñ dala ikaragarri ta itxusia bera ikustia eze, ezta gizonik Pater noster bat esateko denboran begira egon leiokionik, ikaraz ta bildurraz gelditu gabe ill-otzik; nun-da eztion Jaungoikuak laguntzen, niri laguntzen diran bezela.»

Etsai inpernuko au garaitzeko, Santuaren arma indartsuak ziran gurutziazen señaia, Jesusen izena esan eta Aita Guria, orazioetan onena dan bezela. Arma oekin desegiten zituan diabruaren artemañak.

SAN FRANZISKOREN URRIKALMENTUA

Gero ta maitiago egiten zitzaion bakardadia gure Aita-len maitagarriari. Iru aldiz utzi zuan denbora puska batian bakardade ura, jeisteko praille-etxiaren atondora. Bein amona bat, bi erlijiosoren ama, bere biartasun aundi edo bizi-biarrak eraman zuan atondo artara. Bakardadian bazeguan ere, guztiaren berri bazekian. Amona artaz urrikaldurik jeitxi zan, eta esan zion Guardianari lagun zeiola, arren, amona arri, bere ezin eginian. Erantzun zion ark: etzeukala ezertxo ere emateko. O zein pobre bizi ziran! Oroitu zan norbait koruan arkitzen zala Eskritura Sagraduko liburu bat. Santuaren naia izan zan uraxen ematia, arren baliuarekin amonatxo ura balia ze-

din. Konturatu biar da irakurlia, denbora artan gisa artako liburuak asko balio zutela.

Beste bein pobre bat arkitzen zalako atonduan zerbait estalgarriren eske, bere buru erdi larru utsa estaltzeko, jeichi zan ere Franzisko menditik. Abiatu zan Santua zerbait arropa billatzen cte zuan ari emateko, eta etzuan arkitu. Orduan erantzi zuan berak soñian zeukana, eta asi zan alde erantzian zituan arabakiak askatzen. Ikusi zuanian Guardianuak, zer lanetan ari zan, eragotzi zion biar-gai ura. Altxatu zan Franzisko obedituaz, eta besarkatu zuan pobre ura, esana: «Ariketa zerbait onentzat ekarri arte, eztiot utziko.» Orduan nundik edo andik sortu zuten zerbait estalgarri. Zenbat maitatzen zituan pobriak!

Irugarren aldiz utzirik bakardadia, jeitxi zan beste pobre bati laguntzeko, zeña bazter guziak madarikatzen ari zala ikusi zuan, kapa ostu ziotelako. Au ere aguro ixildu zuan Santuak, bera kapa gabe gelditu bazan ere.

SAN FRANZISKOREN UMILLTASUN ADITU EZ BEZELAKUA

Ongi deritzat izango dala emen jartzia gure Santuak anai Leonekin izan zituan bi itz-erantzute miragarri, *Fiorettik* dakartzianak. Dakar onek, zortzigarren buruan, nola bein batez Perusatik Santa Maria Aingeruenera anai Leonekin zijuala negu gogorrian, otzak zerbait erasanak, San Franziskok deitu ziola anai Leoni, zeña zijuan aurreraxiago, era onetan: «Nere anai Leon, naiz

leku guzietan eman dezatela praile txikienak beren santutasunaren marka eta egin usai gozozko egitiak; izkiribitu ezazu arretaz, egiazko poza eztaguala orretan.» Andik bide-puska batera deitu zion berriz: «O, Anaia Leon! Naiz praile txikien batek argia eman itxuari, eta gorrai adia; naiz elbarriai mugitza eman, ta mutubai itza; naiz errenai ibiltzia eman, eta demoniua daukanari pake egiazkua; itz batez, naiz lau eguneko illak piztu, izkiribitu ezazu, ez daguala orretan egiazko poza.» Andik laster egin zuan diadar aundi bat: «O, anai Leon! Baldin praile txikienak balekizki izkuntza guztiyak; jakinduri ta eskriturak balekizki; aurrez asmatu ta adiarazo balitzazke etorkizuneko gauzarik ezkutuenak, baita ere espirituko eta kontzientzietako gauzak, izkiribitu ezazu, ez daguala orretan poz egiazkua.» Andik aurrerago berriro deitu zion agitz: «O anaia Leon, Jaungoikuaren arkumetxua! Praile txikienak Aingeruen izkuntza ere baleki, gañera balekizki izarren bidiak, lureko belarren berri ta aberastasunen; ezagutuko balitu txori, arrai, abere, gizon, zuaitz, sustrai, arri, ur eta iturri guztien indar eta bakoitzaren oitura ta bidiak, izkiribitu ezazu, ez daguala jakinduri onetan egiazko poz egokia.» Andik laster berriz: «O anai Leon! Jakingo balu ere praile txikienak ain egoki predikatzen, ainbesteraño eze mundu guzia fede santura erakartzeraño... izkiribitu ezazu, ortan ere ez daguala poz egokia.»

Onela legua erdi bat bide egin zuten, ta azkenik galdetu zion anai Leonek, arriturik, bere Aitari: «Aita, Jaungoikuaren partetik esaten dizut,

erakutsi dazula niri zertan dagan poz egokia.» Erantzun zion Aita-lenak: «Gu Santa Maria Aingeruenera eldutzen geranian, gauden bezela bustita, lokatzatuak, otzak ta gosiak, eta atonduan deituta, atezaia datorkigunian guzia aserreturik galdetzera: zein zerate or?, eta erantzunik guk: zuetako bi gera; orduan esaten digunian; gezurra; bi gaizto zerate eta zuek; mundua engañatzen zabiltzatenak eta pobriai beren jana ostutzen, ebatsen, jua ortik, esan-ta utzitzen gaituanian atiaz kanpotik ebitan ta elurretan, otzak eta gosiak gau guztian; baldin orduan txarkeri au eramaten badegu marmariza gabe Jaungoikuagatik, ate-zaiagatik esanaz umill eta ongi ezagutzen gaituala bai, baña Jaungoikuak alaxen naiko dua-la, o anai Leon!, izkiribitu ezazu, onetan daguala poz egiazkua ta egokia. Eta baldin eta guk berriro deituko bagendu atian, eta, ate-zaia irtenik erio suarrian, joka eta dollorkeri aundiarekin gaizkille batzuek bezela botako baginuz kanpora andik, esanaz: Juan ortik gaizto zikinak, eztago emen zuentzat ez janik eta ez aterperik; zuazte eritegira eta emazute pakia; au guzia guk atseginaz eta amorioz eramango bagendu, o anai Leon!, izkiribitu zazu, emen daguala poz egiazko ta egokia. Eta baldin gosiak ill biarran eta gabeko otzak, asiko baginake, arren bada arren, negarrez ta erreguz ateleka-atelekaren gañ, esaten, idikitzeke Jaungoikuaren amoriuagatik, eta guzaz urrikaldurik sartu gaitzala barruna; atezaia orduan berriz len da gero baño aserretuago etorriko balitzaigu, esanaz: Arranuen kastak! Nik emango dizuet merezi dezuena!, eta irtenik bordo:

aundi bat eskuan, ta arturik gu kaputxatik, bota lurrera, eta, elurretan amilkaturik, autsiko balizkigu makilaz ezurak, eta guk au guzia eramango bagendu Jesukristo gure Jaunaz oroiturik ta aren penaz eta gurutziaz pazientziarekin, gogortuaz guztia biar degula supritu bere amoriuagatik; o anai Leon!, izkiribitu zazu, ementxen daguala egiazko atsegin ta poz egokia. Beragatik aditu zazu orain emendik atera biar degun azkena: Jesukristo gure Jaunak bere adiskidiai ematen ditzen Espiritu Santuaren doai ta grazi guziaz gända, nork bere burua garaitzia ta gogoz supritzia edozein pena, txarkeri ta atsekabe Jesukristoren amorioz, zeren beste Jaungoikuaren doai guztietan ezin ginezke poztu, Jaungoikuarenak diralako eta ez diralako guriak, esaten degula apostoluarekin: Zer daukazu Jaungoikuak eman ez dizunik?, eta Berak emana izanik, zu zertako poztutzen zera zerorrena balitz bezela daukazun ona? Baña gurutzeko atsekabe ta estu-larrietan, bai, poztu ginake, esaten degula Apostoluarekin berarekin: Nik eztet poztu nai beste gauzetan Jesukristo gure Jaunaren gurutziaz ostian.

BESTE GERTALDI BAT

Esan detan liburuan, bederatzigarren buruan, beste gertaldi au dago jarria. Franzisko arkitzen zan beñ batian anai Leonekin erreztzeko liburu gabe; eldu zan maitinak erreztzeko ordua, ta esan zion anai Leoni: «Nere anai maitia, ez daukagu maitinak erreztzeko libururik; begira zer egin biar degun denbora au Jaungoikua lauda-

tzen igarotzeko: nik galdatuko det eta zuk erantzungo dezu, oraiñ erakutsiko dizutan bezela; arretaz ikasi itzatzu nere itzak. Onela esango det nik: O anai Franzisko! Zuk ainbeste gaiztakeri eta pekatu egin zinuzan munduan, zu zera inpernuaren diño». Erantzun zion anai Leonek: «Eta Jaungoikuak ainbeste on egingo du zugatik eze, zerura juango zera.» Esan zion Franziskok: «Ez orrela esan, anai Leon, ez orrela; baizik nik diotanian: anai Franzisko, zuk ainbeste gaiztakeri egin dituzu Jaungoikuaren kontra eze, Jaungoikuaren madarikaziuaren diño zera; zuk orduan erantzun biar dezu: egiaz madarikatuen artian jartzia merezi dezu; egiaz madarikatuen artian jartzia merezi dezu.» Anai Leonek esan zion berriz: «Txit ondo da, Aita». Orduan San Franziskok, golpe aundia bularrian emanaz ta negarez, esaten du: O zeru-lurren Jauna! Nik zure kontra ainbeste gaiztakeri ta pekatu egin izan ditut eze, betiko zuk madarikatziaren diño naiz.» Anai Leonek erantzun zion: «O anai Franzisko! Jaungoikuak bere bedeinkatuen artian modu berezian egingo zaitu bedeinkatua.» San Franzisko arriturik guztiz bere seme anai Leonek aginduaz kontra erantzuten ziolako, seriotasunarekin esan zion: «Zergatik ez diazu erantzuten, nik erakutsi bezela? Biartzen zaitut bada, obedienziaren azpian, erantzun dezazula nik erakusten dizutan bezela. Nik esango det: «O anai Franzisko gaiztua! Uste dek Jaungoikua itaz urrikalduko dala, ainbeste pekatu ire Aita urrikitsu ta ire Jaungoiko atsegin egiazkuaren kontra egin onduan, zenak ezaute egiten bere urrikiaren diño? Zuk be-

rriz, nere anai Leon arkumetxua, erantzungo dezu: iñolako moduz ere ez aiz Jaungoikuaren urrikiaren diño». Baña San Franziskok esan zuanian: «O anai Franzisko gaiztua!...» erantzun zion: «Aita Jaungoikuak, zeñaren urrikia da azken gabia, zure pekatua ez bezela, izango du zurekin urriki aundia, eta gañera izango ditu zuretzat beste mesede asko.» Au aditzian gure Aita aserre, gozo badere, larri eramanaz, esan zion anai Leoni: «Zergatik trebetu zera aginduaren kontra erantzuten, ainbeste aldiz aginduta?» Umill ta errespeto guziarekin erantzun zion anai Leonek: «Zergatik? Nik eztakit, Jaungoikuak daki; nere Aita, nik erantzun nai izan detan guzian, zuk agindu bezela nai nuan erantzun; baña Jaungoikuak berak nai bezela esanarazten dit, eta ez nik nai bezela.» Mirestu zan San Franzisko eta esan zion anai Leoni: «Arren bada, nere anaia Leon maitia, nai det orañguan nik nai bezela erantzutia». Erantzun zion nai Leonek: «Agindu, Aita, Jaungoikuaren izenian, egiaz orainguan erantzungo dizutala nai dezun bezela.» Orduan San Franziskok dio negarrez: «O anai Franzisko gaiztua, uste dek Jaungoikuak ire urrikia izango duala?» Anai Leonek erantzun zion: «Ez bakarrik ori, baño oraindik grazia aundiyaguak artuko dituzu Jaungoikuagandik; gooratu eta gloriatuko zaitu betikotasun guzian; zergatikan beerratzen dana, izango da gooratua; eta nik ezin esan det besterik, zeren Jeungoikua itzegiten dan nere aotik». Espirituko errieta gisa onetan, negarrez igaro zuten gaua, eguna zabaldu zan arte.

Nork leiokian eman aditzera mundu arruari,

zenbateraño zan aundia gure Aita-len Franzisko Santuaren umiltasuna. Arkitzen zan lekuan ta edozeinekin birtute au zeukan beti begien aurrarian. Pobre gogozkuak, egiaz ala izatera, beste gauzarik ez lezake antsiatu. Atsegin da alabaña gogozko pobriarentzat umill agertutzia. Au ez egitera, bere pobretasuna izan diteke ez oso gogozkua izatia, edo len gogozkua zana, orain ukatzia. Gogozkua ez dan pobretasunak, ez du meriturik beste mundurako izango. Gutxi dira pobre gogozkuak, asko izanik munduan pobriak. Nai ta ez nai pobre diranak, egin beze alegina gogoz pobre izateko, Jaun Zerukuak bere pobretzat nai baditu ezagutzia. Aberastasunak Zeruko bidia ertsitzen duten bezela, pobre izatiak lasatzen du. Obe da milla bider pobre bidegin lasa, aberats ta estu eta neketan bidegitia baño. Nai badezu jakin bide onetan nola ibilli, ispillu ederra daukazu San Franzisko baitan. Pobre izatia nai duanak, zeru aberatsa saritzat izango du.

SAN FRANZISKO TA BILDOTSA; TXIRRISKA ETA TXORI KANTARIYA

Umilla ta pobria zan Franzisko, eta ona zergatik Jaungoikuaren kriatura guziak beren nagusitzat ezagutzen zuten. Abere, txori, egazti, arrai ta txingurrietarañoakuak berak, San Franziskoren agindua egiten zuten. Esan zitekian Adanek paradisuan oetan izan zuan eskua bera pekatuan erori baño len, igaro zala, senipartetza bezela, Franziskorengana.

Ekarri zuten egun batez Franziskori bildots

bat. Aski zan au ikustia Jesukristoren mansotasunaz oroitzeko. Guziya zekian Santuak santutasunera eramaten. Bildots ura denbora askuan iduki zuan beraren onduan. Berari jarraitzen zion zijuan tokira; baita elizara ere. Bañan elizan, oraño asko kristau baño, arrazoi-duna ezpazan ere, kriatura guztien egillearen eta guzien Jabiaren aurrian egon oi zan, Meza santuko denboran batez ere, umill ta ixil, aurreko bi belauntxuak egotzirik lurrari, burua makur ta belaun koxkotxuen gañian, adoratzen zuan Jauna. Berdin egiten zuan Mariaren iduri bat ikustian. Beragatik maite zuan San Franziskok bildots ura, eta ark Franziskori egiten ziozkan bere kontutxuak. Alabatu beze kriatura guziak beren Egillia!

TXirriska bat Santuaren gela inguruko zuaitz batian zeguan kantari. Onen kantuak askoren belarriak kilikatzen baditu ere, Franziskorentzat izandu zan Jaungoikua alabatzeko gaya. Deitu zion txirriskari beregana, juan zitzaion eskura, eta, agindurik kanta zezala, kantatzen zuan bere burua desegiteko zorian. Zortzi egunian juan izan zitzaion eskuetara, eta azkenik, Santuaren baime-narekin, egatu zan mundu zabalera, bere urte laburretan Jaungoikua alabatzera.

Anai Leonekin San Franzisko jaten ari zan batian, txori kantariya ari zan kantari zuaitz baten adarraren puntan. Santua txoriaren kantuak jarri zuan berari begira, eta esan zion anai Leoni. «Ikusten dezu garbi eta ederki, kantatzen duan txoriak zer eta nola kantuz alabatzen duan Jaungoikua? Gu ere gonbidatzen gaitu beste orren-

beste egitera. Ea, anai Leon, kanta zagun guk ere». Erantzun zion anai Leonek: «Nere eztarria baño legunagua nai luke, orrek bezela kantatzeko, ta aditze piñagua. Kanta beza beorrek, nik baño boz gozuagua du ta, nik beetik lagunduko diyot». Asi zan Franzisko kantuz Jaungoikua alabatzen, txoriarekin txandan. Eguardiyan asi ziran kantari, eta eguzkiya sartu arte kantuzko dema onek iraun zuan. Azkenik San Franziskori txoriak irebazi ziyon. Ezagutu zuan txoriya geiago zala bera baño, eta au izan zan Santuarentzat umillatzeko gaia, gogoratzia egaztitxo ura geiago zala Jaungoikua alabatzen, bera baño. Deitu ziyon txoriyari ta jua zitzayon eskura: ta, ongi nai aundiarekin igurtzirik, leguntzen zuan txoria esanaz: «Nere anai txooritxua, irebazi diazu: ni baño geiago zera». Eman ziyon jaten txori kantariari, ta azkenik bere bendiziua.

OGEI TA ZORTZIGARREN BURUA

SAN FRANZISKO ETA SANTA KLARA

Aspaldi artan arkitzen zan Santa Klararen biyotzian gogo santu bat Santa Maria Aingeruena ikusteko, eta bidez Aita-len Franziskorekin gortu bat egiteko. Nekez badere, noizbait al-kantzatu zuan Santuangandik ainbeste aldiz ukatu ziyon mesedia. Artian etzuten mojak, orain bezela, etxetik irtetzeko eragozpenik. Egun aukeratuan San Franziskoren seme batzuek juan ziran San Damiango moj-etxera, eta Santa Klara irten zan moja bat edo beste lagun arturik, eta aurrena juan ziran Santa Maria Aingeruena elizara. Au izan zan pesta-egun arren asiera. Egon ziran elizan denbora-puska bat, eta gero ikusi zuten praile-etxia. Eldu zan bada bazkaltzeko ordua eta eseri ziran maian. Lenbiziko jana izan zan animakua. Gure Aita-lena asi zan alakotxe gauza on ta miragarriyak Jaungoikuaz kontatzen eze, guztiak gelditu ziran aurrian zeukaten janaz azturik, Jaungoikuan sortuta, kordagabe bezela. Denbora berian Asisko jendiak eta inguru aieta-kuak ikusi zuten basua ta eliz-etxiak sutan zedula. Juan ziran korrika praile-etxera sua itzaltzen laguntzeko asmuan, baña gauza guztiak arkitu zituzten ongi beren tokiyan, eta ifun surik

ez. Sartu ziran bazkal-lekura, eta an ikusi zituzten maiko guztiyak Jaungoikuagan sortuta. Ezagutu zuten mirari aundiya su artan, eta nola su ark eman nai izan zien aditzera Santu aien Jaungoikuaren aldeko biotzeko amoriozko sua. Artan bukatu zan bazkariya. Iñork etzuan ezer ere jan. Itzuli zan Klara bere lagunakin moja-etxera. Aren alaben poza etzan txikiya izan, berriro ikusi zutenian beren artian. Penaturik zeuden, lenago Ines Florentziara eraman zuten bezela, eramango ote zien Klara ere beste moja-etxe berriren batera. Gogorazio au zetorkien, Aita-lenak Santa Klarari asko aldiz egin izan zion itz onetatik: «Egon zaite beti prest, Klara, agintzen zatzun lekura juateko.» Erantzuten zion Klarak: «Nere Aita, egindu niri; bada ementxen nago agindua egiteko.» Au izan zuan Santa Klarak berrogei ta bi urtian, irten-aldi bakarra.

ANAI ELIASI ADIARAZTEN DIO SANTUAK ETORKIZUN TXARRA

Ordena guziko Bikario anai Eliasek ematen ziyon Santuari zer egin aundiya. Ikusten zuan penarekin apartatze txar bat egiten zuala erlijiosuekin. Zerbait jakinduri zutenak jartzen zituan biartasunai ere etziokala ainbeste ardurarekin bemarkarik goenekuetan, birtutiari baño jakinduriari begiramentu geyago ziola. Gañerako erlijiosuen giratzen nola oenari; Santiago Apostoluak debekatzen duan bezela aberatsen kontu geiago izatia, pobre gaxuena baño, izanik guztiok Aita baten semiak, berdiñ batakin nola bestiakin gaude

biartuak neurri berdina izatera. Biotzeko pena eta atsekabe aundiyarekin ikusten zuan beraz Aitalenak anai Eliasen apartatze ura.

Askotan bezela, egun batez etorri zitzaizten erlijioso batzubek Porziunkulara, eta aien artian baziran anai Eliasen gogokuak, zerbait bestiak baño geiago zekitenak. Franzisko baliatu zan egun artaz anai Eliasi aditzera emateko bere pekatua. Bazkaltzeko denboran maia bedeinkatu zanian, deitu zituan Franziskok bi anaia atzenekuak eta bere aldamenian jarri zituan maian. Anai Eliasen biotza errtzen zeguan Franziskoren egite onekin, ta bere barrunian marmarizan ari zan onela: «A Franzisko, Franzisko! Egunen batian desegin biar du gure geiegizko senziltasunak Ordena guziya. Zuk jartzen dituzu zere onduan ezere ez dakitenak, eta lotsatutzen dituzu emen dauden jakintsuak, zeñak diraden Ordenako pillarriak.» Anai Eliasen gogorazio au bazekian Santuak, eta erantzun zion, denak aditzeko moduan: «Eta zu, anai Elias, zu arkitzen zera guziya arrokeriz buiatua, eta orrekin kalte geiago egiten dezu onik baño. Jaungoikuaren juiziyuak gizonak ez dakizki; (au zan esatia: Jaungoikuak zekiala bakarrik zergatik, ura izanik ustez kaltegarriya Ordenarentzat, nai zuan guziyen buru egitia) baña ezagutzen zaitu nor zeran ongi, eta alere nai du Zu Ordenako buru izatia! Berak erabaki zuan nik zure eskuan uztia agintza au. Ai! Bildur naiz gidariya ta gidatuak elkarren antza ez ote duten eta gure Jaungoikuak, artzaia nolakua dan ikusiyaz, ardiyak ere oen gisakuak izango dirala aurrez ikusi ez ote dituan.» Au orduan esana-

gatik, ondo zekiyan Santuak anai Eliasek etzuala galduko Ordenako talde guziya; baña prestutasun aundiarekin esan zuan bestiak izan etzezaten beren barrunian arrotzeko gairik.

Gero esan zuana izandu zan Igarle baten esana: «Ai! Zu, anai Elias zori gaiztokua! Etzera Ordena ontan illko. Ala erabaki du an goian Jaungoikuak. Pisatu zaitu, ta zure jakinduriyak arrotu ta puztu zaitualako, pisuan ariñ arkitu zaitu.» Nor etzan arri ta zur egingo? Nor etzan ikarran sartuko, au aditzian? Anai Elias, izutua, aozpeztu zan bildurraz ta ikaraz bere maisuaren ofietan, esaten ziola: «Arren, Aita, erregu ezazu nigatik; zure seme bat ez dedin galdu, eta galdu betiko.» Ikusirik Aita-lenak anai Elias bere ofietan, – ain zan biotz beraa –, esan zuan: «Jaungoikuaren erabakintza au ez dedilla zure gañ etorri. Badaki Jaungoikuak bere erabakintza aldatzen, baldin pekatariyak uzten badu pekatua ta egiten badu penitentziya.» «Ainbesterañoko konfiantza daukat nik, nere aita txit maitia, zure crazuetan eze, Jaungoikuak agertu dizun bezela kondenatuko banintzake ere, uste det, inpernuan egonik, zure oraziuak arinduko lituzkiala nere ofñaziak. Egizu, nere aita, egizu arren orazio nigatik; duda gabe zure oraziua adituko du Jaungoikuak, eta aldatuko du eman duan sententziya.» Egin zuan oazio Aita-len Santuak anai Eliasengatik eta alkantzatu zuan Jaungoikuagandik aren salbaziyua, ez ordia Ordenan iltzia. Ordenatik kanpora ill zan, bañan ill baño len eman zituan damutasunaren seña argiyak. Asko aldiz, oraiñ ikusiko degun bezela, ikusi izandu zan Sentua

bere lagunaren gogoratze ezkutuak agertutzen anai Eliasekin bezela.

SAN FRANZISKOREN DOAYA, GAUZARIK EZKUTUENAK JAKITEKO

Anai Maseo bide-lagun arturik, bein batian irten zan Asistik kanpora. Anai au arkitzen zan tuntun aldiyarekin, eta esaten zuan bere baitan: «Obispo Jaunari agurrik egin gabe irten da gaur anai Franzisko. Zer esan biar du Obispo Jaunak?... Emen narama jira-biraka bide ontan, aur bat banitz bezela, ezin somaturik, nora jo ezta-kigula...» Andik laster kendu zituan gogoratze aiek burutik, eta esaten zuan berriz: «Egia dek, etziok Obispuari agurrik egin, baña egingo ziran ez aditziagatik arentxen alabantzak... Lenago uste nian genbiltzala jira-biraka, eta bide onian arkitzen gaituk orain. Etzekiala uste nian biderik, eta bide zuzenian gatxeudek». Au esan zuanarekin batera anai Maseok bere biotzian, mingañik mugitu gabe, esan zion Santuak: «O anai Maseo! Zein desberdiñak diran oraingo gogoratze oriek lenguetatik! Nork biali dizkitzu lenbizikuak eta nork azkenekuak?» Anai Maseo dena lotsaturik bere Aitak guziya zekialako aren biotzeko berri, bere lotsa artan belauniko eskatu zion barkaziua.

Urte ontan, au da, milla berreun ta ogei ta batian, gure Aita Santo Domingo ill zan Bolognian, Abuztuaren seian. Berrogei ta amar urte zituan ill zanian. Egatu zan Domingoren anima eder garbiya zeruronz bere nekien sariya artzera.

Urte ontan Balneorejiko erriyan, Toskanan, jaio zan San Buenabentura. Bataiuan jarri zioten izena Juan, bere Aitarena. Aurrak lau urte zituan garaian, arkitu zan illtzeko zorian. Baña ama Bitelak eskañi zion San Franziskori, baldin eta sendatzen bazuan. Jarri zan oraziyuan San Franzisko, eta amaren begiak legortu zituan, bada orazio egin bezain laster Santuak, sendatu zan aurrea. Nunbait Jaungoikuak azaldu zion aurrearen etorkizuna; arturik eskuetan aurrea esan zuan San Franziskok: «*O Buena ventura!*» Ordutik Juantxori deitu izan zioten Buenabentura. Ordenarako ta Elizarako patu onekua izan zan aurrearen izenak dion bezela.

ANAI DANIEL TA AREN LAGUNEN MARTIRIUA

San Franzisko Aita-lenaren bizitzako kontaira onetan ikusi degu, nola milla berreun ta ogeian, ilbeltzaren amaseian, sufritu zuten San Franziskoren bost semek martiriyo gogorra Marrueketan. Geroztik asko praileri egin zitzaientzen, Jesus maitiaren amorioz ta fede santuagatik, zañetako odola emateko gogua. Aita-lenak berak iru aldiz agur egin zion Italiari asmo onekin berakin. Gauze bera ikusten degu San Antonio Paduakuarekin. Dudatu ez genezake Jaungoikuak artu zituala beretzat aien asmo ederrak. Bada Ordena guttiko Bikario anai Eliasi aurkeztu zitzaizkiokan zazpi anaia asmo onekin: anai Daniel Calabriako Probintziala, anai Samuel, anai Danulo, anai Leon, anai Hugolino, anai Nikolas eta anai Anjel.

Anai Eliasek eman zien baimena mairuetara juateko, Jesukristoren Ebanjeliua predikatzerá Ma-homaren semiai. Ordu berian San Franziskok eman zien biotzeko alaitasun guztiarekin bere bendiziua. Onela beraz, bendizioz biziturik beren fedia, irten ziran Toscanaruntz, eta Toscanan sartu ziran itsasuan eta jo zuten Tarragona. Lenbi-ziko artu zuten mairuetara igarotzeko asmua, eta gero aldatu zuten asmo au ta gogoratu zitzairen Ceutara juatia. Fede gabien mendian arkitzen zan Ceuta. Etzituan artu nai izandu ontzi-gidariyak lau baizik ontzian.

Eldu ziran Ceutara. Egin zuten modua Ceutan beren buruak ezkutuan idukitzeko, ariketa beste iru lagunak juan arteraño. Agorraren ogei ta be-deratzian elkartu ziran beren iru lagun aiekin. Bien bitarteko denbora igaro zuten ango jende sal-erostzalle, prantzes ta italtarrai predikatzen.

Erriyan sartzia edozein kristaurentzat debekatua zeguan, eta nai ta ez biar zan sartu, Ebanjeliua predikatuko bazan, naiz bizia arriskatu. Zazpi anaiak elkartu ziranian, itzegin zuten bata-bes-tiakín nolatan egin biar zuten sarrera. Erabaki zu-ten ostiralarekin egin biar zala sarrera errian, Mahomaren legia desegitera, naiz berak biziare-kin pagatu. Larunbatian konfesatu ziran, ta ain-geruen ogiarekin, au da, Jesus komunio santuan artuta, prestatu ziran legoi indartsuak bezela erri-an sartzeko. Ez bakarrik konfesatu eta komulga-tu ziran; baño oraindik, denik eta utsegiterik txi-kien, ariñenak desegin nairik bezela, edo karida-diaren edo umiltasunaren kontrakuak, Jesusek bere diszipuluekin ill aurrian egin zuan biar-gaia

egin zuten batak bestiarekin, arratsalde artan batak bestiari oñak garbituaz.

Igandian, goizian goizetik, sartu ziran errian, burua auts-t-errez eginta, oiuka: «Jesukristogan ezpada, eztago salbatzerik.» Iñoiz ere baño lenago egun artan Ceutako jendia esnatu, iratzartu zan. Jesukristoren izenian bakarrik salba zitekiala aditze utsak, fede gaiztoko aientzat Zancarron Mahomakua oñazpiratzia zan. Ona zergatik irten zan bakoitza bere oatzetik, eta, golpeka eta txarkeri aundian, artu zituzten berekin gure prailiak, ta eraman zituzten, tratu gaiztu onen ondorian, beren erregeren aurrera.

Erregeren aurrian garbi itzezin ziran, eta an arkitzen ziran Mahomaren lege erakutsalliai esan zien: Jesukristoren dotrina biar zala sinistatu, eta etzirala besteren izenian salbatuko, Jesusen izenaz landara. Ederki arrazoi guzizkuakin azaldu zuten egi au. Iduritu zitzaion errege gaiztuari, nola Mahomaren izenik ere ez baitzuten aitatu, desprecio aundiya egiten ziotela beren profetari, au da Zancarron Mahomakuari; zeren beretzat ta bere mendekuentzat Mahomaren izena ezpada gooratzen, naiz ura beeratzeko itz bat ere ez egin, denik eta izan zitekian gizonik aundien ta santuena bazan ere, beren etsairik aundienekotzat jo oi zuten. Gure prailiak etzeukaten Mahoma buruan ta biotzian, baizikan Jesus. Mahomaz azturik, Jesus nai zuten maitarazo, eta oni jarraitzera nai zuten jendia jarri.

Errege ta bere ingurukuak, herriz, etzeuden artarakotxe. Erotzat jo zituzten gure Santuak, eta

gero kartzelan sartu. Esan zuten eruak zeudela, batez ere burua soildua zeukatelako, illezko erroskak inguruan bakarrik zutelako. Zortzi egun luzian iduki zituzten itxian, burniz kargaturik ta dollorkeri aundiarekin. Denbora artan guztian etzitzaien palta izandu mandataririk prailiai; izkiritu zien karta bat Ceutatik kanpora bizi ziran kristauai. Karta au izandu zan Ugo Genovatarren apaizarentzat, ta denbora berian bi erlijioso bata Ordena berekua eta bestia Aita Santo Domingoren Ordenakoarentzat, zeñak zetozen mairuen lurretik. Karta artan ematen zizten esker onak Aita Zerukuari, Beraren urrikiaz akordaturik. Baita ematen zuten aditzera ondo, Eskritura Sagraduko itzakin, nola Jaungoikuak lan artara deitzen zituan eta alaitzen zituzten beren buruak sufritzeræ. Gloria guztia Jaungoikuari emanik, aitortzen zuten nola erregeri predikatu zioten: Jesusen izenian ezpada ez daguala salbaziorik.

Nai izan zituan ikusi Arbaldo juezak nola ote zeuden itxitegiko prailiak, eta gelditu zan arrituta, ikustian katiak askatuta zeuzkatela, beren arpegiak miragarrizko dizdiadura botatzen zuala, ta pozez beterik kantuz Jaungoikua alabatzen zutela. Juan zan erregerengana jueza, ta esan zion zer ta nola ikusi zituan itxian zeuden kristau aiek. Deitu zituan orduan erregek bere aurrera. Igandia zan ta urrillaren amargarrena. Eskaiñi zizten erregek aberastasun aundiyak, nai bazuten Mahomaren legia laztandu. Erantzun zien Santu martiriak: «Guk mundu ontako aberastasunak despreziatzen ditugu, baita bizitza bera ere, betiko gloriako ondasun milla aldiz lurrekuak baño

aundiagoko ta bizitza azken gabiagatik.» Aisago engañatuko zituztelako asmuan, berezi zituzten lata bestiagandik; baña alperrik izan zan; denak berdin aen eskaintzak despreziatu zituzten. Izu-garrizko golpia eman zion mairu batek anai Danieli zimiterrakin, gogotik Mahomaren kontra ari zalako itzegiten; txarkeri ura pazientzian eraman zuan Santuak. Beste mairu batek esan zion illtzia baño askozaz obe zuala Mahomaren legiaren alde itzegitia. Ari erantzun zion: «Errukarria zera zu, Mahoma ta bere diszipuluak denak Satanasen morroiak zerate, eta zuen Alkoran ori gezur pilla bat. Utzirik gezurrezko lege oriek, egizute len-bai-len fede santua laztantzeko modua.»

Zazpi anaiak elkarganatu ziranian, anai Danieli, zeña nola baizen misio ura logratu ziena eta guztien buru egiten zuana, pozezko negararekin esan zioten seiak: «Eskerrak ematen diozkagu gure Jaungoiko onari, bere penetan ematen digulako parte; eskerrak anai Daniel zuri ere, leku zori oneko ontara gidatu gaituzulako. Bedeinka gaitzatzu azkeneko aldiz, ta ill zaite; gure animak zuriari jarraituko diote; gogoz ta pozik illko gera; gure pena laburra izango da ta betiko pakian laster sartuko gera.» Bedeinkatu, laztandu ta alaitu zituan anai Danielek esanaz: «Poztu gaitezen Jaungoikuagan, eldu da guretzat pesta-egun aundiya; Aingeruak inguratzen gaituzte; zerua idikia daukagu; gaur guziok martirien koruarekin koruatuak izango gera zeruan beti-betiko.»

Alaxen gertatu zan. Ikusirik aien irmotasuna, erabaki zuan erregek zazpiai lepua ebakitzia. Jari zituzten larru utsik, eskumuturrak atzian lotu-

ta, eta era artan eraman zituzten ill biar zuten lekura. Pregoi bat zijuan aurrian zergatik illtzen zituzten esaten. Eldu ziranian lekura, belaunikatu ziran Santuak, eta, Jaungoikuari beren animak eskaiñi onduan gorputzeko bizitzarekin batian, eman zuten lepua, ta borruak ebaki zizten gogorki zimiterraz. Au gertatu zan Urrillaren amarian, milla berreun ta ogei ta batian.

Martirien alderdiekin gazte jende fede gaiztoko aiek jostatu ziran nai aiña. Santuen buru ta gorputzak porrukatu zituzten; baña nolerebait Santuen erliki aien jabe egin ziran kristauak. Lurpetu zituzten lenbiziko, eta gero jarri zituzten eliza batian. An egin zituzten mirari asko; eta, us-te danez, eraman zituan andik Portugalko printzipe batek, nun ere mirari berriak egin zituzten. Gaurko egunian ez dakigu nun arkitzen diran. Aita Santu Leon amargarrenaren aginduz Ordena guzian santu martiri oen pesta egin oi da Urrillaren amairuan.

OGEI TA BEDERATZIGARREN BURUA

SAN FRANZISKOREN MISIO AUNDIYA

San Franziskoren biotza zenbaterano poztu zan bere semien martirio onekin, ezin diteke aditzera eman. Jaungoikuaren zeloz beterik, laster bera ere irten zan pekatariak konbertitzera. Artu zuan asmua Florentzi aldian, Calabrian ta Napolesen predikatzeakua, Erromarunz aurrena oñak zuzendurik. Ugari ta miragarriak alde guzietara izan ziran misio ontan egin zituan mirariak. Lenbizi juan zan Toscanillara. Erri artan jaun aberats batek eman zion ostatua. Seme bat zeukan onek ankaokerra bitatik. Bere semia sendatu zedin (au da anka okerrak zuzendu), bedeinka zezala esan zion. Itz onek Santuaren umilltasuna zerbait ilduratu zuan, eta lenbiziko esan-aldiyan eskusa jarri zuan. Baña arako eskatu zion Jaungoikuaren amorioz; au asko izandu zan Santuaren biotza mugitzeko. Egin zuan orazio, ta gero gurutze bat gaztiaren gañ, eta une artan bertan oso sendatu zan.

ARTZAI BAT ETA ARKUMETXO BAT SANTUAREKIN

Erromako bidian ikusi zion Santuak artzai bati arkumetxo bat lotuta zeukala; beriala gogoratu zan Jesus maitiaz, zeña lotu zuten arkume baten

antzera. Au ikusita, Santuaren biotza ukitu zan ta egin zuan negar. Juan zitzaion negarrezko begiakin artzaiari ta esan zion: «Gizona! Zergatik arkume inozentia daukazu lotuta?» «Aita, iges egin eztezan.» «Eta, zer kalte egin lezake arkumetxo onek libre utzita?, adiskidia? Ta, zer egingo dezu orrezaz?» «Zer? Saldu.» Itz oetako bat Franziskorentzat zan ezpata zorrotz bat, biotza zulatutzen ziona. Oroitzen zan Jesus maitiaren loturaz, eta nola Judasek saldu zuan... «Ta au erosten duanak, zer egingo du onezaz?» «Zer? Ill ta jan.» Azkeneko itz onek erdibitu zion biotza, bere amoriuaren presa bete-betia egonik, orduantxe eragin zion gañez. Itz labur onek, *ill* aditze utsarekin, iturri biurtu ziozkan begiak ta esaten zuan: «O Jesus gozua! Zurekin guk orrenbeste gogorkeri, izanik zu guzia maitagarria! O! Eta, zergatik kulpa-gabiak kulpa-dunen zorra pagatu biar du?»

Pozik erosiko zuan orduantxe Franziskok arkume ura eriotzatik libratziagatik, baña zerekin etzeukan. Ari zan somatzen arentxen jabe nola egin al zitekian. Franziskoren laguna ta artzaia arriturik zeuden aren negarraz. Bazekian lagunak zergatik bere Aita-lenak negar egiten zuan, baña ez artzaiak. Ona zergatikan zeguan burua ausitzen artzaia, negar ura ze izan ote zitekian. Galdetu zion Santuak artzaiari: arkumetxo ura trukatuko ote zukian aren mantuagatik; eta artzaiak erantzun zion pozik: baietz. Kontairak dionez, arkumiak baño kapak geiago balio zuan. Artzaia gelditu zan pozik Franziskoren kaparekin, baita ere Franzisko kaparik gabe arkumetxuarekin. Us-

te zuan egite arrekin Jesus juduen eskutik libratu zuala.

Laster agertu zion arkumiak Franziskori onginai guzizkua. Eraman zion Santuak arkume au Siete-soliosko andre Jakobari, ondo gorde zezan ta eman zekion jaten. Etxekoandriari jarraitzen zion arkumiak zijuan tokira, baita elizara ere. Eta elizako jende guztiya egoten zan arriturik, arkumetxuaren egoerari begira. Zeren egon oi zan asko kristau baño obeto, aurreko belaunen gañian, edo-ta bestelaz bi besotxo aurrekuak toloztaturik gurutzetara. Eta agertu oi zuan batez ere errespetu au sagarako denboran. Andre Jakobaren gelan egiten zuan lo; eta asko aldiz gertatu zan, zerbait besteetan baño geixiago andria oian egotia; baña orduan etziokan pakerik ematen, ariketa oietik jeiki arte edo beeka edo zalapartan: nai ta ez, bere nagitasuntxua astindurik, jeiki biar izaten zuan etxekoandreak. Ala esan oi zuan berak: «Nere maisu Aita Franziskok etxian utzi dit arkumetxo au, izan dedin nere juez ta denbora berian nere esnatzalle.

SAN FRANZISKO ETA RUBIESKO MATEO JAUNA

Eldu zanian Erromara egin zuan adiskidetasun aundiya Rubiesko Mateo jaunarekin. Au zan Ursino-tarren famili txit ospatukua. Gonbidatu zuan onek bere etxian bazkaltzera. Franzisko, ordua jotziarekin, juan zan zintzo, itz emana betetzera, bere adiskide ongilliaren etxera. Nagusia, nunbait bere eginkizun aunditxon batian egonik,

etzan agiri. Santuaren begiak berriz, ernai beti, ikusi zituan etxeko atonduan pobriai jaten ematen ari zirala; juan zan aietara eta aen maian eseri zan. Alatan zeguala, sartu zan nagusia ate nagusitik etxian, eta sartu orduko egin zuan Santuaren galdia. «Orantxen zan emen; zai egondu da ta eztakigu nora dan.» «Billatu; bestelaz ez det pikorrik jango.» Au esan ta leiotik begiratzia-ekin bat, ikusi zuan San Franzisko pobrien artian. Jetxi zan Mateo jauna ta esan zion Franziskori: «Zuk nere maian jan nai ez dezun ezgeroz, nik zurian jango det.» Eta eseri zan, Franziskoren onduan. Lenaz gañera, umiltasun arekin irebazi zuan San Franziskoren biotza jaun ark. Ordutikan bere adiskiderik aundienari bezela beti begiratu izan zion. Bazkal ondorian eskatu zion Santuari irugarren Ordenako jantzi santua, eta poz aundia-ekin eman zion Santuak.

Mateo jaunak zuan aur bat artian bularrekua; eraman zion San Franziskori bedeinka zezan. Gu- zizko ongi naiarekin artu zuan bere besuan au- rra Franziskok: bedeinkatu zuan eta gero esan zion aurraren aitari: «Aur au arreta guziarekin biar dezu azi; bada au izango da zure familiaren onra eta Eliza guziko buru egunen batian.» Gero aurrari itzegin zion onela: «Begira, nere aingeru- txua: Aita Santu izatian, nere Ordenari biar dio- zu ondo begiratu. Etzera prailia izango, baña izango zera Ordenako Kardinal anparatzallia; be- ragatik praille guztien aita. Beraz nere erlijio po- briari ondo begiratu, ta aldezun guztian berari la- gundu.» San Franziskoren esanak aditzen bazitu- an bezela aurrak egin ziozkan farra txikiak. Au-

rraren aita txorutzen zeguan begira, guzia aditzen. Santuaren esana egiztatu zan. Andik berrogei ta amabi urtera, aur ura Kardinal zan, eta milla berreun ta irurogei ta zazpian egin zuten Aita Santu. Au izandu zan Nikolas irugarrena San Franziskoren Ordenari txit begiramen aundiya izandu ziona.

SAN FRANZISKO GAETAN

Erromatik juan zan Aita-lena San Benitoren leizera. An San Benito tentaziua garaitzeko etzin zan arantza, elorria, gurutziaren señalia egiñaz. San Franziskok arrosa eder biurtu zuan. Andik igaro zan Gaetara. An, beste asko mirarin artian, egin zituan arteko bat, izan zan, is-paztarrian egin zuana. Ari zan predikatzen. ta, izanik aifñ jende talde aundiya inguratu zuana, itxasuan zeguan lantxa batera saltatu zan; orduan lantxa ura iñork mugitu gabe, berez zerbait bidian juan zan eta gero gelditu. Andik predikatu zien eroso jendiari. Bukatu zuanian bere itz-aldia, eta Santuaren bendiziua artuta jendiak aldegin zuanian, berriro lantxa berez baztertu zan.

An bertan eman zioten tokia Santuari etxe santu batena. Eliza egiten ari zirala, arotz bat, zurgina, prontal batek azpian artuta leertu zuan. Airian bazeramaten illik bere etxera, eta Santuak bidian topo egin zituan. Esan zioten zer gertatu zitzaien. Agindu zien Santuak gorputza lurrian jartzeko. Orduan bere izenaz deitu zion illari, eta une berian piztu zan ta zutitu, eta ezertxo ere izan ez pazuan bezela, berriro lanera juan zan.

Mirari onen oroimenako, toki artan egin zuten elizatzxo bat, eta oraindik belaunetik belaunera gertaera au igarotzen da.

SAN FRANZISKOK PIZTUTZEN DU AUR BAT ILL-EGOSIA

Ona emen beste mirari bat, aditu ez bezelakua. Igaruan zijuan erri guzietan, zerbait Jaungoikuaren itza adiazi gabe etzan beñere Santua aurreritzen. Erri txikitxo batian egin zuan beñ gelditza. San Franziskoren izena aditze utsak ordukoz, jende guzia jartzen zan goikuaz-bera. Denak nai zuten Santuaren aotik Jaungoikuaren itza aditu, erri artan gertatzen zan bezela. Neskatx serbitzen zeguan batek ere, nai zuan aditu Santua, eta, beste gañerakuak juan ziranian etxetik, bera ere, etxian ezin kabiturik, juan zan, bakarrik aurra etxian utzita. Su-buruan utzi zuan ura berotzen; urak irakin zuan, eta, ura pilpil ikusi zuanian aurrak, asi zan jostatu nairik urarekin, eta erori zan lerebait aur inozentia paziara, pertzera. Franziskoren itza adituta etxeratu zan neskatxa lasterka, baita ere onen ondoren etxeratu ziran nagusi-etxeakoandriak. Aurra arkitu zuten illa, erdi-egosia. Zer pena izango zan gurasuena eta zer larria neskatxarena!

Ala Jaungoikuak nairik, egun artan San Franzisko etxe artara bazkaltzeko konbidatua zan. Nola ez baizuten nai beren estu-larrien berri Santuak jakiterik, senarrak esan zion emaztiari, etzezala agertu kanpora bere biotzeko naigabe ura, zana, zeñaren pesta Elizak zelebratzen du Maia-

tzaren zortzian. Leize artan esaten da meza; ta Santua aekin zeguan bitartian, eta sartu zuten aurra kutxan.

Denborarekin San Franzisko sartu zitzairen etxian, eta eseri ziran maian. Jan zuten, munduan ezer pasa ez balitz bezela. Azkenian esan ziren Franziskok, jango zukiala sagar bat edo beste. Erantzun zioten: «Jauna, ez daukagu ba.» «Bai, idukiko dezute.» «Ezpa, Jauna, ez daukagu; ekarriko ginioke idukitzera.» «Bai – herriz ere Santuak –, orrako kutxa orretan sagar bat edo beste egongo da.» «Ez, Jauna, zer egon biar du?» «Begira zazute bada ote daguan.» Jeiki zan etxe-ko nagusia, Santuari esateko asmuan an etzeguala sagarrik, eta bidez aur ill-egosia Santuak ikusi etzezan estalitzeko. Jaso zuan kutxaren tapa, eta orra nun arkitzen duan aurra bizi-bizirik parra txikiak aitari egiten, esku bakoitzian sagar eder bana zuala. Beriala artu zuan aitak aurra besuan, ta eraman zion Franziskori. Zer poza etxe artakua, len pena zutela! Zein aundia izango zan gure Aita-len maitiaren santutasuna, egite oetan azaltzen da. Egiten zituan mirariak kriatura guztiekin, illakin ta biziakin, arrazoidunakin ta arrazoigabiakin. Ain zan aundiya Jaungoikuak eman zion eskua. Misio artan bakarrik ogei ta geiago Ordenako etxe egin edo jarri zituan San Franziskok.

BOLTSAREN KONTAIRA

Aldatu zan Santua andik San Nikolas Barikoren erlikiak adoratzera. An zeguan orduan enperadore Federiko bigarrena. Santuaren birtutia

zenbaterañokua zan proba nairik, enperadore emeti onek jarri zion San Franziskori emakume bat gelan txit garbia etzana. Aren naikunde zikiñen sua itzali zuan beste orduz Ejiton bezela, suaren gañian etzanik Franzisko, eta suaren gañera deiturik.

Boltsa aundi bat, pobriai karidade egitekotan nai zuan lagunak artu; etzuan nai ordia Santuak artutzia. Jo zuten aurrera boltsari ukitu gabe. Betti ere oroitzen zan laguna boltsa artaz, uste zuan zerbait probetxu aterako zutela pobriak, an zeguanarekin, ta maiz boltsarunz begiratzen zuan. Alako batian esan zion San Franziskok: «Nere anaitxua, orrenbeste uste badezu balio duala boltsa ark, guazen ta dakusagun.» Bidegina galdutzat emanaz, itzuli ziran boltsarengana. An zeguan boltsa. Beste gizon bat orduantxe zijuan an igaruan, ta gizon arren aurrian esan zion San Franziskok bere seme-anaiari: «Artzu boltsa ori.» Au esan zionekoz, zerbait errezelatu zan anai ura, ze izan ote zitekian; baña agindua egiteko egotzi zion eskua boltsari; bai utzire aguro, bada irten zan andik bere biziko suge tzarra, eta Jesus bateko denboran desagertu zan guzia, bai sugia ta boltsa. Diabru tentatzallia zan. Kendu zitzaion gogua anai arri, berriz alako boltsari begiratze-kua. «Ay nere anaia! — esan zion Santuak —. Jaungoikuaren serbitzariantzat dirua suge bene-otsua da; diabrua bera da.»

SAN FRANZISKO GARGANOKO MENDIAN

Gero igo ziran Garganoko mendira. Leize bat dago an illuna, San Migel Aingerua agertu izan zana, zeñaren pesta Elizak zelebrazten du Maiazaren zortzian. Leize artan esaten da meza; ta banan-banako personak baizik ez dira ametitzen. Alderatu zan aruntza San Franzisko ere, bañan etzuan sartu izan nai. Esaten zioten sartu zedilla, ta bere umiltasunian erantzuten zuan: «Ikara-garria da leku au; ez naiz trebe sartzia; aingerua agertu zalako emen, gizonak biar du errespetatu.» Errespetu aundi au agertu oi zuan beti Santuak leku santuetan. Onek bakarrik asko biar luke izan kristau arruen aize ta apainduriak elize-tatik aienatzeko. Elizara jua biar da penitentien jantzian, eta ez munduari begiak ateratzera.

GUBIOKO OTSUAREN KONTAIRA

Sartu zan Santua Umbrian, eta Gubioko errian egin zituan, beste leku askotan oi zuan bezela, asko milagro. Sendatu zuan ukitze utsarekin emakume elbarri bat. Urik etzan toki batian, gurtzia aitz gorriaren gañ egin ta beste gabe, sortu zuan iturri ederra. Baña geien-geiena jendia poztu zuana izan zan, otso odolgiro batekin egin zuana.

Otso gaizto bat agertu zan inguru aietan. Etzian barkatzen arrapatzen zuanari; ardia bazan, artzaia bazan, arentzat guzia berdin zan. Ainbesteraño jendia ikaran sartua zeukan otso ark ezik, iñor etzan erritik kanpora ausartzen irtetziat la-

gun gabe ta ondo armatu gabe. Urrikaldu zan Franzisko erri artako jendiaz, eta, Jaungoikuaren urrikian jarririk konfianza osua, erabaki zuan esku utsik bera otsuaren billa juatia; eta irten zan erritik mendirunz.

Arkitu zuan otsua, esan zitekian aua zabalik San Franzisko jatera zijuala; baña Santuak egin zuan gurutziaren señalía otsuaren gañ esanaz: «Anaiá otsua, Jesukristoren izenian agintzen dizut, ez deiozula emendik aurrera iñori egin kalterik, ez niri, ta ez besteri.» Otso odolzalia umill-umill etzin zan Santuaren oñetan, arkumetxo bat bezela: orduan itzezin zion otsuari era onetan: «Anai otsua, zuk kalte aundiyak egiten dituzu inguru oetan, Jaungoikuaren baimenik gabe jaten dituzu bere kriaturak. Eta ez bakarrik ill ta jaten dituzu ardiak ta aberiak, baño, oraindik geiago dana, gizonak jaten ere atrebitzen zera, izanik kriatura arrazoidun oek Jaungoikoaren antzera egiñak; beragatik merezi dezu urkatzia gizon illtzalle ta lapur aundi bat bezela. Jende guztia zure kontra dago ta txit gaizki itzegiten dute zugatik, inguru oetan guzian zure etsaiak dira dienak. Nik bada orain, anai otsua, nai det zuk pakiak egitia jende oriekin ta oriek zurekin; zuk ez diezu geiago kalterik egingo, ta orain arte egin dieztezun gaiztakeriak barkatuko dizkitzute. Badaikit zure gaiztakeri guzien bide gosia izandu dala. Bada agintzen dizut, baldin geiago okerrik egiten ezpadezu, jende orrek emango dizula biar dezun guzia jateko. Egingo dezu nik esana?» Gauza arritzekua! Burua makurturik, otsuak eman zion aditzera baietz. «Guazen bada orain

elkarrekin.» Asi ziran bidian errirunz Santua ta otsua. Otsuak, bere aldamenian arkume umilla zirudiala, jarraitu zion. Ikusi zuanian Gubioko jendiak Santua otsuarekin, irten ziran etxetatik kalera. Bildu zuan Santuak jendia plazan, ta leku garai batetik predikatu zion erriari. Beste gauza askoren artian esan zien: asko aldiz nola Jaungoikuak pekatuagatik biali oi dituan alako kastiguak; baña otsuaren kastiguak baña aundiaguak izango zirala infernukuak, ezpazuten beren pekatuen penitentzia egiten. «Ea bada, nere aditzalle biotzekuak, egizute penitentzia egiazkua, ta Jaungoikuak libratuko zaituzte orain otso onen ortzetatik, ta gero betiko infernutik.

Onela itzezin ondorian, esan zion berriz erri guziari: otsuarekin pakiak egiteko tratu bat biar zala egin. Etziela kalterik egingo otsuak, ematen bazioten egun oro jateko biar zuana. Erri guziak erantzun zion Santuari: «Bai, bai, emango diogu jaten.» «Bada otsuak ere ez dizute kalterik egingo.» Adiskidetasunezko tratu onen sefialian, jende guziaren aurrian, jasorik otsuak besua eman zion zarpa Franziskori, onek eskua luzatziarekin bat. Pakiak egin ziran eta erri guzia poztu zan. Lenaz gañera erriak nai zion San Franziskori. Errian alabatua izan zan Jaungoikua bere serbitzariagatik, eta denak otso jatun aundiari ematen zioten naikua. Bi urtian bizi izan zan otsua. Jeisten zan egunoro menditik janaren billa erri-
ra, ta ibiltzen zan etxez-etxe zakurrik umillena bezain leial. Onelako mirariak ikusita, esan zitekian egiaz, Adanek, pekatu egin baño lenago, kriaturakin zeukan aginte ura, igaro zala gure

Aita-lenarengana seniparte bezela; zeren orduan Adanen esana kriaturak egiten zuten bezela, orain Franziskorena egiten zuten.

Gubio ta Massaren bitartian, bakardadian bizi zan Bartolome Barokua, gizon jakintsu eta txit aditua auzilarien artian, ta denbora berian santua. Munduko auziak utzita, egin zion agur munduari, ta onek eskaintzen dituan atsegiñai, bakardadian bere animako salbazuari obeto begiratu nairik. Jakin zuan gure Santuak Bartolome-ren bizi-lekua eta juan zan berarengana. Itzegin ziran Santuen izkuntzan, au da, animako gauzen gañ. Esan zionian Franziskok irugarren Ordena nola jarri zuan, beriala nai izan zuan Bartolomek Ordena artan sartu, sartu zan bezela.

Bartolome-ren santutxuan, dio San Antoninok, arkitzen zala gizon bat demoniua artua, beti ixiltzeke izketan jarduten zana. Franzisko an egon zan denbora guzian, mututurik egon zan. Galdetu zion Bartolomek, ia zergatik ixildu zan Franzisko an egondu zan denboran. Erantzun zion: «Alako moduz Jaungoikuak lotu dit mingaña eze, nai arren, ezin itzegin nuan.» Berriz, jakitiagatik zer esaten zuan, galdetu zion: «Zer? Orren gizon aundia da Franzisko?» Demoniuak artuak erantzun zion, egiaz aundiya dala. «Ain da aundiya bere birtutia eze, mundu guziak ezagutuko ditu gauza miragarriak orrengan. Ezta oraindik denbora asko gure nagusi Luziferrek bildu ginuzala denak, eta esan zigula, nola Jaungoikuak bialtzen dituan noizik beñ pekatariak konbertitzeko gizan aundiak, eta ori ere alaxen bialdua dala. Eta nai duala berritu Jesukristoren Pasio santua Fran-

ziskoren gorputzian, berritu dedin onela gizonen biotzetan aztuta daguana.» Au gertatu zan, gure Aita-lenari Jesukristok bere zauri sagraduak eman baño len, bi urtez aurretik. Emendik diote batzuek San Antoninorekin: Jaungoikuak aurrez agertzen diozkala demoniuari gauza batzuek, emen agiri dan bezela.

OGEI TA AMARGARREN BURUA

SAN FRANZISKO TA SAN ANTONIO

Bukatu zuanian Aita-lenak misio ura, itzuli zan Santa Maria Aingeruenera. Denbora artan anai Cesario Espirakua ere, Alemaniako praile-etxiak txit ondo jarrita, jua zan Porziunkulara bere Aita maitiari berri onak ematera, ta bidez espiritua Jaungoikozko gauzetan berrituzera. Onetarako, bere ordeko utzi zuan Alemanian anai Tomas Celanokua. Alemanian Ordena geituaz zijuan, eta Italian, gizon aundi bat gorderik zeguana, obedientziak agertu zuan.

Bolonia inguruan, San Pauloko ermitan, utzi genduan bakardade ezkutuan San Antonio Paduakua. Anai Antoniok mesede aunditzat eskatu zion bere Guardianuari etxe-garbitze ta ontzi-garbitzia. Lan oetan bere jakindurian umill eta beeti, oraziuari irazekia, santutasunian egunetik egunera aurreratzen zijuan. Uste danez mezaz ordendu gabia zan artian Antonio, eta onetara bializuten Forliko errira.

Ordenako praile-etxian elkartu ziran San Antoniorekin batera Aita Santo Domingoren semiak ere. Otorduko denboran Aita Guardianuak esan zien, batek edo batek itz alditxo bat egingo

ote zuten, animaren alimentua izan zedin. Denak edo geienak prestatu gabiak edo nekatuak zuden, aitzakia eman zuten. Orduan esan zuan Guardianuak: «Anai Antoniok egingo digu itz-alditxo bat». Antonio, beti umilla, atzen atzenian zeguan, baña ixilik aitzikarik eman gabe. Etzeukan ainbestekotzat, au da, gauza zitekiena ere itz-aldi bat egiteko, ezin zuan buruan sartu. Aiñ ezkutuan gorde zuan bere jakinduria Antoniok. Umilla beti da esan-egille. Beragatik, Aita Guardianuak esan zuanian «anai Antoniok egingo digu itz-alditxo bat», Antonio jeiki zan, esanaz lan artan baño obeto zekiala ontzi garbitzen; alere asko zala Aita Guardianuak bere naia agertutzia. Asi zan itzegiten, aurrena zerbait lotsarekin, baña laster bota zuan lotsa ura. Egin zuan itz-aldi bat, zeñian agertu zuan ain jakinduri aundia eze, denak utzi zituan arriturik, elkarri esaterafño etzutela egundaño alako itz-dun ederrik aditu. Laster juañ zan gertaera au Aita-lenaren belarrietara. Etzekiten zer geiago mirestu, edo Antonio-ren jakinduria edo aren umiltasuna. Ain da, izan ere gaitza jakintsu, eta denbora berian umill iza-tial!

Andikan laster agindu zion San Franziskok San Antoniori, Aita-lenak bere semiari, juañ zedilla erriz-erri Jaungoikuaren itza azaldutzera. Baña are obetuago bete zezan eginkizun onekin, agindu zioten ikasi zezala alik ondoena, lenaz gañera, teologia, San Andresko Abade jakinduri txit aundikuarekin. Ona zergatik anai Antonio bialdu zuten Verceilara. Denbora pixkan ain asko ikasi zuan eze, bere maisuak esaterafño asko

gauza ezkutu Antoniok berari erakusten ziozkala. ikasten ari zan denboran, predikatu zuan gari-zuman Milanen.

Esaten zioten bere anaiak erakutsi zeieela bere jakinduri ura; baña Antoniok, bere Aita-lenaren baimen gabe, etzuan nai izandu erakutsi. Geruago, izkiribuz agindu zion bere Aitak Antoniori, Ordenan erakutsi zezala teolojia sagradua; ordutik asi zan azaltzen teolojia, lenbiziko Montpellier-en, gero Bolonian, geruago Paduan, eta Tolosa Prantziakuan. San Antonio izandu zan, San Franziskoren Ordenan, Teolojiako aurreneko Maisua, Aita-len Santuak izendaturik.

ALESKO ALEJANDRO

Denbora artan, Parisko eskola nagusiko jakintsurik aundienak artu zuan praile txikienen Ordenako jantzi santua. Zeritzan Alesko Alejandro. Eskolan ezagutua *Doctor Irrefragabilis-en* izenarekin. San Antonioren iritzian, Alejandrok eman zion itza Jaungoikuari, Ama Birjinaren izenian iñork zerbait eskatzen bazion, beñere ezer ez ukatzekua. Gertatu zan bada San Franziskoren Ordenako anaiatxo batek, eskian zebillela, esatia Alejandrori: «Denbor naikua da munduan lana gogotik egiten dezula; orain Jaungoikuaren izenian eta Ama Birjiñarenian gure Ordenan sartu biar dezu; bada gu ortarako gaituzu ta zero-ri berriz santutuko zera». Alejandro jakintsua zerbait arritu zan au adituta. Jaungoikuak ukiturik biotza, orduan agindu zion anai eskaliari:

«Laster naiz zuekin. Andik denbora gutxira sartu zan Ordenan.

Anai Alejandro lenbiziko urtian izandu zan txit tentatua diabruaz, jantzi santua uzteko as-mua artzerañoko eran. Iduritu zitzaion beñ anai Alejandrori, ikusten zuala bere Aita-len Franzisko zurezko gurutze astun bat bizkarrian artuta ezin eramanik zijuala malda gogor batian; urri-kaldurik bere Aita-lenari lagundu nai izan zion. Baña jiraturik Santua orduan, berari itzegin zion zorrotz: «Atzera ortik, gizon ezereza; oialezko gurutze bat ezin eraman dezu, ta nola dezakezu eraman gurutze pisu au?» Ezagutu zuan zer adiarazi nai zion onekin Santuak, ta erabaki zuan Ordenan gelditzia, eta bukatu zan tentaziua.

Alesko Alejandro bere jakinduria paregabiagatik izan zan mundu guzian gizon ospatua. Bere ikaslien artian kontatzen dira jakinduri aundiko gizonak. Asko gizon jakintsuk izkiribiturik utzi digutenez, San Buenabentura ta Santo Tomas izandu ziran anai Alejandroren ikasliak. Alesko Alejandro izandu zan lenbiziko *summa* izkiribitu zuana. Gero aren antzera beste asko izan dira beste ainbeste egin dutenak. Gersonek dienez: «Santo Tomasen *secunda secundae*-k dirudi asko anai Alejandro Aleskuarena.» Onela beraz gizon jakintsuak ere sartzen ziran San Franziskoren Ordenan. Ona zergatik San Franziskok maiz esan oi zuan, etzedilla bere semerik oraziuz aztu ikasi naiaren ikasi naiaz, zeren santutasunik gabe jakintsu izatia, animaren kaltegarri dan.

ADIARAZTEN DIO JESUKRISTOK SAN FRANZISKORI LABURTU ZEZALA ERREGLA

Len Aita Santu Inozenzio irugarrenak itzez erregla baimenduaz, eta oraiñ Aita Santu Honorio irugarrenak izkiribituz baimendutxian, agertu zion onginaiak, txit alaitu zuan San Franziskoren biotza. Esaten digu, San Buenabenturak Jaungoikuak agertu ziola gabaz bere naia era onetan: Iduritu zitzaion ogi-papurak bildu zitu tuala lurrian ugari, bere semiai emateko: baño nola ziran txit xiak, zein galdu zitzaizkion esku-tik bildur zan. Alatan aditu zuan zerutik ots bat itz oekin: «Franzisko, ogi-papur oriekin egizu osti bat, ta emaezu ortatik jan nai duten anai guztiei.» Egin zuan agindua Franziskok. Gogo onarekin ta debozioz jaten etzutenak, edo artuta despreziatzen zutenak, gelditzen ziran legen-arrak kutsatuta.

Eguna zabaltzian, gabaz ikusi zuana azaldu zien bere semiai. Santuaren biotza illun arkitzen zan, etzekialako zer aditzera eman nai zion Jaungoikuak. Urrengo egunian, oraziuan zeguala, aditu zuan berriro ots bat eta gero itz oek: «Franzisko, berdantzarko ogi-papurak nere Ebanjelio-ko itzak dira; ostia da erregla; ta legen-arra pekatua.» Aditzera eman zion zeruak, Ebanjelio santuko itzakin egin zezala, lena laburtuaz, erregla, lenbizikua baño zerbait laburragua.

BIGARREN ERREGLA

Porziunkulako barkamena agiritu zitzaionian munduari, jua zan San Franzisko Riete ondoko uso-mendira (monte-colombo), arturik lagun anai Leon ta anai Bonizio. An arkaitz-tarte batian egin zuan barur ur-ta-ogi, Marianak dionez, berrogei egunian, beste janik gabe. Orduan izkiribitu zuan. Espiritu Santuak argiturik, orain Ordenan guardatzen dan erregla santua. Jetxi zan, lan au bukatuta, Santua bere lege santuarekin menditik Santa Maria Aingeruenera. Eman zion erregla anai Eliasi irakurri zezan; eta oni iduritu zitzaion, beti bezela, latzegiya. Andikan egun gutxira, maleziz esan zion Santuari galdu zitzaiola. Baña San Franziskoren biotz indartsua etzeguan aınbestez atzendutzeko, eta bein Jaungoikuaren aginduz asitako lanari gizonaren eragozpenakgatik uzteko. Berriro jo zuan lengo arkaitz tartia, asko gizon baño paketsuagua. An berri-berri eku zion lanari. Bañan, zer diot ekin zion lanari? Etzan lana Franziskorena, baizik Jaungoikuarena. Beragatik itzez-itz Jaungoikuak berrizkatu zion erregla.

SAN FRANZISKO TA ANAI ELIAS BERE LAGUNAKIN

Bitartian anai Elias zebillen lagun billa. Asko Probintzial, bere goguaren kidakuak, jarri zituan berak nai zuan erara. Onetarako esaten zien Ordena guztiko Bikariuak: «Biar dezute jakin, anaiak, gizonaren indarraz gañ dan lege bat antolatu duala; ain da estua lege au eze, biar degu

egin gure aldetik dana, arpegiz arpegi adiarazteko arindu biar dala erregla, pisugitzak jorik, ta zerbait leundu biar dala, zeren dan latzegi.» Erantzun zioten Probintzial aiek: «Zuk ondoena egin dezakezu ori. Itzegiozu (anaiari), eta guk zure itza ontzat emanik, geren danez indartuko degu.» Etzuan nai aurkeztu berak Franziskoren aurrian, zeren len naikua egia aditua zeguan, ta aundiaguen bildur zan. Ona zergatik aitortu zuan anai Eliasek, etzala trebe. Aitortu zuan, ta, alaz guttiz ere, bera izandu zan ondoren arturik argaltasuna gizon aietan indartzat, Probintzial isatsa bere atzetik zuala, aurkeztu zana Aita-lenaren aurrian, onen biotz ona penatzera. Agertu zion Jaungoikuak Franziskori, nola zetorzkion, ta irten zien Santuak bidera, eta aginte aundiarekin galdetu zion anai Eliasi San Franziskok, zer zekarren arengana, eta zer zekarten Probintzial aiek danak. Anai Eliasi belaunak egiten zioten ikara, eta ala, bildurraz ta ikaraz, buru makur-makur, itz motel ta erdi ixilakin erantzun zion bere Aita-lenari: «Probintzial oriek, jakinik nai diezula eman erregla bat gizonaren indarrak gañ dana, biartu naute zuregana etortzera, Bikariua naizen bezela, arren bigundu zazun zerbait gogorregia bada, bestelaz ez dutela artuko.» Ozta aditu zituau itz oek, aditze utsak erasan zion Santuaren biotzari, ikara bere barrunak eragiteraño. Jaso zituau begiak zeruronz ta egin zuan oju au; «Jau-na, ez nizun nik esan etziratela sinistatuko? Nigan danez, pobretasuna maitatzen duten nere lagun guztiekin, gordeko degu erregla au, bizi geran arte. Baña ezin biartuko ditut, nai ez duten oriek,

beren kaskuan sarturik daukatenak besteren esenik ez egitia.»

Santuaren biotzeko somintasuna aditurik zeruak, ergai batian agertu zan odei argi liluragarri bat San Franziskoren gañian, ta Jesus odeiyaren erdian, zeñak, an arkitzen ziran guztiak aditzeko moduan, esan zituan itz oek: «Gizontxua, zer dala nastutzen zera ta estutzen dezu zere burua, zuria balitz bezela erregla ori? Or eztago zuk jarritako gauzarik; ori nere egintza da. Eta nai det nik ori gorde dedilla itzez-itz, itzez-itz, itzez-itz, iritzi-gabe, iritzi-gabe. Nik badakit gizonak zenbat lezakian, baita ere zenbat lagundu neio-kian. Erregla au gorde nai ez dutenak, irten dittezela Ordenatik, orien lekuan bestiak jarriko ditut, ta, ala biar balitz, besterik ezian, arkaitz orietatik sortuko nituzke ere.»

Anai Elias eta beste lagunak ikara bizian zeuden itz-aldi au adituta. San Franzisko berriz, amorioz suturik, arkaitzaren gañian belauniko. Alatan berak aurrian zeuzkanai esan zien: «Ezagutzen dezute orain, ez nere borondatiaren kontra, baña Jaungoikuaren kontra zabiltzatela? Eta ondo buruan erabilli biarrian zenbat lezakin Jaungoikuak gurekin, zuen indarrak neurtutzen zabiltzatela? Aditu dezute, aditu dezute odeitik irten dan itza? Bada aditzeko moduan zan. Zuen belarriak ezpadute ondo aditu, oraindik nai badezute berriro aditu ere, nere naian dago.» Anai Elias ta bere lagunak, bildurraz ta ero biurturik bezela, gelditu ziran ezin somaturik zer egin, ta azkenik gizon jakintsu ta indartsu aiek bereiztu ziran andik lotsa aundiarekin.

SAN FRANZISKO TA BERE SEME LEIALAK

Aita-len santua jetxi zan bere bi lagun leiale-tara, au da, anai Leon ta anai Bonizio zeuden tokira. Oek zeuden artian aozpezturik, kopeta lurrian; zergatikan, aditu zutenian Jesus maitiaren itza, ezeztatu ziran Jaun zerukuaren aurrian, ta umill jarri ziran egoera artan adoraziuan. «Jaiki, nere semiak, – esan zien Aita-lenak –. Ez ikaratu, baizik jantzi zazute Jaungoikuaren arma indartsua, beti ernai egoteko, ez erortziagatik etsaiak jarriko dizkitzueten lazuetan, zefa dago beti errabiaturik gure kontra.» Agurtu zuan San Franziskok mendi santu ura, ta maldaz bera, beste orduz Moises bati Sinai-ko menditik jeitxi zanian bezela, arpegiak dizdiz egiten zion. Bere Jaungoikuak emanikako erregla santuarekin, lenbizi erosuena arkitu zuan Ordenako praile-etxian sartu ziran.

Ongi-etorri alaia egin zioten bere seme leialak. Nola bada etzioten egingo? Izandu ziran batzuek erregla irakurri onduan esan ziotenak onian, seme egiazko batek Aitari bezela: zerbait bizitzeko ondasun al ote zezaketen iduki, ez bakoitzaren izenian, baña guztien izenian? Au esaten zuten, egunetik egunera ugarituaz zijualako praile txiki-kienen taldia. Santuaren birtutia etzutenak, gero-ko bizi biarrari begiratzen zioten, ta gero nola ziran mantenduko, kontuak ateratzen zituzten.

Irugarren aldiyan jua zan Santua Jesusen Biotzari kontsellu eskatzera gai onen gañian. Egin zuan orazio, eta ona zer erantzun zion bere Jaunak: «Franzisko, neroni naiz zure semien seni-

parte ta erentzia. Ez det nai zure semiak lurreko ondasunetan kutsatutzia. Baldin erregla ori gor-detzen badute ondo, ta nigan jartzen badute ga-ñera konfiantza osua, neronek artuko det berak mantentzeko kargua. Etzaie iñoiz ere bizitzeko biar dana paltako. Zenbat geiago diran ugaritzen, anbat aundiago izango da nere Probidentzia be-rekin.»

Jaungoikuaren Probidentzia egiaz beti azaldu da miragarria San Franziskoren Ordenan. Zenbat eta pobretasun estuaguan bizitu izan diran Fran-ziskoren semiak, areta miragarriazko moduan aundiagua ikusi da, ta ikusten da, Jaungoikuaren Probidentzia. Izandu dira gizon aundi-ustekuak arritu diranak Asis-ko Franziskoz, esateraño ez dala arkitu iñoiz munduan au baño politiku aun-diagorik, ark gizataldiak mantentzen zitualako iñungo errenta ta urre-zillarrik gabe bere Orde-nan. Oar bitez onela itzegiten diranak, San Fran-ziskok, ez gizonaren eskuan jarri zituala bere se-miak, baizikan Jaungoikuaren eskuan; ez lurre-ko gauzetan jartzen zuala konfianza, baizikan Jaungoikuaren Probidentzian. Jaungoikuagan kon-fiatzen duanari etzaio ezerere paltatuko.

Jesukristoren esanera pozik jarri ziran San Franziskoren semiak, ta utzi zituzten gorputzari begiratzeko arretak. Itzuli ziran gero Asisa Santa Maria Aingeruenera. Aita Santuari baimena es-katu baño len, irakurri zien an arkitzen ziranai, bai ta ere biali zitzaien beste Probintzietan arki-tzen ziran erlijiosuai ,esamina zezaten. Ezagutu zuten San Franziskoren semiak erregla ura etzala Santuaren lana, baizik Jesukristorena, eta guztiak

eman zuten ontzat. Jesukristoren lana dala San Franziskoren lenbiziko Ordenako erregla ezagutze-ko, asko da aditzia Santuak berak esaten diguna: «Erregla onetan – dio Santuak – nik ez det ne-retik ezertxo ere jarri, baizik izkiribitu det guzia Jaungoikuak adiaz ditan bezela.»

HONORIO IRUGARRENAK BAIMENTZEN DU SAN FRANZISKOREN ERREGLA

Milla berreun ta ogei ta iruan, Urrillaren az-ken aldera, jua zan Franzisko Erromara, Aita Santuagandik erreglaren baimen sendogarri billa. Ian aundi au ondo egiteko, lenik jarri zuan kon-tuan Kardinal Ugolino Ordenako anparatzallia, aren bitartez aurkeztu zedin gero Aita Santuaren aurrian. Gonbidatu zuan egun artan Franzisko Ugolino Jaunak elkarrekin bazkaltzera. Iduritu zitzaion Santuari mai aberatsa urri, baldin eta pobretasunak ezpazun egiten dizdiz. Jua zan errira, ta, egiñaz pobre eskaliaren biar gaia, es-katu zuan atez ate, Kardinal Jaunaren maiari itxoron gabe, ta bildu zituan ogi-puska batzuek. Eldu zan otordu denbora eta eseri ziran maian. Atera zituan laster puska-legor aiek guzien aurri-an, eta maiko jendiari eskaiñi ziozkan, gonbida-tzen zituala era onetan ogi legorra jatera. Denak jan zuten artatik, deboziua gozaturik, Jan on-duan, Jaungoikuari eskerrak eman ta gero, San Franzisko ta Kardinal Jauna gelditu ziranian ba-karrik gelan; onek esan zion Santuari «On pus-ka, zergatik eman diazu lotsa ura maian, ta de-sonratu dezu nere maia?». Erantzun zion: «Jauna,

kontrara esan beza. Ez desonratu, aitzitik bai txit onra aundiya egin diot; badakit dakiala zein onratu detan. Jaun zerukoa onratu det, zeren txit asko gustatzen zaio pobretasuna, batez ere gogozkua bada.» Guziz ondo artu zituan Ugolino Kardinalak Franziskoren azken itz oek. Bigaramunian lagundu zion Aita Santuaren jauregira. Letu zuan Aita Santuak erregla, ta iduritu zitzaion latzegia. Orduan San Franziskok indar guziarekin adiarazi zion, erregla artan etzuala parterik; Jesukristok berak agindu bezela izkiribitu zuala. Aita Santua konsultatu zan Kardinalakin, eta baimendu zuan, edo, obeto esateko, lenago baimendua itzez, sendotu zuan izkiribuz era onetan:

ERREGLAREN BAIMEN SENDOGARRIA

«Honorio Obispu, Jaungoikuaren serbitzarien serbitzariak, egiten die agur eta ematen die Apostoluen bendizua anai Franzisko seme maitiari eta beste gañerako praile txikien Ordenako guztiei. Ala oi ditu eman mesede onak Pedroren aulkiak, deseo onesto ta eskari piadosuak egiten dituztenen alde itzulita. Ona zergatik, nere seme maitiak Jesu-Kristogan, zuen eskari piadosuetara itzulita, markaturik oraingo gure itz oekin, sendotutzen degu Apostoluen eskuarekin zuen Ordenako erregla, lenago gure aurretioko Aita Santu Inozentzio oroimen onekuak baimendu zuana, eta sendotutzen degu izkiribuzko itz oen indarrarekin; zeña onela asten da: Jaunaren izenian asten da (emen) praile txikien erregla. Praile

txikienen erregla ta bizitza au da: esan nai da: Ebanjelio Santua gordetzia, bizitzen dirala obedientzian, beren gauzarik gabe, eta kastidadian».

Emen erregla guzia aitatu onduan, bukatzen du azkenik onela: *Nulli ergo omnino...* Esan nai da: «Iñolako moduz iñungo gizoni etzaio zilegi gure orri sendogarri au ausitzia. Bada norbait ausartuko balitz au egitera, edo onen kontra zerbait esatera, jakin beza onek, Jaungoiko almen guzikuaren ta Pedro eta Paulo bere apostolu doatsuen aserria, izango duala beraren gañ. Letra-nen emana, Azaruaren ogeita bederatzian, milla berreun ta ogei ta iruan, Aita Santu naizala zortzigarren urtian.»

ERREGLAREN GORDETZALLE LEIALEN PRIBILEJIUAK

Erregla au guzia da zerukua. Au da erregla, zeñaren araura bizitu diranak, arkitzen dira izendatuak santuekin. Nork, onen gordetzailiak bezela, apaindu Eliza? Nork bestek bete du santuz zeru ederra, San Franziskoren erregla-pian bizitu izan diranak bezela? Ona zergatik agertu ziozkan Franziskori Aingeruak, erreglaren baime-na artu onduan, mesede onengatik Jaungoikuari eskerrak ematen zeguala, pribilejio guztiz aditu ez bezelakuak; zeñak azaltzen dituzte onela, kronika zarrian, Santuaren bizitza izkiribitu zuten iru dizipuluak.

1^o: Erregla au ondo gordetzen saiatutzen diranak izango dute zerutik Espiritu Santuaren laguntza berezi bat beren eginkizunetan.

2'gn.: Ok izango dituzte, lurreko bizitza illkor nekezko ontan, asko atsegin gozo biotzian eta argitasun bereziak, ezagutzeko etsai inpernukua-ren artiak, eta onen lazuetatik libratutzeko, pekatu pisuan erori gabe.

3'gn.: Beren bizitza guztian erregla santua ondo gordetzen dutenak, izango dutela justuen erio-tza: eta, libre purgatorioko penetatik, juango di-rala goatzera zeruko gloriaz.

4'gn.: Leialki erregla gordetzen dutenak, izan-go dutela parte Jesukristok apostoluei egin zien aginte artan: «Zuek, munduko gauzak oñazpira-tu dituzutenak, niri jarraitzeko, gizonaren semia datorrenian juzgatzen, izango zerate juezak.»

5'gn.: Ordenako ongille ta erregla santu au gordetzen dutenak, ta oen debotuak, izango dira-la zorionekuak eta Jaungoikuaren begietan txit gogokuak. Aitzitik Ordenaren etsaiak ta persegi-tzalliak izango dirala zori gaiztokuak, eta arkitu-ko dira betiko galtzeko arriskuan.

6'gn.: Azkenik erlijio santu onek iraungo du munduaren azkeneraño: eta iñoiz ere ez dira pal-tako Ordena onetan erlijiosuak gordeko dutenak txit garbi ta zuzen erregla santua. Eta oeri Jaun-goikuaren Probidentziak, danik eta estuasunik aundienetan, lagunduko die beti miragarrizko mo-duan.

Agitz esan nezake, egunero, biatzarekin ukitze-ko moduan, au edozein lekutan egizatzen dala San Franziskoren semiakin. Ezer ez dutelarik, eze-ren paltarik ez. Guzia Jaungoikuagatik uzten dua-

nari, guzia datorkio eskura nundik-nai. Au ikusirik, nork eztu maitatuko Ordena santu au? O Jauna! Eskerrak diozkat ematen, zure Eliza len ederra ta oraiñ are ederrago egin dezulako apaingarri berri onekin!

OGEI TA AMAIKARREN BURUA

SAN FRANZISKO DIABRUĀZ AZOTATUA

Erromako eginkizunak bukatu zituanian, erabaki zuan zelebratzia Jesusen jaiotza Grekioko basoko bakardadian; beragatik bere adiskide Juan Velitari eman zion aditzera bere asmua, ark egin zitzan biar ziran prestamenak, nai zan ordurako.

Agur egin baño len Erromari, jua zan Santua bere adiskide ta ongille aundi Branca-leon Kardinalaren jauregira, Elizako prinzipte ari agur egi-tera. Anaia Anjel Tancredo arkitzen zan San Franziskoren baimenarekin Kardinalaren laguntzan, zeñak nai zuan beti iduki aldamenian San Franziskoren seme bat. Guztizko agur gozuarekin artu zuan Franzisko Kardinal jaunak, eta erregutu zion, arren, gelditu zedilla aren etxian egun batzuetako bederik. Ainbesteraño leiatu zan ezgeroz, iduri zitzaion zilegi zala gelditzia, jauregian bizi-biarra gauza pisua izanagatik San Franzisko pobriarentzat. Jauregian zan tokirik garaiena eman zioten, dorre batian, Franziskori ta bere lagunari, ezagutzen zualako Kardinalak bakardaderako Santuak zuan jaiera. Lenbiziko gaba igaro zuan diabruz txit tentatua.

Ainbesterañoko gerra egin zion diabruak ezik, esateraño Santuak illko zutela inpernuko zitalak, bada gau artan txit gogor azotatu zuten, eta azkenik bota zuten lurrera zati-zati egiñik. Esan zien lagunai goizian, zer gerta zitzaion gabian, eta erabaki zuan jauregitik irtetzia; zeren esaten zuan: «Ni jauregian nagualako, duda gabe eman dio Jaungoikuak diabruari eskua, onenbesteraño ni zatitzeko. Nere semiak obi gisako gela txikietan, eta ni emen etxe eder onetan! Desegokeri aundia litzake ni emen egotia, eman biarrik nik nere semiai ejemplo ona.» Beriala eskatu zion Kardinal jaunari andikan irtetzeko baimena, eta, bere osasun eroriagatik, astotxo baten gañian jarri zan Grekioko bidian. Orazioko orduak deitu zion Jaungoikuarekin itzegitera, ta, Jeitxirik asto gañetik, asi zan bera oraziuau zutik, eta, ebi-jasa ari bazan ere, etzan toki-aldatu, ain gutxi oraziuaz aspertu. Errezatzen ari zala, gogoratu zitzaion, berak noiz-ere-bait egin zuan zurezko ontzi bat; etxeratu zanian, ontzi ura izan zalako crazio artako eragozpena, surtara bota zuan. Adiarazten zaigu emen, nola Santuak ere izan oi dituzten oraziuau gogoratze arrotzak, eta denboræ berian nola dakizkiten orien gaiak desegiten, eta eragotzi al dezakiana orazio ondo egitia urri-natzen.

JUAN VELITA ETA SAN FRANZISKO GREKION

Bidiak eta denborale txarrak ondo nekatua, eldu zan Grekioko bakardadian arkitzen ziran bere seme penitentietara. Eguarri-bezpera zan, eta

San Franziskoren adiskide Juan Velitak prestamen aundiak egiñik zeuzkan, Jesusen jaiotza zelebratzeko baso itzaltsuaren erdian. Aita Santuak, berriz, kristau guziak gonbidatzen zituan barkamen askorekin pesta artara. Olensaro gabian, jarri zuten poliki Jesus bat lastuaren gañian; eraman zituzten onen aldamenera asto bat eta idi bat, bizi-biziak. Alde guzietatik bidiak betian zertorren jendia, eta gau erdian asi zan meza kantatua, zeñian Franziskok kantatu zuan Ebanjelio Santua. Ebanjeliua bukatzian predikatu zuan «Errege pobriaren» sermoia. Sermoi guzian beste izenik etzion eman Jesusi, «Belengo aurrarena» baizik. Nork esan zenbateraño Santuaren biotza arkitzen zan orduan irazekia amoriuaren indarrak? Begiak josirik zeuzkan, lastuaren gañian zeguan Jesus aurraren gañ. Zeruko Erregeren pobretasun ta umilltasunak eragiten zion Santuaren biotzari gañez, eta begitik malko lodiak zerizkan, arpegi penitentziak desegiña bustitze-raño.

Grekioko bakardadiak zeru berri bat zirudin, ango kantu zoragarriak, ango jendiaren arpegi alaiak azaltzen zutela beren barrengo poza. Franzisko, berriz, Jesusi kontutxuak egiten. Mirari aundi au ikusi zan meza bukatzian. Jarri zan Santua Jesusen jaiotzaren aurrian, gau artako misterio paregabia gogoratzen. Alatan zeguala, ona nun agertzen zaion aurtxo bat bizirik, lastuaren gañian, bere eskutxuakin ta parra txikiekin gonbidatzen zuala Franzisko ari begiratzera. Santua lenbiziko pozez beterik, aurrari begira zeguan, ta gero Jesus aurra artu zuan bere besuetan; adora-

tu onduan egin ziozkan kontutxuak. Mirari au askok ikusi zuten, ta ikusi zuten arteko bat izan du zan Juan Velita. Onela, Jesusek bere deboto Franziskori sariztatu zion orduan bertan, agertu zion amoriua. Mirari onen egia sendotutzen da eta duda guztiak kentzen dira gertaldi onen gañ, irakurten danian Jesus egondu zan lastuak, asko abere eri sendatu zituala. Jesus agertu zan toki artan, egin zan gero elizatxo bat.

Denbora artan asko erlijioso bildu ziran Grekion, eta aien artian baziran Probintzien buru egiten zutenak ere, bakoitzak bere Aita-lenari zerbait kontsellu on eskatzeko asmoz gauza bati an edo bestian. Egun aundia izanik Eguarri eguna, beste egunetan baño zerbait jan geixago ta arreta piskatxo batekin maniatua jarri zan otordurako. Franziskoren semiak egunari zegokion bezela, arkitzen ziran pozkidazko egun artan zerbait alaituago beste egunetan baño. Aita-lenak, aien espirituko onari begiraturik, adiazi nai izan zien egun santuak santuki nola biar ziran igaro, espirituari geiago begiraturik gorputzari baño. Maian zeudela, arturik Aita-len Santuak peregrinuo baten makill-txapelak, jantokiko atonduan eskatu zien umill ogi pixka bat gosia illtzeko. Aitaren itza ezagaturik guzien buru an egiten zuanak, agindu zuan anai peregrinua sartu zedilla barruna. Sartu zan umill Franzisko bere semien artera, eta eseri zan lurrian. Lurrian eserita jan zuan eman ziotena, gero, umiltasunezko ato eder au egin onduan, jeiki zan, eta egin zien itz-aldi bat guztiz ederra Jesukristoren pobretasunaren gañian. Orduan esan zien: egun santuak obeto ze-

lebratzen zirala eguneko misteriuak buruan era-
billirik, eta moduren batian idurikaturik misterio
bakoitzian Jaungoikuak adiazi nai diguna. Bera-
gatik Jesus aurraren jaiotza pobriaren egun san-
tuan, erlijiosuaren katillurik aberatsena zala aren
pobretasunian zerbait parte izatia. Era onetan go-
zo ta ezti adiarazi zien, berrogei ta amar eguneko
baraubaren ondorian, etziotela begiramen geiegi
gorputzari izan biar, eta egun bateko jan geiegia-
rekin, garizuma luzeko merituak etzirala galdu
biar.

San Franziskoren adiskide on Juan Velitak
eman zion legorra Santuari gaua igarotzeko. No-
la Santua aspaldian arkitzen zan gaitzaren men-
dian, on biarrez, lumaz betetako eun-zorro bat
eman zion buruperako. Gau guzia igaro zuan
beillari Santuak, luak begirik itxi gabe eta buru-
ko miñez. Egun-sentian esan zion bere lagunari:
«Lumazko burupe au ez dakit zer dan. Nik uste
det diabrua daukala barrunian. Eramaizu emen-
dik, bada eztigu paltarik egiten. Artu zuan anaiak
lumazko eun-zorrua, eta, gelatik irten bazain las-
ter gelditu zan ez atzera ta ez aurrera. Orduan
Aita-lenak agindu zion obedientziaz itzuli zedilla
atzera, ta instan berian diabruak aldegin zuan.
Ala zion Franziskok: «Atzo ezgeroz ortxen ibilli
da nundik aterako ninduan pazientziatik diabru
artetsu gaizto ori. Juan dedilla lotsaturik bere bi-
dian. Eztu gurekin zer egin inbidiosu txarrak.»

SAN FRANZISKOREN BIZITZAKO PITXI BATZUEK

Pazkua Espiritu Santuko denboran, oi bezela, zelebratu zuan beste Probintzialekin batera, Ordenako billera. Billera artan, anai Spirako Zesarrio Alemaniako Probintzialaren lekuan, izendatu zuten Pisako anai Alberto, len Inglatierran izandua. Billera artatik biali zituzten ere Urbinoko errira erlijioso batzuek, praile-eliz-etxia egitera, ango jendiak lagundurik.

Urte artan predikatu zuan ere Bolonian, eta adiarazo zion erriari, Aita Santo Domingoren errekuakgatik, nola Jaungoikuak libratu zituan asko gaitzetik. «Asko aldiz –esan zien–, amenazatu zaituzte Jaungoikuak lur-ikarakin. Aurten bertan lur-ikarak bota dizkitzute etxe asko: lur-ikara oriekin eskatzen dizute Jaungoikuak biotza. Utzirik beraz pekatua, itzul zaituzte Jaungoikuarengana.» Artan ari zala Santua, berriztatu zan lur-ikara, ta, alere, oñik mugitu gabe segitu zuan itzegiten. Boloniako jendiaren artian asko on egin zuan Franziskok, beste toki askotan bezela.

San Franziskoren laguna beñ batez arkitzen zan biotz illun ta naigabe pisuarekin. Azaldu zion bere Aitari biotzeko pena ura. Pena ura zetorkion orazioko denboran, etsaiak asko tentatu ta zirikatzen zualako. Aita-lenak au jakitian, eginik lendabizi gurutze bat anai aren gañ, esan zion: «Alaitu zaitte, nere anaia; ez izan beñere etsaiaren bildur; armatu zaitte gurutziaz, eta gurutziazen señaaliarekin desafia zazu etsaia, bada seguru dizut esaten: Garaimena zuria izango da.»

Aiñ zan aundia San Franziskoren Jesusengako ta bere izenaren alderako jaiera ze, izen santu au aitatutzian, askotan gelditu oi zan Jaungoikuagan sortua, korda gabe, airian, eta izen onen gozotasunak ematen zion poza, irakurtzen zan, asko aldiz, aren arpegiko alaitasunian. Aitarengandik ikasi zuten San Franziskoren semiak Jesusen izenari jaiera au izaten. Gure ordenako asaben antzera izan deiogun guk ere.

Egun aietan gertatu zan Cataneoko anai Pedro, Ordenako lenbiziko Vicario Generalaren eriotza, Santa Maria Aingeruenian, Martxuaren bigarrenian, milla berreun ta ogei ta lauau. Bizitzan txit gizon santua izan zan bezela, ill ta gero ere ala azaldu zan. Gorputz santuari eman zioten obi egokia, eta une artatik bere biziko mirariak adiarazi zuten aren santutasuna, len esan degun bezela.

SANTA KLARAREN ERREGLA

Asisko Klara bere alabakin bizi zan San Damianen, ikusi degun bezela. Eskatu zion Franziskori Klarak, bere semiai eman zien moduko erregla bat beretzat ta bere alabentzat. Gai onen gañ itzegin zan Ugolino Kardinalarekin, eta bien artian izkiribitu zuten amabi burutan erregla bat. guztian San Franziskoren semiak dutenaren antzekua. Kontairak dionez, erregla ura izkiribitzen ari ziran denboran, Ugolino Kardinal jaunak egin zuan negar gogotik, ikusirik emakume pobretxo aiek, zein bizi-modu latza ta gogorra nai zuten eraman.

Erregla onetan itz banaka batzuek baizik etziran jarri Kardinal jaunaren aginduz; ala aditzera eman zuan Inozentzio laugarrenak, erregla sendotutuzian. Badire oraindik Klararen alabak, erregla au gordetzen dutenak. Geroz zerbait, urtien buruan, izandu zan arindua Aita Santu Gregorio bederatzigarrenaz, Inozentzio laugarrenaz ta Urbano laugarrenaz. Txit dago erregla au jakinduri aundiarekin izkiribitua. Asko da gogoratzia San Franziskori Jesukristok nola eman baizion erregla bere semientzat, ta, onen antzera egiña izanik Santa Klararen alabak gorde biar zutena, beraren zerutikako jatorria ezagutzeko. Anai Elias Bikariuari utzirik Santuak Klara ta bere alaben kontu arretatsua, artu zuan Cortonaruntzko bidia. Denboratsu artan Ugolino Kardinalaren erreguz, biali zion Santuak Santa Isabel Hungriako erregiñari, soñian berak erabiltzen zuan kapa.

SAN FRANZISKOREN ESPIRITUA

Utzirik piska bateko pekatariak predikatzia, jua zan Santua Cellako praile-etxera, zeña arkitzen zan Cortona inguruan, bakardadian bakarrik Jaungoikuarekin itzegiñaz, berritutera bere espiritua, lenaz gañera Jaungoikuaren amoriuan sututuzera, bere amorio guztia Jesusi berriro eskaintzera. Añ da gauza biarra animen salbazioko lan eder ontan eguneko orduak neketan igarotzen dituztenentzat, noizik beñ bañu berri bat espiuari bakardadian ematia. Gure Aitak, berak lenik eginarekin, nai digu erakutsi beste ainbeste egiten. An zeguala, etorri zitzaion gogoak bakar-

dade aundiago baterako, eta erabaki zuan Alber-
nako mendira juatia. Bañan, nola juan zitekian?
Indarra biar zan bidegiteko, eta Santua guzia ar-
galdua egonik, agindu zuan billa zekiotela asto-
txo bat. Astorik etzuten arkitu, nunbait etzan as-
to-lekua. Ekarri zioten zaldi bat, eta, konbertitu
ezgeroz, lenbiziko aldian ta azkena, eta orduan
ere ezin bestian, zaldiz jarri zan Albernako bi-
dian.

San Franzisko eraman zuan zaldiaren prenuak,
mirari aundi bat egin zuten. Andre bat arkitzen
zan txit gaizki bere sabeleko aurra ezin argitara
emanik. Santua eraman zuan zaldiaren kabris-
tuak, jarri ziozkaten oian bere onduan, eta beria-
la jaio zan aurra erraztasun aundiarekin.

Albernako mendiaren egi bat ikuste utsak Fran-
ziskoren biotzian piztu oi zuan amoriozko su bi-
zia. Eldu zan mendi santuaren oñera, Golgota be-
rriaren gañera igotzeko. Arkaitz bakoitzak gogai-
tzen dio Jesus maitiaren pasio santua. Ez da an
arririk, ez aitz idikirik, ez eta ere arkaitz zarta-
turik, gizonaren biotzeko gogortasuna zenbatera-
ñokua dan azaldutzen ez dionik. Ozta Santua ur-
bildu zan, alderatu mendi artara, arrazoiak gida-
tutzen bazituen bezela, irten zioten bid-erdira
txoritxuak, beren modu inozentera ongi etorri
kantuzkua egiñaz. Beñ jartzen zitzaizkan sorbu-
ruan, bein juaten zitzaizkan eskura, lenago beste
batian aitatu nuen bezela. Ezagutu zuan Santuak
Jaungoikuak bere mandatari bialtzen ziozkala
anai txoriak, adiarazotzeko ontzat artutzen zitua-
la mendi artarunz eman zituan pausuak, anai
Leoni esan zion bezela. Igo ziran Jaungoikozko

gogorazio santuetan, biotzeko poz aundi batekin, mendiaren tokirik garaienera. Lenago bizitu zan gelatxuan egin zuan oraiñ ere bere egoitza. Pa-guaren adar ostu xabalen erdian mirotza oraindik bizi zan, ta bere kantu neurtuarekin adia ematen zion Jaunaren serbitzariari goizian goize-tik, Jaungoikua alaba zezan. Nork lezakian orain adiaz, gure santuaren biotzeko amorio ederra zenbat irazeki zan egun aietan? Lenago biotzak gañez egiten bazion, oraiñ biotz ura, nolakua egon biarko zuan? Laster zerbait ezagutuko da, Jesu-kristok Franziskoren gorputza bost arrosa usai gozokoen antzeko zauriak in apaindutzen duanian.

Noiz nai ikusten zuan bere lagunak airian, lu-rra oñakin jotzen etzuala. Asko aldiz, bere bio-tzeko amorio santuaren indarraz, txit goraturik egoten zan. Ikusi izandu zan, zuaitzik garaienen azkeneko adarraren puntaren puntako ostua ez jo, bai jo oñarekin, airian guziaren gañian. Ori baño geiago: Ikusi izandu zan, egaztirik aundie-na bezela, airian egatzen, eta anai Leon gizon santuak bere begiakin ezin ikusteraño airian gal-tzen. San Franziskoren seme au gelditzen zan or-duan, Jesukristo zerura igo zanian apostoluak ze-ruronz begira gelditu ziran eran, noiz agertuko ote zan bere Aita-len santua.

Arri zabal bat zeukaten mai orde. Aren gañian artzen zuten, bizitzeko doi-doi biar zan jana. Beiu batez arriaren gañian agertu zitzaion eserita Je-sus, eta itzezin zuan San Franziskorekin. Orduan esan zion Jesukristok, Ordena santuak iraungo zuala munduak dirauben arte. Ordutik gerora, etzuan San Franziskok nai izan arri aren gañian,

errespetuaren aundiz, Jesus aren gañian egon zalako, iñoiz ere jatia. Agindu zion anai Leoni: garbitu zezala arri zabala urarekin, arduarekin, esniarekin, oliuarekin eta balsamu usai gozokuarekin. Baño nola anai Leonek etzeukan ainbeste gauza, bakarrik untatu zuan oliuarekin esanaz: «Jaungoikuaren aldaria da au.»

SAN FRANZISKOREN BEDERATZI GARIZUMAK

Ondo deritzot izango dala emen jartzia gure Santuak egiten zituan barur luziak, bere semiak iduki dezaten Aita maite au ispillu gisa begien aurrian egite guzietan. Bederatzi garizuma urtian egiten zituan San Franziskok. Lenbizikua zan Elizarena, kristau fededunak egin biar dutena. Bigarrena Espiritu Santuarena, Pazko-asteazkenetik Espiritu Santuaren etorrera arteraño. Irugarrena Apostoluena, Espiritu Santuaren etorreraren zortzigarrenetik San Pedro bezpera arteraño. Laugarrena Asuntziokua, San Pedro bigaramunetik Ama Birjiña zerura igo zan pesta arteraño. Bostgarrena San Migelena, Ama Birjiña zerura igo zan pestatik San Migel arteraño. Seigarrena Santu guztiena, San Migel-egunetik Santu guztien bezpera arteraño. Zazpigarrena Jesusen jaiotzarena, Santu guztien biaramunetik Eguarriak arteraño. Zortzigarrena Errege santuena, San Esteban egunetik Erregien eguna arteraño. Bederatzigarrena Jesukristoren barauaren izenian, Erregen biaramunetik berrogei egun segituan. Onela, urte osuan, esan genezake gure Aita-lenagatik, egiten zuala barur.

SAN FRANZISKOREN BENDIZIUA

San Franziskoren lagun anai Leon arkitzen zau egun aietan txit tentatua diabruaz eta espirituko illuntasun aundi batian. Bere Aita-lenaren itz gozo batek uste zuan desegin zezakiala tentazio ura. Ekararazi ziozkan tinta-lumak Santuak, eta eman zion izkiribuz bendizio eder au, letra misteriotsu Tau, T, zefia dan gurutze bat, lenbizi egiñik: «T: Jaunak bedeinka ta gorde zaitzala, agertu deizula bere arpegia eta urrikaldu dedilla zuzaz; zuga-nunz izan dedilla bere begiramena, eta pakia deizula eman; Jaun Jaungoiko guzia alduanak bedeinka dezala anaia Leon. Ar ezazu, nere semia, paper au eta indartu zaite etsaiari arpegi emateko.» Oza artu zuan bendizio au berekin, aldegin zion tentaziuak eta gelditu zan espirituko sosegu aundian. Geroztikan Santuaren deboto askok eraman oi dute bendizio au berekin, eta libratu izandu dira animako eta gorputzeko gaitz aundietatik.

URRE GORRIZKO IRU DIRUAK

Maria zeruko Erregiñaren zeruetara igo zan egunaren egun batzubez aurretik, utzirik bere gela-txua, irten zan bakardade aundiago baten billa mendi artan, eta arkitu zuan aitz-tarte bat guttiz toki bakarrian. Antxen, San Migelen onran urtero egiten zuan garizuma erabaki zuan aurteran igarotzia. Artarako bere ikasle leial anai Leoni agindu zion, egunian beñ, eta orduan illunabarran, eraman zeiola ogi-pixka bat eta ura; eta ar-zuluan sartu baño lenago, eman zeiola adia

esanaz: *Domine, labia mea aperies; et aertzen bazion: et os meum annuntiabit laudem tuam, sartu zedilla; baña erantzuten ez bazion, etzedilla sartu. Egin zuan agindua anai Leonek. Asko aldiz ordia etziokan erantzuten Santuak, eta arriturik itzultzen zan atzera, eta etzion erantzuten zeren Jaungoikuarekin egoten zan, espirtua gorputzetik bereziturik bazeukan bezela.*

Bein batez anai Leonek aitz-bitarte batetik kirik eginik, ikusi zuan San Franziskoren buru inguruan guztizko argi ederra, eta Santua bera norbaitekin itzegiten bazeguan bezela, lurrian aozpezturik, aditu ziozkan itz oek: «O Jauna! Zein zera zu eta zein naiz ni? Zu guztien ontasuna, Zu kriatura guztien Jabia. Ni berriz pekatari errukarri bat eta lurraren gañian dan arrik itxusiena.» Ikusi zuan gero, nola, aozpezturik zeguan tokitik, jeiki zan, eta, iru aldiz eskua sarturik bere bularrarian, luzatu zuan aterarik gero argitasun artara. Argi ura zerbait asi zanian ezkututzen, nai zuan anai Leonek kiriketa utzita aldegin ixilik, baño oartu zuan Santuak, ta, deiturik beregana, errietagozo bat egin zion, an ikusmiran egon zalako. Umill artu zituan anai Leonek Aita onaren esanak, eta gero galdetu zion: «Nere Aita, ikusi detan ezgeroz zer igaro dan, biar dit guzia azaldu gertatu dan bezela; biar dit esan Jaungoikuaren amorioagatik.» Jaungoikuaren amoriuia izanik giltzarik egokiena San Franziskoren biotzeko etia idikitzeko, itz onezaz baliatzen da anai Leon, jakiteko bere Aita-lenarengandik igaro zan guztia.

«Nere semia – erantzun zion –, zu begira zeun-

den denboran, Jesukristok eman dit Jaungoikua-
ren izatiaren misterio aundi onen ezaguera; ona
zergatik, guztia arriturik diadar egin detan: Zein
zera zu, Jauna, eta zein naiz ni? Gero esan zi-
ran Jaunak, bere eskutik ainbeste mesede artu ni-
tuan ezkeroz, zer emango nion orien paguan?
Eta erantzun nion: Ni guzia zuria naiz, eta zer
neioket eman nik, ezpadet mundu ontako gau-
zarik? Orduan agindu ziran sar nezala eskua kol-
kuan. Sartu nuan, ta arkitu nuan urre gorrizko
diru bat, eta beriala eskañi nion. Au egin nuan
iru aldiz. Eman ziran aditzera Jaungoikuak, iru
diru aietan aditu biar zirala aren laguntzarekin
jarri nituan iru Ordenak; bai eta ere Ordena san-
tu orietan egiten diran iru itz-ematiak, botuak.»

DIABRUAREN ERRABIA

Orañ esatera nuanetik ateratzen da, zeñ aun-
dia zan diabruak San Franziskorentzat zeukan go-
rrotua. Arkaitz-zulotik zeru ederra ikustera irten
zan batian, bide-txior estu-estuan zijualarik kon-
tuz, zeren alde batera mendiaren ondotik ebakia
zeguan arkaitz gogorra, begiratze utsak begiak ez-
keltzen zituana, une artaz baliatu nai izan zuan
inpernuak Franziskori bizia kentzeko. Agertu zi-
tzaion bada diabrua Etiopiako beltz baten itxuran,
eta, andikan beera amildutziagatik, indar egin
zion Santuari arturik gurruntzik. Bañan «Jesus!»
esanikan, eldu zion Franziskok arkaitzari, eta une
berian arri gogorra bigundu zan argizagia bezela.
biatzen seña arrian utzitzeroño. Laster aldegin zu-
an diabru zitalak.

OGEI TA AMABIGARREN BURUA

JESUKRISTO SERAFIN BATEN ANTZAREKIN AGERTZEN ZAIO SAN FRANZISKORI GURUTZIAN JOSIRIK

Eldu gera San Franzisko Serafin ederraren kontairaren unerik miragarrienera. Zenbat dezakian Jaungoikuaren laguntzak! Gizonaren izatiari ezere kendu ta egotzi gabe, egiten du Aingeruen pareko. Zerk egin zuan Franziskoren biotzaz amoriozko sutegi bat? Zer izandu zan aragizko biotz artan, ainbesteraño irazeki zuana Jaungoikuarenganako amorio ura? Nai dezu jakin, irakurle ona? Bada nik esango dizut. Jesusen Pasio santuaren oroimena izandu zan San Franziskoren biotzian sutu zuana Jaungoikuaren amorioa, eta orañ beraren gorputzian ikusten ditugun zauriak, ez dute beste jatorririk Jesukristoren Pasio santua baizik.

San Franziskoren biotza gurutzian ikusten degu, bere lenbiziko konbersiotik artu zuala, bizi-tzako ispillu, Jesukristo bera, Jesusen antzekua izaten saiatua beti izandu zala. Orain arkitzen zæn Alberna-mendiko bakardade artan, eta gogoratu zitzaion zertan ondoena izan ote zitekian Jesusen antzekua. Au ezagutzeko, deitu zion bere lagun ta aita espirituko anai Leoni. Agindu

zion idiki zezala meza-liburua, andik ezagutu zezan Jaungoikuaren gogua. Iru aldiz anai Leonek idiki zuan liburua, eta iruretan topatu zuten Jesusen Pasio santuko kontaira. Orduan ezaguturik Jaungoikuaren gogua zala ark maiz goguan erabiltzia gizonaren amoriuagatik Jesusek eraman zituan penaz, lenaz gañera Franziskoren biotza mugitu zan, munduaz osotoro azturik, gure erospeneko misterio miragarriak, gurutzeko egurrian igari ziranak, are gogotiago gogoatzeko. Asi zan berri-berri lan artan. Santuaren begiak, amorioz bi negarrezko iturri eginik, adiarazo zioten mendi guziari Jesusi aren biotzak zion naitasun aundia. Biotz ura eri zeguan amorioz. Iñun ere etzuan bestetan arkitzen sosegurik, desnekerik, gurutzian haizik. Gurutzian ikusten zuan Jesus, biotza idirik; antxen nai zuan sartu eta an egin betiko bere goitza; ala egin zuan ere.

Bi urtez ill baño lenago, gurutze santu Agorreko egunaren inguruan, iñoiz ere baño gogo geiagorekin sentitu zan oraziorako eta biotzeko gozamen zoragarriarekin. Goiz batez, mendiaren egi batian itzegida eztitsuetan Jaungoikuarekin zeguala, ikusi zuan airian Serafin bat sei ego suzko txit argiakin mendiaren tokirik garaienetik zetorkiola lasterka ariñian, eta gelditu zala bere aurrian. Agertu zan ego ederren erdian gizonaren antz bat gurutzian, esku ta oñ josia. Bi ego zeduzkan burubaz gorunz, beste bi gerriaz berunz, eta bi gañera egatzeko eran zabaldurik. Ura ikustian, arritu zan Santua, eta bere biotzian sentitu zuan gozotasun aundi bat, zerbait illuntasunak nastua. Serafinaren antz artan ikusten zuan,

Jesukristok zeñ biguñ begiratzen zion, eta onek poztutzen zuan. Baña, denbora berian, aren gurutzeko egoerak, ezpataz bezela igarotzen zion biotza. Aundia zan alde guztietara Santuaren arritasuna ikuskari adi-gaitz ura ikusita, zekialako anima doatsua ez dala miñkor. Laster ikasi zuan, ispillu artan begiraturik, Jesukristok adiazi nai ziola, aren antz egokia izateko, nola biar zuan bere serbitzariaren biotza moldatu, ez gorputzeko martiriarekin, desiatu izan zuan bezela beti, baña amoriuaren indarrak biotza martirituta.

SAN FRANZISKOREN GORPUTZA BERE ZAURI SAGRADUAKIN ZAURITUTZEN DU JESUSEK

Serafin gurutz-iltzatu ura desagertu zanian, Santuaren biotza sutan goritua gelditu zan; gorputzian gañera utzi ziozkan bere antzaren seña txit miragarriak; zeren une artan azaldu ziran beraren esku ta oñetan Serafin gurutz-iltzatu arenian ikusi zituan bezelako iltziak. Bada egiaz ordutik San Franziskoren esku ta oñetan ikusten ziran, alderik alde, iltze gogorrak. Iltze buruak esku zabalían ta oñ gañetan, eta puntak esku-gañ ta oñ-azpíetan. Iltze buruak, eskuetakuak bezela oñetakuak, zabalak ziran eta beltzak. Puntak zituzten luziak eta okerrak, aragizkuak, errematxatuak, aragian koska egiten zutela. Eskuiko saietsian berriz zauri gorritua, lantzaz igarota zirudiana, nundik ere sarri ixurtzen zuan odolak bustitzen ziozkan barrungo oial ta eunak.

Santu askoren bizitzan irakurri oi dira gauza

miragarri asko; baño iñungo Santuren bizitzan ezta ikusten au bezelako gauzarik. Ona zerk mugitu zuan San Buenabenturaren Dotore jakintsuaren espiritua, izkiribuz San Franzisko bere Aita maitiaren bizitzan, Santuaren zauri oen gañ izkiribitu onduan oraiñ letu dana, arriturik esatera: «O gizon egiaz zori onekua! Iñungo gaiztoren burniak ukitu ezpadu ere zure gorputza, izan dezuna Jesus bildots garbiaren antza, zeña ill zuten gaiztuak! O anima zorionekua! Gorputzetik persegitzallien ezpatak berezitu ezpazaituzte ere, martirien palma merezitu dezuna.» Santuaren biotzeko desiuak izandu ziran aundiyak, bizi izan zan denbora guzian, Jesusen amoriuagatik bere zañetako odola emateko. Orain ikusten degu zer martiriua zeukan Jesusek Franziskorentzat.

SAN FRANZISKOREN ZAURIEN EGIA DA EZIN UKA DITEKIANA

Franzisko arkitzen da gizona, izan al ditekian aña, Jesusen antzeko egina. Jesusek erregalatu ziozkan bost zauriak. Bada ordu artatik, etzirusdian besterik, ezpada Jesu-Kristo berri bat. Bere zauri aiek ziran beste ainbeste usai gozoko arrosa, ezin ta ederraguak. Odoldutzen zitzaizkion askotan esku ta oñetako zauriak, batez ere saietsekua.

Duda batian arkitzen zan orduan. Etzekian agertu ote zezakian Jaungoikuaren grazi ura, edo iñori esan gabe gorde biar ote zuan. Nola ordia zezakian gorde aiñ agirian zeguana? Bere seme batek atera zuan duda artatik esanaz: «Besteren

onagatik Jaungoikuak egin zion mesede ura, ezin zezakiala gorderik iduki.» Orduan beraz azaldu zien bere semiai gertatu zitzaion guzia; baña orduan ere etzien erakutsi bere saietseko zauri miragarri ura.

Saietseko zauri ark odol asko ematen zion. Au ezagutzen zuten soñeko arropatik aldatzen zanian. Zauri au ikusi zioten bizi zala Laudeko anai Juanek, anai Eliasek, anai Rufinok, ta anai Leonek. Beñ batian aldatzeko denboran anai Juanek bere eskura iru biatz jarri ziozkan zauri oñetan ezagutziatik zenbateraño aundi zan, eta eman zion txit oñaze aundiya, Santuak esateraño: «Ai anai Juan! Barka deizula Jaungoikuak niri eman didazun miña.» Anai Leonek ere beñ pasatu zion eskua saietseko zaurian, eta eman zion oñaze bat ia korda galtzerañokua. Onela, oñaze aundiyak supritzen zituan zauri oñetan, eta eramaten zituan miragarriko eraman aundiarekin. Aita Santu Alejandro laugarrenak, sermoi batian, asko erlijiosoren aurrian aitatu zuan nola berak ere ikusi zion Franziskori bizitzan saietseko zauri au. Zapitxo batzuek, anai Leonek legunduz, jarri oi zituan Santuak zaurietan, eta ostiraletan, Jesusen Pasio santuaz oroiturik, geiago supritziagatik, etzuan batere jartzen. Izanik txit aundiak zauriak, eta asko aldiz ta denbora luzetxuan odol durik egonagatik, txit usai gozua botatzen zuten beti.

Garai artatik neke izugarria jarri zitzaion oñez ibiltzeko. Beragatik, oñ-zorruakin egon arren, astotxo baten gañian ibilli oi zan, oñ azpitako il-tze errematxatuak miñ ematen ziotelako, lurrian

oña paratzian. Oñ-zorro txit artetsuak egiten ziozkan Santa Klarak. Oñ azpiko iltziaren punta karkotuak etzeion miñ eman eta ibiltzeko traba egin, zolak eginik txit lodi, egiten zion oni erdiyan zulo bat iltziaren pare.

Alegin guziak egiten zituan Santuak ezkutatzeke aren gorputzian Jaungoikuak egin zituan mirari aiek; baña alperrik ziran egiñalak, zeren zeruak berak nai izan zuan agertu egite miragarri ura, mirariak eginaz. Jesukristo, Serafin ederraren idurian, agertu zitzaion egun artan bertan, egun-sentian, Albernako mendi gaña agertu zan argi-argi, sutan bazeguan bezela, inguruetako jendiak ikusten zuala. Beragatik, mendiyaren egi barrenera biribillatu zan asko jende, jakin zutenian zer igaro zan. Gero Santua jeitxi zanian menditik, guziak nai zioten eskuan muñ egiñ, baña biatz-muturrak bakarrik ematen zizten muñ egiteko. Au gertatu zan, San Migelen garizuma bukatuta jeitxi zanian menditik.

San Franziskoren zauri oen kontra asko dira itzezin diranak, eta beste asko modu askotara, sinistu nai ezik. Siniskaitza iduritzen zaie fede epeleko jendiai; nik eztet liburutxo au izkiribitu fede gabientzat; ezta liburu au gisa onetako guciak garaitzeko egina. Izkiribitu det, bai, euskaldun fededunentzat; ona zergatik ez det uste zilegi dala emen xexio orietan sartzia. Bakarrik sendotu ditezen Santuaren maitatzalliak are geiago berarenganako amorian, esango diet San Franziskoren seme San Buenabentura Elizako Dotorre jakintsu, Obispo, Kardinal eta lenago San Franziskoren Ordena guziko buru izanduarekin:

«eguzkiaren argia bezin argi ezagutzen dala Jesu-
-Kristok Serafin santu Franziskori eman ziozkan
zaurien egia». Aita Santu Alejandro laugarrenak
ikusi ziozkanaz gañera bizitzan beste askorekin,
ill ta gero ikusi zituzten testiguak ugari dauzkagu.
Berrogei ta amar erlijiosok eta gañera Santa Kla-
rak ta onen alabak, baita ere beste askok, ill
onduan ikusi zituzten, ta muñ egin ere bai. Gu-
retzat asko da gogoratzia Aita Santu Benito amai-
kagarrenak agindu ziela Ordena ontako erlijio-
suai, egin zezatela San Franziskoren zaurien pes-
ta Agorraren amazpian; eta geruago Paulo
bostgarrenak pesta au zelebratzera biartu zuala
Eliza guztia.

UZTEN DU SAN FRANZISKOK ALBERNAKO MENDIA PORZIUNKULARA JUATEKO, ETA BITARTEKO MIRARIAK

Berriro eta len baño onginai geiago agertu on-
duan mendi santuari, egin zion agur Kalbario
edo Golgota berriari, ez esan gabe, an gelditzen
ziran bere semiai, izan zeiotela Albernako men-
diari begiramen aundi errespetagarria. Jeitxi zan
beraz zelaira. Arezzoko errian, zortzi urteko mu-
til bat, idropesiakin lau urtian gaizki zeguana,
bat-batean sendatu zuan ukitze utsarekin.

Andik igaro zan bere adiskide Alberto kondia-
ren Monte Acuto-ko (mendi zorrotz-ko) gazte-
lura. Alberto Jaunak egin zion ongi etorria txit
poz aundiarekin. San Franziskoren aotik aditu
zuanian ordia, azkeneko aldiz sartzen zala aren
etxian, antsitu zan kondiaren biotza negar egi-

teraño. Itz gozuakin alaitu zuan Santuak irautera Jaungoikuaren serbizio santuan gogoz ta amorioz, lenagoko asmo onak berriturik. Agur elkarri egiteko unian, oroimengarri bat eskatu zion Santuari: «Ez daukat zer eman –erantzun zion–, bada soñian daukatan jantzia beste ezertxo ere ez daukat.» «Nik emango dizut beste bat ori bezin ona, eta orixe eman biar diazu, Jaungoikuaren amoriuagatik.» Bere adiskide onari poz ura ematiagatik, nola Jaungoikuaren izenian eskatu zion gañera, utzi zion soñian zeraman jantzia beste baten truke. Zer atsegin ta poza izango zuan Kondiaren biotzak, Jesu-Kristok bere serbitzari Franziskori, zauriak ematian, egin zion mesede berdinek ez duenaren testigu zan jantzi santu aren jabe egin zanian! Pitxi eder ta balio aundikua baizen; beragatik zegokion bezela arretaz, errespetoz, arduraz, gorde izan zuan.

Monte-acutotik jo zuan Monte-Casali. Erri guzia irten zitzaion bidera. Baña arara eldu baño len, igaro ziran Santo Sepulcro zeritzaion ballera batetik.

San Franzisko ainbesteraño arkitzen zan Jaungoikuaren gauzetan sortua eze, etzan oartu igaro zutenik ere; ta, igarota askoz geruago, galdetu zuan eritegi bateko atonduan laster elduko ote ziran Santo Sepulcrora.

Monte-Casalin arkitzen zan erlijioso bat eri. Batzuek zioten biotzeko miña zuala, bestiak berriz demoniuak artua zeguala. Santuari eman zioten aditzera onen egoera tristia, zerbait jaten ari zan denboran. Orduan, berak aora zeraman ogi

piska, biali zion eriari, agindurik ura jan zezala. Jan zuan eriak, eta sekulan geiago miñik izan etzuan.

Monte-Casali utzi zuan Castiloko erriagatik. Ostatuz gelditu zan etxian, emakume bat zeguan demoniuak artua. Au zan beti itzegiten jardun biar zuana. Demonio berritxu ura botatzeko emakume aren gorputzetik, biali zuan aurretik Santuak bere laguna, eta jarri zan bera errezatzen. Franziskoren lagunaren konjuruagatik parra egiten zuan ark esanaz: «Ez naiz zure bildur; beste an gorderik dagan arren bildur naiz.» Irten zan Santua orduan, eta au ikusi zuan unian, illa bezela erori zan lurrera emakumia. Eman zion errietan Santuak diabruari, Jaungoikuaren kria-tura bat era artan atormentatzen zualako, eta agindu zion len-bai-len aldegin zezala gorputz artatik. Ikaragarrizko ots aundia aterarik, aldegin zuan andik demoniuak. Erri artan sendatu zuan ere mutiltxo bat. Kopetaren erdian zeukan onek zauri bat. Loturik zeukan bezela, zapiaren gañian zauriaren parian egin zion gurutzia-aren se-ñalia, ta sendatu zan beste gabe. Kendu zioten zapia eta arkitu zioten kopetaren erdian guru-tze gorritzat bat aragian egin, larruan koska egi-ten ziola, zeñak ill arteraño iraun zion.

Castillonon egondu zan illabetian, eta gero artu zuan Santa Maria Aingeruenako bidia. Bide guz-tian, Santuaren aurrian, ariketa Porziunkulara eldu arte, ikusi zuan anai Leonek urrezko gurutze bat, asko kolorez nabartua. Santua gelditzen zan tokian, gelditzen zan gurutzia ere. Artatik eza-gutu zuan anai Leonek, poz bat nai ziola eman

Jaungoikuak Franziskori, biotzian zeraman gurutze ura bera, begien aurrian pararik. O santu miragarria! Zuk bai dezakezula esan, San Paulorekin batera: «Ni bizi naiz; ez, ni ez naiz bizi zeren nigan egiaz Jesukristo bizi dan. Gurutzia daukazu biotzian; gurutzia gorputzian. Azkenik gurutzia bialtzen dizu Jaungoikuak zure aurrera, izan dedin zure triumfuko bandera, Jesusena izandu zana bera; zeren, seña ontan ark garaitu bezela, zuk ere garaitu dezu. Nor zu bezelakorik gizonen artian? O Franzisko! Nor zu bezelakorik? Jesusen iduri egiazkua egin zera!

SAN FRANZISKO JENDIAZ ONRATUA

Aberasturik zeruko doaiez ta pozez beterik sartu zan Porziunkulan. Guziya berri-berri Aingeruen Amari ta bere anparatzallerik aundienari eskaintzera zeguan bezela. Nola etzuan artuko Mariak Franzisko bere mantupian? Orain, batez ere, ikusirik osoro bere seme Jesus maitiaren antzarekin. Aitortutzen zuan San Franziskok garbi, Mariari zor ziozkala zeruak eman ziozkan espirituko aberastasun aiek guztiak. Mariaren eliza artan izan zuan asiera San Franziskoren Ordenak; an nai dio guzia bere eskuan utzi.

Gure Aita-len Santuak, lenaz gañera nai lituzke igaro, animen salbazioko lanian, egunak ta gabak dituzten orduak. Pozik, len bezela, juango litzake erriz-erri Jesusen izena ta beraren amoriua adiaraztera munduari. Baña eldu zitzaion ezin egiña. Oñez ezin ibilli zan, zeren, esan degun bezela, oñetako iltziak ematen ziozkan oña-

ze aundiak. Ez onengatik bere espiritua arkitzen zan indargabe; aitzitik, len da gero baño zelo geiagorekin, esan oi zuan: «Asi gaitezen, asi lanian, zergatikan orañdañokuan gauza gutxi egin degun.» Franzisko bizi zan martiri. Amoriuaren indarra ezin diteke neurtu. Nekezko estadu artan, astotxo baten gañian bederik, juaten zan erriz-erri Jesusen izen gozua, bere amorio irazekia adiarazi nairik kriatura guztiei. A! Nork detzazkian eman aditzera bere itz-aldien prutu ugariak! Nork azaldu, egin zituan konbersiuak! Nork itzez agertu, erriak egiten zioten ongi etorria! Egin deiotan emen leku Celano-ko anai Tomasi, Santuaren denborakua au izanik, Aita Santu Gregorio bederatzigarrenaren aginduz, izkiribitu zuan onek, beste bi lagunekin, Santuaren bizitza, berak ikusiaz gañ.

Dio bada onek: «Santuaren ikuste utsak erri guztietako jendiaren biotzak poztutzen zituan, eta miragarritzko moduan agertzen zuten barruneko poz ura kanpora. Bidera irteten zioten erriko kabildu ta beste Jaunak, gizon ta emakumiak beren etxetako egitekuaz azturik. Pozaren aundiaz, jairik aundienian bezela, Franzisko erri batera alde-
ratzian, jotzen zituzten ezkillak ta kanp-adiak. Aur inozentia-
kiak ostu berde loratuekin artzen zuten inguraturik erdian. Erejiak berak Franziskoren Santutasuna ikusita gelditzen ziran ezeztaturik. Ugariak ziran egiten zituan mirariak... Sendatu zituan erriak ta bedeinkatu bularreko aurrak, ateratzen zituzten etxiaz kanpora. Eramaten ziozkaten askok ogiak bedeinkatu zituan gurutzia-
kin, gero izan zitezen erremediotako... Beste as-

kok ebakitzen zioten soñian zeukan jantziari puxka bat edo beste. Ainbesteraño onetan aurretzen ziran eze, beifñ baño geiagotan estali biar izan zuten, agirian agertuko ezpazan bere gorputz gorria... Ainbeste alabantza ta onraren erdian Santuaren espiritua etzan mudatzen. Beraren arpegia beti berdin, espiritu bera beti, beti zeuzkan ilduratuak sentiduak. Mendian bezela jendiaren erdian, San Franziskoren biotza beti arkitzen zan bakardadian; beti Jaungoiko bakarrarekin...»

Onela bidegiten zuan batian, ikusi zuan auntz talde bat, eta aien artian arkumetxo bat beeka. Arkumia ikusi ordukoz, oroituko zan Jesusen pasio ta eriotzaz. Deitu zion bere lagunari ta esan zion negarrez: «Ai nere semia! Ikusten dezu arkumetxo ori auntzen erdian? Orrelaxen egondu zan Jesus eskriba ta parisiuen artian! Konde-razio au egitian, aiñ ziran ugariak ixuri zituan negar malkuak ze, urrikaldurik laguna, juañ zan artzaiarengana, ta eskatu zion arkumetxuaren libertadia. Ez Santuaren negarrak, ta aiñ gutxi eskariak, artzaiaren biotz basotia etzuten biguñdu. Orduan, bidian zijuan bati eskaturik Jaungoikuaren izenian, logratu zuan diru-truke arkumetxua. Ura poza orduan Franziskorena, arturik bere besuetan. Eraman zion Animoko Obispo birtutetsuari, ta ark eman zien azitzeko San Seberinoko erlijiosai. Aundia egin zanian, aren lanarekin egin zioten jantzia San Franziskori. Onela pagatu zuan arkumia bere ongillia.

OGEI TA AMAIRUGARREN BURUA

SAN FRANZISKO ERIA

Eskuz-esku, oñez-oñ, biotzez-biotz Jesusek zau-riturik Franzisko, bere antzeko egokia egin ezge-roztik, oñaze askoren erdian ta ongi penaturik neketan bizi zan. Jaungoikozko erida oezaz ga-ñiera, biali ziozkan Jesusek beste asko eritasun, zeñak jarri zuten Job Santu bat eginik; bada etzuan alderdi sanorik, ta beragatik besteren es-kuaz baliatu biarrian. Keja ordez esan oi zuan itz au: «Jesukristo, nere amoriua, gurutzian josia izandu zan.» Duda gabe, gogorazio onekin go-zatutzen zituan bere miñak. Egun batetik bestera bere espiritua berritutzen ari zan eran, gorputza ari zitzaion erorten. Batetik etzion lanari bar-katzen, eta bestetik gorputz guziko oñaziak osoro kimatu zituzten aren indarrak. Eritasun guzien ar-tian mingarriena begitako miña zuan. Ainbeste-rañoko negarrak erre ziozkan begiak eze, andik sortu zitzaion berebiziko gaitza begietan. Ez egu-naz eta ez gabaz, etzion oñaziak utzitzen begirik ixten. Penatzen zion biotza, ezin juan zalako, le-nago bezela, predikatzer. Pena guztien erdian ar-kitzen zuan poz aundia bere begi erietan, negar egiteko aña gauza zirelako. Ona zergatik etzu-an nai izan egin erremediorik, sendaturik ikustia-gatik, bere semiak egin nai izan arren.

Ugolino Kardinal eta anai Eliasek nai zuten egin alegin guzia sendatziagatik. Esaten zioten Santuari artu zitzala erremedio sendagarriak. Anai Eliasek, berriz, esaten zion ez zezala ainbeste negar egin. «Ai, anai Elias nere semia, ez dezazula ori esan! Nola ninteke egon, Jesusen Pasiuaz oroituta, negarrik egin gabe? Ezta begizko argia galtzen badet ere. Guztia izango da eltxuakin bat degun gauza galtzia.» «Bai, Aita; utzi biar digu miñ ori zerbait arintzeko moduak egiten.» Alde batera ikusten zuan zer gora-bera aundia zijua-kion Ordenari Aita-lena galtziarekin; beste alde-ra, ura miñez ikustiak ematen zion pena. Au za-la bide, ezin zutenian alkantzatu Santuaren bai-mena, beste arrazoi guztiekin, baliatu zan anai Elias, Ordenako buru izatiak ematen zion eskuaz, agindutzeko bere Aita-lenari, utzi zedilla sendatzen.

Etzuan bigarren aldian agindu biarrik izan. Bertatik umill jarri zan San Franzisko anai Eliasen agindura, eta eraman zuten San Damiana. An ipiñi zuten, Santa Klarak eta aren alabak sendatu zezaten eran, gelatxo batian. Izendatu zituan anai Eliasek lau lagun, egon zitezen San Franzis-koren aldamenian. Oek ziran: anai Maseo, anai Rufino, anai Leon eta Rietiko anai Angelo. Asi ziran erremediukin, bañan alperrik, etzioten mi-ña kentzen. Berrogei egunian egondu zan bere-biziko oñaziak supritzen. Zerbait desneke artu zuanian berriz, arratoi taldiak etziokaten sosegu-rik ematen. Oe gañera ta nora nai igotzen zitzaiz-kan. Ezagutu zuten, Santua pazientziatik atera nairik, diabrua zebillela.

JAKITEN DU SANTUAK SALBATUKO DALA

Ainbeste miñez inguratua zeguan eze, Jaungoikuari egin zion umill orazio au: «Nere Jaun Jaungoikua, bota ezazu begiratu bat niganunz ta lagundu zadazu. Indazu laguntza, nere eritasunak eraman ditzadan pazienkiro.» Beriala aditu zuan itz au: «Franzisko, zeren truke diteke eman, zeruko erreinua irebazten duan gauza? Jakin eza zu, bada, oñaze oriek dirala lurrak bere erraieten dauzkan aberastasun guziak baño balio aundiagokuak. Mendiak urre gorrizkuak balirazke ere, eta itsasoko urak balsamu usai gozokuak; oriek emango balitzaizkitzu ere, etzinuzke zure oñaziak oriekgatik eman biar.» «O Jauna! Nero ni ere uste orretantxen nago. Badakit bialtzen diaztatzula oñaze oek, nere pekatuen arrastuak desegiteko osoro, gero beti izan nadin Zurekin zeruan.» Alaiturik biotza zeruko itzekida eder onekin, saltatu zan oietik eta deitu zion Klarari; zeña, nola egoten baizan ere miñez, nai zuan zerbait itz gozorekin alaitu, Jaungoikuaren gogua zan bezela, guzia eramatera Jaunaren amorioz.

Artan zeudela eldu zitzaien otorduko denbora ta eseri ziran maian. Bat-batean, altxaturik begiaz zerurontz, egin zuan oi: «Bedeinkatua, gloriatua ta goititua izan zaitia, Jauna.» Au esanik, bota zuan aozpez bere burua lurrera. Ordu bat osua igaro zuan alaxen mugitu gabe. Kordaratu zanian gero, anai Leonek onginaiaz zerbait adiazi zion, etzela txit egoki maitik ala jeikitzia. Erantzun zion Santuak: «Nola ez nintzan jeikiko? Ni bizi naizan arte, eztiozu ifñori esango.

Jaungoikuak agertu dit une artan, salbatuko naitzela. Leon, nola egon nintekian pozaren aundiz Jaungoikua alabatu gabe? Nik nai det beti Jaungoikuaren izen santua alabatu.» Orduan egin zuan «Eguzkiaren kantua», nun ere gonbidatzen ditu kriaturak, eta Jaungoikua alabatzen du oekgatik. Eguzkiaren kantu au liburu onen azkeneko orrietan arkitzen da.

Denbora artan, Asisko aundizkiak arkitzen ziran bata bestiaren gorrotuan, eta paketu zituan Santuak, bitarteko jarririk bere burua. Orduan egotzi zion bere eguzkiaren kantuari zortzigarren koplak, zeña dan batek bestiari barkatutzen dionarena.

SAN FRANZISKO ETA SENDATZALLIA

Ikusten zuten etzala batere sendatutzen Franzisko. Au zala bide, agindu zuan anai Eliasek eraman zezatela Foliñoko errira toki-aldatziak on egingo ziolakuan. Foliñon piskatxo bat arindu zitzaizkon oñaziak. Agertu zitzaion anai Eliasi, lo artian, aitona beneragarri bat, Obispuen eliz-modura ta zuriz jantzita. Onek esan ziokan oraindik bi urtian Aita-lenak sufritu biar zuala, eta gero igaroko zala bizitza ohera, nun ere bukatuko ziran oñaziak betiko. Au esan zion San Franziskori, eta berak ere beste ainbeste jakin zuala erantzun zion. Berri au artu zuanian, Eguzkiaren kantuari egotzi zion eriotzaren koplak, zeña da bederatzigarrena.

Ez eriotzak, aifñ gutxi oñaziak etzuten izpi ba-

tez atzeratzen San Frantziskoren espiritua. «Betoz –esan oi zuan– oñaziak; betoz; nik eramango ditut guztiak, Jaungoikuak lagundurik eta Bere graziak indarturik.» Foliñoko sendatzallia, medikua, agertu zan Santuarekin txit ongille ta pres-tu: pagatu zituan erremediotarañokuak bere diru-tik. Gure Aita-lenaren biotza, beti esker-on-ema-lle izanik, beste ainbesterekin al bazuan pagatu zion. Esan zien bere semiai gonbida zezatela baz-kaltzera. Erantzun zioten: «Nola genezake gonbi-datu? Gure miserian, zer emango diogu? Gure sendatzallia da gizon aberatsa, ta arentzat diño ez daukagu ezer.» «Gonbida zazute –esan zien berriz–. Gure berri ongi daki, eta zer emana ere izango da.» Gonbidaturik gelditu zan aien artian sendatzallia, eta jarri zioten maia, al zuten gar-bien eta modurik onenera. Bazkaltzen asi ta las-ter deitu zuten atonduan. Deitu zuana zan, San-tuaren andre ongille bat. Legua ta erdi urruti bi-zi zan batek bialtzen zuan mandatari, xexto bat gauza onekin. Ala zion Santuak: «Esaten nintzu-ten nik, Jaungoikuaren probidentzian txit fede txikia daukazutela.»

Itzak itz-bidia emanik, otorduko denboran ari ziran Franziskoren santutasuna neurtutzen. «Zuek berarekin bizi zeratenak ere –zion sendatza-lliak–, ez dezute oraindik ezagutzen zenbatera-ño aundia dan orren santutasuna. Etxe berri bat egin det orain, eta orma, pareta bat idiki zat, uste det baldin baneuke edozer Santuaren gauza, dau-kat fedia, nere etxiaren txirritua itxiko lukiala.» Au aditzian, ekarri ziozkaten Santuaren ille ba-tzuek. Jarri zituan zirrikartian illiak gaur bezela,

eta urrengo goizerako arkitu zan etxia nun idiki zan ezagun etzala. Onela pagatu zuan San Franziskok bere ongillia.

SAN FRANZISKOREN ADITU EZ BEZELAKO UMILLTASUNEZKO EGITE MIRAGARRI BAT

Zerbait arindu zitzaizkanian oñaziak, eraman zuten Santa Maria Aingeruenera. An zegualarik, nai zituan itz gozo batzuek trokatu bere seme zarren anai Bernardo Quintabalkuarekin, zeña bi-zi zan basamortuan, beti Jaungoikuaren gauze-tan. Eraman zuan beraz eskutik bere lagun ba-tek Quintabalko anai Bernardo zeguan bakarda-de artako etxolaren atondora, zeren bakarrik ibilteko txit gutxi ikusten zuan. Deitu zion aton-duan Santuak Santuari: «Nere anai Bernardo, atoz itxu pobretxo au konsolatzero.» Bernardo ar-kitzen zan orduan korda galtzen dan oraziu-an, eta etzion Aita-lenaren deiari idiki belarririk. Iru aldiz deitu ta erantzun etzionian, illundu zitzaion biotza zerbait. Uste zuan anai Bernardok desobe-ditu ziola, eta andik irteten zanian, zerbait esan nairik ark egin zuan utsegitiagatik, agindu zion bere lagunari eraman zezala elizatzora, jakin ze-zan zergatik etzion erantzun anai Bernardok. Agindu zion gero bere lagunari aldegin zezala pixka bat andik: au agindu zion, zeren iñoren au-rrian etzion iñori bere utsegitia adiarazten, nun da etzan agiriko obenen bat. Bakarrik gelditu za-nian aditu zuan itz bat zerutik: «Gizontxua! Zer-gatik illuntzen zera eta nastutzen? Gizonak biar

du edo ez, Kriatzallia kriaturagatik utzi? Anai Bernardo, zuk deitu diozunian, nerekin zeguan itzegiten.» Lotsatu zan Santua itz au adituta. «Nik zer egin det? Deitu diot Jaungoikuarekin itzegiten zeguanari!» Beriala, deiturik bere lagunari, abiatu zan basuan Bernardoren billa. Arkitu zuten beziñ aguro, belaunikatu zan, ta aozpezturik gero, eskatu zion barkaziua. Baña etzan artan gelditu Franzisko. Ordenako buru izatiak ematen zion eskuarekin, ortzaz gora etzinik lurrian, agindu zion oñazpiratu zezala eta pasa zeiola oña auan. Bere Aita-lena alatan ikusita, anai Bernardok eman zion negarrari. Baña agindu zion, eta, nai ta ez, egin biar zuan agindua. Alere egin baño len, somatu zuan egiaz modu miragarri au, beste baterako ere, eta esan zion onela bere Aita-lenari: «Aita maitia, obedituko diot gustora, baña nik esana biar du egin ere emendik aurrera.» Baietzko itza aurrena atera zion Franziskori, eta gero esan zion: «Bada emendik aurrera topatzen nazun tokian, itzegingo didazu gogor nere utsegitiak arpegira botiaz.» Au esanta, penaz ta negarrez jarri zion oña San Franziskori auaren gañian, eta igaruan pasa zan. Beinguarekin ordia libro gelditu zan, Santuak alako gauzak agintzetik.

Nola itz eman zion anai Bernardori topatzen zuan lekuan bere utsegitiak arpegira botatzeko, ordu artatik igesi ibilli oi zan San Franzisko anai Bernardoren, au ez egitiagatik.

Birtutia da artetsua. Ibilli oi ziran Santuak, ta ala dabiltz, nun-nai ta nundik umillatzeko gaia arkitu. Galdetu lezake emen batek, nola etzion

utzi Jaungoikuak anai Bernardori, Aita-lenak deitu zionian, izanik au aren buru, eta ura egonik oni obeditzera biartua. Oar bedi ordia irakurlia, etziola Bernardori Santuak deitu buru zan eskuarekin, bañan bestelaz ta adiskidetasunaz; zeren biartu balu obedientziaz, une berian Jaungoikuak utziko zion, asko aldiz askorekin ikusi izan dan bezela.

PITXI BATZUEK

Ugaldu zitzaizkan gorputzeko gaitzak, eta, egunetik egunera, zijuazkion aituz indarrak. Umoriak nastuta gorputz eroria batetik, bestetik beriz etsaiaren ziriak, illundu zuten egun batian. Ona zerengatik bere seme, soñu neurtua ongi jotzen zekian bati, esan zion billa zezala gitar bat, eta arentxen soñuarekin alai zezala. «Aita – erantzun zion onek – ez ote da gero norbait eskandalatuko?» Au aditzian esan zuan: «Utzi zazu, utzi; naiago det iñori gaizki pentsatzeko bidia ematia baño, illuntasun au sufritu.» Gau artan, lo artian, orra nun Aingeru batek desiatzen zuan soñua jotzen dion. Denak aditzen zuten soñu bat gozua ta biotz alaigarria, eta soñularirik etzan agiri. Illuntasun lenagokuak, egin zioten leku, Santuaren biotzian, espirituko atsegin gozo ta ez-tiari.

Denbora aietan gertatu zan beste gauza bat guziz miragarria. San Antonio Paduakua ari zan Arezion, probintziko billerari itz-aldi bat egiten. Ura arkitzen zan orduan, San Franzisko zeguan tokitik txit legua askoz aparte. Eman zion San

Antioniok asipena itz-aldiari itz oekin: *Jesus Nazarenus Rex Judaeorum*. Esan zitekian itz oekin deitu ziola bere Aita-lenaren espirituari; zergatik, San Antonio ari zan denboran itzegiten, ikusi zuten, bai San Antoniok, eta bai anai Monaldok, San Franzisko airian, besuak gurutzian zituala beren aurrian. Egi au San Antonioz ta anai Monaldoz gañera, Franziskok berak aitor-tu zion anai Leoni, nola egun artan bertan Jaungoikuak jarri zuan Arezion ikusi zitzan bere semiak. Ez gaitu ezertxok ere au sinistatzetik atzeratu biar, zeren gure Santua ez dan bakarrik Jaungoikuak onela jarri izandu duena bi toki, batak bestia gandik txit apartekuetan, une berian. Aita San Antoniorekin berarekin berretan gertatu zan beste ainbeste.

Ezin itz gutxian azaldu diteke, biar aiña, Franziskoren biotzeko gozotasuna bere semiakiko. Aitarik onenak bezela zekian begirutzen bere semien espirituko eritasunai. Iñor illun bazan, Aitalenak kentzen zion illuntasun au itz gozuakin. Tentazioz inguratua arkitzen bazan iñor, azalduarekin Franziskori, egiten zan erremediaren jabe. Denbora artan bada, beste askoren artian, ongi probatu zuten Santuaren birtute aundi au anai Rufinok eta anai Riteriok, zeñek arkitzen ziran etsaiaz txit persegituak ta tentatuak; Santuak jarri zituan, bakoitzari zegokion sendagaia-ekin.

Anai Eliasen alegiñak, Santuaren eritasunak sendatzen, etziran txikiak. Jakiñik Rietiko errian sendatzalle txit adituak ta artetsuak zeudela, nun ere orduan Aita Santua bere Kardinalakin ta kor-

tiakin zeguan, eraman zuten Santua aruntza ere. Ozta zabaldu zan errian San Franziskoren etorre-
ra, erri guzia asaldatzia izandu zan, zeren nai
izan zuten denak irten bid-erdira. Au Santuak
jakitian, ezin bere umiltasunak toki emanik onra
ura, guztia aienatziagatik jo zuan San Fabiango
erri txikira, Rietitik txit aldera. Ostatuz jarri zan
apaiz-etxian. Laster Rietiko aundizkiak, Kardina-
lak ere bai, utzi zuten zeuden erria, San Fabiana
juateko, Santua ikustiagatik. Gertatu zan, ok gu-
ztiak Santuarekin itzegiten zeuden bitartian, aien
morroi ta bide-lagunak apaizaren maastiari txit
albiste alai ta gozua egitia. Maatsak pagatu zuan
ederki. Kimatu zuten ta soildu maastia arron ta
garbi.

Jende talde ark guztiak aldegin zuanian andik,
apaiz jaunak agertu zion bere pena Franziskori
esanaz: «Zu nere etxera etorri zeralako, orra zer
kaltiak dituztan. On-aurki guztia jan dirate, eta
aurten ez nezaket ardorik egin.» Galdetu zion
Santuak: «Eta zenbat ardo izaten dezu urtian?»
«Ondotxo.» «Egizu nik esana: Txar guztia ongi
bill-ezazu ta jarri zazu tolarian.» Agindu bezela
Santuak, egin zuan apaizak, ta sekulan baño ar-
do geiago ta ederragua izandu zuan urte artan.

SUAK ERRESPETATZEN DU SANTUA

Milla berreun ta ogei ta bostgarrenian, udazken
aldera, sartu zan Rietin. Begitako oñaziak beti
irauten zion, eta, artekuen iritzian, sendatuko ba-
zan, biar zitzaion egin, belarriaren goenetik be-
girunz, burni gorituaz. Lan penagarria au izango

zala gizonarentzat, ez genezake dudan jarri. Goritu zituzten burniak. Franziskori ikusi utsak ikarra eragiten ziokaten. Itxoiten zion oñaze aundia eramateko, alaitu nai zuan bere burua. Ona zergatik itzezin zion suari onela: «Nere anaia, Jaun txit goikuak eman dizu guzizko edertasuna, eta egin zaitu biarra guretzat. Ergai ontan, bada, mesedez on biar diazu egin. Erregutzen diot, zu egin zaituan Jaungoikuari, zure berotasuna palaka dezala nik eramateko moduan.» Au esan eta egin zuan gurutze bat suaren gañ. Jarri zan animozta egin zioten egin biar ziotena. Sartu zioten burni goritua belarri gañetik betintxetaraño, eta etzuan senti izan oñazerik ta miñik.

Bukatu zutenian, lan ura ez ikustiagatik aldegin zuten erlijiosuak, itzuli ziran. Esan zien Aitak: «Nere anaiak, alaba zazute Jaungoikua, zergatik egiaz esaten dizutet eta aitortutzen det, ez detala sentitu ez suaren berotasunik, ez eta ere miñik. Eta zuek, zertako aldegin dezute emendik? Ustelak ta fede gutxikuak zerate.» Sendatzalle artetsuak berriz, arriturik ikusi zutenarekin, zioten: «Egiaz gaur bai ikusi degula geok mirari aundia.»

SANTUAREN NEGARRAK

Eritasunian bezela, ondo zeguanian, berdin egiten zuan San Franziskok negar. Egiten zuan ordia ugari bere pekatuakgatik, berak zionez; bañan, egiaz, ondo garbiturik zeukan biotza. Gorputzian bizi geranok, nola gentzakegu izan osoro Jesus bildots garbiaren antza, asko aldiz egunoro paltatzen degunok? Gogorazio era onetakuetan

arkitzen zuten aren negarrezko malkuak beren itur-burua. Ederki erakusten digu onekin nola gure obenen kutsuak biar ditugun garbitu, nola guztiak desegin.

Pobriaz urrikaldurik egin oi zuan ere negar. Jakin zuan bein andretxo bat zeguala gosiak eta erdi larru-gorrian atonduan. Adu zituania aren negarrak, berak ere egin zuan negar arekin batera. Agindu zuan beriala, azturik bere buruaz, eman zeiotela andretxo ari berak soñian erabiltzen zuan kapa, ta gañera ogia naikua gosia kentzeko. «Esaiozu – agindu zion mandatariari –, bere pobretasuna neria baño aundiagua dalako, beriak dituala ogia eta kapa; beragatik ez detala eskerrik eman, zorra pagatzia ezta limosna egitia; bai ordia pobreguari al duanetik al duanak al duana ematia.» Zer erakutsaldi ederra itz gutxian badere!

OGEI TA AMALAU GARREN BURUA

JAUNGOIKUAREN ASERRIA

Andik egun batzuetara, eraman zuten Franzisko Rietiko Obispo jaunaren jauregira. Aruntza eraman zioten kanonigu bat gaitzak elbarritua. Negarrez ta amorez eskatzen zion Santuari, arren bada arren, urrikaldurik aren miñezko egoeraz, senda zezala, eginik gurutze bat beraren gañ. Erantzun zion Santuak: «Nola nai dezu nik zure gañ gurutze santuaren seña egitia, baldin Jaungoikuaren juizioaren bildur geiago gabe griña txarrari jarraitu badiozu, eta oraindik pekatuan arkitzen bazera? Emen arkitzen diranagatik egin nai det gurutzia zure gañ; baña jakin biar dezu, lenagoko pekatuko bidiari jarraitzen badiozu, Jaungoikuaren aserria deskargatuko dala zure gañ.» Au esan onduan, gurutzia eginta beste gabe sendatu zan. Denak alabatu zuten Jaungoikua. Egun gutxira lenagoko bide gaiztueta eman zan. Gau batian bada bere lagun adiskide batek deitu zuan alkarrekin apaltzera. Etxe artan zegularik, erori zan etxiaren estalia, ainbesteren artian gelditu zan illik kanonigu ura bakarrik. Egiztatu zan itzez-itzez San Franziskoren esana. On egiñari esker gaiztuarekin erantzuten diona, onelaxen erortzen da Jaungoikuaren aserre-pian.

ZE ITXUSIA DAN DIABRUA

Animak eskatzen zituan Franziskok, Jesukristoren espirituak gidaturik, zeñaren antz egokia egina zeguan. Jesus obentarien billa zerutik jeitxi zan. Orobat nai zituan obendunen biotzak irebazi Franziskok, eta denak zeruan ikusi. Eritasun aundiaren azpian arkitzen bazan ere, zerbait oñaziak utzi ziotenian, eta begitako miña arindu ta oek argitu, astotxuaren gañian igaro zituan Umbria-ko ibar nabarrak, jotzen zuala Napoles, arreatzen zituala predikatziarekin erreinu aren inguruetako lurak. Zebillen tokietan, mirariak lagundurik Jaungoikuaren itzari, egin zituan konbersio ugariak. Biotz oneko erlijioso gazte bat alderatu zitzaion Penneko errian bakarmenaren billa, utzi zuelakoz erlijio santua. Ikusi ta beste gabe, Santuak kendu zituan aren gañetik begiak. Santuaren egite onekin arritu ziran bere aldame-nekuak. «Ez arritu – esan zien orduan –, ez arritu nik egin detanaz; zerengatik ikusi det gazte orren sorbaldan demonio ikaragarri bat, alegiñaz saiaturzen nola gaztia amilduko duan. Aitortzen det ezin eraman izan detala begira egotia. Ain zan itxusia! Egin diot Jaungoikuari eskia libratu dezala etsaiaren atzeparretatik, eta iritxi det.» Deitu zion gero beregana, eta esan zion etzedilla iñoiz ere berezi bere anaietatik, etsaiaren lazuan erortia nai ezpazuan; zeñatik Jaungoikuaren urrikiari eskerrak libratu zan.» Anai ura geroztik bizitu zan txit ongi Jaungoikuaren serbitzian.

Abruzzion berriz, Celanoko errian, Santua eldu zanian predikatzeraz, soldadu gerrari batek eskañi zion bere etxia, an egon biar zuan denbo-

rako. Juan zan bada ostalari onen etxera. Orañ bezela, orduan ere soldaduak soldadu. Orazio egin ondorian, esan zion Santuak ostatuko Jaun soldaduari: «Zuk ez dezu gaur emen jan biar, baizik beste leku batian. Ona emen nere lagun apaiza; konfesatu zaitia, ta beste mundurako pres-tatu.» Sinistatu zion Santuari soldaduak; egin zituan Santuaren esanak eta illik gelditu zan. One-la Jaungoikuak sariztatu zuan soldadua, ostatua Santuari eman ziolako.

SAN BUENABENTURA AURRA BEDEINKATZEN DU SAN FRANZISKOK

Denboratsu artan gertatu zan aur batekin egite miragarri au. Toskanan, Bañarea-ko errian, jaio zan, milla berreun ta ogei ta batian, semetxo bat, zeñari jarri zioten izena Juan. Semetxo au, jaio ez geroztik, beti arkitzen zan eri. Eta bere eritasunaz etsirik zeuden gizon sendatzalle arte-tsuetarañokuak. Bitella Juantxoren amak ekarri zion Santuari lau urteko aur eria sendatu zezan, agintzen ziola entregatzia bere Ordena santuari, baldin-eta sendatutzen bazuan. Sendatu zuan Santuak aurra eta poztu zuan ama naigabetuaren biotza; arturik aurra bere besuetan esan zuan: «O *Buona-ventura!*» Ordu artatik aurrari gelditu zitzaion izena Buenabentura. Da esatia: etorkizun-ona. Ala izan zan ere. Bada gazterik sartu zan San Franziskoren Ordenan. Santua ta jakintsu aundiya izandu zan au, San Franziskoren Ordena eta Eliza, izar ederraren gisa, apaindu zuana. Igo zan Ordena guziko buru izatera,

gero Obispo, azkenik Kardinal eta Elizako Dotorre aundi, itzez ta lumaz Ordenari ta Elizari guardia egin ziona, zena adoratzen degu aldarian, Santua bezela, Garagar-illaren amalauan.

SAN FRANZISKO ASISKO OBISPUAREN JAUREGIAN

San Franziskoren osasun eroria lenaz gañera txartu zan ibilliaren indarrez. Anakak aunditu zitzazkan, eta, nola baizen negua, berritu zitzazkan lenagoko oñaziak, Nai ta ez, gelditu biar izan zuan Nozerako errian. Asisen jakin zuanian jendiak au, Santua Nozeran betiko gelditu zedin bildurraz, irten ziran aundizkiak soldadu taldiarekin, Asisa eramateko asmuan. Artu zuten Santua berakin ta eldu ziran Santjagoko ibarrera eguerdiko garaian. Jan biarrak lanak ditu, ta emango ere. Erri txikitxo artan gizon aiek guztiak ezin arkitu izan zuten, diruarekin ere, gosia zerekin kendu. Santuari esan zioten zer gertatzen zan, eta erantzun zien onek: «Zuek, Jaungoikuagan jarri biarrak konfiantza osua, euli orientan daukazute (itz onekin deitzen zuan dirua); eska zazute Jaungoikuaren amorioz, eta ezertxo ere etzatzute paltako.» Egin zuten esana eta gosia illtzeko sortu zan biar zana.

Asisko Obispuak eraman zuan Franzisko bere etxera. An egondu zan milla berreun ta ogei ta seiaren uda-berriraño. Arraitxo batzuek jateko zaletu zan egun batian, eta, Jaungoikuak ala nairik, anai Gerardo Rietiko Guardianak biali zizkion iru, ark nai bezelakuak. Baña Franzisko

etzan ondo jartzen. Are geiago beraren osasunari begiratziagatik, bere semiak azaldu zioten ondo egingo zuala Senarunz joatia. Au esan zioten leku aldatziak obeto artuko zuelakotan. Utzi zan bada Senara eramaten. Au zan Apirillian. Baña oñaziak ze gutxituko, geitu zizaizkion, batez ere begitako miña. Bigarren aldiyan burni goritua sartu zioten belarri goenetik begiruntz, buruaren hi aldietatik. Miñik gabe egin zan lan ura, baña aurrerapenik ere gabe. Gau batez Senan izan zuan odolezko goorako bat, zeñak lenaz gañ indargabetu zuan. San Franziskoren semiak negar egiten zuten gogotik, ikusten zutelako beren Aitalena ezin-egin artan, eta laster beren buruak Aita maite ura gabe gelditzen ziralako. Seme leialen alegiñak alperrik izandu ziran. Ill biar zuan eta ordua alderatzen zan.

«Ai gure Aita maitia! Ai gure maisua! – esaten zuten –; zu bazuaz gugandik, irebazi dezun korua artzera. Eta, gu! Gu emen geratzen gera, zu juanta, umezurtz aitarik gabe! Nork gordeko gaitu? Nork gure biotzak alaituko ditu? Nork zuk bezela lagunduko digu? Nork gu poztu? Nork kotsola?»

BEDEINKATZEN DITU BERE ORDENAKO SEMIAK

Orduan Santuak deitu zion, urrikaldurik bere semiaz, anai Benito Piratrokuari; au zan apaiza eta aren eritasunaren arreta zeukana. «Jaunaren apaiza – esan zion –, itzez ezin detan ontan arzu luma bat eta jarzu izkiribuz nere bendizio au.

zeña dan orañ nere Ordenan dauden eta gero izango diranen guztientzat; au da nere azken borrodatia: Anai guztiak maitatu dezatela elkar, nik maitatu ta maitatzen zaituztan bezela. Amatu dezatela ere beti eta guardatu nere esposa ta andre pobretasuna; eta iraun dezatela beti leial ta apaizen errespetuan eta buru diranen pian. Aitak eta Semiak eta Espiritu Santuak bedein-katu ta lagundu deiela. Ala izan dedilla.»

Orobat, miñaren aldartietan, bere lagunaz baliatuz, egin zuan modua, Ordena guztian buru egiten zuten guztiai izkiribitzekua; baita ere an arkitzen ziran gañerako erlijiosuai; eta au asko itz eder ta gozorekin biotz eroriak ere jasotzeko moduan. Azkenik aitortzen zituan bere utsegite-rik txikienetarañoکو guziak.

Ordukotz gaitzak indar artu zion. Sabela aizatu, estomago ta giblekoak geitu zitzaizkan. Ona zergatik oraindik sendatuko zalakuan, etsi biar eta ezin etsirik, anai Eliasek, obeto biarrez, Cortona bere erri inguruko Cella-ko praile-eliz-etxera nai izandu zuan eramán. An ustez, anai Eliasen aide ta adiskidiak lagunduta, arreta aundia-gua izango ziotelakuan. Ikusi zutenian ordia guzia alperrik zala, berriro eramán zuten Asisa. Erri guztiak irten zion bidera pozaren aundiz, illtzen bazan ere antxen izango zutelako Santua-ren gorputza. Obispuaren aginduz sartu zuten aren jauregian.

ZEIN GOZUA ZAN SAN FRANZISKOREN ESPIRITUA

Jauregi ederrian egonagatik gaitzak etzion uzten. Egunetik egunera auldadia irebaziaz, esan zitekian ezurra ta azala baizik etzeukala. Alere miresten zan edozein Santuaren eramankizunaz. Txit gaizki zeguan batian, oartu zan bere semiak estu ta larri zebilltzala juan-etorri aundian, ezin somaturik nola ariñdu beren Aita-lenaren miñak. Aifñ ziran asko eskuetan zerabiltzkiten lanak eze, bildur zan Santua norbait arengatik irtengo ote zan pazientziatik. Beragatik itz egin zien gozotasun aundiarekin era onetan: «Nere anai maitiak, ez arren orrenbesteraño nekatu nigatik... Jesus maitiak pagatuko dizute ondo nigatik egiten dezuten lana... Nere gaitzak ematen badizute ere neke ori, sinistra idazute neke orrekin geiago irebaziko dezutela, zeon buruakgatik nekaturko bazinateke baño.» Asko nai zioten Aitari semiak eta leiatzen ziran denak beraren onagatik.

ZEIN AUNDIA ZAN SAN FRANZISKOREN ERAMANKIZUNA

On biarrez ta urrikiz, eri-zaiak esan zion: «Aita, egin bizaio orazio Jaungoikuari ariñdu dezala bere esku pisua, eta etzaitzala penatu orrenbesterañoko gogortasunarekin.» Aditu zuanarekin bat egin zuan Franziskok diadar aundia esanaz: «Baldin-eta zure biotzeko zuzentasunaren berri ezpaneki, ez nuke iñolako moduz ere egon naiko geiago zure aldamenian, maisiatu dezulako auzardi aundian Jaungoikuaren juiziua.» Beriala,

auldurik arkitzen bazan ere, jeiki zan eta bota zuan bere burua lurrera, ezurak otsa ateratze-rañoko indarrarekin, eta muñ eginik guzion amari, egin zuan orazio au: «Eskerrak ematen dizkitzut, Jauna, sentitzen dituztan oñaziakgatik, eta, zure gogua bada, biali dizkidatzu eun aldiz geiago. Txit izango naiz poztua eta gusto guziarekin suprituko ditut, ikustian batere barkatu gabe atsekabetzen nazula; zeren nik iduki nentzakian pozik aundiena da, zure goguaren araura gauza guztiak egitia.» Santu indartsua egiaz ta espiritu aundikua zan Franzisko, munduari, beste orduz Jesus maitiak Getsemaniako baratza santuan bezela, penarik larrienen erdian irmotasunik aundiena agertutzen diona. Ikasi biar genduke bere antzekuak izaten gai onetan.

Santa Klara ta bere alabak ere, jakinik Aitalenaren eritasun latza, eskatu zioten oroimengarri bat; eta, izkiribiturik, biali zien Santuak itz gozo txit goguangarria.

Asisko erriko buru egiten zutenak, elkar arturik, San Franziskoren eritasuna ainbesteraño aurreratua ikusi zutenian, Obispuaren jauregiko ate inguruetan jarri zituzten guardak, .egunaz ta gabaz antxen egon zitezen, illtzen bazan ere, eragozteko edozeiñi iñora eramatia, gelditu etzedin erria aberastasun aundi ura gabe.

OGEI TA AMABOSTGARREN BURUA

ILL BAÑO LEN BEDEINKATZEN DŪ SAN FRANZISKOK ANAI ELIAS

Adiazi ziotenian Santuari eriotza alderatu zitzaiola ta laster illko zala, poz aundian abiatu zan kantari bere eguzkiaren kantuarekin Jaungoikua alabatzen: «Gure arreba eriotzagatik, Jaina, izan zaite laudatua, zeñarengandik iñor, lurrian bizi danik, ezta iges egiten.» Orduan deitu zien bere seme leial maite aieri, eta, beste orduz Aita-len Jakobek bezela, bedeinkatu zituan inguruan zeuzkanak. Gero bedeinkatu zuan Ordena guzia; Aita-len Jakoberen antzera, San Franzisko Aita-lenak ere bi besuak zeuzkan gurutzeturik. Beraren ezkerrian nola arkitzen baizan anai Elias, onen buruaren gañian zedukan esku eskuia Santuak, eta nola bere begi illunduak etzuten ikusten, galdetu zuan noren gañ zedukan bere esku eskuia. Esan zioten anai Eliasen gañ zedukala. «Ondo jarria dago nere eskua; nere semia, guztian ta guziez gañ bedeinkatzen zaitur. Al detanaz, ta al detanaz baño ere geiago; nik ezin detana, guzia dezakianak, zugan dezala egin.» Bendizio ederra alabaña, baliatu balitz anai Elias, orduko sentimentuetan iraunaz. Besteren buruan ikasi dezagun on ta leial izaten.

BERAK AGINTZEN DU ERAMAN DEZATELA PORZIUNKULARA

Bazekian laster ill biar zuala, beragatik esan zien beriai eraman zezatela Santa Maria Aingerunera. Artu zuten lauk angallan. Erriaren ta etxe santuaren erdi inguruan arkitzen zan eritegi batera eldu ziranian, galdetu zien legen-artsuen eritegian arkitzen ziran edo ez. Erantzun zioten baietz. «Jarri nazute bada erriari begira.» Jarri zuten, eta lenbizi egin zuan negar, erri ark supritu biarko zituan gerrakgatik, eta gero bedeinkatu zuan era onetan: «Jaungoikuari leial zeran erria, Jaunak zaitzala bedeinka, zeren zugatik ta zukan dauden asko anima, salbatuko diran. Jaun-txit-goikoaren asko ta asko serbitzari bizituko dira zure arrizko esiyaren barrundik, ta betiko bizitzarako izango dira autuak ez gutxi.»

Eldu ziran Porziunkulara, eskatu zituan biar ziranak izkiribitzeko. Agindu zion bere seme bati jarri zezala ark esana Siete-solioko Andre Jakoba Ordenako ongille txit aundiari. Esaten zion Santuak nola arkitzen zan, eta, nai bazuan bizirik ikusi, larunbata baño len eldu zedilla. Gañera jartzen zion ekar zezala aren gorputza estaltzeko edozein oial, edo obeto zilizio bat, bai ta ere argizaria. Au lumaz jartziaren bat, piskatxo bat gelditu zan, eta gero esan zuan: «Badator andre Jakoba bera eta ez daukagu ezertan ibilli biarrik.» Santuak esan bezela, laster jo zuten atia; zan andre Jakoba bere bi seme Erromako senadoria-kin ta Santuak eskatzen zuanarekin prestatua. Arriturik erlijiosuak galdetzen zioten nolatan jakin zuan Aita-lenaren egoeraren berria. Erantzun

zien aingeru batek nola guzia esan zion. San Franziskoren baimenarekin sartu zuten andra Jakobak barruna. Eragotzia bazan ere emakumiak sartzia, andre Jakobak legiak arrepatzia etzuan nai izan Santuak; ona zergatik eman zion baimena, legerik autsi gabe sartu zedin. Santuaren itz gozuak aditzen egon zan andre Jakobak negarrez bere oñetan, beste denboraz Madalena bat Jesusen oñetan bezela. Asteazken-goiza zan, ta nai zuan bere etxera itzuli andre Jakobak, zeren uste zuan artian etzala illko. Baña Santuak etzion utzi, esanaz larunbatian biar zuala ill, eta illetako lanak biar zituala egin, eta ariketa bukatu arte guzia geldi zedilla; ala geratu zan. Biatikuan Jaun aundia artzeko azkeneko aldiz, konpesatu zan anai Leonekin bere bizitza guztiko utsegitiaz. Gero jakin zan anai Leonengatik San Franziskok beti gorde zuala garbi illarteraño bataio santuko jantzi zuria.

Urrillaren irugarren eguna argitu zan ostiral-goizarekin. Berriro deitu zien beriai, bigarren aldiyan bedeinkatu zituan, eta gañera eman zien ogi-puskatxo bana guziak jan zezaten, onekin adiazi nairik nola denak bizi biar zuten elkar-ganako amoriuan. Bakarrik anai Eliasek etzuan jan ogi artatik, baizik zeukan eskuan edo errespetuz edo zerbait Jaungoikuak adiazi nairik gero nolako pausuak emango zituan amorio ura galtzeko, ez dakigu. Ikusi zion eskuan anai Leonek ogi bedeinkatuaren puska; eskatu zion ta gorde zuan. Ogi-piska arekin gero Jaungoikuak egin zituan mirari aundiyak.

BEDEINKATZEN DU ILL BAÑO LEN ANAI BERNARDO

Dianak arkitzen ziran negarrez Aita-lenaren inguruan. Alatan esan zuan: «Nun da nere seme Bernardo?» Au zan guztien artian zarrena, Ordenan lenen sartua bezela. Alderatu zitzaion bada anai Bernardo. «Atoz nere semia, bedeinka zaitzatan ill baño lenago.» Belaunikatu zan anai Bernardo Santuaren ezkerreko aldian; eskuikuan berri zeguan anai Gil. Gurutzetu zituan besuak San Franziskok, eta, bere eskuya anai Bernardoren buru gañian zuelarik, bedeinkatu zuan onela: «Jesukristo gure Jaunaren Aita Betikuak bedeinka zaitzala, espirituko bendizio zeruak orañ urte gure gañ ixuri izan dituan guztiyak. Nola zu izandu zeran lenbizikua Ordenan ejenplu ona emateko, utzirik munduko ondasunak pobrien eskuetan, ebanjelio santuari jarraitzeko Jesukristoren pobretasuna gogoz laztandurik, beragatik izan zaite nizaz eta Jesukristo gure Jaunaz bedeinkatua; eta izan zaite betiko bedeinkatua, ala geldi egonien, nola ibiltzen, ala esna zaudenian, nola lotan, bizitzan ta eriotzan. Zu bedeinkatzen zaituana izan dedilla bendizioz betia, eta zu mada-rikatzen zaituana, ez dedilla geldi kastigu gabe. Izan zaite anai guzien buru, eta izan ditezela guziak zure menpeko. Zuk Ordenan artu nai dituzun guztiak, izan ditezela artuak; eta zuk bialtzen dezuna, bialitzat jo dedilla. Iñork ez dezala eskurik izan zurekin; nai dezun tokira jua edo nun nai dezun an egon, zure eskuan dago.»

Anai Bernardo bere Aitaren aotik itz oriek adi-tuta negarrez aldegin zanian, esan zien Santuak

an zeuden beste semiai: «Nere naia ta gogua da, edozein izaten dala guztien ministrua, ezagutu dezala anai Bernardo nerau bezela. Ni bezela amatu ta onratu dezala. Eta Probintzial guztiyak ta anai denak nere ordeko ezagutu dezatela; bada uzten dizutet ori nere biotzaren erdiya bezela. Gutxi dirade orren birtutiaren aunditasuna ezagutu dezaketenak; aifñ da aundiya bere birtutia! Egiten du alegina Satanasek berak tentatzen, lazuak ta trabak jartzen eroriarazteko. Bafia Jaungoikuaren laguntzarekin guztiak garaitzen ditu ta garaituko ere bai.» Gero ezagutu zan zeifñ aundiya zan anai Bernardoren santutasuna, Aitalenak adiazi bezela.

OGEI TA AMASEIGARREN BURUA

SAN FRANZISKO AITA-LENAREN AZKEN EGUNA

Biatiku ta Oleazio santua artu, esker onak lenik Jaungoikuari eman, baita ere Andre Jakobari bere serbitziakgatik, bere semiak bendizioz bete eta gauza guztiak prest jarririk beste mundura igarotzeko, egin zien azkenik bere seme maitiai itz-aldi bat guztiz ederra. Itz-aldi onetan erakutsi zien, nola biar dien obeditu bere semiak Ama Eliza Santa, Katolika, Erromakuari; nola biar zuten izan umillak, garbiak, birtutetsuak. Erakutsi zien guziez gañ elizetako garbitasunari begiratzen; Jesus maitiaren izena beti biotzian eta mingañian idukirik, aren aldariak, batez ere al-dareko Sakramentu Santua, adoratzen. Jaiera au aurrena erakutsirik, agindu zien izan zeiotela Santa Maria Aingerueneen eliz-etxe santuari txit begiramen aundiya, len Albernako mendiari izateko esan zien bezela. Gañera agindu zien idukitzeko, Maria Jaungoikuaren Amaren antzaren aurrian, argiak piztuta beti; zeren esaten zuan: «Jarri biar zaizka argiak Maria dontzella garbi, Jaungoikuaren Amari, Beraren bitartez, Jaunaren Ondasunagandik alkantzatu deien anai guztiei pekatuen barkaziua; eta denbora berian alkan-

tzatu deion ere, berak bere eskuaz jarri duan Ordena santuari, bere anparuarekin batera, irau-teko laguntza.» Ona emen arrazoï bat San Franziskoren seme egiazkuak goguan beti-beti iduki biar deguna.

Eldu gera, irakurle ona, San Franziskoren lurreko azken egunera. Egizu kontu ikusten dezula Santua oe txit pobrian etzanik, oñazez inguraturik, gizontxo bat diot bere gorputzian ezurra ta azala besterik ez duana; bañan iñoiz gizonaren begiak ikusi izan duten ikusgarriena. Itz batian esateko, da Jesus bigarrena; zeren jaiotzatik eriotzera bere iduri egokia izandu dan, eta oraiñ ikusten da gurutzetu bat egiña; esku, eta oñ, eta biotz zauritua; ikus zazu ta arritu zaite. Denbora berian, adoraturik Jauna, laudarioz bete zazu, eman dizulako iduritzeko gizon uts bat anima ta gorputz Jesusen antzekua. Nor Asisko Franzisko bezelakorik? Nun beste lekutan zabaldu izandu da iñoiz Asisko loria bezelakorik?

Denbora gutxiko badere, oraindik bizi da Franzisko. Larunbatian gaude. «Ill zan Jesus gorputz gorrian gurutzian; nik ere beraren antzera – dio Franziskok –, gurutzerik ezpada ere, gorputz gorrian lurrian ill nai det. Alaxen bada agindu zuan Santuak para zezatela lurrian, gorputz utsian. Lenago, bere konbersio oberako Asisko Obispua-ren aurrian soñian zituan jantziyak utzi zituan bezela, geroztik bere gauzarik gabe bizitu zan, eta oraiñ, lenago bezela, illtzeko unian eztu mundu ontako gauzarik nai beretzat; ezta ere gorputza estaltzekorik; amaren sabeletik irten bezela, nai lioke eriotzari zorra pagatu. Lur gorriaren

gañian jartzen ari ziran garaian, esan zien: «Nik egin det egin biar detana; orain erregutzen det Jesukristo erakutsi deizutela zer biar dezuten nerekin egin.» Bere modestiak duda gabe eginarazi zion orazio au. Ez du orrengatik inork pentsa billi oi zituan bes-azpiraño galtza zuriyak, sabiar, San Franzisko arkitzen zala gorputz gorrian osotoro. Ez; saietseko zauriya zuan ezgeroz, erayetseko zauriya tapatzen ziotenak. Egoera onetan denbora gutxian egondu zan; zergatik esan zuanian: «ark arteraño alegiña eginik Jaungoikuaren gogua egiteko, eskatzen ziola Jesukristori, erakutsi zeila arekin zer biar zuten egin», itz oekin aditu zuan Aita Guardianak, nai ziola aren gorputzari begiratzia. Beragatik prestatu zioten jantzi santua, pobre biartsuari eman oi zaion bezela, gorputza estaltzeko. Poz ta atsegin aundi-yarekin artu zuan pobrien Aita-lenak, azken egunian, bere gorputz illa gero estaltzeko eskian irebazi zuan soñ ura. Baña Santuaren umiltasuna etzan emen mugatu. Nai du oraindik, azken as-nasa eman baño len, are umillago agertu.

«Nere gorputz oni -dio-, lur emango diozute, «inpernuko goña» deitzen dioten lekuan.» Au zan mendizka bat, gaizkille eriotzara kondenatuak ill edo urkatzen zituena. Leku au bada bere umiltasunian aukeratu zuan. Etzioten ordia an lur eman; baña ill zanetik bi urtera leku artan egin zioten eliza, eta ordutik deitzen zioten «zeruko goña.» Eliza berri artan jarri zuten Santuaren gorputza, gaizkilliak illtzen zituzten toki aren pare.

Gauza guztiak onela prestatuak, egin zuan

Aita-lenak *testamentu* bat txit luzia, izkiribitzeko arturik anai Angelo. Au izan zan Franziskoren azken borondatia. Emen itz gutxian jartzen ditu, bere bizitzan erakutsi izan zituan dotriña zerukuak. Au egin ondorian, deitu zituan bere aldamera anai Leon bere konpesoria, eta anai Angelo bere eritasuneko aingeru zaitzallia. Bieri kantarazi zien Eguzkiaren kantu ura, zeñian ere azkenik arreba eriotzagatik Jaungoikua alabatzen zuan. Bukatutzian kantua, Jesus gurutze-iltzatua-ren izenian, bi besuak gurutzeturik, eman zien bendiziua azkeneko aldiz, orduan an arkitzen ziran guztiei eta an etzeudenai. Esan zien gero: «Agur, nere semiak, agur, guztioi; uzten zaituztet Jaunaren bildur santuan. Iraun zazute beti ortan. Alderatzen da zuen fedia probatuko duen ezin egineko denbora: zorionekuak, ekin dioten bidiari jarraitzen diotenak. Ni Jaungoikuarengana nua lasterka; beraren laguntzan uzten zaituztet.»

Orduan agindu zuan irakurri zeiotela, San Juanen Ebanjelioko liburutik, Jesusen Pasio Santuaren kontairari asiera ematen dioten itz ura: *Ante diem festum Paschae*. Pazkua pestaren aurreko egunian. Irakurri ziotenian, asi zan bera David Errege santuaren eun ta berrogei ta bat garren salmua esaten onela: *Voce mea ad Dominum clamavi*. Nere itzarekin deitu diot Jaunari. Salmo eder onen azken itzak bukatu zituan esanaz: *Me expectant justi, dones retribuas mihi*. Begira dauzkat anima justuak, nola sariztatuko nazun.» Itz ezin ta ederrago oekin egatu zan San Franzisko pobrien Aita-lenaren anima garbiya zeruronz, libratu rik gorputzeko itxitegitik, Jaun-

goikuaren arpegi ederra ikustera; irebazi zituan merituen sariya artutzeraz. Au gertatu zan milla berreun ta ogei ta seian, Urrillaren lauan, larunbat illunabarrian, bere konbersiotik ogeigarrenian, Ordena asi zuanetik emezortzigarrenian, zauri santuak zituanetik irugarrenaren asieran.

ILL ONDORENGO ZENBAIT GERTALDI

Ill zan Aita-lena, eta sartu zan zeruan, bera baño lenago ill ziran semiak bide-lagun zituala. Ai ura sarreraren ederra eta opagarria! Lurrian, lur-gorrian larru-gorrian etzanik, nai izan zuan ill, gurutzeko arbola iñaustuan gorri ill zana moduren batian iduritu nairik. San Buenabenturak digu adiarazten, nola bere Ordenako seme batek ikusi zuan San Franziskoren anima izar dizdiazalle baten gisan, odei txuri baten gañ beste guztien artian argiagua zerura zuzen igotzen, aditzera eman nairik bezela, guri bere santutasun erakoi ta birtute txit garaikua.

Tierra-laborko (lur-landuko) Probintziala, Asisko anai Agustin gizon prestua, ia illian ta itzik gabe zeguala, ustez uste gabe asi zan esaten: «Itxoron, nere Aita, itxoron niri; ni ere zurekin nua.» Eri-zaiak esan zion: «Zergatik diozu ori?» «Zer? Ez dezu ikusten gure Aita-lena nola dijuan zerura?» Une berian illik gelditu zan anai Agustintin, ta bere animak jarraitu zion San Franziskoren animari, Aita-semiak elkarrekin zeruan sartzeko.

Denbora artan Asisko Obispo jauna arkitzen

zan Gargano mendian, San Migel Aingeruari albiste egitera juana. Santua agertu zitzaion, eta esan ziozkan itz oek Obispuari: «Mundua utzirik, zerura nua.»

GORPUTZ SANTUAREN OBI-EMATIA

Andre Jakobak eramandako jantziarekin estali zuten, garbituta, Franziskoren gorputz santua. Zuri ederrian bezela, biguntasunian aur baten gorputzaren antza artu zuan San Franziskorenak, ill ondorian. Lenago beltzuntza zana, gelditu zan zuri-gorruntz. Ikusten ziran, bere esku txurien erdian eta oñetan, iltze-buru beltzak, burniaren gisa; alako moduz ze, alde batetik kalkatu ezegezoz luzatzen ziran beste aldera. Bere saietsian berriz arrosarik ederrenaren antzeko zauria ikusten zan, guztien begiak arritutzen zituana. Izan zan orduan gizon bat Jeronimo zeritzona; onek adi-turik zaurien kontua etzuan sinistatu izan nai. Gudatarra zan ta siniskaitza. Juan zan ura ere gorputz santua ikustera: ikusi zuan ta ukitu ere bai, beste orduz Santo Tomas batek bezela. Ikusta, ukitzia ta sinistatzia bat-bateko gauza izandu zan guztiya.

Larunbata-arratsa, gorputz santuaren inguruan, izan zan dena kantu ederrezko batzarra. Beraz eldu zan San Franziskoren gorputza obian sartzeko eguna. Igande-goizian Asis guziak jo zuan Porziunkulara. Jator oneko gizonak artu zuten airian gorputz santua. Asko jende negarrez, pozaren aundiz, aberastasun aundi ura beren artian zutelako. Batzuek ostu berdiak eskuan, bes-

tiak argiak, danak kantuz Jaungoikua alabatzen, miragarria dalako bere santuetan. Era onetan eldu ziran bidez, Santa Klara arkitzen zan San Damiano moja-eliz-etxera. Ill baño len ongi etorri ona egin izan oi zienari, ill onduan oraiñ egin zien txit ederra beren Aita-len maitiari. Errespetuaren aundiz muñ egiten zioten denak, eta pozaren aundiz negar. Klarak nai izan zion atera oñetako iltze bat Santuari; baña, alegiñak egin arren, etzuan logratu ateratzia. Zapitxo bat busti zuan, Santuaren zauriak iltze gogorra mugitzian eman zuan odoletan. Zapitxo ura gorde zuan arretaz, oroimengarri baliotsua bezela. Eman zioten obia San Jorgeko elizan, Santuari zegokion onra osuarekin.

SAN FRANZISKO ZERUAN SANTUEN ARTIAN ERABAKITZEN DU AITA SANTUAK

Anai Eliasek adiarazi zion Ordena guztiari Aita-lenaren ill-berria txit itz biotz ukigarriekin, agertzen zuala bere biotzeko pena ezinta izkuntza ederraguan. Milla berreun ta ogei ta zazpian ill zan Aita Santu Honorio irugarrena, amar urte ta zortzi illabetian Eliza gidatu onduan. Bigaramunian Ugolino Kardinala, San Franziskok aurretik aditzera eman zuan bezela igarliaren espirituarekin, izendatu zuten Aita Santu, ta artu zuan Gregorio bederatzigarrenaren izena. Aita Santu onek kanonizatu edo Santuen artian izendatu zuan gure Aita-len San Franzisko, bi urte ill zanetik igaro baño len. Beragatik biar diogu

deitu berari gere animako biartasunetan, ta zilegi bada gorputzekuetan ere bai, iritxi dezagun, Santu aundi onen bitartekotasunaz baliatuz geon animen betiko zori ona. *Ala izan dedilla.*

AD MAJOREM CRUCIFIXI GLORIAM

SAN FRANZISKOK EGIN ZUAN
EGUZKIYAREN KANTUBA

1. Jaun txit goiko, ona eta guzia dezakezuna,
Zuri dagozkitzu onrak, zuri gloria ta alabantzak;
eta dira zuriak bendizio guztiyak.

Ezta gizonik zu izendatziaren diño danik.

2. Izan dedilla alabatua Jaungoiko gure Jauna
[kriaturakgatik

batez ere anai eguzkiagatik;
zeñak argi egiñik egiten du eguna.

Eta da txit ederra eta sutargi ona.

Da, Jauna, zure iduriaren ispillua.

3. Izan dedilla alabatua nere Jauna
arreba illargia eta izarrakgatik;
zeñak jarri zinituan zeruan eder ta argiak.

4. Izan dedilla alabatua nere Jauna
anai aiziaz, airiaz, odeiaz ta lañuaz,
otz garbiaz ta denbora guziaz,
zeñekin ematen diezu bizitza biziya dutenai.

5. Izan dedilla alabatua Jauna arreba udagatik
zeña da baliosua, beetia, maitagarri ta garbiya.

6. Izan zaite alabatua, Jauna, anaia suagatik,
illunian argi egiten digulako;
ederra, gustagarria, sendua ta indartsua dalako.

7. Izan zaite alabatua, Jauna, lurra gure amaga-
 Itik,
 gañian gauzkalako ta jan-edana ematen digulako,
 belar, lore ta prutu onak ematen dizkigulako.
8. Izan zaite, Jauna, alabatua, gaitzak eta ezin
 [egiñak eramaten dituztenaz,
 txarkeriak, Zu zeranagatik, barkatzen ditubenaz.
 Zorionekoak paketsuak, izango diralako Zutaz ko-
 Iroatuak!
9. Izan zaite, Jauna, alabatua gorputzeko erio-
 Itzagatik,
 zeñagandik bizirik dagonik ezta igesiko duanik.
 Pekatuko eriotza txarra dan bezela,
 da zorionekua zure naia egin duenarena.
 Bigarren eriotzak eztio oni gaitzik egingo.
10. Alaba, ta bedeinka dezatela denak Jauna,
 eta serbi dezatela bera umill, eskerrak emanaz.

ARKIBIDEA

Itzaurrea	7
Eskeintza	15
Irakurleari itz bi	17

I'go. BURUA

Santuaren jaiotza	22
Franziskoren lenbiziko izena	24
Nundik duan Franziskoren izena	25
Franzisko eskola-mutill	26
Nundik sortu zan semiarenganako aitaren aserria	26
Franzisko urrikaltzen da pobriakin	27
Franziskori agertzen diote zeru-lurrak beren naitasuna	27

2'gn. BURUA

Asten da munduaz aspertzen	30
Soñ berriarekin estaltzen du guda-gizon baten gorputz gorria	30
Bere konbersiua	31
Jaungoikuagatik oñazpiratzen ditu gizonen erresetu ta munduaren esamesak	33

3'gn. BURUA

Guzia ematen da animako gauzetara	35
Laztandutzen du leguen-artsu bat	36

Agertzen zaio gurutzean Jesus ta alaitzen du	37
Franziskoren pobrien ta erien alderako amoriua	37
Infernua abiatzen da gerran Santuarekin	40
Jesukristok itzegiten dio gurutzetik	41

4'gn. BURUA

San Damiango eliza berritzeko saltzen ditu oialak	43
Franzisko bere aitaren igesi	45
Sartzen du aitak itxian eta amak idikitzen dio atia	46
Franzisko bere aitarekin Obispuaren aurrian ...	47
Jotzen du Erroma; biurtzen da Asisa eta ekiten dio San Damiango eliza berritziari	49
Eskatzen du atez-ate Asisen	51
Aitaren ta anaiaren despreziuak nola zituan eramaten	52
Erri guziyak azkenik maitatzen du Franzisko eta laguntzen diote San Damiango eliza bukatzen	53

5'gn. BURUA

Antolatzen ditu San Pedroren eliza eta Santa Maria Aingeruena	55
Ezagutzen du Franziskok Jaungoikoaren naia	56
Asten da Jesusen antzera jendiari zeruko bidia erakusten	57

6'gn. BURUA

Artzen ditu lenbiziko ikasliak	59
Enperadore Oton laugarrenari adiarazten dio Santuak etorkizun txar bat	64
Alaitzen ditu Franziskok bere ikasliak	65

Prestatutzen ditu bere semien biotzak eta denak irteten dira munduaren lau aldetara ...	66
Artzen ditu ikasle berriyak	68

7'gn. BURUA

Izkiribitzen du Santuak lenbiziko erregla ...	70
Franzisko bere ikasle guztiekin Erroman ...	71
Itzegiten du Aita Santuarekin	72
Baimentzen du San Franziskoren erregla Inozentzio Irugarrenak	73
Biurtzen da Rivo-tortora	76
Zerua dirudi Rivo-tortok	77
Predikatzen du Franziskok Asisko eliza nagusian txit frutu onarekin	78

8'gn. BURUA

Ematen diote Porziunkula	80
Jesus eta Maria agertzen zaizka	81
Rivo-tortotik aldatzen dira Porziunkulara	81
Franziskoren semiak zabaltzen dira mundura	83
Igarotzen du garizuma ogi-erdi batekin	83
Juan Parenteren konbersiua	85
Quintabalko anai Bernardo	86

9'gn. BURUA

Asisko Klararen jatorria, ta bere aurreneko urtiak	89
Artzen du Klarak Franzisko bere espirituko gidari	91
Agurtzen du betiko mundua	92
Klarari jarraitzen dio bere aizpa Inesek	94
Klara eta Ines jartzen ditu San Damianen Aita-lenak	96

10'gn. BURUA

San Franziskoren duda bat	98
Predikatzen die txoriei	100
Karidadezko lan miragarri bat	100
Predikatzen du Bevañan eta Alvianon, egiten dituala mirari aundiyak	102
Franzisko Erroman	104
Itzultzen da berriro Asisa eta sartzen da itsasuan Siriarako asmuan	105
Bersolarien erregerekin gertatu zana	106
San Franziskoren semiak lapur-etxian	107
San Franzisko gaizkitutzen da	108
Franziskoren gaitz ondoko egunak	109
Galai baten kontaira	110
Franziskoren eramankizuna; ta eritasunaren erdian bere naia animak salbatzeko	111
Franzisko eriaren bigarren itz-aldia	112

11'gn. BURUA

Aita-len Santua jartzen da Españiarunzko bidian	113
Gurutze santuaren indarra	113
Galai bat	115
Franzisko eta Konde Orlando	115
Franzisko Imolan	118
Nola zeruak lagundu zien gau illun batian ...	118

11'gn. BURUA

San Franzisko sartzen da Españan	120
San Franzisko Rocaforten	121
San Franzisko Logroñon	121
San Franzisko Vitorian	122
Donostiatik jotzen du Galitzia	124

Kotolai ikazkiña eta San Franzisko	126
Aingeruak agintzen dio San Franziskori itzuli de- dilla Italiara	128
San Franzisko Rocaforten	129
San Franzisko Ilerdian	130
San Franzisko <i>i-Bar-cel-ai</i> -onan	131
Egiten dio Santuak agur Españari	133

13'gn. BURUA

San Franzisko Italian Alejandriako errian	136
Kapoiaren kontaira	136
Alejandriatik dijua Asisa	138
Anaia Siple	140
Asistik dijua Aita len Santua Alverna mendi- runz	142
San Franzisko Kiusin	145
San Franzisko Alvernako mendiyan	146
Otsua zeritzan lapur baten konbersiua	148

14'gn. BURUA

Uzten du San Franziskok Alvernako mendi- ya Erromara juateko	150
Fabrianon Franzisko	150
Ardozko iturria	152
San Franzisko Osimon	152
Inbidia	153
Juzgo txar bat kastigatua	154

15'gn. BURUA

Letrango laugarren billera	156
Gure Aita-lena dijua billera artara erreglaren baimena sendotu nairik	157
Aita Santo Domingo	158

Ordenako lenbiziko billera adiazten du	159
Abiatzen da prestamenak egiten billera arta- rako	160

16'gn. BURUA

Ordenako billera	163
Animatzen ditu bere semiak predikatzera bia- li aurrian	165
Jartzen da bera Erromarunzko bidian	166
San Franzisko ta anai Maseo	168
Santo Domingo eta San Franzisko	170
Anjel, Domingo eta Franzisko	171
San Franzisko ta iru dontzellak	173
San Franzisko Senako bidian	174

17'gn. BURUA

Kardinal Jaun Ugolino eta gure Aita-len Fran- zisko	175
Ugolino Kardinala Ordenako anparatzalle izen- datzen da	176
San Franzisko eta otsuak	180
Reatiko ibarraren lau aldetako mendizkatan egiten ditu lau etxe-santu	180
San Franzisko Santa Maria Aingeruenian	184

18'gn. BURUA

Ordenako bigarren billerarako egiten ditu pres- tamenak	186
San Franzisko maisu ona	187
San Franzisko ta Ugolino Kardinala Perusan	189
Ordenako bigarren billera nagusia	190
Santuaren itz-aldiak	192
Diabruen batzarra	195

Ugolino Kardinala, anai Elias eta San Franzisko	196
Artzen ditu Santuak bitarteko txit onak bere semien alde	199
Billera nagusian egin ziran iru erabakitze eder	200

19'gn. BURUA

Billera bukatzian jartzen da bakoitza agindu zaion bidian	203
San Franzisko eta mojak	204
San Franzisko eta anaia Esteban	206
San Franziskoren semiak Aprikan	207
San Franzisko eta galai bat	209

20'gn. BURUA

Aita-lena eta bere ikasliak sortalderunzko bidian	211
San Franzisko Damietan	213
San Franzisko eta Meledin sultana	215
San Franziskoren egitiak Ejiton	218
San Franzisko Jerusalemenean	221
San Franzisko Mendi-beltzen	223

21'gn. BURUA

Anai Eliasen dotrina eta bere espiritua	224
Anai Esteban bialtzen diote Aita-lenari eta erabakitzen du Santuak Italia jotzia	226
Santua bere semiekin ta txoriak Venecian	227
San Franzisko Bolonian eta Aita Santo Domingo	228
San Franzisko eta Ugolino Kardinala	230
San Franzisko eta Straquiako anai Juan	232

21'gn. BURUA

San Franzisko ta Kardinal Jauna Camaldulan	233
Anai Elias ta San Franzisko	235
Anai Elias ta Aingerua galai baten itxuran ...	236
Ikusten du oraziuan gizon antz misteriotso bat	238
Ordenako billera	240
San Franziskoren umilltasuna	241
Cataneoko anai Pedro ta Ordenako Aita-len San Franzisko	242
Etsaiaren engañoak	244

23'gn. BURUA

San Franziskoren semiak dira martirizatuak Ma- rruekuetan	248
San Antonio Paduakua	258

24'gn. BURUA

San Franziskoren semiak Inglatierran	261
Akas aurra	262
Cataneoko anai Pedro	263
Ordenako billera nagusia	265
Zenbaterañoakua zan San Franziskoren obedi- entzia	267

25'gn. BURUA

San Franziskoren Irugarren Ordena	270
Anaia Lukesio	272
Franzisko berriro saiatzen da animak salbatze- ko lanian	274

26'gn. BURUA

Porziunkulako barkamenaren asiera	276
--	-----

San Franzisko Aita Santu Honorio Irugarrena- ren aurrian	278
Logratutzen du barkamen osua Erroman	279
Jesukristok adiarazten dio noiz irebazi biar dan barkamen au	281
Zazpi Obispok azaltzen diote munduari Porziun- kulako barkamen osua	284

27'gn. BURUA

Ematen du itza bere bizi guztiko gogoratze, itz ta egitiak egiteko beti Jaungoikua serbitzeko eta Bere gloriarik aundienerako	288
Garaitzen du etsaia	290
San Franziskoren urrikalmentua	291
San Franziskoren umilltasun aditu ez bezela- kua	292
Beste gertaldi bat	295
San Franzisko ta bildotsa; txirriska eta txori kantariya	298

28'gn. BURUA

San Franzisko eta Santa Klara	301
Anai Eliasi adiarazten dio Santuak etorkizun txarra	302
San Franziskoren doaya, gauzarik ezkutuenak jakiteko	305
Anai Daniel ta aren lagunen martiriua	306

29'gn. BURUA

San Franziskoren misio aundiya	312
Artzai bat eta arkumetxo bat Santuarekin	312
San Franzisko eta Rubiesko Mateo Jauna	314
San Franzisko Gaetan	316
San Franziskok piztutzen du aur bat ill-egosia	317

Boltsaren kontaira	318
San Franzisko Garganoko mendian	320
Gubioko otsuaren kontaira	320

30'gn. BURUA

San Franzisko ta San Antonio	325
Alesko Alejandro	327
Adiarazten dio Jesukristok San Franziskori la- burtu zezala erregla	329
Bigarren erregla	330
San Franzisko ta anai Elias bere lagunakin ...	330
San Franzisko ta bere seme leialak	333
Honorio Irugarrenak baimentzen du San Fran- ziskoren erregla	335
Erreglaren baimen sendogarria	336
Erreglaren gordetzalle leialen pribilejiuak ...	337

31'gn. BURUA

San Franzisko diabruaz azotatua	340
Juan Velita eta San Franzisko Grekion	341
San Franziskoren bizitzako pitxi batzuek ...	345
Santa Klararen erregla	346
San Franziskoren espiritua	347
San Franziskoren bederatzi garizumak	350
San Franziskoren bendiziua	351
Urre gorrizko iru diruak	351
Diabruaren errabia	353

32'gn. BURUA

Jesukristo Serafin baten antzarekin agertzen zaio San Franziskori gurutzian josirik	354
San Franziskoren gorputza bere zauri Sagra- duakin zauritutzen du Jesusek	356

San Franziskoren zaurien egia da ezin uka dittekiana	357
Uzten du San Franziskok Albernako mendia Porziunkulara juateko eta bitarteko mirariak	360
San Franzisko jendiaz onratua	363

33'gn. BURUA

San Franzisko eria	366
Jakiten du Santuak salbatuko dala	368
San Franzisko eta sendatzallia	369
San Franziskoren aditu ez bezelako umiltasunezko egite miragarri bat	371
Pitxi batzuek	373
Suak errespetatzen du Santua	375
Santuaren negarrak	376

34'gn. BURUA

Jaungoikuaren aserria	378
Ze itxusia dan diabrua	379
San Buenabentura aurra bedeinkatzen du San Fanziskok	380
San Franzisko Asisko Obispuaren jauregian ...	381
Bedeinkatzen ditu bere ordenako semiak	382
Zein gozua zan San Franziskoren espiritua ...	384
Zein aundia zan San Franziskoren eramankizuna	384

35'gn. BURUA

Ill baño len bedeinkatzen du San Franziskok anai Elias	386
Berak agintzen du eraman dezatela Porziunkulara	387
Bedeinkatzen du ill baño len anai Bernardo ...	389

36'gn. BURUA

San Franzisko Aita-lenaren azken eguna	391
Ill ondoingo zenbait gertaldi	395
Gorputz Santuaren obi-ematia	396
San Franzisko zeruan Santuen artian erabaki- tzen du Aita Santuak	397
San Franziskok egin zuan eguzkiyaren kantua	399

ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. *R. Artola*: SAGARDOAREN GRAZIYA (*Aitua*).
2. *M. Soroa*: GABON, AU OSTATUBAI, ANTON KAIKU. (*Aitua*).
3. *F. Apalategi, S.I.*: EUSKAL MUTILLAK AR-METAN, I.
4. *Pepe Artola*: USTEZ LAGUNA DETAN.
5. *P.M. Urruzuno*: EUSKALERRITIK ZERURA.
6. *T. Alzaga*: RAMUNTXXO (*Aitua*).
7. *R. Azkarate*: GALTZAUNDI.
8. *A. Apaolaza*: PATXIKO TXERREN.
9. *B. Iraola*: OROITZAK.
10. ERREGE EGUNEKO BERTSO SAYOA (1962) (*Aitua*).
11. *P. Larzabal*: BORDAXURI (*Aitua*).
12. *Bilintx*: BERTSO TA LAN GUZIAK.
13. *M. Izeta*: DIRUA GALGARRI.
14. *P. Larzabal*: IRU ZIREN.
15. EZKONTZA GALDUTAKO BERTSOAK, I.
16. *A. M.^a Zabala*: GABON GAU BAT.
17. *A. M.^a Labayen*: MALENTXO, ALARGUNI
- 18-19. *A. Zavala, S.J.*: TXIRRITA.
20. *F. Goñi, S.I.*: LURDESKO GERTAERAK.
21. *P. Larzabal*: HERRIKO BOZAK edo NOR AL-KATE.
22. BERTSOLARIEN TXAPELKETA (30-XII-1962).
23. AIZKOLARIAK.
24. *F. Imaz*: BERTSO GUZIAK.
25. *A.P. Iturriaga*: JOLASAK.
26. *A. M.^a Zabala, A. Larraitz, Mir*: PERIYAREN ZALAPARTAK.
27. AZPEITIKO PREMIYOAREN BERTSOAK.
28. *B. A. Moguel*: IPUI ONAK.

29. *T. Alzaga*: BURRUNTZIYA.
30. *G. Anduaga*: EGUNSENTIKO TXORIA.
31. *M. Soroa*: BARATZAN.
32. *M. Elicegui, A. Zavala, S.I.*: PELLO ERROTAREN BIZITZA.
33. *M. Elicegui, A. Zavala, S.I.*: PELLO ERROTAK JARRITAKO BERTSOAK.
34. *P. Larzabal*: SENPERE-N GERTATUA.
- 35-36. *J. V. de Echagaray*: FESTARA.
37. *A. Cardaberaz, S.I.*: EUSKERAREN BERRI ONAK.
38. *S. Salaverría*: NERONEK TIRAKO NIZKIN.
39. AMAR URTEKO BERTSO-PAPERAK.
- 40-41. *J. R. Zubillaga*: LARDASKETA.
42. *Uztapide*: NOIZBAIT.
43. BERTSOLARIEN TXAPELKETA (1-I-1965).
44. *P. Larzabal*: HILLA ESPOSATU.
- 45-46. *J. M. Satrústegui*: BORDEL BERTSULARIA.
47. *P. M. Urruzuno*: IRU ZIRI.
48. *P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe*: TEATRO ZAARRA.
- 49-50. *A. Zavala, S.I.*: PELLO ERROTAREN ITZALLA.
51. *P. M. Urruzuno*: UR-ZALE BATEN IPUIAK.
- 52-53. *G. Anduaga*: BERTSO-BILDUMA.
54. *A. Zavala S.J.*: PERNANDO AMEZKETARRA BERTSOLARIA.
55. *Basarri*: LAUGARREN TXINPARTAK.
56. *A. Zavala, S.J.*: UDARREGI BERTSOLARIA.
- 57-58. *C. Beobide, O.F.M.*: ASIS'KO LOREA.

